

Jagon bilduma

Argitaratutako lanak / Títulos publicados:

1. *Bertsolari txapelketa* 1982. 1983
2. *Iparragirre*, 1987
3. *Euskararen sustatzea. Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2018)*. 2018
4. MIQUEL GROS I LLADÓS
Recuperación del Euskera en Navarra. 2007
5. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz. Bigarren edizioa: zuzendua eta emendatua. 2018
6. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA/EUSKALTZAINDIA
Zenbait orientabide erregistroen trataeraz. 2008
7. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa. 2008
8. MIQUEL GROS I LLADÓS
El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009). 2009
9. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS
Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian. L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord. 2010
10. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA
Ikastola mugimendua. Dabilen berria. 2010
11. MIKEL ZALBIDE
Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespén-saioa. 2010
12. JUJE ETXEBARNE
Gramatika emendakinak. Zuberoako euskaraz. Bigarren edizioa: zuzendua eta emendatua. 2015
13. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA
El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha. El modelo Ikastola 1960-2010. 2011
14. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa. 2011
15. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS
Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian. Les jeunes, les loisirs et la langue basque en Pays Basque Nord. 2012.
16. PAULA KASARES
Euskaldun bazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta bizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan. 2013
17. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa. Euskaltzaindiaren XXI. Jagon Jardunaldia. 2017
18. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Araba, euskaraz bidea egiten. 2018
19. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Euskara Batua eta Ipar Euskal Herria: 1964-2018. 2019
20. EUSKALTZAINDIA. EZKERRABERRI FUNDAZIOA
Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak. 2020
21. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Hizkuntzak gutxiagotuak jagon, euskaraz bizi. 2021
22. EUSKALTZAINDIAREN XXIV. JAGON JARDUNALDIA
Arlo sozioekonomikoa euskararen biziberritzean
EUSKALTZAINDIAREN XXV. JAGON JARDUNALDIA
Entitate pribatuak: nola eman zerbitzua euskaraz herritar eleaniztunei? 2021

Hizkuntzaren erabilera eragina duten gizartearen alde guztiak biltzen ditu JAGON Sailak, bai eta hiztunek bizi dituzten kultura arauak, itzaropenak eta testuinguru ere. Euskaltzaindiaren Jagon Saileko *JAGON bildumak* euskararen inguruko hainbat ikerketa eta saiakera hartzen ditu, hizkuntzaren erabilera praktikoa aztertu, eta euskara sustatzeko eta babesteko.



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Arlo sozioekonomikoa euskararen biziberritzean
Entitate pribatuak: nola eman zerbitzua euskaraz herritar eleaniztunei?

EUSKALTZAINDIAREN XXIV. JAGON JARDUNALDIA

Arlo sozioekonomikoa euskararen biziberritzean

EUSKALTZAINDIAREN XXV. JAGON JARDUNALDIA

Entitate pribatuak: nola eman zerbitzua euskaraz herritar eleaniztunei?



EUSKALTZAINDIA

Liburu honetan, 2019an eta 2020an egindako jardunaldietako hitzaldiak bildu ditugu, bi jardunaldiak arrunt lotuak daudelakoan, biak ere arlo sozioekonomikokoak baitira. 2019ko XXIV. Jagon Jardunaldia *Arlo sozioekonomikoa euskararen biziberritzean* izenburupean burutu dugu, eta XXV.a, berriz, *Entitate pribatuak: nola eman zerbitzua euskaraz herritar eleaniztunei* izenarekin. Arlo sozioekonomikoaren inguruko gogoeta eta hausnarketa egin nahi izan dugu.

EUSKALTZAINDIAREN XXIV. JAGON JARDUNALDIA
ARLO SOZIOEKONOMIKOA EUSKARAREN BIZIBERRITZEAN

EUSKALTZAINDIAREN XXV. JAGON JARDUNALDIA
ENTITATE PRIBATUAK: NOLA EMAN ZERBITZUA EUSKARAZ
HERRITAR ELEANIZTUNEI?

JAGON SAILA
Sustapen batzordea

BURUA
Sagrario Aleman

IDAZKARIA
Erramun Osa

KIDEAK
Jon Aizpurua
Erramun Baxok
Jean-Baptiste Coyos
Andres Iñigo
Patxi Juaristi
Santiago Larrazabal
Gotzon Lobera
Iñaki Martínez de Luna
Rosa Ramos
Patxi Saez Beloki
Patxi Uribarren
Andres Urrutia
Ibon Usarralde

AHOLKULARIAK
Xabier Erize
Juan Karlos Etxegoien «Xamar»
Manuel Maria Ruiz Urrestarazu
Bernardette Soulé
Arabako ordezkaria
Gipuzkoako ordezkaria
Nafarroako ordezkaria
Iparraldeko ordezkaria

EUSKALTZAINDIAREN XXIV. JAGON JARDUNALDIA

**ARLO SOZIOEKONOMIKOA
EUSKARAREN BIZIBERRITZEAN**

EUSKALTZAINDIAREN XXV. JAGON JARDUNALDIA

**ENTITATE PRIBATUAK:
NOLA EMAN ZERBITZUA EUSKARAZ
HERRITAR ELEANIZTUNEI?**

Sagrario Aleman - Jean-Baptiste Coyos (arg.)



EUSKALTZAINDIA

BILBO / BILBAO

2021

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la Biblioteca Azkue de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la Langue Basque:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Hizkuntza-orrasketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© EUSKALTZAINDIA / R. A. L. V. / A. L. B.

Diseinua: Ikeder

Aurreinprimatzea: Composiciones RALI, S. A.

Inprimatzea: G.Z. Printek, S. A. L.

ISBN: 978-84-122988-1-9

Lege-gordailua: BI 01192-2021

AURKIBIDEA

Sarrera	
<i>Sagrario Aleman eta Jean-Baptiste Coyos</i>	II

EUSKALTZAINDIAREN XXIV. JAGON JARDUNALDIA

ARLO SOZIOEKONOMIKOA EUSKARAREN BIZIBERRITZEAN

Vitalité langagière : quelques éléments d’analyse économique	
<i>François Vaillancourt</i>	I7

Lan-munduaren estrategikotasuna euskararen biziberritzean

Euskararen egoera Nafarroako arlo sozioekonomikoan: lorpenak eta hutsuneak	
<i>Mikel Arregi</i>	27

Laneko hizkuntza, herriaren zuntza	
<i>Eneko Bidegain</i>	33

Euskararen plan estrategikoa eremu sozioekonomikoan 2019-2023	
<i>Miren Dobaran</i>	39

Berrindartu eta jauzi: talde analisisa euskararen prozesuaz	
<i>Mikel Irizar</i>	43

Lan eremuko <i>haitza gorri</i>	
<i>Jon Sarasua</i>	5I

Euskara arlo sozioekonomikoan: esperientzia arrakastatsuak

Aspace Bizkaia: lehenengo Euskara Plana (2017-2019)	
<i>Ane Aurtenetxe eta Nerea Mandiola</i>	63

CAF: igo euskararen trenera <i>Joxe Begiristain</i>	67
Laboral Kutxa: euskararen iraganaz, orainaz eta etorkizunaz <i>Iñaxio Garro</i>	73
Oreka IT: Esperientzia arrakastatsua? <i>Iraitz Pérez de Goldarazena</i>	77
Euskararen garapena Fagor Taldean <i>Leire Okarantza</i>	81
Euskarak arlo sozioekonomikoan dituen erronkak, protagonisten ikuspegitik	
Euskara lan-munduan sustatu: baldintza eta aukera berriak <i>Xuria Arza (UGT Euskadi)</i>	89
LanEus ildo estrategikoa, lan-mundua euskalduntzeko ildo sindikala <i>Amaia Aurrekoetxea (LAB)</i>	93
Euskaraz lan egiteko bidean, euskara eskubide <i>Pello Igeregi (ELA)</i>	99
Lan-munduan, klase arrakalarik gabe, euskara sustatzeko erronkak <i>Sabin Zubiri (CC. OO. Euskadi)</i>	103
Industriaren Euskal Plataforma, euskal enpresen lehiakortasunaren euskarri <i>Jasone Aretxabaleta (SPRI)</i>	107
Bizkaiko Abokatuen Elkargoa euskara sustatzen <i>Aitzol Asla</i>	111
Bizkaiko Psikologoaren Elkargo Ofizialaren “Euskararen erabilera sustatzeko plana” <i>Iker Atxa eta Fernando Olabarrieta</i>	115
Kudeaketa aurreratua eta hizkuntzen kudeaketa <i>Galder Lasuen (Euskalit)</i>	121
Ekonomisten Euskal Elkargoaren Euskara Komunitatea <i>Asier Vallejo</i>	129
Euskara eta lan-munduratzeara <i>Eñaut Zubeldia eta Maria Leonor Jalon (Lanbide)</i>	133
Euskara arlo sozioekonomikoan: oraintxe dugu unea <i>Maddi Etxebarria, Leire Solozabal, Mikel Urdangarin eta Elias Zumalde (Elbuiyar, Artez, Abize-AEK, Emun)</i>	143
Ondorioak	
<i>Sagrario Aleman eta Jean-Baptiste Coyos</i>	153

EUSKALTZAINDIAREN XXV. JAGON JARDUNALDIA

ENTITATE PRIBATUAK: NOLA EMAN ZERBITZUA
EUSKARAZ HERRITAR ELEANIZTUNEI?

Elebide: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua. Hamabost urteko ibilbidea <i>Joseba Lozano</i>	159
EAEko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko uztailaren Ieko 123/2008 Dekretua eta bilakaera <i>Miren Edurne Pérez de San Román eta Josune Zabala</i>	165
Esperientziak	
Kutxabank: nondik gatozen, non gauden eta nora goazen <i>Ainhoa Arruabarrena eta Imanol Miner</i>	181
Goienar, argindar herrikoi eta euskalduna sortzeko tresna <i>Asier Arzuaga</i>	189
Saltoki handietan euskaraz: El Corte Inglésen erronka <i>Iratxe Zuazola</i>	195
Euskaltel: euskararekiko dugun konpromisoak enpresa gisa identifika-tzen gaitu <i>Eva Castro</i>	201
Ondorioak	
<i>Sagrario Aleman eta Jean-Baptiste Coyos</i>	207

XXIV. eta XXV. Jagon Jardunaldiak

SARRERA

Hizkuntza zaintzea, eta euskararen erabilera sustatzea eta erabileraren eremuak zertan diren ikustea dagokio, besteak beste, Euskaltzaindiaren Jagon Sailari eta, hortaz, bertan dagoen Sustapen batzordeari. Egiteko horretan, urtero, gai monografikoren baten inguruan jardunaldiak antolatzen ditu Jagon Sailak.

Liburu honetan, 2019an eta 2020an egindako jardunaldietako hitzaldiak bildu ditugu, bi jardunaldiak arrunt lotuak daudelakoan, biak ere arlo sozioekonomikoak baitira. 2019ko XXIV. Jagon Jardunaldia *Arlo sozioekonomikoa euskararen biziberritzean* izenburupean burutu dugu, eta XXV.a, berriz, *Entitate pribatuak: nola eman zerbitzua euskaraz herritar eleaniztunei?* izenarekin. Arlo sozioekonomikoaren inguruko gogoeta eta hausnarketa egin nahi izan dugu.

Aurretik ere nolabait aztertua genuen gai hau, kontsumoaren ikuspegitik besterik ez bada ere, 2008ko Jardunaldian. EAEn Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza-Eskubideei buruzko I23/2008 Dekretua onartu zela-eta egindako XIII. Jagon Jardunaldian. Orduko txostenak irakurtzeko, begiratu *Euskera-LIII*, 2008, 3.

Euskara indarberritzeko asmotan ahalegin handiak egin izan ditugu. Orain arte, bereziki, irakaskuntzan, helduen euskalduntze eta alfabetatzean, administrazioan, hedabideetan, kulturean eta literaturan jarri izan dugu arreta. Horietan aurrera pausoak egin ditugu, halere, ez dugu inondik ere normalizazioa erdietsi; bide luzea dugu egin beharra. Eta beste eremu askotan oraintxe hasi gara euskalduntzeko planteamenduak egiten. Esaera zaharrak *hasiak egina dirudi* esan arren, *eginetik* urrun gaude oraingoz, irudikatu nahian gabilta, ez besterik.

Bazter utzia izan dugun arloetako bat horixe izan da, sozioekonomikoa. Jabetu gara hori dela, hain zuzen ere, munduaren motor nagusia eta, erdaraz funtzionatzen duela eta erdaltzalea dela, orokorrean; bizitzaren parte handia hortxe egiten dugula eta erdaraz ari garela. Horrexegatik euskalgintzako eragileak eta enpresa-munduko bakar batzuk ere euskalduntzeko planteamenduak bideratzen hasi dira. Euskaraz jarduteko baldintzak hobekitu dira: ezagutza handitu da, euskaldun alfabetatu gehiago dago, profesionalak prestatuago eta gero eta handiagoa da euskarazko zerbitzuen eskaria.

XXIV. eta XXV. Jardunaldiak horretan lagungarri izanen direlakoan antolatu dira. Hausnarketarako, esperientzien trukerako eta elkarlanerako foro edo gunea eskaini, nahi izan dugu, sentsibilitate eta ikuspegi desberdinak bilduz: batetik, arlo

sozioekonomikoak euskararen biziberritze-prozesuan duen funtzioaz jarduteko, eta, bestetik, euskarak arlo sozioekonomikoan dituen etorkizuneko erronkei buruz hausnartzeko.

XXIV. Jardunaldian, hizkuntza gutxiagotuak eta arlo sozioekonomikoa lotuaz ikuspegi orokor eta teorikoa azaldu zigun Vaillancourt jaunak, Montrealgo Unibertsitateko irakasleak, *“Déterminants du statut économique d’une langue : politiques publiques, choix privés et expérience du Québec”* hitzaldian.

Ondoren, euskararen biziberritzean lan-munduaren estrategikotasuna izan zuten hizpide bai administrazio nagusietako arduradunek, bai euskalgintzan ezagunak diren zenbait aditu eta ikertzailek ere. Euskal Herriko hiru administrazioetan zertan ari diren eta aurrera begira zein asmotan diren ezagutu dugu jardunaldian ez duzu, ordea, tamalez, hemen jaso Ipar Euskal Herriko arduradunarena, Joseba Erremundegirena. Miren Dobaran eta Mikel Arregirenak irakurgai dituzu. Araudi eta pizgarriak jarri dituzte EAEn, beste bi administrazioetan frankoz ere atzerago daude. Irizar, Bidegain eta Sarasua ikertzaileak arrazoibide diferenteetatik abiatu ere, ondorio berera iritsi dira; euskararen biziberritzean arlo sozioekonomikoa estrategikoa da: “Lan-mundua euskalduntzeak emanen dio indarra eta prestigioa euskarari”. Esparru ez-formala eta arlo sozioekonomikoa dira bi palanka nagusiak euskal hiztun aktibo eta noranahikoak erdiesteko. Lan-eremua euskalduntzea antolagarria eta egingarria da.

Arlo sozioekonomikoan euskaraz lanean ari diren enpresa eta talde zenbaitek espe-rientzia arrakastatsuen berri eman digute ondoren. Bederatzi talde aritu dira jardunaldian eta horietako bost jaso ditugu hemen. Bederatzi horien artean bada denetarik, ez dira guztiak molde berekoak. Baditugu enpresa pribatuak, publiko-pribatuak, kooperatibak; handi eta ttikiak; bertako eta multinazionalak; gune soziolinguistiko oso desberdinetan ari direnak eta lurralde desberdinetakoak. . . Antzekotasunik ere badute, halere: gehienak enpresa gazteak edo berri samarrak dira eta ikuspegi berritzaileak dutenak betiere. Zuzendaritza eta langileen kontsentsuz egin diren plangintzak.

Bigarren egunean “Euskarak arlo sozioekonomikoan dituen erronkak, protagonisten eskutik” atalera pasatu gara.

Enpresari eta kontsumitzaile-elkarteak mintzatu zaizkigu lehenik, hemen aurkituko ez dituzun hitzaldiak. Ondoren langileen eskubideen defentsan —lana euskaraz egiteko eskubidea ere bada tartean— aritzen diren sindikatuek beren iritzia eta plangintzak azaldu dizkigute, eta aurrera begirako erronkak zein diren azpimarratu.

Lan-munduko protagonistekin segitu dugu eta lanbide-elkargoak eta enpresetan laguntzen aritzen diren SPRI edo Euskalit taldeak izan ditugu. Elkargoen artean, Bizkaiko Abokatuena, Bizkaiko Psikologoa eta Ekonomisten Euskal Elkargoa. Lan-munduarekin lotua dugun Lanbide ere gure artean izan dugu. Lana eta euskara aldagaiak uztartuz egin dituzten azterketen berri eman digu Lanbidekoak, jakina, EAEn egindako azterketa da.

Behin eta berriz, batzuek eta besteek, gero eta euskaldun hiztun gehiago dugula esan digute. Halere, galdera hauek segidan jin zaizkigu: Pertsona horiek ba al dute gero aukerarik euskaraz lan egiteko eta euskaraz ikasi bai, baina prestatuak al daude lanean euskaraz aritzeko? Lan-mundurako prestakuntza aski ematen diogu euskaraz unibertsitateetan, langileendako formazio ikastaroetan, lanbide heziketan? Zer eskaintza dute ikasle horiek praktikak euskaraz egiteko?

Azkenik, lantokietan hizkuntza-aholkularitzan ari diren enpresak izan ditugu gonbidatuak. Hogeit bat urteko esperientzia badute enpresa horiek lantokietan euskara planak egiten, jardunaldi hauetan entzun ditugun enpresetan, besteak beste. Hauxe ikasi omen dute egindako bidean: espazioak euskaldundu behar direla. Talde horiek diote: “Espazioak euskalduntzea posible da, eta horiek euskaldunduz pertsonak eta ingurua ere euskaldundu daitezke”. Eta beren txostenari izen hau jarri diote: *Oraintxe dugu unea*.

Protagonistak entzun ditugu. Babes juridikoa eta neurri pizgarriak eta baliabideak jarri behar dituzten administrazioak, enpresari eta kontsumitzaile-elkarteak, sindikatuak eta lanbide-elkargoak, eta baliabide teknikoak ematen duten enpresak.

Entzun ditugun gehienak ez dira Euskal Herri osoan ari, ordea, herri ikuspegi hori nork eta nola eman? Hizkuntza politika gaietan lankidetzan aritzeko konpromisoa hartu zutela Eusko Jaurlaritzak, Nafar Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak Hiruko Ituna sinatu zutelarik 2017an, aipatu digu Irizarrek. Eta gero gogorarazi digu hizkuntzaren esparruan badugula aukera bat Euskal Herria egituratzeko: Euskaltzaindia. Eta Euskaltzaindia egokia litzatekeela, administrazio bakoitzak gauzatuko duen hizkuntza-politikari ikuspegi estrategikoa eta osagai komunak eransteke.

2019ko jardunaldietan, arlo sozioekonomikoa euskararen biziberritzean ikusi dugu, euskaraz lan egiteko dugun eskubideaz. 2020koak, pandemiak jarritako mugekin egin behar izan dugun horrek, beste ikuspegi bat izan du, aurrekoaren osagarri, txanponaren beste alde, hau da, zerbitzuak eta produktuak euskaraz jasotzeko eskubidea.

Entitate pribatuak: nola eman zerbitzua euskaraz herritar eleaniztunei? Horixe XXV. Jardunaldiaren izenburua.

Eguna honelaxe eratu da: Lehenik Eusko Jaurlaritzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren ikuspegiak entzun ditugu. Ondoren, EAEko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko 123/2008 Dekretua eta horren bilakaera. Liburu honetan irakurgai dugu hori, gero esperientzien berri eman diguten lau taldeena dugun bezala (Kutxabank, Euskaltel, Goiener eta El Corte Inglés). Ez da, ordea, bukatzeko egin den mahai-inguruan esandakoa jaso.

Dekretua 2008an indarrean jarri zenez geroztik egindako ibilbide juridikoa eta dekretua gauzarazteko ipini diren baliabideak aztertzeaz gain, 2014an betetze-mailaz egin neurketa ere izan dute hizpide artikulua honetan. Neurketa hori kontuan izanik hartu behar izan zituzten neurri eta jarri dituzten baliabide berriak zein izan diren azaldu digute.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak ez dituzte maila berean bermatu horretara behartuak zeuden entitate guztiek. Betetze-maila altuena izan duen finantza sektoreko talde bat eta betetze-maila txikiagoa duen komunikazio sektoreko enpresa bat, eta oso maila baxuko betetze-maila duten energia eta merkataritzako beste bana aritu dira beren esperientzia jakinarazten.

Sektore horietako beste enpresendako eredugarri izan litezkeen Kutxabank, Euskaltel, Goiener eta El Corte Inglés zertan ari diren ezagutzeko parada izan dugu. Kontsumitzaile eta bezeroen eskubideak errespetatzen ez dituzten entitateek badute, bada, gurekin izan ditugun lau hauengan non begiratu eta non ikasi.

Sagrario Aleman

Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko burua

Jean-Baptiste Coyos

Euskaltzaindiko Jagon sailburua

EUSKALTZAINDIAREN
XXIV. JAGON JARDUNALDIA

ARLO SOZIOEKONOMIKOA
EUSKARAREN BIZIBERRITZEAN

VITALITÉ LANGAGIÈRE : QUELQUES ÉLÉMENTS D'ANALYSE ÉCONOMIQUE

François Vaillancourt
Professeur émérite en sciences économiques
Université de Montréal et fellow CIRANO
francois.vaillancourt@umontreal.ca

Résumé

Ce texte reprend quelques éléments clefs de la Conférence d'ouverture du colloque “Le domaine socio-économique et la revitalisation de la langue basque”, Académie de la langue basque, Bilbao, Novembre 2019.

Nous y traitons de trois points principaux. Le premier est le lien entre la vitalité linguistique et le capital dit économique; nous illustrons les concepts avancés par un ensemble de données portant sur le Québec. Le second est l'approche économique aux questions linguistiques. Nous indiquons que l'analyse à l'aide du concept du capital humain est la plus courante et rapportons des résultats qui indiquent la pertinence de l'analyse multivariée des écarts de revenus de travail entre groupes linguistiques. Finalement nous présentons comment la méthode de l'analyse bénéfices-coûts peut être utilisée pour évaluer et donc choisir des politiques linguistiques. Nous insistons sur l'importance de calculer le vrai coût des politiques linguistiques, soit leur coût marginal.

Laburpena

Testu honek, Bilbon, 2019ko azaroan izan zen *Arlo sozioekonomikoa euskararen biziberitzean* jardunaldiko irekiera hitzaldiko gako nagusiak errepasatu ditu.

Hiru puntu nagusi jorratu genituen. Lehena, hizkuntza bizitasuna eta kapital ekonomikoaren arteko harremana, horretarako Quebec-en jaso diren datu bildumetan oinarritu gara. Bigarrena, arlo ekonomikoa nola hurbiltzen den hizkuntza gaitara aztertzean datza. Giza kapitala oinarri modura erabiltzen duen azterketa da eraginkorrena eta, aldi berean, hizkuntza-taldeen arteko lan-errenten arteko aldean azterketa egitearen garrantzia adierazten duten emaitzak jakinarazi behar dira.

Azkenik, gure aburuz, mozkin-kostuen azterketa-metodoa egokia izan da hizkuntza politikak aukeratzeko orduan. Oso garrantzitsutzat jotzen dugu hizkuntza politiken benetako kostua eta kostu marjinala bereiztea.

Introduction

Nous traitons dans ce texte tout d'abord du concept de vitalité langagière avec illustration avec des indicateurs pour le Québec. Ceci fait, nous présentons l'approche économique aux questions linguistiques et indiquons comment mesurer correctement

la valeur des attributs linguistiques sur le marché du travail. Nous terminons par une initiation à l'outil d'analyse bénéfices-coûts appliqué aux politiques linguistiques, mettant l'accent sur l'importance de bien mesurer le coût supplémentaire d'une politique linguistique. Ces trois éléments peuvent être utiles aux décideurs linguistiques d'une société telle que celle d'*Euskadi*.

Vitalité langagière : Concepts et Indicateurs pour le Québec

Ce concept se définit selon l'UNESCO (2003)¹ par l'examen d'un ensemble d'indicateurs à savoir : 1) la transmission intergénérationnelle de la langue; 2) le nombre absolu de locuteurs; 3) la proportion de locuteurs dans la population globale; 4) les tendances de restriction de la langue à des domaines particuliers; 5) la réponse aux nouveaux domaines et médias; 6) le matériel pédagogique et l'accès à l'écrit; 7) la politique langagière et les attitudes des institutions; 8) l'attitude des membres de la communauté vis-à-vis de la langue; 9) la quantité et la qualité de la documentation. On peut opérationnaliser ceci un peu plus en identifiant quatre types de capital pertinent soit² :

- i. le capital démographique : le nombre, la proportion, la concentration, le territoire, le taux de natalité, l'exogamie, l'immigration et l'émigration;*
- ii. le capital politique : les droits linguistiques, les services gouvernementaux, le nombre de représentants élus, le pouvoir hiérarchique, le pouvoir de lobbying;*
- iii. le capital économique : le contrôle et la propriété des entreprises, la langue de travail, la langue des échanges commerciaux, la langue du marketing, le pouvoir d'achat;*
- iv. le capital culturel : le contrôle des institutions éducatives (préscolaire, scolaire, postsecondaire et alphabétisation), médias et technologies de l'information et de la communication, institutions religieuses, services culturels et communautaires.*

L'expérience québécoise entre 1960 et 2020 indique que ces quatre types de capital important tous. Dans le cas du Québec on assiste à une réappropriation du capital politique (ii) général au cours de la période 1960-1966 lors de la Révolution Tranquille³ face à l'Etat fédéral (central) dominé par les anglophones. Ceci s'accompagne par la suite de mesures visant :

- le capital démographique (i) par un rôle accru du gouvernement québécois dans la sélection d'immigrants internationaux⁴ pour accroître la part qui parle français à leur arrivée et dans la francisation de ceux qui ne le connaissent pas;
- le capital économique (iii) par la création d'une Caisse de Dépôts et Place-ments du Québec qui utilise une partie de l'épargne recueillie pour financer un système de retraite par capitalisation pour favoriser l'entrepreneuriat francophone et le contrôle de l'économie du Québec par les francophones;

¹ <https://entrelangues.iker.univ-pau.fr/node/59> consulté le 05/02/2021.

² <https://francisation.cmec.ca/inc/info/assimilation.htm> consulté le 05/02/2021.

³ Pour un bref historique voir <https://www.thecanadianencyclopedia.ca/fr/article/revolution-tranquille> consulté le 12/02/2021.

⁴ Pour plus de détails : <https://www.thecanadianencyclopedia.ca/fr/article/politique-dimmigration-du-quebec> consulté le 12/02/2021.

- le capital culturel (iv) alors qu'on utilise le contrôle de la langue d'enseignement aux niveaux de la scolarisation obligatoire (primaire et secondaire, 5-17 ans) pour assurer que les enfants des immigrants internationaux fréquentent l'école en français.

Le tableau I présente l'évolution par rapport à 1971 (valeur initiale de I) de six indicateurs pertinents pour le Québec. On constate une amélioration entre 1971 et 2011 dans cinq des six indicateurs présentés.

Tableau I
Évolution de six indicateurs de capital linguistique, Québec, 1971-2011 (1971=I par définition)

Indicateurs Année	1971	1991	2011
% population de langue maternelle française (i)	1	1,02	0,97
% population sachant le français (i)	1	1,06	1,07
% de contrôle francophone de l'économie (iii)	1	1,28	1,31
% d'utilisation du français au travail (iii)	1	1,13	1,04
ratio revenu de travail unilingues francophones / anglophones (iii)	1	1,15	1,21
% Allophones fréquentant l'école en français (iv)	1	5,23	5,91

Source : Vaillancourt (2019) tableau I, p. 109.

Dans ce qui suit nous traitons plus en détail du capital de type (iii), soit le capital économique.

Approche économique aux questions linguistiques et valeur des langues sur le marché du travail⁵

Les économistes traitent la langue comme objet d'analyse économique de deux façons. Une qui n'a pas donné lieu à des travaux empiriques est celle de Carr (1970/1985) : la langue est un moyen d'échange et un réservoir de savoir (valeur) similaire à de la monnaie. Une autre la traite comme un attribut individuel : ethnique (Raynauld et Marion 1972), capital humain (Breton 1978), les deux (Vaillancourt 1980). Cette approche a servi de cadre analytique pour de nombreux travaux empiriques portant sur le Québec, le Canada, les États-Unis, la Suisse et d'autres pays ou régions visant à établir la valeur des attributs linguistiques sur le marché du travail⁶. Grin (2016) présente une synthèse des travaux en économie de la langue et politiques publiques accompagnée d'une bibliographie exhaustive (Gazzola, Grin et Wickstrom

⁵ Cette section s'inspire de Vaillancourt et Fontaine (2018) adapté au contexte de cette présentation.

⁶ Pour un exemple récent de ce type de travail voir *La rémunération des attributs linguistiques au Québec : résultats pour 2015 et évolution depuis 1970*, <https://www.cirano.qc.ca/files/publications/2020s-52.pdf>.


2016), traitant entre autres des écrits sur le lien entre attributs linguistiques et revenu de travail. De façon générale, la valeur sur le marché du travail d'un élément de capital humain dépend de son offre relativement fixe à court terme et de la demande pour la quantité offerte. Quant à la valeur d'un attribut ethnique, elle dépend de l'intensité des préférences discriminatoires et du poids économique des groupes en présence sur un marché donné.

Reliant ceci au capital linguistique de type iii), on peut noter pour une société (Z) avec deux groupes linguistiques (B et E) que ceci se concrétise par :

- 1) l'importance des deux groupes linguistiques comme demandeur de biens et services produits en Z. Cette importance dépend de l'importance relative des marchés domestique et extérieurs et au sein du marché Z de la demande en langue B et E. Cette dernière dépend du pouvoir d'achat des deux groupes qui est déterminé par leur taille démographique (nombre) et revenu total moyen et de l'intensité de leurs préférences linguistiques ;
- 2) l'importance des employeurs privés et publics utilisant B et E comme langue de travail qui crée la demande de travail et l'importance de l'offre de diverses combinaisons d'attributs linguistiques et d'autres types de capital humain (formation académique, expérience de travail...);
- 3) la langue de la technologie utilisée pour la consommation et le travail.

Les travaux empiriques mettent l'accent sur l'importance de distinguer entre les écarts de revenu moyens (effets bruts) de travail entre groupes linguistiques et l'effet net des attributs linguistiques sur le revenu de travail. Les écarts de revenu moyen ne tiennent pas compte des autres facteurs tels le niveau de scolarisation susceptible d'expliquer des écarts de revenus entre groupes linguistiques. Les effets nets obtenus par

Figure I
Pourcentages d'écart aux unilingues francophones, revenu de travail, brut et net, Québec, hommes et femmes, 2015, trois groupes linguistiques



Source : Vaillancourt 2020, tableaux 2, 3 et 4.

Note : les groupes linguistiques sont définis en vertu de leur langue maternelle et de leur connaissance de l'une ou l'autre ou des deux langues officielles du Canada.

l'analyse multivariée des données permettent de contrôler pour ces facteurs et donc d'obtenir le rendement des attributs linguistiques sur le marché du travail. La figure I illustre les différences entre ces deux méthodes utilisant des résultats pour le Québec pour 2015. On constate que les effets bruts surestiment la valeur de l'anglais sur ce marché du travail.

Dans la dernière section du texte, nous indiquons comment évaluer une politique linguistique dans une perspective économique.

Bénéfices et coûts d'une politique linguistique

On doit distinguer entre politiques linguistiques explicites et politiques publiques avec retombées linguistiques.

On peut mettre en place diverses politiques linguistiques explicites pour maintenir ou accroître la vitalité linguistique d'un groupe spécifique. Il faut évidemment commencer par s'assurer de la connaissance de la langue ciblée (présumons B ici) par son utilisation à des fins d'enseignement de base (Grin et Vaillancourt 1999). Ceci fait, on peut envisager diverses politiques visant à augmenter l'utilisation et la valeur d'une langue. Il faut usuellement choisir parmi elles la plus avantageuse, ce qui pour un économiste est celle ayant le ratio bénéfices/coûts le plus élevé.

Les bénéfices les plus aisément mesurables résulteront du nombre plus élevé d'heures d'utilisation de la langue B. Donc des enfants écoutant leur émission favorite sur la TV ou le web en langue B, des usagers des services publics interagissant avec l'administration en langue B, des consommateurs acquérant un bien ou service en langue B ou des individus utilisant la langue B dans l'une ou l'autre activité au travail. Ceci peut mener à une meilleure compréhension de l'information ainsi acquise. Il peut également y avoir un bénéfice symbolique; les usagers de B tireront un bénéfice de voir leur langue plus utilisée autour d'eux.

Les coûts varient selon la politique. On peut faire les distinctions suivantes :

Coûts récurrents et coûts en capital. Les coûts récurrents sont ceux encourus sur base régulière à répétition telle une prime salariale pour les individus connaissant B ou utilisant B au travail. Les coûts en capital sont des coûts encourus une fois, tels le travail d'un comité de toponymie devant nommer en langue B des lieux connus sous leur nom en E. Ou encore le remplacement d'affiches unilingues en E par des affiches bilingues en B et E. Si l'on veut connaître les coûts annuels, on doit annualiser les coûts en capital en utilisant le taux de dépréciation approprié.

Coûts privés et coûts publics. Une politique réglementaire exigeant une plus grande utilisation de B dans le secteur privé entraîne des coûts de conformité de la part des entreprises visées et des coûts de supervision. Les coûts privés sont idéalement mesurés à l'aide de données d'enquête auprès des entreprises visées, une pratique courante dans le calcul des coûts de conformité dans le domaine fiscal (Eichfelder et Vaillancourt 2014). Une autre façon de faire est de combiner à l'aide d'hypothèses raisonnables diverses informations sur des quantités (nombre d'employés ayant besoin d'une formation linguistique tiré de données du Recensement par exemple) et sur les coûts (coût d'une heure de formation linguistique); Thibaudin et Vaillancourt (2013) sont un exemple de ceci. Il est important de se limiter aux seuls coûts supplémentaires et non pas aux coûts totaux d'une activité visée par une mesure linguistique.

Les coûts publics peuvent être obtenus soit directement des rapports annuels des agences pertinentes (agence de promotion de la langue, unité de traduction) soit en les inférant de données plus agrégées. Vaillancourt *et al.* (2012) présente une méthode pour ce faire soit :

- Identifier la clientèle totale (usagers-1) et le coût total (2) de deux organismes offrant le même service (scolarité primaire, radiodiffusion...) dans les langues pertinentes, ici B et E ;
- Calculer les coûts unitaires (moyen-3) par usager des services en E et utiliser le coût unitaire en E pour calculer le **coût total simulé (4)** de servir les usagers utilisant B en utilisant plutôt E ;
- Faire la différence entre le coût simulé et le coût observé (réel) pour le service en B. Ce montant est le **vrai coût** (coût supplémentaire) du service en B (5).

Cette méthode est robuste si on peut faire l'hypothèse d'un coût marginal constant par personne desservie. Ceci est plus vraisemblable lorsque le groupe minoritaire est relativement petit par rapport au groupe majoritaire et que le service utilisé s'offre en petit groupe plutôt que par un réseau visant un grand groupe.

Exemple numérique de calcul du coût réel d'un service en langue B dans la région/le pays Z.

- 1) Population scolaire totale de $Z=1\ 000\ 000$ soit 800 000 utilisant E et 200 000 utilisant B.
- 2) Coût total 8 000 000 euros pour écoles en E et 3 000 000 pour écoles en B.
- 3) Coût moyen/unitaire du service scolaire en E= 10 (8 000 000/800 000).
- 4) Coût simulé du service en B de 2 000 000 (10X 200 000).
- 5) Vrai coût du service en B= 3 000 000- 2 000 000= 1 000 000.

Cette approche met l'accent sur le **coût supplémentaire** d'une politique linguistique favorisant B; il est important de faire ressortir ceci dans les discussions lors de la prise de décision publique.

Les politiques linguistiques explicites peuvent être accompagnées de politiques avec retombées linguistiques. Celles-ci peuvent entre autres favoriser :

- L'acquisition de capital humain non linguistique par un groupe linguistique historiquement défavorisé, disons B; ceci augmente l'employabilité et la rémunération des membres de ce groupe;
- L'acquisition de capital financier par les membres du groupe B qui peuvent alors influencer les choix linguistiques d'employeurs;
- L'acquisition de pouvoir politique par une décentralisation qui augmente la capacité du groupe B à mettre en place des politiques linguistiques au niveau régional, telles des exigences linguistiques lors de l'immigration.

Ce sont des politiques complémentaires aux politiques linguistiques explicites.

Conclusion

Il y a toujours une politique linguistique dans un territoire donné, qu'elle soit explicite ou implicite. Il est légitime de l'examiner et d'en évaluer les impacts avec divers outils analytiques. L'approche économique à l'évaluation des politiques publiques est un de ces outils. Elle peut aider les autorités basques à bien choisir leurs politiques linguistiques.

Références

- BRETON, A. (1978). *Le bilinguisme: une approche économique*. Institut C. D Howe Série Accent Québec 4.
- CARR, J. (1976/1985). « Le bilinguisme au Canada : l'usage consacre-t-il l'anglais monopole naturel ? » , *Économie et Langue Québec : Conseil de la langue française*. N. B. : 1976 est la date de diffusion du texte en anglais (jamais publié) et publié en français en 1985.
- EICHFELDER, S. et VAILLANCOURT, F. (2014). « Tax Compliance Costs: A Review of Cost Burdens and Cost Structures », dans *Hacienda Pública Española / Review of Public Economics*, 210-(3/2014): III-148.
- GAZZOLA, M., GRIN, F. et WICKSTROM, B.-A. (2016). «A concise bibliography of language economics», dans *The Economics of language policy*, M. Gazzola et B.-A. Wickstrom (dir.). Cambridge: MIT Press, 53-92.
- GRIN, F. (2016). « Fifty years of Economics and Language Policy: Critical Assessment and Priorities », dans *The Economics of Language Policy*, M. Gazzola and B.-A. Wickstrom (dir.). Cambridge: MIT Press, 21-52.
- GRIN, F. et VAILLANCOURT, F. (1999). *The Cost-Effectiveness Evaluation of Minority Language Policies*, European Centre for Minority Issues, Flensburg, Allemagne, 1999, 124 pages. https://www.ecmi.de/fileadmin/redakteure/publications/pdf/monograph_2.pdf.
- RAYNAULD, A. et MARION, G. (1972). « Une analyse économique de la disparité interethnique des revenus », *Revue économique*, 23 (I), I-19.
- THIBAUDIN, H. et VAILLANCOURT, F. (2013). *Analyse des impacts économiques du Projet de loi no 14, Loi modifiant la Charte de la langue française, la Charte des droits et libertés de la personne et d'autres dispositions législatives*. <https://www.cirano.qc.ca/files/publications/2013RP-07.pdf>
- (1980). *Difference in earnings by language groups in Québec 1970 : An economic analysis*, Centre international de recherche sur le bilinguisme, Québec, Publication B90 (thèse de doctorat, Queen's University, 1978).
- VAILLANCOURT, F., COCHE, O., CADIEUX, M. et RONSON, J. L. (2012). *Official Language Policies of the Canadian Provinces Costs and Benefits in 2006*, Fraser Institute 2012. <http://www.fraserinstitute.org/uploadedFiles/fraser-ca/Content/research-news/research/publications/official-language-policies-of-canadian-provinces.pdf>.
- VAILLANCOURT, F. et FONTAINE, M.-A. (2018). « Attributs linguistiques et revenus de travail, Québec : cadre d'analyse, résultats pour 2010 et comparaison 1970-2010 », dans *Les enjeux du développement économique, financier et écologique dans une*

mondialisation risquée, Actes du 60^{ième} congrès de l'AIELF, K. Malaga et A. Redslob (eds.), Central and Eastern European Online Library, 2018, 414-424.

VAILLANCOURT, F. (2019). « Assessing Bill IOI after 40 years; An Introduction », *Language Problems and Language Planning* 43 (2) 2019, 103-112.

——— (2020). *La rémunération des attributs linguistiques au Québec : résultats pour 2015 et évolution depuis 1970*. <https://www.cirano.qc.ca/files/publications/2020s-52.pdf>.

Lan-munduaren estrategikotasuna
euskara biziberritzean

EUSKARAREN EGOERA NAFARROAKO ARLO SOZIOEKONOMIKOAN: LORPENAK ETA HUTSUNEAK

Mikel Arregi Pérez
Euskarabidea
Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea

Euskara Nafarroaren ekonomian eta aberastasunean eragin txikiko hizkuntzat jo izan da beti. Are gehiago, euskararen alde egiten den zeinahi inbertsio gastu hustzat hartzeko nolabaiteko joera dago. Hurbilketa horrek galarazten du Nafarroarako aberastasuna eta garapena sortzeko euskarak eskaintzen dituen aukera paregabeak ikustea.

Bestalde 18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, Euskarari buruzkoak, administrazioa, irakaskuntza eta hedabide sozialen esparruak aipatzen ditu, baina arlo sozioekonomikoa ez du aintzat hartzen.

Hala, bada, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikan arlo sozioekonomikoa ez da euskararen erabilera arautzeko eta sustatzeko arloa izan, eta, berriki arte, Euskararen I. Plan Estrategikoa onartu arte, arlo sozioekonomikoa ez da euskararen sustapena egiteko esparrutzat jo.

Arlo sozioekonomikoa Euskararen I. Plan Estrategikoan (2016-2019)

2015-2019 legealdiko Nafarroako Gobernuaren sostengatzen zuten alderdiek adostu zuten Programa Akordioak hizkuntza politika berria abiatu beharra nabarmendu zuen, herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatu eta euskararen normalizazioan aitzina egiteko. Euskararen gaineko politikari doakionez hainbat akordio adostu zuten, horien artean “euskararen egoeraren diagnostiko oso eta eguneratua egitea eta Euskararen Kontseiluak plan estrategiko errealista, bideragarri eta eraginkor bat diseinatzea, Gobernuaren hizkuntza politikaren oinarria finkatzeko”.

Hori horrela, lehen aldiz, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika eta euskararen aldeko sustapen lanak eredu estrategikoa izan du: Euskararen I. Plan Estrategikoa. Plan horretan zazpi ardatz bereizi dira: gizarte erabilera, hiztun berriak, zerbitzu publikoak, euskararen prestigioa eta erakargarritasuna, euskara ekonomiaren eragilea, hizkuntzaren esparrua eta barne kudeaketa.

Hala, bada, Nafarroako Gobernuaren Euskararen I. Plan Estrategikoak arlo sozioekonomikoa bete-betean ukitzen duen ardatz bat du, euskara Nafarroaren ekonomian eta aberastasunean eragin txikiko hizkuntzat ikusteko eta euskararen

erabilera sustatzeko egiten den edozein inbertsio gastutzat hartzeko nolabaiteko joera hori irauli nahi duena, ikuskera horrek galarazten baitu Nafarroarako aberastasuna eta garapena sortzeko euskarak eskaintzen dituen aukerak balioestea.

Euskara ekonomiaren eragiletzat jotzen duen ardatzean, aberastasuna eta balioa sortuko dituen estrategia ekonomiko baten elementu bateratzaile gisa euskarak izan dezakeen gaitasunean sakondu nahi izan da. Ardatz estrategikoak xedea hau du: euskarak duen balio paregabea eta mintzairatako dituen ezaugarriak Nafarroako sektore ekoizle, teknologiko eta berritzaileekin elkartzea.

Bi izan dira nagusiki garatu diren arloak, sustapen lana eta arloaren gaineko ikerketa.

a) Sustapen lanak

Euskararen I. Plan Estrategikoaren barnean Euskarabideak, 2016 eta 2019 bitartean, sustapen arloan eginiko ekintzak honako hauek dira:

- Lantegi pribatuetan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko dirulaguntzak emateko deialdia, 2017tik.
- IKTetan euskara sustatzeko, zabaltzeko eta normalizatzeko dirulaguntza deialdia, 2017tik.

b) Arlo sozioekonomikoaren gaineko ikerketa

Euskarabideak 2018an ikerketa kualitatibo eta kuantitatibo bat egin zuen euskararen sektoreek Nafarroan duten dimentsio eta eragin ekonomikoaren ebaluazioa egiteko eta sustapenerako ekintzak proposatzeko.

Ikerketak datuak eta adierazleak eskaini ditu abiapuntu gisa planak eta ekintzak modu arrazoituan eta egokian garatzeko, eta, aldi berean, ekintzen eragina ebaluatu ahal izateko. Datuak baliatuz, euskara arlo ekonomikoan sustatzeko hizkuntza politikaren ezaugarriak eta lan ildoak gehiago zehaztu ahalko dira Euskararen II. Plan Estrategikora begira.

Ikerketan euskarak Nafarroako arlo ekonomikoan duen egoeraren gaineko diagnosis egin zen, AMIA ardatz moduan azaldua:

Ahuleziak

- Eragile ekonomikoendako euskara ez da lehenetsia.
- Euskarazko zerbitzuen eta produktuen eskaera urria da.
- Enpresetan euskara planak arrunt bakanak dira.
- Euskararen gaineko datu falta arlo sozioekonomikoan.
- Desoreka geografikoa dirulaguntzen deialdira aurkeztu diren enpresen artean, gehien-gehienak Iruñerrikoak baitira.

Mehatxuak

- Euskararen inguruko diskurtso ideologiko errotua.

- Euskararen gaineko adostasun sozial eta politikorik eza eta egoera politiko ezegonkorra.
- Krisi ekonomikoak eragin handia izan du.

Indarguneak

- Ikerketak euskarari estuki loturiko zenbait sektore identifikatu ditu: hizkuntzaren industriak, kultura eta hedabideen industriak, hezkuntza eta administrazioa.
- Sektore estrategiko batzuk zehaztu dira: lehen sektorea, sormen industria, turismoa, merkataritza, produktuen etiketatzea, sustapena eta komunikazioa.
- Zenbait enpresatan egindako praktika onak eta toki administrazioak garutako programak merkataritzan eta turismoan.

Aukerak

- Enpresetan dauden praktika onak ezagutzera eman.
- Sektoreko eragileen artean elkarlana landu.
- Sektorerako dirulaguntzak handitu.
- Euskararen Nafar Kontseilua izan daiteke foroa, arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeko adostasun soziala sendotzerakoan.

Ikerketak lehendabiziko aldiz neurtu du Nafarroan euskararen sektore ekonomikoen magnitude ekonomikoa. Halaber, ikerketaren zati kualitatiboan Nafarroako klusterren ordezkariak euskararekiko duten pertzepzioak eta iritziak bildu dira.

Berebat, ikerketak ekarpen teorikoa egin du, hizkuntzaren sektore eta azpisektoreak identifikatuz. Honako hauek dira:

- Hizkuntzaren industria
- Kultura eta hedabideen industria
- Hezkuntza (Haur Hezkuntzatik unibertsitate bitartean)
- Administrazioa

Euskarari estuki loturiko sektoreak identifikatzeaz gain, Nafarroako arlo ekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko potentzialtasuna duten beste sektore hauek bereizi ditu ikerketak: lehen sektorea, hezkuntza eta prestakuntza, sormen-industriak, produktuen etiketatzea, sustapena eta komunikazioa, turismoa eta merkataritza.

Nafarroako arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeko erronkak

Euskarabidearentzat arlo sozioekonomikoa esparru berria da eta, AMIAN ikusi denez, oso konplexua, euskara errotu gabea eta euskarari loturiko lege-araudi berekirik ez duena. Beraz, aurrean dagoen lana ez da egun batetik bestera egin behar den zerbait, epe luzerako ikuspegia izan behar da planifikazioa eta urratsak egiteko.

Lana antolatzeko eta planifikatzeko tresna Euskararen II. Plan Estrategikoa izanen da, ondoko lan-ildo hauek aintzat hartu beharko dituen:

a) Adostasun soziala

Euskara sustatzeko Nafarroako administrazioak egindakoaz gain, eremu pribatuan ere euskararen merkatu bat badagoela ondoriozta daiteke (nahiz eta une honetan txikia izan), non euskarari lotutako sektoreek aberastasuna sortzen duten. Orain arte euskararen berreskurapenerako eginikoa gastu huts gisa ikusteak galarazi du euskarak aberastasuna sortzeko duen ahalmen honetaz ohartzeara. Nafarroako Gobernuari dagokio gaitasun hori ikusaraztea. Horrek euskararen inguruko beste diskurtso bat eraiki eta gizarteratu beharra eskatzen du, Nafarroan euskararen balio ekonomikoa onartzen duen adostasun soziala lortzeko.

b) Lege-arauzko marko egokia

Euskara arlo sozioekonomikoan lantzeko eta herritarren eta kontsumitzaileen eskubideak bermatzeko lege-arauzko marko egokia beharrezkoa da, 18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, Euskarari buruzkoak ez baitu arlo sozioekonomikoa aintzat hartzen.

c) Lankidetzeta

Euskarabideak arlo sozioekonomikoko eragileekin harremana eta elkarlana hasi eta sendotu behar du.

Horregatik, Foru Administrazioaren eta Nafarroako toki entitateen arteko harremanak dirulaguntzak ematek haratago joan behar du, eta elkarren arteko lana beharrezkoa da euskara arlo sozioekonomikoan sustatzeko ere, batik bat turismo eta merkataritza arloetan landu ahal izateko. Eta elkarlan hori emankorra izateko ezinbestekoa da sektoreko eragileekin kontatzea.

Bestalde, Nafarroak Eusko Jaurlaritzarekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin euskara sustatzeko sinaturik duten Hiruko Itunak aukera ematen du arlo sozioekonomikoan euskara suspertzeko egiten ari diren praktikak eta esperientziak partekatzeko eta elkarlana bultzatzeko, eta lankidetzeta hori zinez interesgarri eta beharrezkoa da.

d) Arlo sozioekonomikoko sektorerako baliabideak handitzea

Sustapen politikak baliabide egokiak eskatzen ditu, eta hurrengo urteetan arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko pizgarriak eta dirulaguntza publikoen deialdiak handitu beharko dira.

e) Euskarazko produktu eta zerbitzuen eskaera gizartean aktibatzea

Euskara arlo sozioekonomikoan bizkortzeko eskaeraren asetze eta hauspotze dinamika bati eragin behar diogu, gizarterari aukerak emanez eta eskaera piztuz. Beraz,

euskarazko produktuen eta zerbitzuen gizarte eskaera handitzeko bideak ere jorratu behar dira. Eta lan hori egiteko, Nafarroako Gobernuak lanean jarraitu beharko du euskarazko kultura-, informazio- eta online edukien ekoizpena areagotzen dela bermatzeko, bereziki haurrei eta gazteei zuzendutako edukietan. Zalantzarik gabe, arrakasta izan ahal izateko, administrazio publikoen, sektore sozioekonomikoaren eta gizarte-eragileen arteko lankidetzan sakondu beharko da.

LANEKO HIZKUNTZA, HERRIAREN ZUNTZA

Eneko Bidegain
Mondragon Unibertsitateko irakaslea

Kezkatzen gaitu euskararen egoerak. Euskal Herriko zati handi batean euskarazko irakaskuntza orokortua da, beste zati handi batean ez, ordea. Eta, kasu guztietan, D ereduan ikaste hutsaren mugak azaleratzen ari dira. Ez da nahikoa euskaraz ikastea euskaldun oso izateko. Joxe Manuel Odriozolak, *Nora goaz euskalduntasun bonekin?* (2017) liburuan dioen gisan, erdaldun elebidunak sortu dira. Anitzentzat euskara eskolako hizkuntza da eta eskolakoa bakarrik. Euskara haien familiaratik, lagun girotik, komunikabideetatik eta aisialditik kanpo dago. Eta ikasketak bukatuko dituztenean, lan-mundutik kanpo.

Kezkatzen gaitu herriaren egoerak. Gaur egun, gero eta lausoagoa da Euskal Herriaren irudia. Ez dakigu zertaz ari garen “Euskadi”z ari garenean, “Euskal Herria” aipatzen dugunean. “Euskararen lurraldeak”, “euskal lurraldeak”, “Basque Country”, “Pays Basque”, “País Vasco”... Nahasmen handia daukagu gure herria izendatzeko. Herriaren zatiketa administratiboa burmuinetaraino sartua zaigu.

Eta tarteka entzuten edo irakurtzen dugu euskara ez dela gure herritartasunaren ardatza. Bizkitartean, euskararekiko atxikimenduaren apaltzea eta herri ikuspegiaren murriztea eskutik doaz. Herri zatitua are gehiago zatitzen du erdaraz bizitzeak. Eta herri zatitua barneratzeak euskararekiko grina ere ahultzen duela erran liteke.

Oztopoz beterik dago gure herriaren batasuna. “Mugaz gairdiko” lan kontratu bat, deskontu txartela, bankuko kontua, mailegua, fakturak eta eguneroko mila kontu dira buruhauste administratiboak. Nortasun agiriaren zenbakia eskatzen dizute, eta akatsa ematen du, zenbaki luzeegia delako; telefono zenbakia eskatzen dizute erosteketa baterako, eta ez daiteke formularioa bete beste estatu batekoa delako; sarean liburu bat erosi nahi duzu eta bidalketa gastu ikaragarriak ordaindu behar dituzu, “atzerrian” bizi zarela...

Zatiketaren arrazoi batzuk

Eguneroko oztopo horiek kontakizun bat kontaktzen dute, eta barneraino sarrazten digute: Euskal Herririk ez dago, Frantzia eta Espainia daude, eta errealitate administratibo horrek hartzen du gaina eta ahultzen du edozein oinarri politiko.

Eskola garaitik hasten da kontakizun hori. Gelako paretan itsatsita agertuko da Espainiako mapa, autonomia erkidegoen eta hirien izenak euskaraz badira ere. Curriculumez ongi zehazten dute zein den haurrek ikasi behar duten historia eta geografia. Irakasle batzuen borondate irmoaren gainera, milaka haurrek bukatzen dute ikasketa garaia Euskal Herriko geografia, historia edota kultura ezagutu gabe. Euskal Herri kontinentaleko ikasleek Frantziako geografia, historia eta literatura ikasiko dituzte ongi; Euskal Herri penintsularrekoek, aldiz, Espainiakoa. Gazte askok lasai-lasai erraten dute “Hemen Espainian” edo “Donibane Lohizune Frantzian”.

Gero dator unibertsitate garaia. Euskal Herri kontinentalean ikasi dutenentzat, euskaraz ikasten jarraitzeko traba gehiago: izen-emateko epeen egutegi bate-raezina, noten baremo desberdina, itzultzeraz igorri beharreko txostenak... Eta traba horiei gehitzen bazaie mapa psikologiko eta administratiboaren eragina, osagai guztiak daude Euskal Herri kontinentaleko ikasle euskaldunen % 92 Frantziara joateko unibertsitate ikasketak egitera. Eta horien erdiak Frantzian gelditzen dira bizitzen.

Eta hori aski ez balitz, ikasleen eta jadanik ikasle ez direnen artera heltzen diren komunikabideek ere lortzen dute kultura dominatzailea muineraino sartzea. Argi dago Frantziako eta Espainiako hedabideek indar eta eragin ikaragarria dutela. Bidasoaren alde batekoek eta besteek ez dituzte kultura eta erreferentzia berak. Batzuek ongi ezagutzen dituzte Frantziako politikariak, aktoreak, kantariak, telebista aurkezleak, baina ez dituzte ezagutzen Espainiakoak. Besteek, aldiz, alderantziz; denbora guztian aipatzen dituzte erreferentzia espainolak, Espainiarekin harremanik ez duten euskaldunentzat guztiz arrotzak direnak. Bi aldeko euskaldunek dituzten erreferentzia komunak dira mundu osoan famatuak diren politikari, kirolari eta artistak, edo, bestela, Euskal Herrikoak. Hots, euskal kulturak indarra baldin badu, erreferentzia komun gehiago dauzkagu; euskal kultura ez bada sustatzen, presentzia gutxiago du eta erreferentzia komunak ere gutxiago daude. Kultura kontsumoa, euskaraz sortua ez bada, frantsesera edo espainolera itzulia izaten da. Amerikako Estatu Batuetako film anitzen izenak ez dira berak Irungo zineman edo Hendaiaikoan. Eta euskaldunek espainolezko edo frantsesezko izenekin ezagutzen dituzte.

Alabaina, gure herria zatitzen duen osagai garrantzitsua da erdara ere. Edo erdarak. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan frantsesa da eskubide osoak dituen hizkuntza, eta urtetik urtera gero eta gehiago nagusitu den hizkuntza. Euskal Herriko beste lau herrialdeetan, aldiz, hizkuntza nagusia espainola da. Derrigorrez jakin beharrekoa; euskara erabiltzeko eskubidea dago, euskara ofiziala den lekuetan. Baina derrigorrezko hizkuntzak espainola dira alde batean, eta frantsesa bestean. Erdarak zenbat eta indartsuago, gure arteko loturak orduan eta ahulago. Eta entzuten dugu jendea erraten ez dela ausartzen Lapurdira joatera, frantsesa ez dakielako... Hizkuntzarengatik ez dugu egiten barne turismorik? Sakonago aztertu behar litza-teke zenbaterainokoa den hizkuntzaren arazoia, eta zenbaterainokoa buru-maparen, erreferentzia kulturalen eta aurreiritzien eragina. Baina bistan da hizkuntza egoera hori arazo larria dela.

Barne turismotik harago, hizkuntza politika horrek lan harremanak zailtzen ditu. Euskara ez da ezinbestekoa ekonomian. Hainbat postutan “baloratzen” da, baina ez da derrigorretan. Ekonomiaren hizkuntza ez da euskara. Baina ekonomiak hizkuntza bat badu. Frantziako ekonomiaren hizkuntza frantsesa da, eta Espainiakoa

espainola. Bi hizkuntzak daude euskararen gainetik, eta edozein pertsona edo familiaren mugimenduak eta harremanak baldintzatzen ditu: frantsesarekin, lapurtar euskaldun batek lan egin dezake Frantziako edozein hiritan, Frantziatik Zuberoara etorritako edozeinek lan egin dezake euskara jakin gabe, baina gipuzkoar batek ez dezake lanik egin Lapurdin, frantsesik ez badaki.

Ekonomiaren hizkuntza politikak eragina du familia bizian eta, beraz, lagunartean, harremanetan, gure buru-mapan.

Nola batu herri hau?

Herri hau batu nahi badugu, euskalgintzan eta kultura arloan dagoen batasuna zabaltzeko behar dugu beste sektoreetara. Eta hori, sektore horiek euskarara ekarriz lortuko dugu. Euskara da lokarria, kulturen bezala ekonomian ere, lehen aipatu bezala, ekonomiaren hizkuntzak egituratzen duelako herri baten mapa psikologikoa, ekonomiaren hizkuntzak ematen diolako edo kentzen boterea hizkuntza bati. Beraz, gure ekonomiaren hizkuntza euskara izan behar da.

Ekonomiaz ari garenean, hainbat arloz ari gara. Noski, irakaskuntza, euskalgintza, kultura eta horiek ere ekonomia osatzen dute, eta hor badago euskara. Hortik harago, eta industriara heldu aurretik, aipa genitzake gainerako zerbitzuak, turismoa edo merkatua.

Gure herriko produktuen merkatua da horietako bide bat. Aitortu behar da bi estaturen artean izateak sortzen dituela hainbat arazo administratibo, ekoizpenek “muga” zeharkatzeko. Baina badira oztopo horiek gainditzen ikasi duten ekoizleak. Norbanako batzuen borondatearen, pazientziaren eta temaren gainetik, euskal merkatu nazionala antolatzen ere hasi behar genuke, horretan eskumena duten guztiak elkartuta. Gainera, “zero kilometro” kontzeptua gero eta arrakasta gehiago hartzen ari den honetan, Euskal Herriko produktuen merkatuak ingurumenaren kezkarri ere erantzunen lioke. Noski, zirkuitu laburreko merkatua baldin bada “euskal” produktua EAEko mapa batekin lotzea, orduan ez dugu herri honen artikulazioa laguntzen, eta zatiketa areagotzen dugu.

Merkatu nazional horrek bultzatuko ditu ekoizleak euskara gehiago erabiltzera beren etiketa eta webguneetan, beren fakturretan, bezeroekiko harremanetan... Eta honek lagunduko du herri zatitu hau berriz josten.

Zirkuitu laburreko merkatuarekin lotuta, barne turismoa ere garatzea aipa genetzake. Eta barne turismoa garatzeko bidea ez da euskaldunek espainola eta frantsesa jakitea (ukatu gabe hizkuntzak jakiteak dakarren aberastasuna); barne turismoaren hizkuntza ere euskara izan behar da, horrek bermatuko duelako gure herriaren artikulazioa. Hots, euskaraz funtzionatzen duen turismoarekin herria josten da; eta barne turismoarekin herria euskalduntzen da. Batak bestea elikatzen du.

Badakigu, ordea, zerbitzua eskaintzen duten anitz erdaldunak direla. Nola bermatu euskaldun guztiak eroso ibiltzea Euskal Herri osoan, estres linguistikorik gabe? Gaur egungo teknologien bidetik, sakelako telefonoan eduki genetzake aplikazio bat, euskarazko zerbitzuen gida on eta eguneratu bat eskaintzen duena. Nola sortu? Nork egin? Zorionez, herri ekintzailea da gurea, parte-hartzailea: euskarazko Wikipedia hainbat herritarren borondateari esker elikatzen ari den bezala osa genetzake halako gida bat. Gida horren harira, barne turismoa sustatzeko ekimenak ere antola litezke.

Euskarari balioa emateko, horrekin ez da aski, dena den. Ekonomia osoa bera euskalduntzea izango litzateke herri hau ehuntzeko bidea. Euskaraz funtzionatzen duen edo euskarari leku zentrala ematen dion ekonomiari esker sortu, garatu eta egonkortuko lirateke gure arteko sareak. Euskarazko ekonomiak lagunduko luke Euskal Herri kontinentalaren eta penintsularraren arteko harremanak sakontzen. Eta, halaber, harreman horiek sakonduko balira, nahi ala ez beharko litzateke ekonomia euskaldundu.

Lan-mundua euskalduntzeak emanen dio indarra eta prestigioa euskarari. Seduzitzea eta abar alferrik aipatuko ditugu, euskarari ez bazaio balio ekonomiko hori ematen. Bestela, beti izango da beste hizkuntza baten distira, gurea baztertzea eragiteko.

Argi da ez dela nahikoa izan euskara irakastea eskoletan, herria euskalduntzeko. Ikasketak bukatu ondoko bizitza erdarazkoa baldin bada, irakaskuntza prozesua hankamotz gelditzen da. Gero eta gehiago entzuten ari gara lan-mundua euskaldundu behar dela. Eta ideia horri heldu behar litzaioke hurrengo garaietan, estrategikoa delako.

Euskal Herriko enpresen arteko elkarlanak edo bezero-ekoizle arteko harremanak sustatu nahi badira, euskara beharrezkoa izanen da. Naturalena hori da. Lapurdiko eta Bizkaiko enpresa batzuetako langileak elkarrekin aritu behar badira tratuan, zer ariko dira, ingelesez? Lapurtarrek ikasi behar dute espainola? Bizkaitarrek frantsesa? Ez. Denak euskaldunak balira, naturaltasun osoz, euskaraz eginen litzateke harremana.

Bidasoaren alde bateko eta besteko enpresen arteko harreman ekonomikoak sustatzeak eraginen du herri honen egituratzea, eta lagunduko du herri hau gehiago euskalduntzen.

Lan-mundua euskalduntzeak, halaber, emanen dio gorputza gure herriari, zeren eta enpresen arteko harremanez harago, gure burmuinek euskaraz funtzionatuko baitute egunaren zati handi batean, eta gure erreferentziak eta begiradak ere bestelakoak izanen baitira.

Halaber, ekonomiak euskaraz funtzionatzen badu, ikastoletako ikasleek ere ikusiko dute euskara ez dela ikastolako hizkuntza, hortik harago daukala bizia. Orduan, beste atxikimendu bat izanen dute euskararekiko, eta ulertuko dute ez dela irakaslearekin mintzatzeko hizkuntza, baizik eta beren herriaren hizkuntza.

Eta beste ideia bat ere gehitu nahiko nuke, euskara batuaren eta euskalkien zaleen arteko eztabaida horri dagokionez. Euskal ekonomia euskalduntzen badugu, eta beraz, areagotzen baditugu Euskal Herri osoko euskaldunen arteko harremanak, begi bistakoa izanen da euskara batuaren premia.

Ekonomiaren hizkuntzarekin lotuta, unibertsitateko eta lanbide heziketako ikasketen aukeren arazoari ere heldu behar zaio. Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako ikasleek zailtasunak baldin badituzte euskaraz ikasi ahal izateko Euskal Herri penintsularrean, Frantziara doaz. Ekonomiaren antolaketak, administrazioak eta kultura erreferentziek eragiten duten buru-mapa horrek Frantziarako bidea errazten diete.

Lan esparrua euskalduntzeak mugimendu hori aldaraziko ote luke? Lagunduko luke, hain segur, baina ikasleek dituzten oztopo administratiboak ere kendu beharko dira. Erakunde publikoek ardura handia daukate horretan. Erabaki politiko batzuk

hartu behar dituzte, ikasleei informazio guztia emateko, homologazioak errazteko, epeen arazoa gaingintzeko eta abar. Hori gabe, zailtasunak izanen ditugu harremanak estutzeko.

Loturak

Euskal Herriaren batasuna eta euskal jendearen kohesioa lortzeko estrategia globala falta da. Lan-mundua eta ekonomia funtsezkoak dira, bistan da. Ezinbesteko sektorea da. Baina bereziki azpimarratu behar dena da dena lotuta dagoela, euskara edo euskalgintza ez dela uharte bat. Euskararen egoera politikarekin, hezkuntzarekin, kultura politikarekin eta ekonomiarekin lotuta dago. Are gehiago, denak daude elkarrekin lotuta. Euskararen gaia beti aparteko gai bat bezala lantzen badugu, eta orokortasuna ez badugu kontuan hartzen, beti ibiliko gara ezinean.

Lan-munduarekin ere ez da aski, ordea. Lanetik eta etxetik kanpo euskarak ez badu presentziarik, batzuentzat artifizioz izan liteke lanean euskaraz aritzea? Lan-mundua euskalduntzeak eraginen luke karrikako bizia euskalduntzea? Biak eskutik helduta doaz. Elkar elikatuko lukete. Baina lana izan liteke motorra.

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA EREMU SOZIOEKONOMIKOAN 2019-2023

Miren Dobaran
Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Azkeneko 60 urteotan izugarritzko ahalegina egin dugu herri moduan, maila pertsonalean, sozialean eta instituzionalean euskararen ezagutza zabaltzeko. Belau-naldi berriak euskalduntzeko inbertsio handia egin da, batez ere, hezkuntza arau-tuan. Baina egindako lanari eta inbertsioari etekina ateratzeko ezinbestekoa da une honetan eremu sozioekonomikoari heltzea. Euskara biziberritzeko prozesuan estra-tegikoa baita lan-mundua euskalduntzea eta erronka honek denon parte hartzea eska-tzen du.

Erronka horri behar den moduan aurre egiteko, Plan estrategiko bat egitea era-baki zuen Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak. Plan honek 2015ean du bere abiaburua. HPSk eta aholkularitza sektoreko hainbat kideren artean sortu zen lan-bilera eta eta beste hainbat eragileri egindako elkarrizketetan ikusi genuen bazegoela gogo bat eremu sozioekonomikoan euskararen biziberritzeko prozesua sendotzeko.

Gogo haren emaitzak izan ziren lan txiki batzuk eta Euslan programa adibidez. Eta haien ondoren etorri ziren 2017ko bateratze lana. HPS, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kontseiluaren baitako sektoreko aholkularitza batzordekideen artean hasi ziren bilerak eremu honetan nola eta eta zertan eragin zitekeen gogoetatzeko.

Handik Plana sortzeko aukerak aztertu ziren eta Eusko Jaurlaritzari eskatu zitzaion Plana bideratzeko lidergotza har zezan.

Emun aholkularitza enpresak lagunduta, 2018an ekin zitzaion Planaren proze-suari. Era horretan, hiru saio presentzial handi egin ziren eta bitarteko jarduerak askotarikoak izan zituen.

Prozesuan aipagarriak dira, oster, egin ziren saio presentzialak, eremuko hain-bat aditu eta arituri egindako elkarrizketak eta eremuko ordezkari zabalari bidali-tako galdetegia.

Prozesu osoan zehar eremu sozioekonomikoaren elementu ezberdinak ukitu ziren eta eremu honetako subjektu bakoitzarentzako lanketak egin ziren. Eta era guz-tietako ondorioak atera ziren, administrazioaren ingurukoak, hezkuntzaren ardura direnak, enpresei begirakoak, sindikatuentzako direnak, merkataritza eremukoak, herritar eta erabiltzaileei buruzkoak, elkarlanaz sakontzen dutenak eta hainbat neurri zehatzei buruzko proposamenak ere atera ziren.

Eta ondorio zehatz horiek guztiek hiru puntutan hartu zuten forma: helburu orokorra zein den zehazten, eremu sozioekonomikoak une honetan lituzkeen erronkak definitzen eta erronka horiei erantzuteko estrategiak izendatzen.

Hori guztia kontuan hartuz, azken helburua ezarri zen aho batez, hain zuzen, eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera ezartzeko hizkuntzen kudeaketa garatzea. Eta hiru erronka eta beste hainbat estrategia identifikatu ziren. Hiru erronka horiek dira hizkuntza planen eskaintza handitu, premia handitu eta elkar elikatu.

Estrategiei dagokienez, hauetxek ezarri ziren.

1. Hizkuntza planen eskaintza handitzearen baitan: enpresa traktoreak baliatu; dirulaguntza programak sortu eta sustatu; hainbat baliabide eskaini.
2. Premia handitzearen baitan: lankidetzaren sustatu; araudia eta pizgarriak aztertu; akordio politikoa landu eta komunikazioa bermatu.
3. Elkar elikaturen baitan: lanbide heziketa, unibertsitatea eta zentro teknologikoen arteko harremana sustatu eta komunikazioa bermatu.

Horrekin batera, ekintza plan orokor bat dago diseinatuta eta estrategiak eta proiektuak zehaztuko dira. Estrategia bakoitza garatzeko lan-talde bat sortuko da eta lan-talde horretan adostutakoak eramango dira aurrera era desberdinetan: dirulaguntza pogramen garapenarekin, araudi eta pizgarri fiskalen azterketarekin proiektu pilotuekin etab.

Eusko Jaurlaritzaren planean zehaztuko dira, beraz, helburuak eta proposatuko dira ekintza nahiz adierazleak Aurrerabide metodologia erabiliz.

Prozesu osoan zehar Emun aholkularitza izan dugu bidelagun. Beraz, prozesua garatu da eta handik ondorio batzuk eta emaitza batzuk atera dira.

Prozesu honen emaitza izan da, hain zuzen, txosten bat eta une honetan, txosten hori Eusko Jaurlaritzaren Plangintzak garatzeko metodologian egokituko da. Helburu eta adierazleak zehazteaz gain, ezinbestekoa da Plangintza honetan subjektu eragile izango diren erakunde eta ordezkarietzekin gaia partekatzea, eta ahal den adostasun osoa lortzea eremu guztietan. Horretara, barne lana egiteaz gain, Planaren aurkezpenak egitea eta adostasun aukerak lantzea izango da udazken honetako egitekoa (lanbide heziketarekin, industriarekin, merkataritzarekin edo sindikatuekin).

Badugu, beraz, prozesuaren azken emaitza eta adostutako dokumentua. Plana osatu ostean, lanean jarraituko dugu eremu sozioekonomikoan euskararen sustapenean eragiten eta horretarako hiru ekimen hauek aipatuko ditut:

1. EAEko eremu sozioekonomikoaren diagnostikoa egin dugu Siadecoren bidez. Diagnosi honetan eremu honen zer-nolakoak ulertzeko gako garrantzitsuak topatu ditugu, baita zertan eta non eragitea komeni den esaten dituguten datuak.
2. 2017an ISOren baitako INErekin egin genuen hitzarmenari esker, urtero bi edo hiru ISO arau itzultzen ari gara, eta 2019an itzulitako lehen bi arauak argitaratu ditugu, zabalkundea emateko.
3. Indeus plataforma sortu dugu SPRI, Energiaren Euskal Erakundea eta HPSren artean. SPRIk du plataforma honen lidergotza eta 2019an Industria

sektoreko hainbat enpresarekin ari gara elkarlanean euskarak industrian duen presentzia zabaltzeko.

Arestian aipatutako ikerketan datu asko eta berriak agertzen badira ere, hemen oso labur aipatu nahi nuke ondorio bat guretzat oso esanguratsua dena:

EAEko hiru lurraldeetako eskualdeen arabera banaketan oinarrituta, bi multzo nagusi bereiz daitezke, enpleguaren, jarduera ekonomiko nagusien eta errealitate soziolinguistikoen arabera bilduta. Estrategikoak izan daitezkeen eskualde multzoak dira, lan-munduan euskara sustatzeko helburuari begira, arrazoi ezberdinengatik.

Multzo bakoitzaren ezaugarriak oso ezberdinak dira soziolinguistikoki, baita ginerako alderdiei dagokienez. Eta lurraldearen arabera ere mapa honek ederto erakusten digu bi multzo hauek non dauden eta zein ezaugarri dituzten.

Bada etorkizuneko hizkuntza politiketarako gako nagusietako bat eremu haue-
tan eragiteko modu ezberdinak bilatzea. Batean bereziki, hiruburu eskualdeak ditugu eta zerbitzu enpresak dira nagusi (gainera, eremu erdaldunenak dira horiek). Bestean, berriz, eskualdeak ditugu, industria enpresa asko daude bertan eta errealitate sozio-
linguistikoa euskaldunagoa da.

Gure erronkak beharko luke, beraz, eremu sozioekonomikoaren hizkuntza poli-
tika eremu bakoitzaren beharretara egokitzea.

Beraz, plan hau gauzatzeko egin dugun ibilbidea adierazi nahi izan dut. Izan ere, eragile desberdinekin egindako prozesuari esker, oinarri sendoak dituen plana erai-
kiko dugu eta orain denon artean jarri beharko dugu abian.

BERRINDARTU ETA JAUZI: TALDE ANALISIA EUSKARAREN PROZESUAZ

Mikel Irizar Intxausti
Topalabea taldea

Jardunaldian aurkeztu nuena izan zen “Berrindartu eta jauzi” dokumentuaren aurrerapen bat, bi hilabete geroago eman baitiogu amaiera. Dokumentu berria osatzera dator duela bost urte argitaratu genuen “Berrikusi eta berrikasi” izenekoa, 60ko hamarkadatik gaurdaino iritsi den euskararen biziberritze prozesua aztertzen zuena.

Lehen dokumentu hark dezenteko oihartzuna eta eragina izan zuen; eta, beste eragin batzuekin batera, euskararen prozesua eraldatzen lagundu du. Hain zuzen horregatik azertu nahi izan dugu egoera berria, ireki diren aukerak baliatuta biziberritze prozesua nola indartu antzemateko.

BERRINDARTU

Lankidetzaren giroa

Hamarkada luzez, zatiketa politikoak etengabe oztopatu ditu herri proiektuak, baita euskararen biziberritzea ere. Haatik, zubi berriak eraikitzeke ahalegin ugari egin da azken urteotan. Adierazgarria izan zen 2017ko Korrikan Hendaia eta Irun arteko Santiago zubian euskararen lurralde guztietako ordezkari instituzionalek eta sozialek batera egin zuten kilometroa, elkarri eskua emanda: “Prest gaude lankidetzaren jarduteko euskararen alde”.

Esatetik egitera, urte bereko azaroan Bilboko Arriagan aurkeztu zen 2018an gauzatuko zen Euskaraldia; berriro ordezkari guztiak, eta berriro parez pare, lankidetzaren ondutako ekimen zehatz bat esku artean. Lankidetzaren molde honek indarra metatzeko giroa eragin du eta emaitza harrigarria lortu da, seguruenik munduan inoiz egin den ariketarik handiena hizkuntza ohiturak aldatzeko. Konfiantzak hasi dira eraikitzen edonon, eta lankidetzaren indarrak jabetu gara behingoz.

Adibide oso bestelakoa —eta horregatik oso baliotsua— da gure taldekide Xabier Erizek Nafarroan gidatu zuen ikerketa, Nafar Gobernuak, eta Iruñeko Udalak Eusko Ikaskuntzari egindako enkarguz. Hizkuntza ideologia oso desberdineko pertsonen artean gaitasuna egon zen euskara sustatzeko oinarritzko adostasunak identifikatzeko, baita desadostasunak eta hurbiltzeko aukerak ere.

Erakunde publikoen arteko elkarlana

2017an sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde publikoak Hiruko Ituna, “hizkuntza politika gaietan lankidetzan aritzeko konpromisoa”. Lehen aldiz Aro Modernoan, euskararen lurralde guztietan daude hizkuntza politika aktiboak, eta elkarrekin ari dira.

Hala ere, Euskal Herria egituratu dezaketen urratsek oztupoak aurkitzen dituzte gauzatzeko. Baina hizkuntzaren esparruan badago aukera bat: Euskaltzaindia. Akademiaren xedea hau da: “Euskaltzaindia hizkuntzaren (euskararen) corpus-az arduratzen da, baina, halaber, baita berorren estatus sozialaz ere”. Kontuan izanik akademiak duen irismena eta onarpena, egokia litzateke aukera hau baliatzea administrazio bakoitzak gauzatzeko duen hizkuntza politikari ikuspegi estrategikoa eta osagai komunak eransteke, ikerketa, ezagutza eta interes taldeen ekarpenak baliatuta.

Euskalgintza sozialaren bilakaera

Euskalgintza soziala deitzen dugun mugimendu egituratuan ere aldatzen ari dira egiteko eta antolatzeke moldeak, galdutako zorrotasunaren bila. Adibide batzuk: bertsozale mugimenduak belaunaldi gazteekin bat egin du eta indarririk gorenan dago; euskararen Kontseilua 2016tik hona bide sendoa ari da egiten hizkuntza eskubideak bermatzeko Protokoloarekin; eta euskaltzaleen autoeraketarako eredu berriak aztertzen ari dira (Topaldia 2019). Jarrera berri bat nabari da euskararen gizarte erakundeetan, berritzailea, anbiziotsua, kolaboratiboa, enpatikoa...

Beharrezkoa da euskalgintza sozialak bere egungo egituraketaz hausnartzea. Euskararen biziberritze prozesua fase berri batean sartzen ari da, eta arkitektura instituzionala nahiz soziala egokitu beharrean gaude, eraginkortasun maximoa lortzeko.

Lankidetzak publiko-soziala

Aldarte berriaren ondorio esanguratsua da, neurritz eta hedaduraz, gorago ere aipatu dugun Euskaraldia. Lortu den emaitzaren tamainak erakusten du zer-nolako indar batura gertatu den ekimenaren inguruan.

Euskal Herrian bereziki oparoa da gizarte ekimenak garapen komunitarioari egiten dioen ekarpena. Eta ohikoa da ekimen horrek maila bateko finantzaketa publiko izatea, gehienetan dirulaguntza deialdien bidez. Gizartearen bizi indar hau herri kapital oso baliotsua da; baina, ezohikoa izanik gure inguruko herrietan, finantzaketa publikoarena susmoz ikusi izan da erakunde partekatuetan (batez ere europarretan), lehia librearen ustezko defentsan. Arazoak sortzen dituen kontua da.

Gizartearen autoeraketak ez dio merkatuaren logikari erantzuten, eta ezin da logika horren arauetan errenditu; baina osagai funtsezkoa da gobernantza berriaren eskeman. Horregatik, gizarte ekimenaren finantzaketa publiko juridikoki babestea ezinbestekoa da lankidetzak publiko-soziala garatzeko eta sendotzeko. Bereziki landu beharrezkoa da zein egitura juridikok ahalbidetzen duen erakunde publikoak eta sozialak parez pareko lankidetzan jardutea eta baliabideak partekatzea, Europako erakundearen aurrean legezko marko segurua eraikita.

Herrigintza berria

Berrikuntza testuinguru honetan, euskalgintzaren jarduera gero eta gehiago gurutzatzen ari da gizarte eraldaketan diharduten beste hainbat dinamikekin; eta gurutzatze horretan herrigintza berri baten abiapuntua suma daiteke. Hiru zutabe nabari zaizkio:

Zoru komuna

Hemen kokatzen dira balio sozial oinarrizkoak —askatasuna, berdintasuna, justizia, demokrazia, lankidetzeta, bizikidetzeta— eta horiek bermatzeko garatzen diren politika berdintzaileak. Zoru komuna hizkuntza aldagaiarekin elikatze aldera, euskaltzaletasuna atzean uzten ari da kontakizun barnekoa, hizkuntzan hasi eta bukatzen dena; alderantziz, gero eta argiago, euskaltzaleon ekarpena da herrigintzaren balio-sistema garatzea hizkuntzaren esparruan. Hala, euskaltzaletasuna bihurtzen da munduan egoteko modu bat, zeinak tokikotasuna, aniztasuna, berdintasuna eta justizia sustatzen dituen bereziki hizkuntzen eremuan; bestela esanda, euskaltzaletasuna da mundua hobetzeko lehenesten dugun jarduera.

Bada zoru komun zabalago bat, euskal gizarte osoari dagokiona; eta, marko horretan euskararentzat helburu unibertsalak ditugunez (ulermenetik ezagutzara), arrakastarako ezinbestekoa zaigu gizartearen balio-sistema ondo ezagutzea eta hor kokatzea gure diskurtso eta ekimen orokorrak.

Euskaltzaleok zoru komunaren zirkulu zentrokideak landu eta zaindu behar ditugu: lehenean legoke euskara jendea; bigarreanean, hiztun komunitatea; hirugarreanean, dinamika eraldatzaileak; eta laugarreanean, euskal gizartea. Beharrezkoa da zirkuluek elkarren artean eragitea eta guztien arteko koherentzia gordetzea.

Egitasmo partekatua

Zoru komunaren gainean eraiki behar da etorkizuneko egoera desiratua, jomugako ametsen konstelazioa. Egungo egoeratik egoera horretara doan bidea da gizarte eraldaketa; hain zuzen, euskaltzaleok eraldatu egin nahi dugulako egungo egoera, etorkizunean euskarak ahalik eta normaltasunik handiena izan dezan.

Eraldaketa soziala nahi duten eragileek —euskaltzaleen mugimendua barne— elkarrekin landu behar dute zer eraiki zoru komunaren gainean, zein den etorkizuneko egitasmo partekatua. Eta funtsezkoa da epe luzeko egitasmo hori sistematikoki elikatzea eta eguneratzea, ikerketa lagun, jomuga bateratuak eta eraginkorrak eskaintzeko politika publikoei eta gizarte dinamikei euskal lurralde guztietan.

Lankidetzeta publiko-soziala

Aipatzen ari garen bilakaera hau guztiz bat dator Mendebaldeko administrazio-rik aurreratuenetan garatzen ari den gobernantza berriaren paradigmarekin. Oro har, gizartearen onura baino euren interes propioa lehenesten duten finantza-, politika- eta enpresa-arloetako eliteak ari dira kokatzen gobernantzaren erdigunean, ekosistemaren iraupena eta demokraziaren oinarrizko arauak ere kolokan jarriz. Mehatxu

horren aurrean eraikitzen ari da lurralde gobernantza demokratikoa, garapen komunitario jasangarria eta lurraldetasuna oinarri hartuta. Gauzatzeko moldea da parez pareko lankidetzaren interes-talde guztien artean: horrela lortzen da indar sozial autonomoa eraikitzea, interes handien aurrean joko-zelai propioa hesitzea, eta erantzun komunitarioak ahalbidetzea. Gurean gertatzen ari diren esperientzia aurreratuenak oso hurbil daude gobernantza kolaboratibo horretatik.

Halako ezaugarriak dituen herrigintza berria euskararen dinamikarekin uztartuta ageri da; euskalgintzaren balioak berriro daude lerro berean gizarte dinamiketan nagusi direnekin.

JAUZI

Ikuspegi sistemikoa

Orain arte aipatu ditugun aukera baikorrek ez digute ezkutatu behar ikuspegi sistemikoak modu gordinean ondorioztatzen duena: Euskal Herriko gizarteak sistema gisa duen portaera —eta 'de facto' betetzen duen funtzioa— da euskararen erabilera % 10 - % 15 tartean mantentzea. Gizarte sistemako elementu batzuek hizkuntza portaera aldatzeko egiten duten ahalegina beste elementu batzuek konpentsatzen dute, sistema osoaren portaerak bere horretan iraun dezan (adibidez, bistakoa da nola ETB2k neutralizatzen duen ETB1ek euskararen alde daukan eragina).

Egoera hori gainditzeko, euskararen komunitateak sistemaren beste elementu batzuekin adostu behar ditu funtzio eta estandar berriak; berak bakarrik ezin baitu sistema osoaren funtzioa aldatu. Horretara bideratzen da, hain justu, zoru komunitarioaren ideia: hiztun komunitateak gizarteke beste azpisistema batzuekin partekatzen dituen balioak identifikatzera, eta bere helburuak balio horien arabera formulatzera.

Non?

Euskararen biziberritze prozesuak hurrengo hamarkadetan duen erronka estrategiko nagusia da euskalduntzen diren herritarrek euskal komunitatearen partaide aktibo bilakatzea. Euskaraz egiteko aukera eskaintzen eta lehenesten duten guneak ugaltu behar dira erabilera indartzeko.

Jauzi handia gutxienez bi esparrutan eman behar dela uste dugu:

- **esparru ez-formalean**, gazteak hezkuntza-sistemaren barruan dauden bitartean irakaskuntza prozesuaren ezinbesteko osagarri izan dadin,
- eta **arloan sozioekonomikoan**, hezkuntza-sisteman euskara biziberritzeko egindako ahaleginari segida naturala eman diezaion.

Esparru ez-formala

Hezkuntza sistemak bakarrik ezin du ikasle guztien ezagutza maila egokia bermatu, askotan ezin du erabilerarako inertziarik sortu; edo, sortu arren, ezin du mantendu. Askotan izan da hezkuntzan lortu dena eta badago hobekuntzarako tarterik

oraindik ere; baina haur eta gazteen hizkuntzarekiko hobekuntza, batez ere, eskolaz kanpoko faktoreei esker etorriko da.

Eta zer da lortu beharko genukeena? Aisialdian, eremu digitalean, kulturen eta familian eskaintza defektuz euskaraz izatea edota nabarmen biderkatzea. Jauzi honek haur eta gazteen hizkuntza-adierazkortasuna indartuko du, lagunarteko gazte-hizkera sortu eta indartuko du, eta oinarria jarriko du, eremu ez-formaletan euskara natural erabiliko duten gazteek lan esparruan ere euskaraz jarrai dezaten.

Arlo sozioekonomikoa

Euskal hiztun komunitatearentzat berebiziko garrantzia du arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeak, posible den eremu guztietan. Jauzi handiaren bigarren hanka litzateke euskararen biziberritze prozesuan. Inoizko unerik egokiena da apustua egiteko eta handira jokatzeke:

- Euskaldundutako olatua sartzen ari da lan esparruan.
- Azken hamarkadetan aurrerapauso handiak eman dira lan-munduan euskara sustatzeko, bai entitate publikoetan eta sozialetan, baita pribatu batzuetan ere.
- Europan ESG (*Environmental Social and Governance*) irizpideak txertatzen ari dira, indar handiz, inbertsio eta enpresa erabakiak hartzeko prozesuan. Ingurumen, gizarte eta gobernantza faktoreek aukera ona eskaintzen dute hizkuntzen kudeaketa eta euskararen sustapena txertatzeko enpresen kudeaketa ereduetan.

Aukera hau ezin da galdu. Euskararen prozesuak aurrera jarrai dezan eta geldialdi arriskutsuan kateatu ez dadin, belaunaldi-apustu bat eta erakunde-apustu bat behar dugu.

Nola?

Instituzioen eredu eta gidaritza

Instituzioek dute euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko erantzukizuna. Sektore publikoak du langile kopuru handiena, eta zerbitzu gehienetan, herritarrekiko harreman zuzena du. Beraz, administrazioari dagokigo eredu izatea, herritarrei euskara erabiltzeko eskubidea bermatzea; haien baitan, edota eragin dezaketan esparruetan, D ereduko guneak, dinamikak eta politikak bultzatzea, euskaraz egitea izan dadin arau, eta ez salbuespen.

Euskal biztun komunitatearen aktibazioa

Sektore pribatuari dagokionez, motibazio pragmatikoak dira nagusi eta nekez aldatuko dira entitateen hizkuntza jokabideak era esanguratsuan, gizartearen eskaririk edo bulkadaririk ez badago. Euskal hiztunoi dagokigu euskara erabiltzeari ematen diogun garrantzia asertibotasunez adieraztea, bai zerbitzu erabiltzaile eta bai langile

gisa. Instituzioek eta hiztun komunitateak batera eragitea da sektore pribatuan arrakasta izateko gakoa.

Entitateek protagonismoa hartzea

Euskalduntze prozesua hizkuntza aniztasunaren kudeaketaren barruan kokatu behar dugu. Arlo sozioekonomikoan, entitate asko ez dira euskara erabiltzeko premiaz jabetu, eta horixe da oraingo lehentasuna. Mundu globalizatuan hizkuntza aniztasuna kudeatzera behartuta daude establezimendu gehienak: haien interesekoa da euskarak bere tokia hartzea enpresaren jardunean, eta haiek hartu behar dute ardura.

Baliabideak

Beso teknikoa

Azken hamarkadetako lanari esker, badugu beso tekniko bat, egiten dakiena eta hobetzeko prest dagoena. Ez gara zerotik abiatzen. Baina, jauzi handirako apustu politikoa egiten bada, ezinbestekoa da teknikoki bikain erantzutea eta herri mugimenduarekin aktibazioa bermatzea. Eta horretarako, apustuaren tamainako finantzaketa behar da, gorago aipatu diren itunpeko formulen bidez egonkortua.

Diskurtsoak

Euskararen aldeko diskurtsoak ez du oihartzunik izango enpresa pribatuetan, haien ezaugarrietara moldatu ezean. Ohiko markoak gainditu eta Europar Batasunaren merkatuan kokatuta, ikusten da hizkuntza aniztasuna aukeratu dutela Europako negozio arrakastatsuek; ez arrazoi ideologikoengatik, lehiakortasuna hobetzeko baino. Hizkuntza estrategia gehienetan ingelesak hartu du *lingua franca* funtzioa eta tokiko hizkuntzak erabiltzen dira gainerako eskakizunei erantzuteko. Euskarak ere badu leku garrantzitsua estrategia horietan. Hortik eraiki behar dira diskurtsoak,

Gizarteari begira, hizkuntza berdintasunaren aldarriak ez du oraindik lortu beste dinamika sozial batzuk dagoeneko erdietsi dutena; alegia, haien aldarria oinarritzko eskubideen kategorian sartzea. Aldarria eskubide bihurtuta, jada kontua ez litzateke euskara sustatzeko zenbateko legitimitate sozial dagoen, baizik eta oinarritzko eskubideak berdin bermatu behar direla, gehiengo nahiz gutxiengoentzat. Gizartearen gehiengo hiztun komunitateko kide izan gabe ere, gehiengo aktibatu daiteke komunitate horren eskubideen alde, jauzi handiak ahalbidetuz. Lan ildo interesgarria ari da zabaltzen.

Euskaltzaleak

Hizkuntza bat biziberritzeko ezinbesteko erregaia da bere hiztunen borondate aktiboa. Helburu horrekin abiatutako Euskaraldia 2020ko edizioan banakoez gain entitateak aktibatzerako dator, hau da, gizarte egituretan eragitera, hiztun banakoaren euskaraz egiteko hautua ahalbidetu, bermatu eta erraztu dezaketen espazioak

—*ariguneak*— sortu ditzaten. Arlo sozioekonomikoan eta aisialdiko entitate askotan eragiteko aukera emango du ekimenak, baita mikrodiagnosiak egiteko eta palanka berriak identifikatzeko ere.

Dena den, aldizkako olatua nahi bezain eraginkorra izateko, beharrezkoa da tokian tokiko euskaltzale autoeratuaren sarea osatzea eta sendotzea Euskal Herri osoan; tokiko lotuneetan elkartzea esparru ezberdinetako euskaltzaleak, ikuspegiak adosteko, ekimenak prestatzeko eta antolamendu eraginkorra eraikitzeko; eta, ingurune hurbilean indartsu eragitez gain, baita olatu orokorren tokiko gidari eta bultzatzaile izateko ere. Hitzun aktibatu eta antolatuen sare hau izango da euskararen bizi-indarraren osagai nagusia.

Azken hitza

Euskararen biziberritze prozesuak jauzi handia eskatzen du, azken aldian nabari zaizkion ajeak gaingintzeko. Jauzi handi horren helburu nagusia da euskalduntzen ari diren belaunaldiak euskal hiztun aktibo eta noranahikoak bihurtzeko, eta horretarako bi palanka nagusitan jartzen dugu azpimarra: esparru ez-formala eta arlo sozioekonomikoa.

Gaur egun dugun zorutik abiatuta, proposamena da jauziaren premia jabetzea eta estrategia egokiaren inguruan adostasun soziala eta politikoa trinkotzea, indarrak bilduta eta baliabideak nabarmen handituta, bost hamarkada luzeko ibilbideari merezi duen garapena eman diezaiogun elkarrekin.

LAN-EREMUKO *HAITZA GORRI*

Jon Sarasua
Mondragon Unibertsitateko irakaslea

Testu hau hitzaldi baten transkripzioan oinarritutako moldaketa da. Testu idatzi moduan mugak ditu, ez baita idatziz irakurtzeko pentsatua izatetik abiatu, entzule multzo baten aurrean egindako komunikaziotik baizik. Ahozko izaera horren arrastoak agertuko dira paragrafo hauetan.

Lan-eremuaz egingo dudan gogoeta honek, zentzuzkoa denez, esango dudana euskararen ibilbidean eta abagunean kokatzea eskatzen du. Kokapen horrek jardunbide honen premia arrazoitzeko argudioak emango dizkit. Egia esanda, kokapenaz luze jarduteko aukerarik ez daukagu hemen, luzeegi joko lukeelako. Paragrafo labur batzuk erabiliko ditut kokapenerako.

Kokapenaz eta abaguneaz

Iruditzen zait, euskalgintzako eragileen, politikarien eta, bereziki, belaunaldi berrien foroetan, oro har, behin eta berriz egin behar dugula ibilbidearen ariketa: nondik gatozen, zer egin dugun, eta non gauden, hortik abiatuta garabide berriak pentsatzeko.

Ez da ohiko istorioa gurea; euskararen biziberritzearen aroak kontakizun berezia du, kolore propio eta egitura jakingarria. Norbaitek inurritegira pitxarkada ura isuri izango zuen, antza denez, eta inurri mordoa estu eta larri atera zen lanera, han eta hemen barreiatuta... Hirurogei urte inguruko ibilbide honetan, hasteko, amets-gidaria ageri zaigu. Aipatzen ari garen ibilbide honen aurrekari izan zen Pizkundeko poeta-bultzatzailearen hitzak berreskuratuko ditugu, gero izan genuen amets-gidaria marrazteko: «Baina nik, izkuntza larrekoa, nai aumat ere noranaikoa». Noranahikoa. Hizkuntza *zabarra* genuen, eta berau gure bizitza garaikidearen hizkuntza bihurtzea nahi izan genuen: norbanakoaren funtzio guztiak eta gizartearen funtzio guztiak betetzeko gai izango zen hizkuntza. Gure gurasoen belaunaldiak amestu zuen lausoki, lausoki baina sen handiz, gu, haien seme-alaben belaunaldikook, bazetorren mundu garaikide hartan, euskaraz biziko ginela —bizi gintezela— zegozkigun funtzio guztiak euskaraz betez. Eta horretarako bideak egiten hasi ziren, funtzio formalak, ez formalak, hezkuntzazkoak, jakintzazkoak, sorkuntzazkoak euskaraz sorrarazteko

oinarriak jarritz. Geroko belaunaldiak horretarako prestatzeko ekimen behinena, ikastolen sorrera izan zen ziurrenik; gure historiako une hartan euskara hutsean ardaztutako erdua ezartzea harako belaunaldi haren intuizio apartekoen adierazgarria da.

Zuhaitzen egituraren bidez marraztu liteke ibilbide horretako garabideen multzoa. Corpusaren adarra, hezkuntzaren adarra, hedabideena, kultur sorkuntzarena, helduen euskalduntzearena, administrazio publikoarena, enpresen eremua, aisialdiarena eta abarrena, bakoitzak bere azpiko adarrak dituela. Badu garrantzia ohartzeak, hirurogei urteko ibilbide horren barruan, lehen hamarraldietan estatuaren edo administrazio publikoaren bultzadarik eta laguntzarik gabe garatu zirela adarrok, eta gizarte zibil antolatua izan zela, askotariko gizarte-erakundeen bidez, estrategiak eta ekimenak mamitu zituen. Gure garabide gehienek oinarriak, Hegoaldean, frankismoan jarri ziren, eta horrek pista jakingarria emango digu. Halako kasu gutxi dago munduan. Gero, azken hamarraldietan, erakunde publikoen eta gizarte-erakundeen arteko lan- eta funtzio-banaketa garrantzitsua izan da, bi erakunde mota horiek behar-beharrezkoak izan dira, bi-biak, bata zein bestea kenduz gero, ezin delako ulertu ez gure ibilbidea, ez eta gure etorkizuneko norabidea ere. Euskararen azpiegitura sorta zabala bi esparru horien artean banatua dago; eta gure buruaren irakurketa instituzional konplexua egin behar dugu, zentzu horretan. Instituzioak dira erakunde publikoak, instituzioak dira gizarte-erakundeak, eta bien arteko funtzio-banaketari esker egin dugu, euskararen alorrean zerbait egin badugu.

Ibilbidea utzi eta gatozen unera, abagunera. Berorri buruz metafora batzuk erabil litezke. Urbia eta Aizkorriren artekoa izan liteke bat egokia. Euskararen biziberritzearen aroko ibilbide horretan, metaforikoki demagun, Arantzazutik abiatu ginela, Aizkorriko gailurrerantz. Hirurogei urteko igoera honetan Urbiako lainopera iritsi gara, Aizkorriara barik. Horrek, alde batetik, meritu handiko igoera egin dugula esan nahi du. Arantzazutik Urbiarainoko igoera aipagarria dago, eta komunitate bezala egin duguna ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Nazioarteko plazatik begirata, aurrekari eta pareko gutxi duen *igoera*. Bestetik, baina, lainopeak adierazten du, baditugula une honetan hainbat noraez, arlo batzuk krisian daudela, gauza batzuk birpentsatu beharrean gaudela. Gehienbat belaunaldi-gogoeta ageri zaigu hemen. Belaunaldi berrien atximendu-modalitatea desberdina da, ñabardura gutxirekin esanda¹. Ez hizkuntzaren arloan bereziki, belaunaldi berriak beste modu batera atxikitzen zaizkio, oro har, gauzei, *zapping* gehiago egiten dute bizitzan, leialtasun gotorrak modu malguagoz ulertzen dira. Bestetik, belaunaldi horiek euren aurrekoek baino zailagoa dute amets-bide honen protagonista sentitzea. Normala den moduan, ziklo-nekeagatik, egungo gazteei lehia honen, amets honen protagonista sentitzeko aukera ere ez zaie etorri hemen gauden gehienon belaunaldikoei bezain erraz.

Oso ñabardura gutxirekin aipatu ditut abaguneko kontuak, xehetasun gehixegorekin jardun edo idatzi izan ditugu beste leku batzuetan, baina etorkizunera begira jarri behar dugu hurrengo minutuetan.

Etorkizunean baditugu desafioak arlo askotan. Gure estrategia-adar nagusi gehientsuek birpentsatuak izateko beharra dute. Hezkuntzarena errazegi pasatzen dugu, baina euskal hezkuntza berriro *galdaran egosi* behar dugula uste dut. D erdua ez da garaipen bat, neure iritziz, ikastolen sorreran ekimen ederra izan bazen ere, baina

¹ Sarasua, J. (2013). *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*, Iruña: Pamiela, 206-218.

une honetan ez gabiltza ondo D ereduarekin, ez da nahi genituzkeen emaitzak ematen ari. Honetaz jarduteko aukerarik ez dugu orain, baina asko dugu hor hausnartzeko. Unibertsitate arloan ere, geure buruari galdetu behar diogu, ondo goazen, edo sortu behar ote genukeen beste unibertsitate-dispositibo bat, edo batzuk. Edo ez. Gauza bera hedabideetan. Hedabidegintzaz ziurrenik beste eskema batekin gogoeta egin beharko genuke, beste marrazki batekin; akaso eskualdeetatik hasi behar dugu egitura pentsatzen, eta ez naziotik soilik... Hainbat gauza daude, *adar* asko ditugu birpentsatzeko.

Lau arrazoibide

Panorama horretan kokatu nahi dut gaurko honetan garrantzi berezia emango diogun hau: lan-eremua. Denok uste dugu gai hau funtsezkoa eta zentrala izatera datorrela, baina horrek ez du esan nahi beste *adar* batzuk gutxietsiko ditugunik. Lau gogoeta labur egingo ditut lan-eremuan egin beharko genukeenaren arrazoibidea emateko:

Lehenbizikoa beharbada ulertzen errazena da, arrazoibide zentrala izan daitekeena. Egiten ari garen ibilbidean une honetan horma nagusi bat daukagu, ez da horma bakarra, baina bai nagusia, sendoa eta trinkoa: lan-eremua. *Ñabardurak* *ñabardura*, esan dezakegu, hezkuntzan inbertsio eskerga egin dugula hirurogei urteotan, eta azken berrogei urteotan bereziki. Baliabide latzak jarri ditugu eta gizarte moduan inbertsio handia egin dugu hezkuntza euskalduntzen. Inbertsio itzela eginda gero, nolabait, *masiboki* belaunaldiak ezagutzaren ikuspegitik euskalduntzea lortzen ari gara, baina euskalduntutako belaunaldi horiek aurrean aurkitzen duten lan-eremua oraindik *masiboki* erdalduna da, eta erdalduntzailea. Neure ustez, ‘*masiboki*’ hitza bi kasuetan ondo erabilia dago, nahiz eta *ñabardurak* behar dituzten. Lan-eremua *masiboki* da erdalduna, eta euskal hezkuntzatik *masiboki* euskalduntzen ari gara haur eta gazteak hizkuntzaren ezagutza formalaren ikuspuntutik. Hor dagoen etena begibistakoa dela uste dut. Hortik sortzen den gogoetara iristea nahikoa nabarmena da: horrexeri heldu egin behar diogu. Apustu instituzionala da hori, eta belaunaldi-apusua da. Eta horri heltzen ez badiogu, *Urbiako lainopea* gandu eta zirimiri bihurtuko zaigu, eta beharbada zaparrada ere bai noizbait.

Une delikatuan gaudela esateko zantzuak badirela uste dut. Hemen ezin dugu horretan luzatu. Kike Amonarrizek² bere hitzaldi batean ‘*inpassé*’ hitza erabili zuen, eta ondo erabilia dagoela uste dut. Alde batetik, ezagutza unibertsalizatzeko pausoak eman ditugu, hatz-mamiekin uki dezakegu ezagutzaren unibertsalizazioaren etorkizun hurbila; baina beste adierazle batzuk esaten ari zaizkigu, erabilera bere kurbaren norabidea aldatzen hasi dela, eta beste hainbat adierazle ere mezuak ematen: arnasgueneen beharizana, telebista espazioan atzera goaz, gure kulturagintza ez da erreferente nahikoa... Baditugu kezkatzeko adierazle-abisuak. Unibertsitatean urtero gazte-belaunaldi berriak jasotzen ditugunok badugu talaia txiki bat, lagin erabatekoa izan gabe ere, gazteek hori gutzia nola sentitzen duten usaintzeko. *Usaimen* horrek esaten digu, gero eta legitimatua goa sentitzen duela gazte kopuru handi batek, hau da, euskararen

² Ikus berrikiago Kike Amonarrizek ateratako *Euskararen bidegurutzetik* liburuan (Donostia: Elkar, 2019).

kontu hau oso ondo ez doala, oso serio ez doala eta ez gaudela gehiegi eskatzeko moduan. Gazteek normalean intuizio fina izaten dute, eta pertzepzioa aldatzen ari dela uste dut, gizarteak euskararen ibilbide honi hartzen dion *zaporean*.

Ez dut iluna izan nahi, erreakzionatzeko gaude. Badugu gaitasun instituzionala eta gaitasun soziala horri ekiteko.

Lehen arrazoibide hau aski irmoa eta komunikagarria delakoa daukat. Era-kunde publikoen ikuspegitik begiratuta, adibidez, berrogei urte hauetan izugarri inbertitu dugu hezkuntzan, erakunde-sare moduan, gizarte moduan, herri moduan: gurasoei eskatu diegu, irakasleei eskatu diegu, erakundeei eskatu diegu. Esan dezagun okerra izan zela, eta erlaxa gaitezen. Edota goazen aurrera. Arrazoibide ximple hau gure politikariek uler dezakeela uste dut, transmititzen erraza dela. Aurrera egin behar badugu euskararekin, zein dira hurrengo pausoak? Neure iritzian, lan-eremua lehentasunezkoetakoa dela begibistakoa da, eta nahikoa erraza dela hori komunika-tzea. Gero datoz ondorengo galderak; «eta, hori nola?», itaunduko digute.

Bigarren arrazoibidea egungo euskaldunen karakterizazioan kokatuko nuke. Inkestek esaten digute gaurko euskal hiztunak hartzen baditugu (hiztun egokietatik hiztun hartzaileraino), hiztun gehienak erdal eremuetan ditugula, eta euskal hiz-tunak ez diren familia-jatorritik datozela. Bilbon gaudelarik erraz ulertuko da, baina gauza bera esan dezakegu Aretxabaletan edo Tolosan. Euskaraz dakien pertsona pro-totipo batek esango du: «Beno, euskaraz ikasi nuen eskolan, gurasoek D edo B ere-duan apuntatu nindutelako, eta eskola bukatu zenean derrigortasun hori ere bukatu zitzaidan; euskara eskolan ikasi behar izan nuen instrukzio-hizkuntzatzat daukat, badakit gutxi gorabehera, beno gero eta okerrago, ze duela urte batzuk eskola bukatu nuen eta, familian ez dut erabiltzen, lagun artean ez dut erabiltzen, lanean ez dut era-biltzen, eta euskara eskolan ikastarazi zidaten *hizkuntza bura* bihurtu zait». Oso hiz-tun-tipo zabal dabil, eta baliteke etorkizunean ere nagusia izatea. Lortzen badugu sistemikoki modua hari solte horri zirkulu bat osatzeko aukera emango diona, gako-pausoa emango dugu. Demagun pertsona hori berori zera esatera irits daite-keela: «Euskara iraganeko hizkuntza bihurtzera zihoakidan, familia eta lagun artean ez dut erabiltzen, baina hara non lanean sortu zaidan aukera, eta beharra, euskarari nigan funtzio batzuk emateko». Baliteke horietako batzuek edo askok, beste adarre-tako politiketan dugun taxuaren arabera, lanean duen lotura horretatik euskarara bir-lotzea, partzialki bada ere, eta gutxiago edo gehiago, haurrekin ere euskaraz egitera animatzea. Hizkuntzaren zirkulua, zabalagoa, ez murriztagoa, osatzeko aukera emango lioke horrek, iraganeko hari moztua izan beharrean.

Jardunbide hori landu ezean, gazte prototipo oso batek (eta beharbada nagu-sienetakoak) esan dezakete: «Zertarako ari zarete ni D ereduan euskarara behar-tzen? Gurasook ere ibili ziren D ereduan, eta ez die ezertarako ere balio, ez dute erabiltzen, ez etxean, ez lagunartean, ez aisialdi-kontsumoan eta ez lanean ere... Ez niri koplekin etorri!» Uste dut hor badugula beste arrazoibide bat, gai honi patxa-daz heltzeko.

Hirugarren arrazoibideari 'antolagarritasuna' deituko nioke. Nik uste dut edo-zein hizkuntza-politikatan, edozein politikatan, erraza dela *desideratumak* formula-tzea: «hau lortu beharko genuke, bestea bultzatu beharko genuke». Baina hurrengo galdera, hauze da: zenbateraino da hau instituzionalki egingarria eta antolagarria? Lan-eremuan euskara sustatzearen antolagarritasuna, eskala batean, ez dago oso

behean, neure ustez. Badira egunero ahoan darabiltzagun kontuak, antolatzen zaila-goak direnak. «Lagun arteko ohituretan euskara sustatu behar dugu; edo interneten jendeak euskaraz nabigatzea bultzatu behar dugu», esan dezakegu. Oro har, kontsumoaren eta aisialdiaren eremuan ere gauza askotan hobetu behar dugu, baina gaitzagoa da gauza batzuk antolagarri bihurtzea beste gauza batzuk baino. Hezkuntza arautua, adibidez, oso antolagarria da. Lan-eremua ez da hezkuntza arautua bezain antolagarria, baina antolagarritasun maila egokia dauka.

Lau lauki egin ditzakegu bi aldagai gurutzatuz. Batetik, adin multzoak: haur-gaztetxoak, eta helduak. Eta bestetik, jardunbidearen arautze maila: jardunbide arautuak, hau da, eskola eta lana; eta jardunbide arautugabea, hots, aisialdia. Bi jardunbide arautuak dira, nolabait esateko, haurrak zein helduak zortzi orduz jardun batean murgiltzen dituztenak. Beste koadranteak, aisialdiarenak, kontsumoarenak... , bestelako parametro batzuen bidez funtzionatzen du. Zozoa litzateke azken esparru horren garrantzi erabatekoaz ez jabetzea, eta esparru hori gero eta zabalagoa, kontrolagaitzagoa, azeleratuagoa dela ukatzea. Baina azpiko bi koadranteak (haur-gaztetxoek kasuan hezkuntza, eta helduen kasuan lan ordaindua), gure bizitzan eragin izugarria izateaz gain, instituzionalki antolagarrienak ditugu. Lan-eremua, neurri batean, erakundeetatik bultzata liteke, arauak ipin litezke, dirua erruz eta zentzuz jar liteke, hizkuntza-teknikari *batailoia* zabal liteke... Hau antola liteke, beste arlo batzuk baino modu sistematikoagoan eta ukigarriagoan.

Laugarren arrazoibidea belaunaldi-gogoetan kokatu dut. Gaur egungo euskalgileek («euskalgile» hitza, euskararen mundua *egiten* ari garenok izendatzeko erabiliko dut) zein komunitateko beste eragileek, eta belaunaldi berriek bereziki, bisioa behar dute, hau da, etorkizun-ikuspegia Iraganetik etorkizunera proiektatzen den kontakizuna. «Estrategiaz» asko hitz egiten dugu, baina estrategia bisioaren alaba izaten da, eta ekintzak bisioaren bilobak. Nora goaz? Non dago *Aizkorriko tontorra*, zer norabide-tan? Lainopeak baldin bagaude, iparrorratzak non seinalatzen digu gailurrerako bidea? Harantz da, apur bat beste alderantz da, benetan aurrera ote goaz? Norabidearen zentzua behar izaten du ganorazko edozein ekimen kolektibok.

Etorkizun-ikuspegiak material gehiago osatu behar dugu, baina tartean, eta nahiko erdigunean, lan-eremuko apustu sendoak gure belaunaldiari eta bereziki belaunaldi berri bati bisioaren zentzua eman diezaioke, etorkizun-ikuspegiaren norabidea. «Gure gurasoek eskola egin zuten, geuri dagokigu lana konkistatzea», oso modu ximplez edo ñabardurarik gabe esanda, jakina, hasita gaudelako, belaunaldi guztien lana delako eta abar. Baina *Urbiako lainopeak* argitze bat eragin dezake, kontakizuna sor dezake, «hortara goaz». Kantuak dioen moduan, «lan eta bizi euskaraz, eta hortara goaz» izan liteke, bada, belaunaldi-kontakizuna osatzeko elementu garrantzitsua.

Arrazoibideak gehiago izan litezke, baina sorta egokia osa dezaketela laurok uste dut. Arrazoibide horiek garatuta, sendo senti gaitzake gogoeta politikoa sustatzeko alderdietan, eta gizarteko eragile nagusien aurrean. Baditugu, neure ustean, elementuak sendo sentitzeko, politika horren beharra oinarritzerakoan.

Ziurrenik interlokutore horien hurrengo galdera izango da: «Baina, nola egin liteke hori? Pausoz pauso, hamarkaden poderioz, lan-eremuan masiboki euskarari espazioak irekitzeko *olatua* sortzea, hori, egin liteke? Badaki norbaitek hori teknikoki egiten?».

Horri ematea dagokigun erantzuna da, apaltasunez, baina tira, «bai, hori teknikoki eskala mugatuagoan egiten badakigu». Ziurrenik doitu egin beharko ditugu metodologiak, baina duela hogeit hamar urte baino gehiago hasi ziren metodologia horiek martxan, eta hogeit hamar urte daramagu, ez proiektu pilotuekin jadanik, enpresa edota erakunde asko eta askotan ibilbide jakingarrian baizik. Hori teknikoki egiteko gai izango gara, hori ez da aitzakia. Badugu teknikari mordoa hori egiteko berariaz prestatu dena urte hauetan guztietan.

Gogoeta batzuk

Etorkizun-ikuspegi edo bisio horri kolore batzuk ematen saiatuko naiz. Hemen esan ditzakegun hitzek gutxi balio dute; politikak, programak eta plan handiak eta irmoak behar ditugu, eta zorionez azken aldian Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza prestatzen ari den egitasmoa norabide egokian doala uste dut. Gaurko jardunaldi honexetan bertan aurkeztuko dira ardatz nagusiak, niri ez dagokit ezer aurreratzea. Poztekoa da gaiari ganoraz heltzeko jarrera hori. Gure hitz hauen funtzioa, gehienez ere, akuilu-lan txiki bat egin, kolore batzuk ematen saiatzea izan liteke.

Lehen gogoeta da, lan ildo hori ganoraz hartzeak munta handiko artikulazioa eskatuko digula. Beharbada euskalgintzan inoiz egin dugun artikulazio-lanik zabalena eta sakonena eskatuko digu *olatu* hori sortzeak. Zeren arteko artikulazioa ote? Bost eragile aipa ditzakegu. Batetik, esparru handiko gure erakunde publikoak (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Aldundiak, ikusi egin behar Iparraldeko Elkargoaren tokia). Bigarrenik, tokian tokiko erakunde publikoak; hor udalen rola garrantzitsua izan litekeela uste dut. Hirugarrenik, tokian tokiko euskararen mugimenduak, edo tokian tokiko euskararen mugimenduen tresnak, euskara elkarteak, euskaralditik sortutako eraketa berriak eta abar. Laugarrenik, nazio esparruko gizarte-ekimeneko euskalgintzaren sare osoa, Euskaltzainditi hasi, hezkuntzazkoak, euskalduntze alfabetatzekoak eta, oro har, Kontseiluan biltzen den erakunde sorta zabala. Eta bosgarrenik, beso teknikoak, une honetan nagusiki zerbitzu-enpresa jakin batzuek mamitua.

Bosteko hori sinplifika liteke, erakunde publikoak, gizarte-erakundeak eta beso teknikoak artikulatu behar ditugula esanez. Baina bostekoa atxiki nahi izan dut, esparru handiko erakundeak eta tokikotasunari dagozkionak ere artikulatu behar ditugula ohartaraztea garrantzitsua dela uste dudalako. Beste gauza batzuetan bezala, gai honi eragiteko ere gako batzuk tokian tokiko esparruan daude, eta hor baditugu tresnak, publikoak nahiz sozialak edo euskaltzaletasun antolatuari dagozkionak erabiltzen asmatzen badugu. Tokian tokiko esparruan antola ditzakegun indarrak, esparru handiko erakunde publikoak eta esparru handiko euskalgintzaren indarrak, norabide honetan elkarri eragiten jarritz gero, kapital itzela izango dugu, munta handiko egitasmo luze bati ekiteko.

Goitik eta behetik elikatu behar dugu mugimendu hori, hasieratik, abiapuntutik hasita. Goitik funtzio garrantzitsuak bete behar dira: arautzea, sustatzea, diru-baliabide ganorazkoak jartzea... Zer eskatu behar diogu Eusko Jaurlaritzari? Haiek, uste dut, aintzat dutela errei hori, eta eurek esango dute zehatzago baina, *abaleginen eskalaz* hitz egin nahiko nuke. Noizbait aipatu izan dut Guggenheim edo AHT egitasmoak

buruan dauzkagula hitz egin behar dugula, eta ez preseski bi hauen *supporterra* naizelako. Alegia, erakunde batek esan dezake: «Kultur politikako ildoak ondo daude, eta ildo horietan jarraitu behar dugu, baina horiez gain *Guggenheim* bat egin behar dugu, eta horrek berariazko inbertsio bat eskatzen du, beste inbertsio guztiak ukituko dituen edo ez dituen, baina honekin benetan goaz». Edo AHT baten kasuan, ez du esan nahi beste garraiobideak hobetuko ez direnik eta errepideak zainduko ez ditugunik, baina AHTa belaunaldiarteko apustu estrategikoa da gobernu batean. Nik horrelako zerbait irudikatzen dut lan-eremuan egin behar dugun inbertsioa eta apustu politikoa.

Uste dut, lehenik, hemen egin behar dugun apustua sendoa izan litekeela, edo izan beharko lukeela. Eta, bigarrenik, horrek akordio politiko sendo xamarra ere eskatuko duela. Hori egiteko aukerak baditugu, neure iritziz. Diskurtsoaren aldetik, gaitasun politiko zeharkatzailearen aldetik, lehen baino gaituago gaude, taula gainean jokaldiak osatzeko modua badugula. Tartean, jardun armatuaren bukaerarekin, oraindik ez gara oso kontziente horrek dakarzkigun baldintza eta aukera berriez, gai hauetan, bereziki.

Udalen zereginaz, tokian tokiko mugimendu euskaltzaleen paperaz eta esparru handiko gainerako euskalgintzako erakundeen ekarpenaz zerbait esan nahi nuen, baina hitzaldiaren mugak tarteko, hurrengo baterako utziko ditut alor horiek.

Lan-eremuan sektore desberdinak ditugu. Langile publikoen multzo zabala daukagu. Hortxe ditugu industria, zerbitzu-entresak, merkataritza... Eusko Jaurlaritza ere hasia da sektoreak, gune geografikoak eta gainerakoak bereizten, lehentasunak tanteatzen eta abar. Bide egokia dela uste dut.

Administrazioa aipagai hartuta, gure arloetan egiten ari garena errepasatzera-koan, «Administrazioan bagabiltza» esan du nire aurretik hizlari batek modu diplomatikoan. *Torlojua apur bat estutu* egingo dut: bai, bagabiltza, baina hori ez da erritmoa. Administrazioiko departamentuak, Ertzaintza, Osakidetza... arlo hauetan beste fundamentu bati heltzeko garaia iritsi da. Administrazioan teknikari-lanak egiten ari den nire lagun batek aipatu zidan, behin langile publiko talde bati galdetu ziola: «Zuek orain duzuen euskara mailaren pareko ingeles maila izango bazenute, eta ingeles maila hori duzuela bidaliko bazintuztete Londresera Administrazioan lan egitera, zenbat hilabete jarriko zinatekete ingelesez lan egiten?» Eta erantzuna izan zen: «Hilabete gutxian».

Beraz, zertan ari gara? Ez dut jarrera hiperkritikotik hitz egin nahi. Hauxe dut aldartea: «orain arte egin duguna, bikain, eta goazen aurrera, ez dugu atzera begiratu beharrik». Baina gai garela uste dut, eta eskatu ere egin behar ditugula, Administrazioan beste erritmo batzuk, langile publikoen multzoan, bereziki. Eta hortik sinesgarritasuna irabaz dezakegula, gauzak planteatzeko industrian, merkataritzan eta zerbitzuetan.

Kontakizuna eta antigorputzak

Uste dut kontakizun bat sortu behar dugula. Kontakizuna aski tinkoa eta aldi berean aski malgua izango dena sentsibilitate desberdineko euskaldunengana jotzeko, gai honekin angelu politiko desberdinetara iristeko. Zertan ari garen, eta zer egin nahi dugun gai honekin. Kontakizun horretarako tresnak baditugula pentsatzen dut. Eta

EGOD (Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketa) ikerketak, adibidez, erakusten digula, lasai komunikatzeko marjina dugula, euskararen onarpen-maila gizartean egonkor xamarra dela, badaukagula non zapaldu, eta badaukagula diskurtsoa egokitzeke gaitasuna, egin behar dugun biderako.

Iruditzen zait *antigorputzak* sortzeari ere adi egon behar dugula, eta sor daitezkeela. Baina lan-eremuaren arlo honetan, gauzak antigorputz gutxi sortzeko moduan egin daitezkeela esango nuke. *Antigorputzak* hezkuntzan, eskolako hizkuntza-ereduetan sortzea logikoagoa delakoan nago. Guraso batek esan dezake: «Nik geure seme-alaben hezkuntza eredia aukeratzeko eskubidea nahi dut, eta A ereduaren eskubidea mantentzen dadila nahi dut». Eta horretan, gurasoaren hautaketa-eskubidea bortxatzea, *bortxatuagoa* da, lan-eremuan planteatuko ditugun jardunbideak martxan jartzea baino. Hemen lan-eremuko hizkuntza-plangintzetan ibili direnek badakite, *bortxatze* kontzeptu horretatik gehiegi ez duten metodologiak planteatzen direla, eta lanerako marjina handia dagoela enpresen hizkuntza-praxian, *antigorputzak* sortzera iritsi gabe.

Printzipio horietan oinarritu dira azken hogeituro urteko hizkuntza-planak enpresetan, gain-gainetik esanda. Lehenengoa: erabilera ardatz. Ez gara hainbeste eskatzen ari (ezagutza ziurtagiriak, tituluak, mailak eta abar). Erabilera da ardatza, eta horrek gero eta bigarren mailan ekarriko ditu ezagutzaren beharra, mailaketak eta gainerakoak. Bigarrena: euskal hiztunak protagonista. Ez gara mundu guztiari hasieratik gauza bera eskatzen ari. Progresiboak dira plangintza hauek, progresibotasun patxadatsua praktikatzan dute. Adostasuna erdigunean jartzen dute. Borondatezkotasuna gidari hartzen dute, ñabardurekin. Eta azkenik, izaera metodikoa, neurtua eta ebaluatua dute.

Hogeituro urteotan enpresetan garatu ditugun hizkuntza-planek, prozesu horiek ez dutela *antigorputz* gehiegi sortzen agertu dute. Bortxatu baino gehiago egiten dutelako, tira, borondateak eraiki, borondate horien gainean pausoak eman, lurra gogortu denean horren gainean hurrengo urratsa egin... Metodologia mota horrek ere baditu bere mugak, eta gauzak findu beharko dira, baina *antigorputzak* biderkatzea behintzat ez da haien arrisku nagusia. Beti doitu eta hobetu litezke metodologiak eta beren printzipioak, baina gutxiago edo gehiago (ez dira ingurune berdinak Osakidetza edo Fagor Ederlan, esate baterako) *antigorputzak* gutxi sortuz egin dezakegu hori, eta sortzen direnak ere modu egokian bideratuz.

Horrek denoi gogoeta zabalagoa egiteko eskatzen digula uste dut. Ez da «euskara plana» soilik. Enpresei hemendik aurrera hizkuntza-kudeaketa konplexua egitera deituta daudela agertu behar diegu, herri honetako enpresa guztiak. Ziurrenik munduko enpresa asko hizkuntza-kudeaketa konplexua egitera deituta daude. Munduko enpresa asko, baina Euskal Herriko enpresa gehienak. Ez gara % 100ean euskaraz egiteari buruz ari. Modu neurtuan eta modu ebaluatuan hizkuntza-plangintza garatzea esaten ari gara, gero eta eskala masiboagoan eta antolatua goan.

Horrek euskalgileoi gure diskurtsoa eta kontakizuna findu beharra, gure euskaltzaletasuna XXI. mendeko bigarren eta hirugarren hamarraldietara doitu beharra ekarriko digu. Egokitu beharra, ez malgutasunean soilik, biguntasunean; baita, malgutasun horren barruan, behar duen asertibitate puntuan ere. Denboraren poderioz, heldutasun puntua iritsiko zaigu, zenbait laguni hauxe esateko bestekoa izango dena: «Ea ba: nik zure hizkuntza ikasi nuen, zure hizkuntza barneratu dut, zure hizkuntza erabiltzen dut, zure hizkuntza maite dut. Eta horri esker zu nirekin zeure hizkuntza

erabilia komunika zaitezke. Ados. Ederki. Ea, hasi, ba, zeu ere. Ezta? Hasi zeu ere! Hogei urte pasa dira». Unearen eta gunearen arabera, diskurtso malguagoa edo asertiboagoa egitera irits gaitzke. Baina oinarrietan, ez dugu belaunak ikara egiten digutela egon behar. Guk hizkuntza asko ditugu, eta hizkuntza asko erabiliko ditugu. Eleaniztunak gara, jendekoiak eta toleranteak gara. Baina euskarak lur hau baino ez du, lur hau baino ez funtzio nagusi batzuk betetzeko.

Beso teknikoaz

Lan-eremuan jarduten duten teknikariak, beharbada euskararen prozesurako ditugun teknikaririk garrantzitsuenak eurok dira. ‘Teknikari balioaniztunak’ deitu izan diet, udal edo erakunde jakin bateko prozesuan zentratuta ez, baina hainbat eta hainbat prozesutan aritutako teknikariak direlako, enpresa, erakunde, udal eta egoera askotan zailduak, gehienetan. Informazio- eta gaitasun-pilaketa aipagarria dute kolektibo moduan, eta zaindu egin behar ditugu, lan tekniko horren prezioak, lehiaketetako baldintzak, egonkortasunak eta abar egoki planteatuz.

Harrobiaz ere pentsatu behar dugu, munta handiko *olatuan* edo egitasmoan sartzera bagoaz. Horrek jende askoren eta jende on askoren lan-gaitasuna eskatuko du. Harrobia makaltzen ari zaigun zantzuak iritsi zaizkigu enpresa horietatik, eta baditugu tresnak lan-indarraren prestakuntza-guneak martxa hobean jartzeko, unibertsi-tateen, euskalgintzako eragileen eta abarren artean.

Orain dela hogeita pare bat urte egokitu zitzaidan Mondragon Taldearen erdi-gunea kudeatzen duen zentro korporatiboan euskara plana diseinatzen eta kudeatzen hastea. Hasierak ziren, geroztik ibilbide luze xamarra egin dute kooperatibek arlo horretan. Zergatik sartu zen Mondragon Taldeko zentro korporatiboa horrelako apustu batean, Fagor, Ederlan, Copreci eta kooperatiba nagusi horiekin batera? Kone-xioak askotarikoak dira. Arrasate inguruko herrietan euskara elkarteak sortuak ziren hamarraldi batzuk lehenago, haiek Euskalan taldetxoak sortu zuten, han bildutako pertsonak akuilu-lanak egin zituzten... Gauzek horrela funtzionatzen dute gurean; euskara elkarte batek eragina izan zuen gero kooperatibetan miloi euro batzuk mugitu dituen euskara planen sorrerako aroan. Gauza gehiago ere bazen: Eusko Jaur-laritzak animatzaile, langile batzuk hariak mugitzen, zenbait gazte bultzaka... Hari gurutzatu mordoxka.

Unibertso aberatsa dugu zentzu horretan, nazioan eta tokikotasunean, erakunde publikoetan eta gizarte-antolamenduan. Eta sare zabal horretako tekla guztiak batera ukitu behar ditugu enpresak *olatuan* martxan jartzeko. Herrietan bada enpresa bat. Nondik ekarriko dugu behar dena hizkuntza-planean fundamentuz txertatzera? Jaur-laritzak, goitikako mezuek, arauak, pizgarriek eta baliabideek badute beren funtzioa; herrietako euskaltzaletasun antolatuetan lortuko du, beharbada, zuzendaritzari bilera erabakigarria eginaraztea; bertako udalak ere harien bat mugi dezake, edota agian herriko ikastolako kontseiluak zeregin garrantzitsua hartuko du enpresaburua berotzen edo batzordeko lagun pare bat kuraiatzen, ikastolako gurasoak ere badire-lako, edo auskalo... Euskalgintzaren indar bizi guztiak batera elkarri eraginez gero, indar multzo handia dugu.

Eta hemen bada gauza bat esan beharrekoa. Bizi dugun aro honen ahalmenak igartzen eta aintzat hartzen jakin behar dugu. Euskalgintzaren unibertsoan, inoiz ez

ditugu izan orain ditugun baldintzak, horrelako munta handiko prozesu baten guztiok norabide berean elkarri eragiteko. Inoiz ez dugu izan orain dugun egoera-sorta, elkarrekiko begirunea eta elkarrekin lan egiteko borondatea hain eskura. Landuz gero, jakina. Jos ditzagun hariok.

Mondragon Taldeko zentro korporatiboan duela hogeit hamar urte sartu nintzenean, nire euskaltzaletasunaren eskema batzuk erantzi behar izan nituen. Zentro korporatiboan gehienak ardura exekutiboak zituztenak ziren, goi-mailako teknikari batzuk, idazkariak, hizkuntzaren aurrean hotzetik erdi-berorako temperatura gama zabalekoak, eszeptikoak, bakarren bat kontrakoa, gehienak epelak, pare bat euskaltzaleak; politikan ere garai zailagoak ziren... Eta ariketa egin behar izan genuen. Nola kudeatuko dugu hau? Nola hasiko gara borondateak eratzen, eta borondate prekario horien gainean atzeraezinak izango diren pausoak ematen?

Une hari lotutako bi aipamentxorekin bukatuko dut. Duela hogeita bizpahiru urte, horretan hasi ginenean, berariaz enpresetako euskara planak kudeatzeko kooperatibatxoa sortu genuen, langileok oso gutxi ginen hasieran, bizpahiru, eta gogoan dut horietako batek esan zidala: «Ez jakiat noraino joango garan, baina Euskal Herriak etorkizuna bajaukak, kooperatibatxo honek etorkizuna jaukak. Ze Euskal Herriak etorkizuna bajaukak, izango dok euskerea aurrera doalako, eta euskereak aurrera egin behar jok, lan-eremuan aurrera egingo jok, eta halan badok, gure enpresa honek etorkizuna jaukak».

Joan den astean topo egin nuen Mondragon Taldeko organo sozio-instituzional gorenean, kapital-korporazio batean administrazio batzordea den batzorde iraunkorrean parte hartzen duen lagun batekin. «Zein hizkuntzatan berba egiten dozue batzarretan?», itaundu nion. «Euskeraz», erantzun zidan.

Baikor bukatzeko modu merkea da, badakit. Bukatu ez, hasi egin behar dugu merketik, garesti dagoenera jotzeko.

Euskara arlo sozioekonomikoan:
esperientzia arrakastatsuak

ASPACE BIZKAIA: LEHENENGO EUSKARA PLANA (2017-2019)

Ane Aurtenetxe eta Nerea Mandiola Solozabal
Aspace Bizkaia

Iazko urte bukaerarekin batera amaitu genuen Aspace Bizkaian 2016. urtean martxan jarritako 2017-2019 Euskara Plana, gure lehenengo euskara plana. Egitasmo hau elkartearen beraren errealitate bati erantzuteko abiarazi genuen, apurka-apurka euskarak gero eta leku handiagoa izan zezan. Aspace Bizkaiak urte asko daramatza gizartearen beharrian jakin batzuei erantzuteko lanean, eta gure lurraldeko egoera kontuan izanda, funtsezkoa iruditzen zitzaigun euskara erantzun horren parte izatea.

Gure xedea Bizkaian garun-paralisia eta antzeko gaitzak dituzten pertsonak, eta baita horien senideek ere, bizi-ziklo osoan, bizi-kalitate integrala izan dezaten ahalbidetzea da, gizarte barne-hartzaile baten garapena sustatzearekin batera. 1978an hasi eta gaur egunera arte lan horretan dihardugu: 587 bazkide ditugu eta 574 pertsonari laguntzen diegu gure 14 zentroetan lan egiten duten 220 profesional eta 140 boluntarioei esker. Gure lana albait hoberen burutzeko, hainbat elkarte eta elkarguneekin kolaborazioan dihardugu (FEVAS *Plena Inclusión Euskadi*, EDEKA Elbarrituen Ordezkarien Euskal Kontseilua, SAREKIDE Getxoko Boluntariotza Erakundeen Elkarte, BAI SAREA Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundeen Sarea, AEDIS *Asociación empresarial para la Discapacidad*, besteak beste), betiere Aspace Bizkaiaren oinarri diren balioak ahaztu gabe: duintasuna, autodeterminazioa, aukera berdintasuna, aniztasuna, erantzunkidetasuna, kalitatea, berrikuntza, elkartasuna eta konpromiso etikoa. Hainbat zentro eta zerbitzu ditugu gure lana garatzeko, Bilbo hirian (San Inazio, Deustu, Txurdinaga...) edo horren inguruan (Barakaldo, Trapagaran, Loiu eta Mungia) daude gehienak.

Abiapuntua

Aipatutako horixe da euskarari garrantzia ematerakoan kontuan hartu behar izan dugun testuingurua. Bilbon euskararen ezagutza indizea % 48,94koa da (Eustat 2016) eta kaleko erabilera % 2,5ekoa da (Soziolinguistika Klusterra 2016: 9), eskualdean euskaldun asko dago, baina badira orokorrean guztiz erdaldunak diren espazioak, eta ondorioz, eguneroko giro guztiz erdalduna izaten dutenak. Aspace Bizkaian horrelakoa zen egoera 2016. urte hasieran. Lehen harreratik hasi eta azken agurre-raino, telefonoz zein aurrez aurre, zaila zen gure lanean euskarazko hitzik entzutea.

Hain zen indartsua dinamika hau, ezen euskaldun zaharrak diren langileek ere igarri barik erdarara jotzen baitzuten. Konturatu gabe, bertako pertsona guztien arteko harremanak erdara hutsean mantentzen ziren, nahiz eta euskal hiztun askorentzat egoera hau deserosoa izan. Euskararen presentzia faltak hizkuntza batetik bestera salto egiteak dakarren sentazio arraro hori elikatzen zuen euskal hiztunengan, beste mundu batean egongo balira bezala. Hizkuntza baten onarpen mailak bertako hiztunen ongizatea baldintzatzen du, eta erdararekiko ezberdintasun horrek lekuz kanpo sentiaraztera eraman zitzakeen.

Lehen urratsak

Azken lau urteetan ordea, asko aldatu da egoera hori. Hasieran geneukan basamortu hartan hasi dira ur putzu txikiak agertzen. Normalizazio prozesuaren lehen urratsak antzeman dira, eta oraindik egiteko asko geratzen den arren, euskarak badu bere txokoa gure elkartean. 2016. urtean zuzendaritzak Euskara Plana martxan jartzeko erabakia hartu zuenean, esperantzari tarte txiki bat ireki zitzaion. Artez Aholkularitzarekin elkarlanean hasi eta berehala egin genuen Aspace Bizkaiako euskararen egoeraren diagnostiko bat, momentuko egoera zehatza jakiteko. Hori, espero bezala, triste xamarra zen: erakundearen irudiari, bezeroekiko eta herritarrekiko harreman jakin batzuei eta lan tresna konkretu batzuei zegokienez zaintzen zen euskararen erabilera, baina gainerako jarduera guztiak erdaraz egiten ziren. Langileen euskararen ezagutza maila nahiko apala zen, zerbitzu zentraletako langileena barne. Azken hauen lana funtsezkoa da gure elkartean: batetik, bazkide edo erabiltzaileen dei eta kontsulta asko zuzenean jasotzen dituztelako, eta bestetik, elkarteko langile guztiekin dutelako eguneroko harremana. Dena den, egoera horrek ez zigun aurrera egiteko gogorik kendu, aitzitik, laguntza ederra izan zen nondik jo erabakitzerako orduan.

Egindako bidea

2017-2019 Euskara Plana diseinatu genuen orduan: erakundeko hainbat ordezkariarekin eta Artezko kideekin eraturako Euskara batzordea sortu genuen eta hiru urte horietan zehar landu beharreko erronkak ezarri genituen. Hizkuntza politika eta hizkuntza irizpideak identifikatu eta langileen artean zabaltzea funtsezkoa izan zen, ondoren zentro bakoitzak landuko zituen mikro-planen garapen egokia bermatzeko. Horretaz gain, aholkularitzaren bidez eskuragarri izan genituen metodologia berri-tzaileak benetan lagungarriak izan ziren aldaketaren baitan, Soziolinguistika Klusterrak jorraturako Ulerrizketa metodologia esaterako. Halaber, 2018. urtean Euskal Herri mailan egin zen Euskaraldia esperimendu soziolinguistikoari jarraipena eman nahian, “barne Euskaraldia” bultzatu da elkartean, ahal den neurrian hizkuntza ohi-turetan izandako eragina mantendu dadin. Horrekin batera, beharrezkoak izan dira langileek jasotako prestakuntza saioak, ez langileen euskararen ezagutza maila handitzeko soilik, baita euskararen erabilera bultzatzeko ere. Formakuntzara bideratutako inbertsioa guztiz erabakigarria izan da, ahalegin horrek bueltan onura ugari ekarri baitizkigu.

Planak aurrera egin ahala, jardunaldi berezia antolatzea erabaki genuen, ordura arteko lorpenak partekatu eta izan zitezkeen korapiloak askatzeko. 2018ko abenduan

egindako jardunaldi horretan, gerora Euskara batzordeak jorratuko zituen ekarpen ugari jaso ziren. Erakundeko goi postuetako pertsonen parte hartzea garrantzitsua izan da prozesu honetan guztian, euskarak duen garrantzia azpimarratzeko balio izan baitu. Kudeatzailea, prestakuntza arduraduna, medikua edota administrazio sailko burua euskara ikasten ari dira, aldaketa erabakigarria sustatuz eta inplementatuz eguneroko lanaren euskalduntze prozesuan. Gainerako langileentzat eredu izateaz gain, lorpen nabarmena da bilerak eta laneko hainbat auzi euskaraz jorratu ahal izateko aukera izatea. Hala ere, euskara laneko tresna soil bat izatetik oso urruti dago oraindik. Gurean euskarak lan giro positiboa esan nahi du, talde lan eraginkor bezain atsegina ahalbidetzen duen espazioa, eta langileen arteko kohesioa indartzeko funtsezkoa den osagaia. Zentro guztietako langileen parte hartzea hainbeste zabaldu zen, non nabarmen geratu baitzen beste koordinatzaile baten beharra, lana ahalik eta modu ordenatu eta argienean aurrera eramango bazen. Ordura arteko koordinazio lana proiektuaren alderdi orokorraz arduratzen zen (prestakuntza saioak antolatu, bideratu, ekintza zehatz batzuk antolatu eta abar), baina Euskara batzordearen koordinatzailea izendatzeak planaren dinamizazioa barru-barrutik gidatzea ekarri du, erakunde barneko erreferentzia zehatza izanez.

Hiru urteren buruan, 2017-2019 Euskara Planak eman ditu bere fruituak. Euskarak hasiera batean gure erakundean zituen mugak gainditu ditu: urtero (euskararen) kudeaketa plana diseinatzen da, aurrekontu propioak ditugu horretarako; baliabideak, langileen orduak euskara planeko ekintza desberdinetan inbertitzeko; erakundearen irudiari dagokionez presentzia handiagoa du, baina batez ere, pertsonen arteko harremanen kasuan (bezero eta herritarrekiko harremanak, pertsonen kudeaketa, barne eta kanpo kudeaketa) euskara aukera erreal bat bilakatzen ari da. Hauek dira argi ikusten ditugun lorpen zehatzak:

- Aspace Bizkaiaren hizkuntza politika eta hizkuntza irizpideak langile guztiek ezagutzea.
- Zentro guztietan bultzatzaileak eta lantaldeak izatea.
- Agurrak euskaraz egitea: kanpora begirakoak eta mezuetakokoak.
- Mezu elektronikoko batzuk euskaraz eta asko ele bitan idaztea.
- Euskara batzordearen bilerak hein handi batean euskaraz egitea.
- Hainbat lantaldetako bilerak euskaraz edota ele bitan egitea.
- Langileen euskararen ezagutza maila hobetzea: A1etik B2rako bilakaera 2016tik 2019ra.
- Ezagutza handitu ahala praktikan jartzea eguneroko lanean, erabilera areagotuz.
- Gaztelaniaren dinamika apurtzea.
- Langileak euskarara hurbiltzean, aldaketaren kontzientzia hartzea.

Norantz joko dugun

Lantaldeak egindako esfortzuak eta inplikazioak ekarritako aurrerapausoak ikusita, ezin diogu asko gehiago eskatu pasa den hiru urteko honi. Bai, ordea, datorrenari: Aspace Bizkaiaren euskarari behar duen tokia egiteko prest eta gogotsu gaude oraindik, eta horren harira proposatu ditugu 2020-2023 Euskara Planean kontuan

izan beharreko erronkak. Helburu nagusia euskara erakundeetan guztiz normalizatua izatea da. Horretarako langileen euskara maila orokorra hobetu behar dugu, formakuntza hizkuntza ohituren aldatetara eta aldateta horiek mantentzera bideratuz. Oinarritzat izango da oraindik gurean lanean urte asko igaroko duten langileak euskarara gero eta gehiago hurbiltzea, postu garrantzitsuetan daudenak bereziki, hizkuntza giroa geroz eta euskaldunagoa izan dadin. Etorkizunera begira, elkarteak ematen duen zerbitzua euskaraz izatea bermatu nahi dugu, eta prest gaude bide honetan erabilgarri izan daitezkeen eta emaitza hobeak lortzen lagunduko dituzten metodologia berriak probatzeko. Mundu berri bati zabaldu genizkion ateak duela lau urte, itxi ez daitezen jarraituko dugu lanean; gure mundua gero eta zabalagoa izatea nahi dugu.

Erreferentziak

- EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA (2020ko urtarrilak 20). *Euskal Autonomia Erkidegoko >=2 urteko biztanleria per udalerría, euskara-maila, adina eta aldia* [Datu bankua]. https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_3671_ne04.px.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2016). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2016*. SLK: Andoain, Gipuzkoa. http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-_eu_I.pdf.

CAF: IGO EUSKARAREN TRENERA

Joxe Begiristain
CAF

Euskara Planaren sorrera

Aurten, 2020an, 25 urte beteko dira Beasaingo CAFek enpresan euskarari bere lekua egiteko zerbeit arautuari ekin zionetik. 1995a zen eta Eusko Jaurlaritzak mar-txan jarri behar zituen Euskara Plan pilotuetarako, CAFek bere burua eskaini zuen. Honela jaso zuen 1992an Elhuyar Aholkularitzaren laguntzaz egin zen “Bideragarri-tasun-txostena” dokumentuaren sarrerak: “CAF enpresako zuzendaritzaren eta eus-kara-batzordearen eskaria jasoz, CAFek Beasainen duen faktorian euskararen erabilera areagotzeko mikroplangintzari hasiera eman zaio Hizkuntza Politikarako Idazkaritzaren eskutik 1992ko maiatzean”.

Enpresaren tamaina kontuan hartuta, ordea, eta plan pilotuak arrakasta izateko diseinatzen direnez, lantokia bere osotasunean hartu beharrean, sail jakin batean has-tea erabaki zuten: trenen Akabera Sailean, hain zuzen ere.

Gerora, sail hartan izandako esperientzia baliatuz, Beasaingo lantegiko beste sail edo departamentu batzuetara zabaltzen joan zen pixkanaka: Giza Baliabideak, Bulego Teknikoa...

Azkenik, 2006an, aurrerantzean lantegia bere osotasunean hartuko lukeen Eus-kara Plana jarri zen martxan; gaur egun indarrean dagoena.

Urtebete lehenago, 2005ean ekin genion CAFen Irungo lantegian bertara ego-kitzeko propio diseinatutako Euskara Planari: 15 urte beteko ditu han aurten.

Euskara Planaren mugarriak

- Aurretik: Zaldibiako zentral elektrikoan euskaraz idatzitako kartelaren pre-sentzia, baina enpresan giro erdalduna, dena gaztelaniaz. Euskaldunek eus-kaldunekin ere gaztelaniaz.
- 1979ko abenduan, lehenengo aldiz, Beasaingo CAFek pertsona bat kontra-tatu zuen euskara-lanetarako: euskara-eskolak koordinatu, elementu batzuk ele bietan jartzen hasi...
- 1988-1989 urtean Beasaingo Udalak lehen azterketa soziolinguistikoa egin zuen, eta CAFen ere zehatz-mehatz egin zen inkesta oso garrantzitsua izan zen.

- 1992an “Bideragarritasun-txostena” egin zen.
- 1995. urte inguruan ELAYra egin zen bisita ere garrantzitsua izan zen.
- 1995. urtean lehen Euskara Plana Beasainen, IV. Dibisioan (Trenen Akaberan), Eusko Jaurlaritzaren Plan Pilotuen baitan eta Elhuyarren laguntzarekin.
- 2005. urtean lehen Euskara Plana Irunen.
- 2006. urtean Beasaingo lantegia bere osotasunean hartzen zuen lehen Euskara Plana.
- 2006. urtean Euskara Arduraduna lanpostua sortu zen: CAFeko langilea, Euskara Planaren kudeatzaile izateko, aurrez genuen Elhuyar Aholkularitzakoez gain.
- Enpresa-mailako Euskara Batzordea sortu: sail guztietatik koordinatzaileak izendatu eta sindikatuetakoko eta Zuzendaritzako ordezkariekin osatu. Deskargurako batzorde izatetik lanerako batzorde izatera pasatu zen. Planaren motorra.
- 2007. urtean Hizkuntza Politika Orokorra zehaztu eta langile guztiei helarazi. Ardatz guztietarako irizpideak Bikain ebaluaziorako erabiltzen den EMERen (Erreferentzia Marko Estandarra) arabera sailkatuta: erakundearen irudia, barne harremanak, baliabide informatikoak, pertsonen kudeaketa...
- Beasaingo Euskara Batzordea: sailtako Euskara koordinatzaileak eta sindikatuetakoko nahiz Zuzendaritzako ordezkariak. Hilero bilera. 4 urteko Plan Estrategikoak eta horiek urte bakoitzera egokitutako Jarduera Planak.
- Irungo Euskara Batzordea: sailtako Euskara koordinatzaileak eta Zuzendaritzaren ordezkaria. Beasaingoaren funtzionamendu bera.
- Komunikazio-kanal indartsuak sortu langileengana iristeko: 2006an, *Galardi* euskara aldizkaria. Hiru zenbaki argitaratzen ditugu urtero. Dagoeneko 40 zenbaki.
- Urtero, Motibazio Kanpaina indartsu eta arrakastatsuak.
- Gai espezifikoak lantzeko azpibatzaileak: Neurketa-lantaldea, Hizkuntza Politika Orokorren jarraipenekoak, *Galardi*, Motibazio Kanpaina, Hizkuntza-eskakizunak...
- Talde Naturalak; langileen euskararekiko jarrerak lantzeko saioak. Urtero bi sailetan antolatzen dugu Beasainen eta batean Irunen. Dagoeneko, urtez urte, 30 gunetan baino gehiagotan landu ditugu elkarrekin lan egiten duten taldeekin euskararekiko jarrerak areagotzeko esku-hartzeak, eta emaitza positiboak izan dira. Talde Naturalekin beste mundu bat zabaldu zen eta inkomunikazioa zegoen komunitateen artean zubiak eraikitzen hasi ziren.
- 2011. eta 2017. urtean Irunen eta Beasainen hurrenez hurren, bietan, Bikain euskararen ziurtagiria erdiko maila. Aurrez, Bikain sortu zen urte berean, 2008an Beasaingo lantegian oinarritzko ziurtagiria.
- Terminologia eta alfabetatze-lana: CAFek terminologia lana egin du. CAFek bere hiztegi espezifikoak landuta dauka eta, gainera, “Tregintza hiztegia” sortzeko erabili zen gerora, edozeinentzat erabilgarri Intranetean.
- Euskara-eskolak: % 100 ordaintzen dizkie enpresak euskara-klaseak hala nahi duten langile guztiei. Horrez gain, Irunen, euskara-klaseak ematen dira enpresan bertan.

— 2019an:

- Hizkuntza Politika Orokorra berritu dugu, EME berriaren arabera. Laster argitaratu eta langileei eskura banatuko diegu.
- Berbasarea dinamika gauzatu dugu Giza Baliabideetako Lan Harremanetarako Sailean.

Euskara Plana zergatik?

Euskara Plana zergatik ezarri zen aztertuz gero, gizartearekiko erantzukizunean dago jatorria: gizartean beharra eta eskaera zegoen, eta horrek isla izan zuen enpresan ere; nagusiki, identitate-arrazoiengatik. Euskara gure kultura, identitate eta nortasunaren adierazgarria delako, eta herriari eta norberari zor zaion zerbait delako.

Horretan lagundu zuen, noski, ardura-postuetan pertsona euskaltzaleak egoteak eta horiek izan zuten jarrera (garai hartako Zuzendaria, lekuko). Funtsezkoak izan ziren ere, euskalgintzan lan-munduarekiko zegoen kezka eta Eusko Jaurlaritzak Plana bultzatu izana.

Euskara Planak zertarako balio izan du?

Argi dago CAFeko Euskara Planak, oro har, hainbat onura ekarri dizkiela langileei, baita enpresari berari ere:

- Normalizazioa bultzatzeko eta lanean euskara erabiltzeko aukera.
- Jendearengana heltzeko, euskaldunengana iristeko modu bat.
- Kohesio-elementu bezala balio izan du eta enpresan horizontaltasuna ematen duen zerbait da.
- Euskara kultura bezala ulertzen da eta, gaur egun, euskal gizartean ondo ikusia dago. Erdaldunek euskararekiko zuten ikuspegian eta jarreran aldaketa gertatu da. Gaur egun, eraikuntza kolektiboa, zabaldua, partekatua da.
- Zabaldu egin da euskara, eta gaur egun ez zaio estereotipo bati lotzen eta ez da samintasun hori horrenbeste sentitzen.
- Euskaldunen lotsari aurre egiteko modua bilatu da euskara-planarekin eta egun harro egoteko modua bihurtu da, herrian, gizartean eta baita enpresan ere. Baliorik ez izatetik balio izatera pasa da euskara, eta orain, euskara balio erantsi bat da CAFen, *plus* bat.
- Langile euskaldunak motibatuzeko eta laneko bizi-maila hobetzeko balio izan du euskarak. Gaur egun, langileek euskaraz egin dezakete lana, neurri batean behintzat, eta langile euskaldunak erosoago, gusturago sentitzen dira lanean.
- Jendea inplikatzeko eta partaidetza sustatzeko. Langileek euskararekiko duten inplikazioaren motorra da CAFentzat eta beste arloetarako ere baliagarria.
- Proiekzioa, erreferentzialtasuna, errekonozimendua, “marka”.

Hori hala izan dadin lana indartu edo erraztu duten oinarri batzuk baziren, noski. Batetik, inguru euskaldunean kokatuta egotea eta lantegiko leku estrategikoetan

kontzientzia euskalduna egotea (zuzendari, arduradun edo taldeburu euskaltzaleen konpromisoak nahiz langile euskaltzale erreferenteak). Bestetik, kanpoko laguntzak ere: aholkularitza eta beste erakundetatik datozen ekimenak. Eredu-aldaketak ere izan du zerikusia, sailtako Planetatik Enpresa osorako Planerako jauziak, alegia.

Eta nola ez, euskarak hartu duen tokiak, piztu den kontzientziak (langileen eta Goierri Eskolatik etorritako ikasleen eta sindikatuen kontzientziak eta lanak...) eta Euskara Batzordearen lan indartsuak.

Halaber, honako elementu hauek ere lagundu dute CAFen euskararen sua mantentzen: Bikain ziurtagiriaren oinarritzotik zilarrezkorako jauziak, Euskara arduradunaren eta sail bakoitzeko arduradunen lanak, enpresak jarri dituen baliabideak, Motibazio Kanpaina indartsuak, Talde Naturalak, euskara klaseak ordainduta eta, Irunen, enpresan bertan izatea, Aholkularitzaren lanak eta beste erakundetatik datozen ekimenak.

Eta gaur egun zer?

Beasaingo lantegian 2.838 langile gara eta horien artean % 52k du euskara-ezagutza. 20 pertsonak osatzen dute Euskara Batzordea.

Irungo lantegian 332 langile gara eta horien artean % 60k du euskara-ezagutza. 12 pertsonak osatzen dute Euskara Batzordea.

2006. urteaz gero Euskara arduraduna lanpostua du CAFek, bertako langileriarekin bi lantegietako Euskara Planak kudeatzeko, lanaldi osoko jardunean.

Elhuyar Aholkularitzarekin jarraitzen dugu, 1995etik, etengabe: horrek gure etxetik kanpoko ikuspegia bermatzen digu, bai beste enpresen euskararekiko esperimentziak ezagutzeko eta partekatzeke, bai euskalgintzaren beste arlo batzuetako unean uneko ezagutza izateko.

Hori esanda, hauxe litzateke Euskara Planaren gaur egungo egoera, labur esanda:

- Lan-harremanetarako hizkuntza ingelesa da. Ondorioz, beste era batera lan egiten da eta horrek ez dio euskarari asko laguntzen.
- Gaur egun ondo ikusia dago euskara. Erdaldunek euskararekiko zuten ikuspegian eta jarreran aldaketa gertatu da. Orain, eraikuntza kolektiboa, zabaldua, partekatua da.
- Belaunaldi-aldaketa dator, eta belaunaldi berriak euskararenganako atxikimendu lausoagoa du. Kontu izan horiek direla agintera iritsiko direnak.
- Barrutik hobetzeokoa ikusten dira, baina kanpoan erreferentetzat gauzkate euskararen arloan. Traktore-lan hori egiten ere badihardu, eta euskara bultzatu asmoz, hainbat gunetan parte hartzen du CAFek: CAF-Elhuyar sariak, Igartza beka, Bikain, Jendaurrean Erabili, Indeus, Ingudea (Goierriko Enpresen Euskara Batzordea), Euskaraldia...

Erronka nagusiak

- Hizkuntza-irizpideak betetzen direla bermatzea eta segimendua egiteko mekanismoak sistematizatzea. HPOa berritu eta langile guztiei zabaldu, ikuskaritzak egin...

-
- Ahozko komunikazioan jarduera berriak txertatzea eta euskararen erabilera datuak hobetzea, “belarriprest” jarrerak sustatuz: Talde Naturalak, Eusle metodologian oinarritutako Berbasarea...
 - Euskararekin konprometitutako erakundea izaten jarraitzea eta elkarlanean aritzea.
 - Lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna aplikatzea.
 - Urrezko Bikain ziurtagiriak lortzea.
 - Hizkuntza erakundeko kudeaketan txertatzea. Arduradunekin saioak, beraien inplikazioa eta konpromisoa lortzeko.
 - Belaunaldi berriak janzteia eta kontzientzia lantzea, hiztun gisa ahalduntzeko, eta Euskara Planari zentzua eta jarraipena emateko. Halaber, garrantzitsua izango da, belaunaldi berrietara iristeko, giltzarria izango diren pertsonak aurkitzea.
 - Euskararen aldeko diskurtsoa berritzea eta zabaltzea, kulturara bideratzen jarraituz eta balio erantsia emanez.
 - Lidergo naturalak sustatzea (jende euskaltzalea, aktiboa, inplikatu...).
 - Euskara Planaren inguruko balioen transmisioa bermatzea.

LABORAL KUTXA: EUSKARAREN IRAGANAZ, ORAINAZ ETA ETORKIZUNAZ

Iñaxio Garro
Laboral Kutxako Euskara arduraduna

Ezertan hasi aurretik, esker ona adierazi nahi diot Euskaltzaindiari gure entitate aintzat hartu eta denbora-tartetxo hau eskaintzeagatik.

Gaurkoan gure liburuaz hitz egitera etorri naiz, Laboral Kutxaren liburuaz, alegia, betiere “Arlo sozioekonomikoa euskararen biziberritzean” esparruaren baitan, eta gure liburu honek ondoko bi kapitulu, bi atal ditu:

- batetik, euskarak Laboralean egin duen ibilbidea azalduko dizuet, mugarri esanguratsuenak aipatuz, begia iraganean eta orainean jarritz;
- bestetik, aurrera begira jarri eta zerumugan, horizontean, ikusten duguna azalduko dizuet.

Atzealdeak erakusten omen du aurrea nola dantzatu. Esaera horri helduta jarriko naiz abian. Horregatik, gaurko erronkak eta kezkak ulertzeko, denboran atzera egingo dut, zer garen eta nondik gatozen erakutsiz.

Mugarrietara etorrira, duela 60 urte jaio ginen, baina oraindik ez daukagu erre-tiroa hartzeko asmorik; izan ere, oraindik badugu zer egina. 1959an entitate euskalduna izateko bokazioz jaio zen Laborala, eta harrezkero euskararekin erakutsi duen konpromisoa askotarikoa izan da. Eta hau ez da kasualitatez gertatu; gure entitateak, bere nortasuna eratzeko eta finkatzeko unean, hasieratik izan zuen kontuan euskararekiko konpromisoa, eta horrela aitortzen dute gure Estatutu Sozialek sorrera-egunetik: “Euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala da, eta behar diren neurriak hartuko dira euskara ezarritz joan dadin”.

1970era etorrira, garai hartan Lankide Aurrezkia euskararen normalizazioan aitzindari izan zen, eta hamaika kultur ekintza babestu zituen eta euskara sustatzeko dirulaguntzak bideratu zituen han eta hemen: herriz herriko Olentzero jaiak bultzatu zituen, Orbegozo Fundazioarekin elkarlanean, euskal zinemagintzaren haztegia izan ziren *Ikuskak* izeneko dokumentalak babestu eta finantzatu zituen (Jabier Agirresarobek, Pedro Oleak, Montxo Armendarizek eta beste hainbatek zuzendutakoak). Eta nork ez ditu gogoratzen gure etxeko paretak bete eta hornitu zituzten egutegi argazkiak? Euskal kulturarekin lotutakoak ziren: tradizioarekin, euskal kirolarekin edo euskal dantzekin.

1975ean Euskal Herriko hainbat eta hainbat udalerritan ikastolak hasi ziren hazten, zabaltzen eta ernatzen. Mugimendua ikaragarria izan zen, eta horri laguntza, babesa eta egitura eskaintze aldera, orduko Lankide Aurrezkian Ikastolen Departamentua sortu zen, eta bost urtez bi lankidek jardun zuten ikastolak bideratzen eta egituratzen. Izan ere, ikastolek finantzaketa, aholkularitza beharra zuten, eta ikastolei kreditua Lankide Aurrezkiak baino ez zien ematen. Beraz, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak jarri zituen sortzen ari zen mugimenduaren eskumenean. Pentsa ezazue, gure langileetako batek Madriler, bi asterik behin, Hezkuntza Ministeriora joan behar izaten zuen, tramiteak eta gainerako gestioak egitera, besapean ikastolen txostenak zituela.

1980an Ikastolen Departamentua desegin zen, Eusko Jaurlaritzak heldu ziolako erronka horri. Tarte horretan, 50 ikastolatik gora legeztatu ziren, Xabier Pagaldai lankidea buru zela.

1985ean Euskara Zerbitzua sortu zen, eta horrek eragin zuen hurrengo urtean, 1986an, entitatean euskararen presentzia berpizteko proiektu bat garatzea eta euskararen egoeraren inguruan hausnarketa egitea. Zuzendaritza Batzordeak eta Kontseilu Sozialak proiektua onartu zuten. Horrela, entitatean euskara egituratzen hasi zen, pertsona bat soka horretatik tiraka hasiz, baina Zuzendaritzaren babesean.

Horren eraginez, urtebete geroago, 1987an, Euskararen I. Plan Estrategikoa diseinatu zen (*Hizkuntzaren Normalizazio-bidean Plangintza Estrategiko bateranzko hainbat abiapuntu* izeneko dokumentua) eta lehenengo Euskara Plana onartu zen. Kanpoko tesuingurua berezia zen arren, ez oso aldekoa esango nuke, entitateak euskara garatzeko konpromiso tinkoa zeukan eta aurrerantz egin zuen.

Urteak aurrera joan eta 1992an euskararen inguruko giza egitura sendotu egin zen, eta zortzi lagunek osatutako Euskara batzordea sortu zen duela 27 urte. Euskara teknikariak lantalde eraginkorra eta konprometitua izan zuen alboan, bidelagun aktiboak ekintzak bideratzen. Era berean, euskara ikasteko laguntzak emateko indarrean zegoen araudia eguneratu eta osatu egin zen. Horri esker, dozenaka eta dozenaka lagun hasi ziren euskara ikasten edo/eta hobetzen. Gaur ere indarrean dago araudia, eta ia ehun langile ari dira euskara ikasteko/hobetzeko prozesuan.

1995ean, bestalde, “Hizkuntzen Korda Berria” izeneko Euskara Plana diseinatu zen. Zortzi urtez egon zen indarrean, eta euskarari gune zabalago bat ematea zen bere helburua, barruko harremanetan eta, batez ere, bezeroekiko harremanetan.

Hizkuntzen erabilerarako proposatu ziren helburu nagusiek entitatea norantz mugitu eta noraino iritsi nahi genuen erakutsi zuten. Plan anbiziotsua izan zen, eta pertsoneri eta sistemeri eragin zien zuzenean.

Plan horrek beste esparru batzuei atea irekiarazi zien, eta 2000. urtean Hizkuntza batzordea sortu zen, Zuzendaritza batzordearekin interlokuzio zuzena duen lantaldea (kideen erdiak Zuzendaritza batzordeko kide dira).

Bai Euskarari ziurtagiria (42 bulegotan), “Zuk eta nik, biok euskaraz” kanpaina (kartelak, eranskailuak eta errotulu pertsonalizatuak bulegoetan), Sarea kolektiboa (350 partaide hasieran) eta Hitzarmenak (geuk sustatutakoak, geuk bultzatutakoak).

Ondoren, bost urteko tarte hartuko dut aztergai, 2006tik 2010era artekoa. Eta tarte honetatik hiru ekimen horiek azpimarratuko nituzke: EUPE berria, Laneko Euskara (600 partaide eta bi urtetan hiru eguneko hiru saio), “Euskaraz ere,

naturaltasunez” kanpaina (publizitatea irrati, egunkari eta telebista mailan, bezeroei *mailing* pertsonala). *Mailing* horretan, bezeroak animatzen genituen Laboralarekiko idatzizko harremanak euskaraz izan zitezten.

Hurrengo ere bost urteko denbora-tartea da, 2011-2015, eta entitatearentzat eta baita euskararentzat ere gurean garrantzi handia hartuko duen gertakizun bat jazoko da: CLP eta Ipar Kutxak bat egin zuten, ezkondu, eta Laboral Kutxa sortu zen. Laboralak dezente garatuagoa zuen Euskara Plana Ipar Kutxak baino, eta bere langileak gure bulegoetan eta gure Zerbitzu Zentraletan sartu zirenean, ikusi genuen euskara planak doikuntza-lan batzuk behar zituela, errealitate soziolinguistikoak desberdinak zirelako. Hala ere, eta desoreka horri erantzunez, gaur egun euskararen garapenean funtsezkoak, ezinbestekoak diren bi lan-tresna onartu zituen Zuzendaritzak: Hizkuntza-irizpideen eskuliburua (entitatearen esparru guztietan euskarari eta gaztelaniari eman behar zaien tratamendua eta presentzia arautzen du), eta Hizkuntza-eskakizunen protokoloa (langile berrien kontratazioa eta barneko sustapenak kudeatzen dituena).

Azken txanpa honetan, lau urteko tartea, 2016tik 2019ra artekoa. Euskararen Kalitate Ziurtagiria jaso genuen, Urruneko Bankan eta hurrengo urtean entitate osoan. Errekonozimendu gorena jaso izanak erakutsi zigun urteetan euskara garatzeko eta normalizatzeko egindako ahalegina ez dela antzua eta alferrikakoa izan.

Umiltasunez eta konpromiso handiz jaso genuen aitortza, atzera begiratu eta egin dena asko dela ikusi arren, egin beharrekoa ere asko dela onartuz.

Horrela, kostata, baina heldu gara bigarren atalera, hau da, aurrera begirako erronka eta helburuetara.

Joan den uztaillean hasi eta duela hamar egun amaitu genuen Euskararen Plan Estrategiko berriaren diseinua. Aldi berean landu dira entitatearen Plan Estrategikoa eta Euskararen Plan Estrategikoa. Horrela, euskarari dagozkion helburuak entitatearenean txertatu ahal izan ditugu. Eta hori posible izan da Zuzendaritzak ere modu aktiboan parte hartu duelako euskararen planaren diseinuan, eta erronka Zuzendaritzaren agendan egon delako.

Prozesu honetan, harremanetan jarri ginen 15.000 bezerorekin eta 300 lankiderek, eta batzuei zein besteei beren iritzia eskatu genien, eta asko eta asko izan ziren ekarpenak egin zituztenak. Jakina, horiek ere aintzat hartu genituen Plan Estrategikoa garatzeko unean.

Erreferentzia Marko Estandarra izan zen plana osatzeko erabilitako erreminta, biltzen dituen bi ardatzak garatuz.

Guztira sei erronka eta hemezortzi helburu adostu dira, eta horiek bideratzeko makina bat ekintza aurreikusi da.

Gure ibilbidean aurrerago egiteko, bidaian ezinbesteko bidaideak behar ditugu, gurekiko harremanak, ahozkoak zein idatzizkoak, urruneko kanaletan zein bulegoetan, euskaraz egitera egunero animatuko direnak.

Azken finean, amore ematen ez duten gure milaka eta milaka bezero euskaltzale horiek ere gogoan ditugu, beraiek jarritako aletxoak, beraiek egindako bultzada eta beraiek erakutsitako jarrera behar-beharrezkoak ditugulako aurrera egiteko. Banakako askoren ahaleginaren zordun gara.

Gizarte euskalduna eraikitzen ari gara. Lan-munduan espazioak irabaztea delako euskarak gaur duen erronkarik handiena, oraindik ere desoreka handia dagoelako

hezkuntzatik sortutako errealitatearen eta enpresa-munduko errealitatearen artean. Lan merkatura doazen gazteak euskaraz lan egiteko prestatuta eta motibatuta daude. Nahikunde horrek, ordea, hesia dauka gaur egungo enpresen errealitatean. Testu-inguru honetan, belaunaldi berriei lanean euskaraz jarduteko bideak zabaltzea aukera bizigarria da edozein sektoretako enpresa eta erakundeentzat.

Euskal gizarteak hezkuntza prozesua euskalduntzen egin duen apustu garbia eta ahalegin izugarria erdi-hutsean egindako ahalegina izango da lan-munduan jarraipenik ez badu.

OREKA IT: ESPERIENTZIA ARRAKASTATSUA?

Iraitz Pérez de Goldarazena
Oreka IT Aholkularitza teknologikoaren zuzendaria

Oreka IT enpresen kudeaketarako zerbitzu informatikoak eskaintzen dituen aholkularitza duzue. Gasteizen sortu ginen bi mila eta bederatzigarren urtean, eta geroztik gure bezeroen kudeaketa-prozesuak hobetzea dugu helburu. Horretarako jatorri alemaniarra duten SAP kudeaketarako software tresnak erabiltzen ditugu.

Gure bezeroak Euskal Herrian egoitza eta xedea duten nazioarteko enpresa handiak dira gehienbat, baina baditugu hemengo enpresa txiki eta ertainak ere bezero.

Urruti gelditu da Lakua auzoko bulego txikian, Gasteizko iparraldeko barruti erraldoian, lagun gutxi batzuk hasi genuen abentura hura. Oreka ITn orain, hirurogeita bost pertsonak inguru lan egiten dugu, eta ohikoak dira gure artean nafarrak, gipuzkoarrak edota bizkaitarrak; baita beste erkidego edo estatu batzuetatik etorritakoak ere. Zinez, hasieran Gasteizera mugatzen zen jarduera, Euskal Herri osora zabaltzen da orain, baina gure jatorri arabarra da gure euskara politika berezi egiten duena. Edo ez?

Badira Gipuzkoan gu baino enpresa handiago eta euskaldunagoak, baita txikiago eta erdaldunagoak ere, noski. Baina Oiartzunen jaio izan bagina, Gipuzkoako enpresen pelotoian beste bat gehiago izango ginen euskararen aldeko lasterketan; eta, beharbada, inork ez zuen arreta handirik jarriko enpresa txiki baten euskara politika arruntetan. *Zazpigarren alabaren semea* da Oreka IT, ordea, eta horrexek erakartzen du arreta gure herrialde barnean zein kanpoan; inork ere ez zuelako, beharbada, gauza handirik espero harengandik eta enpresa honek euskara kontuetan (ere) izaera ezberdina duela dirudielako.

Zerk egiten gaitu ezberdin, ordea?

Euskararen gaitasunaren inguruko neurketei erreparatu eta Arabakoekin alderatzen baditugu, Oreka ITk dituen ulermen- eta erabilera-datuak apartekoak dira. Soziolinguistika klusterrak egindako VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Arabako biztanleriaren % 19,2 euskalduna da eta erabilera, aldiz, % 5,6koa da lurraldean. Oreka ITn, ordea, langileen bi herenetik gora arabarrak izanik, % 44koa da euskaldun kopurua eta erabilera % 12 ingurukoa da. Arabako gizartearen datuak bikoiztu ditugu, beraz.

Galdera, orduan, zera da: zer gertatu da Oreka ITn gure gizartearen ohiko parametroei horrenbestearainoko aldea kentzeko? Guk egin dugun hausnarketaren arabera hiru faktorek eragina dute ezohiko joera horretan:

I. Gaztetasuna

Gure langileen batzuetan besteko adina hogeita hamalau urte ingurukoa da, gazteak beraz. Oreka ITn lan egiten duten pertsonarik gehienak 1980. urtetik aurrera jaiotakoak direla esan nahi du horrek, hau da, ikastolen garapenaren ostean; hala, langilerik gehienek euskararekin harreman normalizatua izan dute haurtzarotik.

Kontuan hartu behar dute irakurleek, arabar euskara galtzeko zorian egon zela eta hirurogeita hamarrek hamarkadan euskararen ezagutza benetan urria zela gure lurraldean, zer esanik ez erabilera.

Hamarkada horren amaieran, ordea, gure gizartea euskararen berreskuratze prozesuan buru-belarri jarri zen eta gaur egun ohikoak ditugu Arabako jatorria duten euskal musika talde, bertsolari edo idazleak; lurra jo eta lau hamarkadetan soilik lortu dugu hori.

Horren guztiaren oinarria ikastolek jarri zuten ama hizkuntza gaztelera zuten hainbat eta hainbat ume eta gazte euskaldunduz, eta eurok euskal kulturara hurbilduz. Tartean, Oreka ITren hastapenetan zeuden batzuk.

Prozesu horrek fisionomia berezia eman dio Arabako euskalduntasunari; izan ere, gure lurraldean euskara eta gaztetasuna bat eginda daude momentuan. Hau da, askoz ere normalizatuago dago euskara 40 urte inguru edo gutxiago duten pertsonen artean eta askoz ere urriagoa da euskararen ezagupena hortik gorako artean.

Horregatik, Oreka IT berezitasun horretaz baliatzen da eta ezagupen- zein erabilera-datuak hobetzen ditu Arabako gizartearekin alderatuz gero. Hori ez da gure enpresaren meritua, beraz, baizik eta Arabako gizarteak egin duen eraldaketa linguistikoaren ondorio zuzena eta gure lurraldea hogeitaz berru izan daitekeenaren lagin txiki bat.

2. Normalizazioa

Aipatu bezala, euskaldunon kopurua gurean oso garrantzitsua da, baina hori berez ez da nahikoa Arabako enpresa batean euskarak erroak bota ditzan. Tamalez, gaur egun euskaraz dakiten edo noizbait jakin izan duten gazte askok eta askok ez dute hizkuntza horrekin berriz harremanik izaten, behin ikasketak amaitu eta gero.

Eta horren arrazoia, geure ustez, Arabako gizarteak oraindik ere bere baitan dituen kontraesanetan bilatu behar da. Hau da, nola da posible, Araba berreuskalduntzeko egin izan diren izugarritzko ahaleginak egin eta gero, horrek hain ondorio gutxi izatea gure enpresetan?

Galdera horri erantzuna emateko, bi faktore bereziki aztertu beharko genituzke:

a) Hizkuntza menpekotasuna: Oso kontuan hartu behar dugu gure herrialdean egin diren aurrerapenak, horrek ez du esan nahi, baina, gaur egun euskararen egoera ona denik Araban. Oraindik ere gure gizartean ez da euskara hizkuntza normalizatu, eta hainbat eta hainbat esparrutan gaztelaniara jo behar izaten dugu derrigor.

Horrek eragiten duena, azken finean, zera da: gure gizartean nahitaez menperatu behar den hizkuntza bakarra gaztelania izatea. Euskara ikasketara-garaian edo zenbait lanpostu eskuratzeko soilik da beharrezkoa.

Hala, gure hezkuntza sistematik euskara ulertzen duten gazte erdaldun asko lan-mundura etortzen dira, baina euskararekiko aparteko loturarik gabe. Horren

ondorioz enpresa-munduan euskara erabiltzeko dituzten aukerak ez dituzte baliatzen, motibazio berezirik ez dutelako.

b) Erakundeen kontraesanak: Oraindik ere ez dago benetako apustua t euskararen normalizazioa lortzeko Arabako erakundeen aldetik.

Oreka ITk hainbat sari eta aitorten jaso ditu erakunde ezberdinen eskutik bere ibilbidean zehar euskararen alde egin duen lanagatik.

Baina beste aldetik, gu sarritan aurkeztu gara administrazio publikoen lehiaketa publikoetan, gure esparruko zerbitzuak eskaintzeko. Denbora honetan guztian hogei alditik gora lehiatu gara administrazio publikoren bati gure zerbitzuak opatzen, baina behin ere ez dugu puntu bakar bat bera ere lortu zerbitzu horiek euskaraz eskaintzeko gaitasuna egiaztatzeagatik.

Hau da, erakunde publikoek inbertsio erraldoia egin dute langile publikoen euskararen gaitasuna hobetzeko, baina, guk bizi izan dugun esperientzian oinarrituta, ez dute batere baloratzen gero eurokin lan egingo duten enpresek euskaraz lan egiteko gaitasuna izatea.

Sektore publikoak izugarritzko diru kopurua mugitzen du urtero zerbitzuak kontratatzen, baina horietan ez du hizkuntza gaitasuna kontuan hartu nahi, beraz, igortzen den mezua argia da: euskararen gaitasunean inbertitzen duten enpresek sariak eta aitortzak jasoko dituzte erakundeetatik, baina horrek ez ditu sektore publikoan lan egiteko lehiakorragoak egingo.

Oreka IT eredura bueltatuko gara berriz ere. Hazkundera indartu egin behar dugu. Gure kasuan, % 44 euskaldun izatea ez da oraindik nahikoa hizkuntzaren normalizazioa lortzeko. Eragin handia izan dezake zerbitzuan eta binakako erlazioetan, baina euskararen erabilera sustatzeko, zailtasun handiak daude lan-taldeetan ra edota gauza orokorretan.

Azken finean, gure erakundeetan badaude euskaraz ez dakiten lankideak eta jakiteko asmorik ez dutenak ere bai. Beraz, euskara hutsezko esparruek beti izango dute *kristalezko sabaia* hurrengo hamarkadetan, euskararen ezagutza erabat orokortzen ez den bitartean, behintzat.

Beraz, nahiz eta gaur egun euskararen gaitasun handia izango duen lantaldea sortzeak lehentasuna izan, enpresen erabaki-guneetan kontzientziarioa beharrezkoa da hizkuntzaren normalizazioan pausuak emateko. Enpresen zuzendaritzetan borondaterik ez badago zentzu honetan, euskarak nekez egingo du berez aurrera.

Ildo horretan, normalizazioan lan egin dugu Oreka ITren hastapenetatik neurri soilak baina eraginkorrak ere ezarriz:

- Euskararen erabilera sustatzeko, euskara taldea sortu.
- Enpresaren komunikazio politika elebiduna garatu.
- Tresna informatiko elebidunak langileei eskaini.
- Oreka ITren administrazio-sailean euskara lehenetsi.
- Hautaketa-prozesuetan euskararen ezagupena aintzat hartu.
- ...

Euskara ez erabiltzea izango zuen, izan ere, Oreka ITek bere senaz kontrakoa.

3. Lehiakortasuna

Erakunde publikoetan topatu dugun jarreraz haratago, euskara guretzat lehiakortasun-eragingarria da, *palanka* bat. Gure bezeroekin zein hornitzaileekin euskaraz komunikatzen garenean gertutasuna eta konfiantza sortzea errazagoa da. Gainera, gure langileon atxikimendua sustatu egiten du eta talde bezala dugun kohesioa indartu.

Horregatik, gure enpresak dituen zortzi lantaldeetan zerbitzuak euskaraz eskaintzeko gaitasuna bermatzen dugu, horretarako enpresan ditugun langile euskaldunak antolatuz.

Gaitasun hori Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek gainbegiratzen du urtero, bai Araban zein Nafarroan dugun egoitzetan.

Beraz, eta ondorio bezala, Oreka IT ez da, geure iritziz, erabateko esperientzia arrakastatsua, baizik eta inguruan dituen baliabideak aprobe txatuz eraginkorragoa izatea lortu duen enpresa.

Orduan, etorkizunari begira jartzen bagara, argi dago, aipatutako hiru faktoreok aldi berean bereganatzen dituen enpresa orok, euskararen ezagutzan nahi erabileran aurrerapausoak emango dituela ziur. Eta gure gizarteak euskararen normalizaziorantz aurrerapausoak egiten jarraitzen dituen heinean, hiru faktore horiek bat egingo dute sortzen diren enpresa berri gehiagotan edota eraldatzen doazen enpresa zaharretan.

Hortaz, Araban euskararen ezagutza- eta erabilera-gaitasunetan aurrera goazen bitartean, ateak poliki-poliki irekitzen ari gatzaizkio euskarari, lan-munduan ere zabaldu eta finka dadin.

Eta horrek, halaber, Oreka ITrenak bezalako hizkuntza politikak dituzten enpresak geroz eta gehiago sortzea eragingo du, eta gu, *ibesaldia* utzi eta *pelotoian* barneratuko gara; saririk ez dugu jasoko euskararekiko tratabideagatik, baina geure gaitasuna erakunde publikoek baloratua izango da gure zerbitzuak kontratatu orduan.

EUSKARAREN GARAPENA FAGOR TALDEAN

Leire Okarantza
FAGOR Taldeko Gestio Sozialeko arduraduna

I. Sarrera

Aspaldian han eta hemen ari gara entzuten lan-mundua euskalduntzea estrategikoa dela. 20 urte baino gehiago daramatzagu Fagor Taldean hizkuntzen kudeaketan baitan euskararen erabilera bultzatzen. Egindakoaz eta aurrera begirako erronkez hausnartzeko artikulu baliagarria izatea nahiko genuke ondoko hau.

Lan-munduak ezaugarri propioak ditu eta, ezer baino lehen, horietariko lau nabarmenduko ditugu:

- a) Egunero, hainbat orduz, elkarrekin harremanetan diren gizon-emakume helduz osatua dago.
- b) Gizon-emakumeen arteko harremanak definituak daude eta iraunkorrak dira.
- c) Arau eta idiosinkrasia propioak dituzte enpresek.
- d) Adierazleei begira, hau da, emaitzak lortzeko egiten da lan.

Fagor Industrial S. Coop., Copreci S. Coop., Fagor Electronica S. Coop., Fagor Arrasate S. Coop., Fagor Ederlan S. Coop., Fagor Automation S. Coop., Mondragon Assembly S. Coop, eta Galbaian S. Coop. dira Fagor Taldea osatzen duten sozietateak. Hamar bat mila langilek egiten dute lan taldeko kooperatibetan. Horietariko erdiek, gutxi gorabehera, Euskal Herriko lantegietan. Dozena bat hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira gurean eta euskara planen egiteko nagusia, gaixotasunak ere globalak diren mundu honetan, euskarak Euskal Herriko lantegietan komunikaziorako funtzioak izatea da, hizkuntza nagusien artean lekua egitea, alegia.

Ingelesa bezeroekin aritzeko, alemana alemaniarrek bidalitako jarraibideak ulertzeko... Eta horretarako prestatzen ditugu gure langileak, bezero nahiz hornitzaileekin, ahoz nahiz idatziz, dagokien hizkuntzetan jarduteko. Eta zein hizkuntzatan aritu behar dugu gure artean? Giza baliabideetako arduradunen komunikazioak zabaltzean, lantaldeetako bilerak dinamizatzean, lankideen arteko idatzizko komunikazioetan nahiz software ezberdinak erabiltzean?

Industrializazioak lana ekarri du gure herrira, eta asko izan dira industrializazioari lotutako pertsonen migrazioak. Euskarari dagokionez, inongo euskara planik

gabe eta Francoren diktadurapean gauzatu zen esaterako bigarren industrializazioa. Oso euskaldunak ziren herri asko erdaldundu egin ziren. Gaztelaniari eman zitzaion prestigioa, gaztelania zen erregistro formalean erabiltzeko hizkuntza. Gaztelania bilakatu zen, beraz, salbuespenak salbuespen, lan-munduan lan egiteko hizkuntza. 20-25 urte atzera egingo bagenu, halakoa zen gure lantegietako errealitatea.

Kooperatibismoak gizartea lanaren bitartez eraldatzeko duen misioa balioan jarritz, duela 40 urte inguru hasi ziren euskararen aldeko manifestuak lantzen, euskara eskolak antolatzen. . . 1990. urtearen bueltan, berriz, Euskara batzordeak sortu ziren eta 8 urte geroago Arrasateko II enpresetan euskara planak jarri ziren abian. Hori guztia bultzatu zuten gizon-emakumeek argi zuten, ezer ez egin ezean, euskarak jai zuela enpresa-munduan, hizkuntza nagusituek bere egingo zituztela eremu formaleko komunikaziorako funtzio guztiak.

Egun ere eguneroko ogi dira pertsonen joan-etorriak. Gaur euskal herritar ugari dago munduan. Munduko beste herrialdeetako herritar ugari, berriz, Euskal Herrian. Enpresek tokian tokiko herri, eskualde eta gizartearekiko duten erantzukizunaren baitan gure eginbeharrekoa da bertakoa den hizkuntza berariaz zaintzea, komunikaziorako funtzioak ematea eta gure kooperatibetako hizkuntzen kudeaketan txertatuz hizkuntzen kudeaketa sistemari jarraipena egitea.

Izan ere, enpresetan ezer gutxi egiten da inertziatz. Emaizta batzuk lortzeko denborak, inbertsioak, eginbeharrak, lantaldeak. . . zehazten dira eta adierazleen bitartez zehaztutakoaren jarraipen zorrotza egiten da, hala behar denean, berrikuspenak egiteko. Hizkuntzen kudeaketa aurreratua egitean ere hala egiten da eta hala ari gara gu lanean.

2. Ezagutzaren unibertsalizazioa

Euskaraz lan egiteko aukera bermatzea da 2017-2020 urteetarako Fagor Taldeko kooperatibetako euskara planen misioa. Misioari loturik, hizkuntzaren ezagutza unibertsalizatu eta erabiltzeko lanketak egin dira batean eta bestean, langileen parte hartzea eta motibazioa bultzatuz.

20 urtetan egindako lanketen ondorioz, % 85en bueltakoa da egun Fagor Taldeko Euskal Herriko lantegietako langileen euskara ezagutza. Gizarteak hezkuntza formalean euskara transmititzeko egindako apustuari esker ere, besteak beste, etorkizuneko gure bazkide potentzial gehien euskara ezagutza bermatuta egongo da. Horregatik, euskararen ezagutza orokortzea helburu duten erabakiak hartu ditugu Fagor Taldeko organoetan, esaterako, lanpostu guztiei euskara eskakizuna ezarriz eta behin betiko bazkide egiteko gutxienez ulermena eskatuz.

3. Euskararen zaintza

Ingurune euskaldunetako nahiz erdaldunetakoak, A, B nahiz D ereduan ikasitakoak izan dira protagonistak 20 urte hauetan guztietan. Ehunka lagunek jaso dituzte euskara eskolak, hamarnaka ibili dira mintza saio, bazkaltegi, uler saio, ulerrizketa eta abarretan. Langileen kohesioa bultzatzeko bitarteko garrantzitsua izan da, beraz, euskara. Izan ere, izaera kooperatiboa dugu, bazkide bakoitzak boto bat du eta bere iritzia eman eta erabakietan eragiteko eskubidea eta aukera du.

Lankide batek euskaraz lan egiteko duen eskubidea bermatzeko ezinbestekoa da langile orok euskara ulertzea. Abiapuntua da, eta hala ulertu eta landu da gure kolektiboan. Elkarbizitza linguistikorako tresna bilakatu da beraz euskara plana, batzuen eta besteen arteko harreman orekatuagoak lantzeko bidea, alegia. Eta, COVID-19aren ondorioz ziurgabetasunez betetakoak diren garai hauetan, gure kolektiboa zerk kohesionatzen eta motibatzen duen aztertzea gure eginbeharretako bat izango da eta, zalantzarik gabe, euskara plana elementu positibo horietariko bat izango da.

Euskararen zaintza erdigunean jartzeko zereginean oso garrantzitsuak izan dira euskara koordinatzaileak. Gure kolektiboan kuantitatiboki nahiz arduraren postuetan gizonetakoak dira nagusi. Egun, ordea, 9 euskara koordinatzaileetatik 6 emakumeetakoak dira. Koordinatzaile horiek euskara zaintzeko mandatuak jaso dute kolektiboaren aldetik eta, emaitzak ikusita, ederki asko egiten ari dira zuzendari, lehendakari, ekipoburu eta abarrekin partekatuz zeregin hori. Egungo egoerara, hein handi batean, iritsi gara egungo egoerara euskararen zaintzaren arduraren kolektibo osoan partekatzen egin duten lanari esker.

Euskara planen bueltan irekitako bideak lagungarri izango dira ere abian jarri diren genero berdintasun, kontziliazio eta eraldaketa sozialerako lantaldeetarako. Lantalde batzuek eta besteek asko dute elkarrekin ikasteko eta elkarrengan eragiteko. Fagor Taldea osatzen dugun pertsonen arteko harreman orekatuagoak bultzatzeko erronka dute lantalde horiek guztiak. Zuhaitz beraren sustraiak dira, Fagorren iraunkortasuna bermatzeko pertsona erdigunean jarri eta zaintzea dutelako helburu, genero, hizkuntza... ezberdintasunak orekatuz. Horregatik, lantalde horietan guztietan lan hizkuntza berariaz euskaraz izateko lanaketetan ere ari gara.

4. Erabilera, hizkuntzaren osasunaren adierazle nagusia

Euskararen erabilerari dagokionez, oso ingurune euskaldunetan nahiz ez hain euskaldunetan ditugu lantegiak. Abiapuntuak, beraz, ezberdinak dira batzuetan eta besteetan. Hala ere, % 50en bueltakoa da Fagor Taldeko kooperatibetako euskararen erabileraren batezbestekoa. Aurrera begiratzea bezain garrantzitsua da ezker-eskuineko ispiluei ere arretaz behatzea. Fagorren ibilbide bat egin dutenek ongi asko dakite euskararen erabilerari dagokionez eman den aurrerapausoa. Ez dago gaizki, noiz-behinka, eragin asmo den inguruneari ere erreparatzea. Arrasateko kale-erabilera datuak eta bertan kokatuak dauden Fagor Arrasate, Fagor Automation eta Fagor Elektronikako lantegietakoak parekatuz gero, aipatu lantegietako erabilera Arrasateko kalekoa baino 5 eta 10 puntu artean altuagokoa da. Eragiten ari gara, beraz, euskaraz aritzeko espazioak eta guneak eskaintzen gure langileei eta, aldi berean, euskara balioan jartzeko.

Nabarmentzekoak dira halaber ondoko datuak: Fagor Taldeko Batzar Nagusia, alegia, kooperatiba ezberdinetako 150 bat ordezkari parte hartzen duten Taldeko erabakigune gorena, euskara hutsean eta aldibereko itzulpenik gabe egin da 2019an, Taldeko Kontseilu Orokorra, Lehendakarien batzarra, Kontseilu Soziala, Pertsonal Batzordea... euskaraz egiten dira, euskarazko kanalaren erabilera (bi kanal ditugu Talde eta Kooperatibetatik bazkideekin komunikatzeko, euskarazkoa eta elebiduna) % 80 ingurukoa da...

5. Bide urratzaileak

Ulermenaren unibertsalizazioa eta itzultzaile automatiko neuronalaren moduko bitartekoak lagungarri izango zaizkigu aurrerantzean ere euskararen erabilera bultzatzeko. Euskara planak abian jartzeko eta garatzeko ezinbesteko izan diren urratzaileei begirako berariazko lanketa egitea ere oso garrantzitsua izango da, halaber.

Hizkuntzen ezagutza eta erabileraren bueltan izaten diren gorabeherak elkarrekin hausnartu eta ulertzea eta erabilera indartzeko bitartekoak, metodologiak eta ezagutzak eskaintzea izango dira beraiekin egin beharreko lanketetako batzuk, ahozko nahiz idatzizko komunikazioetan elkarriketa asimetrikoak izateko, lan bileretan dinamizazioak nahiz hausnarketak euskaraz egiteko eta abar. Eta horretan ari gara.

6. Euskararen gune hegemonikoak

Euskararen gune hegemonikoetan metodologia berezirik erabili gabe egiten da euskaraz. Hala aritzen dira kooperatibetako guneetan, Fagor Taldeko kontseilu orokorrean, sozialean edo pertsonal batzordean, esaterako. Mapa linguistikoen bitartez ditugu identifikatuta gune horiek guztiak. Identifikatuta ditugu, halaber, naturaltasunez euskaraz funtzionatzera iristeko aukerak dituztenak ere. Izan ere, berariaz zaindu eta bultzatu beharrekoak dira batzuk eta besteak, gure kooperatibetan euskararen erabilera normalizatzeko funtsezkoak direlako.

Euskararen normalizazioaren irudikapen erreal eta praktikoak dira gure kolektiboan euskararen gune hegemonikoak. Egoera imaginarioaren ariketa praktikoak dira. Gune horietan etengabe hausnartu eta sortzen da euskaraz, eta hizkuntzaren iraunkortasuna eta etengabeko garapena bultzatzeko begirada erabileran jarri behar dugula erakusten digute.

Transmisiorako iturri dira halaber gune horiek. Izan ere, etengabeko euskarazko sorkuntzaren ondorioz lanari loturiko hitzak eta esaldiak naturaltasunez transmititzen dituzte bertako kideek bestelako guneetan.

Euskararen ezagutza garatzeko motibazioarako pizgarri garrantzitsu ere badira. Bakoitzaren gaitasun linguistikoaren arabera indartu edo ahuldu egiten da komunikatzeko eta, beraz, eragiteko gaitasuna. Ondorioz, bertako partaideak eta etorkizuneko partaide potentzialak euskaraz komunikatzeko gaitasuna etengabe hobetzera bultzatzen ditu. Baita gune horietan puntualki parte hartzen duten beste guneetako ordezkariak ere. Izan ere, gune horien bueltan badago euskaraz lan egiten dela ikusarazten duen lurrina, inon idatzi gabeko arau soziala.

Ez ditugu gure buruak engainatuko. Gune formaletan euskaraz funtzionatzen duten batzuk erraz pasatzen dira gaztelaniara gune horietatik kanpoko elkarriketetan eta, batik bat, elkarriketa informaletan. Kontrakoa esaterik ere badugu ordea: gune horietako partaideek euskaraz gehiago egiten dute gune horietatik kanpo, elkarriketa formal nahiz informaletan, besteak beste, euskararen gune hegemoniko horiei esker.

Gune horietariko askotan ardura postuak dituzten pertsonak hartzen dute parte, eta, ondorioz, askoz errazago zabaltzen dira euskaraz sortutako bitartekoak nahiz euskara planari lotutakoak beste guneetara. Lidergo funtzioa betetzen dute.

Izan ere, goitik behera inertziaz joaten da ura. Behetik gora, aldiz, bultzatu egin behar da. Horretan asko laguntzen digu, halaber, “talde izaera” izateak. Izan ere, batzuetako eta besteetako lehendakariak, giza baliabideetako arduradunak eta antzerakoak elkartu eta euskara bizian aritzen dira hausnartzen eta erabakiak hartzen.

Euskara planaren trakzio funtzioa betetzen duten palanketako bat dira, beraz, euskararen gune hegemonikoak Fagor Taldean, eta, trakzio funtzio hori indartzeko, beste guneetan oraindik gehiago nola eragin hausnartzen ari gara. Ezagutzea, babes-tea eta zabaltzea dira, beraz, euskararen gune hegemonikoei begira indarrean ditugun lan ildoen egitekoak.

Fagor Taldeko euskararen gune hegemoniko gehienak urteetan egindako lan-ten ondorio dira. Alegia, gutxiengoa dira arnasmune geografikoetan kokatutako lan-tegiak izatearen ondorioz euskaraz funtzionatzen dutenak. Horrek ere erakusten digu egungo baldintzetan eta hizkuntzaren indarberritze prozesuaren baitan lan-munduan euskararen erabilera bultzatzeak zer-nolako garrantzia duen.

7. Emun, ezinbesteko bidelaguna

Ibilbide honetan guztian bada ezinbestekoa izan den bidelaguna: Emun Aholkularitza zerbitzu profesionala. Metodologia, lanketa ezberdinen integrazioa, fagorkideon hausnarketa eta erabakiak hartzeko parte hartze eta eskuratze teknikak eskaini dizkigu.

Ibilbide horretan mugarriak izan diren lau erabaki nabarmenduko ditugu:

- a) 1998an Fagor Taldeko kooperatiba guztietan euskara planak inplementatu ziren, kooperatibaz kooperatibako eta Taldeko elkarlana sustatuz.
- b) 2006an ZEL Araua onartu zen, zeharkako lanpostu guztiei euskara eskakizunak zehaztuz.
- c) 2011n hizkuntza politikak zehaztu ziren kooperatiba guztietan.
- d) 2017an 2020ra arteko plan estrategikoa egin zen, lau lan ildo estrategiko zehaztuz: ezagutzaren unibertsalizazioa, euskararen gune hegemonikoei begirako berariazko lanketak, euskararen komunikaziorako funtzio propioen garapena eta euskara planaren komunikazioa.

Langile gisara motibatzen eta kooperatiba gisara kohesionatzen eta etengabe berritzen lagundu digun bidelaguna izan da eta aurrerantzean ditugun erronkei ekiteko ere hala izango da euskara, berdintasuna, Enpresen Gizarte Erantzukizun edo gobernantza alorretan duten ezagutzen arteko integritasuna eskainiz.

Kooperatibek eta beste hainbat enpresak urteetako ibilbidea egin badute ere, gaur-gaurkoz gero eta zabalduago dago enpresoi gizartearekiko erantzukizunez jokatzeko dagokigunaren ustea. Fagor Taldean Emunekin batera ari gara Euskara ez den beste erronka sozialei ere integralki erreparatzeko lanketa egiten. Euskara Planetan egin den ibilbidea pista ezin hobek emango dizkigu beste hainbat erronka soziali bultzada emateko ere. Eta noski, bide horretan batu den ezagutza tekniko oso baliagarria zaigu enpresoi.

8. Gizarte erantzukizunez, elkarlana

Azken urteotan areagotu egin dira euskalgintzako hainbat esparrutako, hala nola alor sozioekonomikoko, instituzioetako eta eragile sozialetako ordezkariekin lankidetzak, esaterako, Gipuzkoa Berdinago ekimenaren, Kontseiluaren Euskaragiletu programaren, Euskaltzaindiaren Jagon Jardunaldien edo EAEko alor sozioekonomikoko euskararen plan estrategikoaren bueltan.

Garrantzitsua izango da aurrerantzean ere batzuen eta besteen arteko ezagutza eta elkarlana indartzea eta esparru ezberdinetako eragileekin berritzea. Izan ere, euskarazko gune edo espazioak sortuz norbanakoaren hizkuntza portaeratan eragiteko aukera dugu.

Enpresen gizarte erantzukizunari lotuta eta pertsonen arteko harreman orekatuagoak helburu izanik, enpresek, instituzioek eta eragile sozialek helduleku aproposa dugu mundu global honetan euskarari bide berriak irekitzeko. Profesionaltasunez jardun behar dugu horretarako, ordea, euskarari, hizkuntz aniztasunaren baitan, funtzio zehatzak aitortuz. Hala eginez gero, emaitzak begi bistakoak dira: kohesioa, motibazioa, eragin eremua enpresarekin identifikatua sentitzea...

Izan ere, ziur gaude Fagor Taldea osatzen dugun langileok badugula ondoko belaunaldiei euskara transmititzeko nahikoa arrazoi: elkarbizitzari, pertsona orekatuak izateari, lanari loturiko arrazoiak, alegia.

Euskarak arlo sozioekonomikoan
dituen erronkak, protagonisten ikuspegitik

EUSKARA LAN-MUNDUAN SUSTATU: BALDINTZA ETA AUKERA BERRIAK

Xuria Arza
UGT Euskadi

Sarrera gisa, Euskararen Aholku Batzordearen “Itun berri baterantz” txostena hartu dugu abiapuntutzat, bertan agerian jartzen diren gaiak aipatuz eta testua hausnarketarako ere baliaturik.

Txostenak esaten duenaren arabera, “euskarak erreferentzialtasuna bereganatu behar badu, nahitaezkoa da eremu publikoan diharduten erakunde nahiz ordezkariak aitzindaritzaz bere gain hartzea hizkuntza politikarekiko konpromiso zehatzenetan”. Hori dela eta, hortxe dago gure erronka, geu gara eremu publikoan dihardugun erakundeak, sindikatuak eta, oro har, gizarte eragileak eta gure ordezkari publikoak. Hauek, eta guztiok, jendaurrean eta gure eragin eremuetan euskara erabili behar dugu, eta euskararen erabilera bultzatu eta erraztu behar dugu, eta inolaz ere ez oztopatu.

Normaltasuna behar dugu, gaztelaniarekiko parekotasunera eramanez duen hizkuntza politika bat behar dugu, eta, inola ere ez, hizkuntza batekiko edo bestearekiko etsaigoa, zeharka nahiz zuzenean, bideratzen duen hizkuntza politika bat. Normaltasuna beharrezkoa da, baina naturaltasuna ere bai, normaltasun berberaz jardun beharko dugu gaztelaniaz, hala egitea egoki jotzen denetan.

Esparru honetan ere, gure gizartean bezala, ezinbestekoa da elkarbizitza, gure bi hizkuntzen elkarbizitza. Euskara gizarte osoari dagokio eta, guztion denez, guztion ardura da euskarari dagokion guztia erabakitzea. Euskarak ez du inolako onuririk lortzen posizio politiko batekin edo bestearekin identifikatuta; identifikazio horrek urrundu egiten ditu posizio politiko jakin bateko parte ez direnak, eta hori, argi eta garbi, euskara biziberritzea helburu duen hizkuntza-politika baten aurkakoa da. Bestalde, orain arte euskararen errealitatera hurbildu ez diren sektore soziopolitikoek pixka bat gehiago mugitu beharko dute. Denok moldatu behar ditugu gure jarrearak adostasunaren izenean.

Hizkuntza politika beharrezkoa da hizkuntzen arteko aukera berdintasuna lortzeko, beraz, ezinbestekoa da esku hartze politikoa, eta nahitaezkoak dira lege, dekretu eta gainerako arauak.

Bide horri jarraituz, 2006an lan-munduan eta enpresa alorrean euskararen erabilera biziberritzeko Eusko Jaurlaritzak ELA, CC. OO. Euskadi, LAB eta UGT Euskadi sindikatuarekin izenpetu zuen Lankidetzaz Akordio Markoa, eta Confebask, Adeg, Cebek eta SEA enpresaburuen elkarteekin hitzarmen bat egin zuen.

Enpresa-jardunean ere euskararen erabilera normaldu eta areagotzeko bideak urratu beharra zegoela ikusi genuen. Sindikatuek aspaldidanik erakutsi dugu gizartearekin konpromiso estua dugula, eta oraingoan ere, euskal gizarteak batera egin beharreko zeregin honetan aktiboki parte hartu nahi izan dugu.

Akordioaren bi aldeek adostasuna behar dela uste genuen, hizkuntzaren inguruko ohiturak eta joerak pixkanaka aldatzeko horixe delako onargarri den bide bakarra; nahitaezkoa da, beraz, prozesuan parte hartu behar dugunekin lortutako akordioa oinarritzat hartzea, era honetako proiektu batek guztion adostasuna eta ahalegina beharrezko dituelako. Funtsezkoa da herri-aginteez eta arlo sozioekonomikoan parte hartzen dugun gizarte-eragileek elkarrekin lan egitea.

Lankidetzak Akordio Markoak hiru lan-ildo nagusi jasoak ditu:

- Alde bakoitzaren lan-esparruan sortzen den informazio eta jakingarrien berri elkarri ematea.
- Alor sozioekonomikoan, enpresetan euskararen erabilera areagotzeko ekimenak bidera ditzaten, aholku ematea, zerbitzuak nahiz produktuak eskaintzea eta komunikazio-bideak sortzea.
- Euskara planak finantzatzea.

Gure lan eremuan, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak konfiantza hartu behar ditugu, ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jaso dezaten, enpresa edo establezimenduekin dituzten harremanetan ofizialak diren bi hizkuntzetako edozein erabiltzeko eskubidea dute eta. Baina, hemen ere guk inplikatu behar dugu, enpresen eguneroko lanean euskara erabiltzeko eta gure afiliatuei eta ordezkariari aukera emanez gure zerbitzuak euskaraz jasotzeko.

Gizarte eragileok lan egingo dugu enpresa pribatuek eta Administrazioak hizkuntza eskubideen inguruko diskurtsoa barnera dezaten eta geuk ere geure egin dezagun. Botere publikoek hizkuntza eskubideak bermatu behar dituzte. Euskararen erabilera normalizatua izan dadin botere publikoen ekintzak beharrezkoak dira. Herritarrok euskara ezagutzera erakartzeko euskara jakiteko baliabide doakoak, publikoak eta kalitatezkoak eskaini behar ditu Administrazioak. Hori dela eta, hauxe da Administrazioari egiten diogun eskaera.

Helduen euskalduntzea, hiztunen aktibazioa, ingurune digitala euskalduntzeko erronka... lan asko dago egiteke. Azken hamarkadetan ahalegin handia egin eta gero, belaunaldi berriak dira euskara gehien ezagutzen dutenak eta gehien erabiltzen dutenak, eta belaunaldi horiek lan-mundura heltzen ari dira. Orain, beraz, bidea eman behar diegu beren lan-jarduera euskaraz egin ahal izan dezaten. Hortxe dago gure erroka.

Hala, egoera honekin, 2019ko abenduan Eusko Jaurlaritzak Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana: 2020-2023 onartu zuen, euskara lan-munduan sustatzeko, arlo publikoan zein pribatuan. Berri ona, lehen aldiz plan zehatza dagoelako euskara lan-munduan indartzen jarraitzeko.

Planak Eusko Jaurlaritzan eta Jaurlaritzaz kanpoko beste erakunde eta entitateetan egindako gogoeta du oinarri, eta era askotako estrategiak bideratuko ditu lau helburu nagusi lortzeko: euskararen ezagutza lan-munduan indartzea, langileen

erabilera bultzatzea, kontsumitzaileen eskubideak hobeto betetzea eta, laugarrenik, entitateen eta kontsumitzaileen aktibazioa sustatzea.

Planaren edukiari dagokionez, lau helburu orokor ditugu: euskararen ezagutza, euskararen erabilera, hizkuntza eskubideak eta gizartearen aktibazioa.

Euskarak hainbat esparru irabazi ditu azken hamarkadetan, baina beste batzuetan oraindik ere pausoak egin behar dira. Lan-mundua horietako bat da, bide luzea daukagu egiteko arlo honetan eta, era berean, arlo oso garrantzitsua da. Une honetan lehen ez ziren baldintzak ditugu euskara lanaren munduan izanda. Lan-mundura heltzen ari diren belaunaldi berriek inoiz baino gaitasun handiagoa daukate beren zereginak euskaraz egiteko. Beraz, erantzuna eman behar diegu.

Administrazioak eta gizarte-eragileek badugu zeregina erronka honetan, baina, azken finean, biztanleria da honen guztiaren protagonista eta bizitzarako esparru guztietan dituen hizkuntza eskubideez jabetu behar duena, inongo konplexu edo gatazka kutsurik gabe.

LANEUS ILDO ESTRATEGIKOA, LAN-MUNDUA EUSKALDUNTZEKO ILDO SINDIKALA

Amaia Aurrekoetxea
LAB

Norabide estrategikoa

LAB sindikatuak ere prozesu independentistaren aldeko hautu estrategikoa egin du, eta norabide horretan ezarri behar dugu lan-mundua euskalduntzeko ildoak.

Batetik, nazio izaerari lotuta, euskararik gabe Euskal Herririk ez dagoela landu beharko dugu, gure proiektu sozioekonomikoan sakonduz eta praktikan gauzatu.

Bestetik, lan-mundua euskalduntzea prozesu demokratiko gisa ulerturik, esku-bideak lortzeko praktika emantzipatzaileak sustatu behar ditugu, burujabetzarantz urratsak eginez. Horretarako, langileekin etengabeko harremanetan jardun behar dugu, lan-mundua euskalduntzearen aldeko jarrera hegemonikoa izan dadin langileria osoarentzat.

Lehentasunezko aldarrikapenak

Orain arteko praktika sindikalean, euskararen normalizazioa negoziazio kolektiboaren esparruan jartzen genuen gehienbat, eta une hori baliatzen genuen enpresetan normalizazio edo euskara planak sustatzeko.

Negoiazio kolektiboan eginiko erreformek zuzeneko eragina izan dute lan harremanetan eta langileen baldintzetan: batetik, negoziazio kolektiboak gero eta langile gutxiagori eskaintzen dio babesa, eta, bestetik, negoziatzeko aukera dagoen esparruetan ere, euskararen normalizazioan eragiteko mugak eta zailtasunak agerikoak dira. Euskararen normalizazioan eraginkorrak izateko, ekintza sindikalean sartu behar dugu gaia.

Era berean, sindikalismo eredu birpentsatzen ari garen honetan, lan gatazkak herriratu eta herri sektore zabalekin elkarlanean jarduteko beharra agerian gelditu da.

LanEus strategiak ikuspegi integrala jasotzen du, eta egiten dugun proposamenaren abiapuntua da euskararen normalizazioak muga estrukturalak dituela, hau da, euskara ez dagoela normalizatua. Lan-munduari dagokionez, erdaraz eraikitako eremua izanik, euskalduntze prozesua eraldaketa prozesu moduan ulertu behar dugu.

Lan-mundua euskalduntzean eraginkor eragiteko, honako esparruak ere landu behar direlakoan gaude, ikuspegi zein proposamen integrala planteatu:

— Euskalduntzen duten hizkuntza ereduak derrigorrezko irakaskuntzan (6-I6).

- **Lanbide heziketa integrala**
 - *Lanbide eskolak (ikas-zentroak).*
 - *Etengabeko formazioa.*
- **Unibertsitate ikasketak.**
- **Langabetuen formazioa euskaraz.**
- **Helduen euskalduntze eta alfabetatzea.**

Jarraian, lan-mundua euskaldundu dadin, LABen lehentasunezko aldarrikapenak:

- **Helburua, erakundea euskalduntzea**

Erakundearen (lan eta komunikazio) hizkuntza euskara izatea da helburua, erakundea bere osotasunean euskalduntzea. Ildo horretan, erakundearen baliabide eta bitarteko guztiak helburu horretara egokitu beharko dira, baita langileak ere (baina ez soilik langileak).

Langileen eskubideen defentsan jarduten dugun neurrian, gure lehentasuna euskara lan eta komunikazio hizkuntza izatea da. Gure eskubidea da, guri dagokigu, gure egitekoa da, eta guk egiten ez badugu, ez du beste inork egingo. Euskara zerbitzu hizkuntza gisa bermatzeak jendartean eragin biderkatzailea du, eta, horregatik, herritarren ikuspegitik lehentasunezko zat jotzen da, bereziki euskalgintzan. Euskal Herria euskaldunduko bada, bi eremuak euskaldundu beharko dira (lana eta zerbitzua), lehentasunen mailaketarik gabe, osagarriak eta ezinbestekoak baitira.
- **Erakundeen euskalduntzea, prozesu arautu, planifikatu, ordenatu eta progresiboa izan behar du**

Erakundea bere osotasunean (lana eta zerbitzua) euskaldunduko duen prozesuak aldarrikatuko ditugu. Ezin da borondatezkoa izan eta ezin da norbanako edo zenbait kolektiboren borondatearen menpe utzi.

Euskara planak erakundearen euskalduntze prozesua garatzeko tresna dira eta ezin ditugu helburu bilakatu.
- **Langileak, eragile eta subjektu aktiboa**

Langileak euskalduntze prozesuan eragile eta subjektu garenez, prozesuaren diseinuak eta inplementazioak partekatua izan behar du (prozedurak adostu, helburu partekatua, plangintza komunak...) eta langileon hitza eta erabakia kontuan hartua, langileok baikara prozesuaren bermea.
- **Langileon hizkuntza eskubideak lan eskubideen artean**

Langileoi dagozkigun hizkuntza eskubideak lan eskubideen artean jarri eta modu integralean landu behar ditugu. Lan eta hizkuntza eskubideen arteko sinergia berriak birpentsatu behar ditugu, langileon eskubide guztien defentsa eginez eta lan zein hizkuntza eskubideen artean dagoen harreman zuzena ikusaraziz. Ezin dugu baten edo bestearen aldeko hautua egin edota modu kontrajarrarian ulertu, baizik eta modu integratuan.
- **Erabilera, euskalduntze prozesuaren ardatza**

Oro har, ezagutzak ez du erabilera bermatzen, eta euskaldundu beharrekoa erakundea bere osotasunean denez, normalizazio prozesuaren ardatza

erabileraren sustapena beharko luke izan. Ezagutza (norbanakoena) unibertsalizatzea abiapuntua izan arren, espazioak euskalduntzearen aldeko desoreka eragin behar da, erabilera-aukerak handitzeko.

Euskara ezagutu/jakin beharrekoa da. Langile berriek lanpostuaren araberrako euskarazko gaitasuna bermatua izan behar dute. Egoera oso ezberdinen aurrean egongo garenez, euskararen gaitasuna zentzu zabalean ulertu eta egoeraren arabera egokitu behar dugu, baina enpresaren hizkuntza ereduaren aldaketa prozesu baten bidez egitea izango da beti helburua.

Langile berrien kasuan, lanpostuaren araberrako hizkuntza gaitasuna erakutsi beharko dute lanean hasi orduko, lan zentroaren hizkuntza eredura egokitzeko moduko hizkuntza gaitasuna akreditaturik.

— **Euskara inbertsioa da**

Langileak euskalduntzeko bideratzen den diru publikoa etorkizuneko inbertsioa da, betiere, plangintza baten barruan sartzen bada. Lehenengo guk ulertu behar dugu hori, eta ondoren lan-mundua gidatzen dutenei adierazi.

— **Erakunde publikoak euskalduntzeko hizkuntza politika berria**

Orain arteko hizkuntza politikak bereak eman ditu eta ordua da erakunde publikoetan euskalduntze eredu berria praktikan gauzatzeko. Zama langileen gaintetik kendu eta erantzukizun politikoa erakundean jarri behar dugu. Erakundearen harreman eta funtzio guztietan gauzatu behar da hizkuntza ereduaren eraldaketa. Erakundea da euskaldundu beharrekoa, eta erakundea osatzen dugun subjektu guztiok egiteko zehatzak ditugun arren, erakundearena da erantzukizun politikoa (ezagutzen dugun praktika sindikal batekin ulergarriagoa delakoan, adibidea: lan osasuna langileon eskubidea dela aitortua dago eta eskubide hori bermatzea erakundeari dagokio, horretarako bitartekoak zein baliabideak jarritz).

Hizkuntza gaitasunean nolabaiteko aurrerapausoak egin badira ere, “nolabaiteko gaitasun” hori ez da nahikoa erakundearen hizkuntza normalizazio ereduan aldaketak eragiteko. Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea ez da nahikoa euskararen normalizazioa bermatzeko erakunde publikoetan, ez baitu erabileran oinarrituriko benetako gaitasuna akreditatzen.

— **Euskara batzordea**

Euskara batzordeak dira euskalduntze prozesuaren gidari eta bermatzaileak. Euskalduntze prozesuaz soilik arduratuko den batzorde espezifikoa izan behar du, erabakiak hartzeko gaitasuna izango duena eta honako egiteko zehatza aitorturik izango duena: euskararen normalizaziorako prozesua gidatzea (helburu politikoak), jarraipena bermatzea eta horretarako beharrezkoak dituen bitartekoak bere esku izatea. Batzorde honen osaketari dagokionez, subjektu direnen parte hartze parekidea aldarrikatzen dugu, langileon parte hartzea baldintza negoziatzen izanik.

Ekintza sindikala, lan-mundua euskalduntzeko

Ekintza sindikalean eragiteko, hiru eragin-esparru:

Jarraian aurkezten diren eragin eremuak ezin dira modu estankotan ulertu, ezta elkarren segida gisa ere. Eremu bakoitzean lortzen ditugun adostasun zein akordioek

beste eremuetan sor daitezkeen baldintzetan eragina izango dute, batean egiten diren urratsek beste eremu batean egin daitezkeenak elika baitituzakete. Guztiak estrategia berean daude, eta elkar elikatzen duten eremu moduan ulertu behar ditugu.

— **Langilerian**

Langileriaren artean lan-mundua euskalduntzearen aldeko iritzia eta jarrera nagusitzea eta hegemoniko bilakatzea da helburua. Euskararen normalizazioaren aldeko ADOSTASUN ZABALA eskuratu behar dugu. Bide honen lehen geltokia langileok geure hizkuntza eskubideak ezagutu eta hauetaz jabetzea da. Ezinbesteko abiapuntua da langileok hizkuntza eskubideen jabe garelako kontzientzia hartzea.

Ibilbide luzea eta, askotan, eremu ezezaguna dela kontuan hartuta, pausoka joatea beharrezkoa izango da. Presarik gabe. Era berean, hizkuntza eskubideen urraketaren aurrean, salaketa irmoa egin eta alternatibak eskaintzen lagundu behar da.

— **Herri estrategian eta eskualde estrategietan**

Lan-mundua euskalduntzeko premia eskualde estrategien bidez herriratu beharko dugu. Lan-mundua euskalduntzeko aldarrikapena lan zentrotik ateratzeak aukera berriak emango dizkigu. Udalerrri bat ez da euskalduna izango lan-mundua euskaldundu gabe, eta, hari honetatik, lan-mundua euskalduntzeak tokian tokiko errealitatean duen eragina ulertu zein transmititu beharko dugu. Adibidez: CAF Beasainen.

— **Ekintza sozialean**

Interes ezberdinen arteko gehiengo sozialak lortzera jo behar dugu eta horretan kokatu euskararen normalizazioa. Bai lantokietan, gehiengo sindikalaren bidez, eta baita herrietan, euskararen aldeko gehiengo sozialak artikulatuz. Eredu sozioekonomiko berri baten lanketan, zeharka kokatzea. Egungo testuinguruaren salaketa egiterakoan (murrizketak, prekaritatea, erreformak...) edo eredu berri baten aldeko jardueran, zeharkakotasuna landu eta proposamenetan integritasuna ziurtatu behar dugu. Eragile sozialekin partekatzen ditugun guneetan zein harremanetan, funtzionamendua euskaraz bermatzea eta lan-munduaren normalizazioa politikoki kokatzea izango dira gure oinarriak.

a) Lan-mundua euskalduntzeko ekintza sindikala lantokietan

Euskararen normalizazioa ekintza sindikalean kokatzeko erabaki politikoa hartu eta urrats sendoak egin ditu LAB sindikatuak, oraindik egiteko bidea izan arren.

Alde horretatik, euskararen aldeko ekintza sindikala bestelako gai laboralak defendatzen ditugunean bezala egingo dugu, edukia eta moldeak aldarrikapenera egokituz.

Lantokietan, zer?

— Diagnostika. Euskarak lantokian bizi duen egoera aztertu, argazki ahalik eta errealena osatu, betiere diagnostika gure ekintza sindikala antolatzeko tresna

dela ulertuta (diagnosia ezin da prozesu amaigabea izan, ezin da helburu bilakatu).

- Lehenatasunak identifikatu eta helburu lorgarria zehaztu. Diagnosia egin ondoren, aldatu nahi ditugunak identifikatu eta, lehenatasun moduan, helburu lorgarri bat aukeratu dugu.
- Ekintza sindikala lan-mundua euskalduntzeko. Gainerako lan- eta bizi-baldintzen aldeko borrokan egiten dugun bezala, plangintza bat egingo dugu eta helburua lortzeko ekimenak, arduradunak, egitekoak... zehaztuko ditugu. Plangintza horren barruan, honako eremuak aurreikusi beharko ditugu:
 1. Langileen artean, atxikimendua lortu, euskararen normalizazioaren aldeko jarrera hegemonikoa izan dadin. Horretarako, plangintza oso bat diseinatu beharko dugu.
 2. Enpresa interpelatu.
 3. Instituzioak interpelatu.
 4. Herritarren edo herri eragileen atxikimendua lortu edota elkarlana sustatu.

Eta eskualde estrategietan?

- Euskalgintzako eragileen atxikimendua lortu. Euskararen aldeko eragileetatik haratago, atxikimenduak lortu ikuspegi demokratikoa indarturik (*euskara ezagutu eta euskaraz lan egitea langile guztion eskubidea da*).
- Udaletako Euskara batzordeetan parte hartu.

b) Negoziazio kolektiboa eta lan-hitzarmenak

Lan hitzarmenean euskara sartu, aukerarik balego. Baina argi izanda hau ez dela ekiteko modu bakarra, orain arte uste genuen bezala.

Funtzionamenduari dagokionez, negoziazioa bera ere euskaraz garatzeko neurriak aldarrikatuko ditugu. Neurriok jarri eta bermatzea enpresari edo administrazioari dagokio (adibidez, lan hitzarmenak euskaraz publikatzea).

c) Euskalduntze prozesuak edo euskara planak

Euskararen normalizazioa prozesu planifikatu, arautu, ordenatu eta progresibo gisa ulertzen dugun neurrian, lan-munduan euskalduntze prozesuak edo euskara planak aldarrikatuko ditugu. Euskara planak, gaian erabakiak hartzeko ahalmena izango duen euskara batzordean diseinatzea eta jarraipena bermatzea eskatuko dugu. Euskara batzordeak enpresa eta sindikatuen aldetik parekidea izan beharko du, eta bertan biltzen diren subjektuek adostuko dituzte normalizazio prozesuaren helburu politikoak.

Euskara batzordean hartzen diren erabakiak aurrera ateratzeko, ekintza plana edo plangintza beharrezkoa da; bertan zehazturiko helburuak betetzeko epeak, arduradunak, bitartekoak... zehaztuko dira.

d) Klausula sozialak

Kontratu publikoetan sartzen diren klausulak dira; beraz, langileriaren lan baldintzetan eragin zuzena dute. Klausula hauetan, erakunde publikoek azpikontratatzen dituzten enpresetako langileek bete beharreko irizpideak jasotzen dira; langileen prekaritate egoera gainditzera eta zerbitzuaren kalitatea hobetzera bideratuak daude. Klausula sozialak aplikatzea erakunde publikoaren erabaki politikoa denez, alderdi politikoei eskatu edo adostu behar dute klausulen aplikazioa.

Klausula sozialetan eremu anitzeko irizpideak sartzen ditugu (ingurumena, aukera berdintasuna, soldata, lanaldia, subrogazioak...), baita euskararen normalizazioari dagozkionak ere. Irizpideok bermatzeko erantzukizuna erakunde publikoarena da, eta bitartekoak jarri beharko ditu langile orok (langile publikoek zein azpikontraturikoei) irizpideok bermatu ditzaten.

LABek argi du zerbitzu publikoko lanak langile publikoek bete behar dituztela, baina, hori lortu bitartean, azpikontrata batek obra edo zerbitzuren bat burutzen duenean, langileen lan baldintzak bermatuko dituzten klausulak ezartzeko eskatuko diegu erakunde publikoei.

e) Kontratazio irizpideak

Erakunde publikoek zerbitzu-enpresa bat kontratatzen dutenean, zerbitzuak bete beharrekoak kontratazio irizpideetan zehazten dira. Kasu honetan ere esparru ezberdinetako irizpideak sartzen dira, tartean euskararen normalizazioari dagozkionak.

Kontratazio irizpideak bermatzea enpresari dagokio edota erakunde publikoari irizpideok bermatzeko laguntzak eman edo enpresarekin prozesuak adostea. Kasu guztiak banan-banan aztertu beharko badira ere, langilea ezin da kaleratu irizpideak ez betetzeagatik (kontrako jarrera izan badu edota aukerak ez baditu aprobetxatu, aztertu beharko litzateke), baizik eta irizpideak bermatzeko prozesuak adostu behar dira, enpresa irizpideen arabera zerbitzua eskaintzeko gai izan dadin.

EUSKARAZ LAN EGITEKO BIDEAN, EUSKARA ESKUBIDE

Pello Igeregi
ELA

ELAren ustez euskararen biziberritzeari buruzko paradigma eguneratu behar dugu, neurri handi batean ezagutza zabaltzea eta debekurik ez izatea izan dira diktadura faxista ondorengo euskalgintzaren aldarrikapen elementu nagusiak, eta egungo egoeran euskaltzaleon diskurtsoak beste parametro batzuk hartu behar ditu, aurreko binomio horren garapen hutsa izango ez dena.

Ez da harritzekoa ezagutza eta debekurik eza denboran funtsezko elementuak izatea, besteak beste mendeetan euskararen debekua izan delako frantseseta edo espainiartasuna inposatzeko erabili den elementu nagusia eta horrek euskararen ezagutza desagertze bidean kokatu zuelako. EAEn azken hamarkadetan hezkuntzaren bitartez ezagutzak nabarmen egin du gora eta debeku espazioak murriztu egin dira, baina paradigma aldatu ezean honek ondorio bat izan dezake: euskalduntzean egin beharrekoa egin dagoelako sentsazioa, eta euskararen erabilera norbanakoon ardura hutsa delako ustea. Gu ez gatoz bat irakurketa honekin, gure ustez hizkuntzen erabilerak ekosistema bat eskatzen du, eta XXI. mendeko mundu honetan are gehiago. Gaur egun, komunikaziorako tresna berriekin, ez dago arnagune errealik euskararentzat. Erdaltzaleek egun ez dute debekuen beharrik gaztelaniaren edo frantsesaren hegemonia bermatzeko (Nafarroan gertatzen ari den inboluzioak kontrakoa eman arren), bizitzako esparru guztiak merkantilizatu diren garai honetan euskararen tamaina txikiak ziurtatu egiten du gure hizkuntzak espazio marjinalak beteko dituela, eta beti ahalegin militante izugarrian oinarritua, gainera. ELAn argi daukagu, euskarak beste espazio bat beteko badu, lan militantea ezinbestekoa izango dela, baina horrekin batera gobernuen esku-hartze publiko orekatzaile bat ezinbestekoa izango dela, merkatu ekonomiaren inposaketak erdararen aldeko homogeneizazio kulturala ekarriko baitu, ezinbestean.

Alde horretatik, Euskaraldiaren dinamikak arduratzen gaitu, botere publikoen proposamen nagusia hau izango bada. Euskaraldiak testuinguru egoki bat sortzen du norbanakook gure hizkuntza portaerak negoziatzeko, baina honen ondorioa izan daiteke ardura bakarra norbanakoon esku uztea.

Gobernuek gizarte zibilari lagundu beharko liokete euskara erdararekin lehia dadin espazio hegemoniko guztietan. Eta gizarte eragileoi dagokigu, elkarlan espazioak elikatzea hainbat proiektu martxan jartzeko, baina, era berean, kritika

politikora espazioak bermatzea gobernuak bestelako anbizioarekin aritu daitezen euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzen gure bizitzako esparru guztietan.

Gizartearen bultzada bermatzeko euskaltzaleon diskurtsoan elementu batzuk indartzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Gure kasuan euskararen gaiak bi dimentsio dauzka:

- Batetik, euskara ez da altxor kultural bat soilik, euskara euskaldunok gure bizitza garatzeko aukeratu dugun hizkuntza da, eta eskubidea dugu gure hautazko hizkuntzan bizitzeko. Beste edozein eskubide zibilek eragiten duen bezala, euskaldunok eskubidea izan behar dugu gure hizkuntza hautuengatik diskriminatuak ez izateko. Eskubide zibilak ez dira norbanakoon kontu hutsa, gobernuek bermatu behar dituzten eskubideak dira eta, ondorioz, obligazioak sortzen dituzte eta eskubideak garatzeko baliabideak bermatu behar dira. Aipatutako eskubide horrek bizitzako alor guztiak hartu behar ditu, baina gurean bereziki garrantzitsua da langileok euskaraz lan egiteko dugun eskubidea bermatzea.
- Bestetik, klase sindikatua gara, eta argi dugu gizarte justuago baten aldeko eraldaketa prozesuan euskara ere eraldaketarako tresna dela. Edozein eraldaketek espazio fisiko bat behar dute, eta, era berean, espazio horretan dauden herritarrek proiektu komun baten parte sentitu behar dute, horrek eramango baititu elkarrekin aritzera aldaketa horren alde. Guretzat hori da klase sentipena. Euskarak komunitatea sortzeko gaitasuna du, euskaldunok hari ikusezin batekin lotzen gaitu, eta hau oinarritzko elementua da komunitate baten sorreran. Hori horrela, homogeneousazio kulturalak eragiten duen indibidualizazioaren aurrean, euskararen biziberritzea iraultzailea da guretzat.

Gure sindikatuak, baina, badu kezka handi bat. Eraldaketa soziala gehien behar duten esparruetako langileek, prekaritatea bereziki bizi dutenek dute harreman lausoena euskararekin. Azken hilabeteetan egin ditugun borroka batzuetan langileekin erdaraz komunikatzea ere ez da erraza izan. Argi dugu sindikatuaren ardura lehendabizi egoera okerrenean dauden langileekin aritzea dela, eta asmatu behar dugu euskara langile hauentzat eraldaketa proiektu baten parte sentiarazteko elementua bihurtzen. Oraindik ez dakigu zelan egingo dugun, baina kezka badugu eta etorkizuneko erronka izango da guretzat. Gizarte moduan Ongietorria euskaraz egiteko ardura dugu, euskara integrazio tresna bihurtzekoa.

Eta lan-mundurako hurbilketa egiten hasita, lehendabizi autokritika egin behar dugu. Sindikatuaren egiteko nagusia negoziazio kolektiboaren bitartez langileen bizi baldintzak taldean antolatzea da, eta ez dugu behar bezala asmatu hor euskara txertatzen. Ez zaigu euskararekin bakarrik gertatzen, orokorrean langile mugimenduaren aldarrikapen klasiko izan ez diren elementu guztiekin gertatzen zaigu.

Bereziki elementu batekin ez dugu asmatu, kontraesan indibidualak proiektu kolektiboen bitartez ordezkatzeko. Batzuetan guretzat konplikatu da gure afiliatu indibidualen egoera kudeatzea euskalduntze prozesu batean, afiliatu horien egoera pertsonaletik, nolabait, guk ere ez dugu asmatu arduren indibidualizaziotik ihes egiten. Hori gairatzeko, langileen egoera indibidualak lanketa kolektibo baten baitan kokatzea ezinbestekoa da, eta lanketa horren baitan arazo indibidualak taldean

konpontzea. Esango nuke azkenaldian hobeto ari garela horretan, baina bide luzea dugu oraindik ere.

Sindikatu barneko funtzionamenduan ere badugu zer hobetua. Gure organo nagusien funtzionamendua egun euskarazkoa da, baina langileekiko harremanean oraindik ez dugu bermatu sindikatu barnean euskaraz bizitzeko eskubidea. Neurri batean gure sindikatuaren funtzionamendua gizartearen isla da; hala ere, badugu zer hobetua honetan ere, gizartearen aldaketa osoaren zain egon gabe.

Eta non kokatzen ditugu etorkizuneko erronka nagusiak? Batetik, gobernuekiko aldarrikapenetan, euskaldunon eskubideak jokoan dauden esparru guztietan zehaztapen ezberdinak eskatuko ditugu, eskubideek zer obligazio dakartzaten, eta esku-bide zein obligazioak bermatzeko zer baliabide ezarri behar diren, epe jakin batean eskubideak benetan bermatuak izan daitezen. Administrazioen funtzionamenduan hurrengo kezka nagusiak dauzkagu:

- Behin-behinekotasuna eta euskalduntzea bateraezinak dira. Administrazioari langileen % 40 behin-behinekota da, horietako asko erdaldunak. Langile horientzat euskara etsaia izan daiteke lanpostua galtzeko arriskua badakar, eta kontuan izanik langileen behin-behinekotasun kopurua izugarria dela, masa kritiko handiegia da euskara etsaitzat har dezaten. Gure sindikatuaren ustez behin-behineko langileen lanpostuen kontsolidazioa lortu behar da, kontsolidazio horretan euskalduntzea ere barne dela, baina euskalduntzeko baliabideak ezarrita, trantsizio neurriak ere hartuta hala behar denean. Eta era berean, egoera hau berriro ez errepikatzeko neurriak hartu behar dira, ezinbestean, batetik, berriro ere behin-behineko kopuru hori izan ez dadin eta, bestetik, gaur egun lehen aldiz administrazioan lanean hasten diren pertsonen euskara ez ezagutzea ekidin dadin.
- Aurrekoarekin lotuta, langileen euskalduntzea, bereziki behin-behinekoena, inongo laguntzarik gabe egin da, batik bat denboraren antolaketari dagokionez. Administrazioari langileen kopuru handi bat emakumea da, eta gizarte matxista honetan dugun rol banaketarekin euskalduntzea ez da erraza. Honek ere konponbidea behar du.
- Era berean, hurrengo urteetan administrazioari langileen parte handi batek erretiroa hartuko du, honek aukera paregabea eskaintzen du IO urteko prozesu bat gidatzeko, helburu argi batekin, epe horretan administrazioek zerbitzu guztiak euskaraz eskaini ahal izateko eta, era berean, administrazioari langile guztiak euskaraz lan egiteko eskubidea bermatua izan dezaten. Honek eskatuko luke epe horretan langile guztiak euskarazko ulermena behintzat erakustea (salbuespeneko kasuetan izan ezik). EAEn hau posible da, gatazka handirik sortu gabe? Izango da ausardiarik hau aurrera eramateko?
- Kezka zehatz bat dugu: badakigu EAEn administrazioari langileen Euskalduntze Dekretu bat izango dela, eta sindikatuok ez da inongo harremanik izan dekretu horren lanketarako, ez dakigu zer diagnostiko hartu duten oinarri moduan eta diagnostiko horren baitan artikulatua idatzi aurretik zein helburu ezarri diren. Guretzat demokratikoki onartezina da gobernuak jadanik artikulatu bat landuta izatea eta sindikatuok aurretik eztabaidatu ez izana.

— Azkenik, administrazioen euskalduntzearekin lotutako diskurtsoa lehiatu behar dugu. Administrazioetan lan egitea eskubide moduan ikusarazi nahi dute batzuek, euskaldunok esparru honetan erdaldunekiko pribilegio bereziren bat izango bagenu bezala. Administrazioetan gizartearen zerbitzura egiten da lana, eta gizarte elebidun batean bi hizkuntza nagusiak ezagutzen dituen langileak zerbitzu hobea ematen du. Langile elebidunek bakarrik bermatzen dituzte gizartearen eskubide guztiak. Eta, zerbitzuaren kalitatea bermatzeko, beste ezagutza batzuk eskatu behar diren moduan, hau ere eskatu behar da. Mediku ona ala euskalduna dikotomia gezur hutsa da, mediku onak eta euskaldunak behar ditugu, eta horretarako gizarte moduan beharrezko diren baliabideak jarri beharko ditugu. Batzuek administrazioan lan egiteko eskubidea aldarrikatzen dutenean niri ustelkeriarekin lotutako diskurtsoak iruditzen zaizkit, gizartearen hobe beharrez baino, administrazioak norberaren hobe beharrez erabili nahi dituzten pertsonak iruditzen zaizkit.

Enpresa pribatuei begira erronka are handiagoa dugu. Euskaraz lan egiteko eskubidea bermatu nahi badugu, esparru honetan dugu erronka nagusia. Baten batek elefantea ikusi zuen hemen, ez dakit zein den erronkaren tamaina, baina handia dela ziur naiz. Enpresa pribatuetan ere euskaraz bizitzea egikaritu dadin “erasorako” bi eremu ikusten ditugu: administrazioek eragin dezaketena, batetik, eta sindikatuoi dagokiguna, bestetik.

Administrazioei dagokienez, gure ustez enpresen lizitazio publikoetan edo diru-laguntzak ematerakoan araudiak aldatu beharko genituzke, zerbitzu edo diru hori jasotzeko, enpresa horietan euskaraz aritzeko eskubidea bermatzen dela ziurtatuko duen legezko marko berri batean. Era berean, enpresetan egungo egoeratik trantsizioak pilotatzeko baliabideak ezinbestekoak izango dira, teknikoak eta ekonomikoak, horretan ere administrazioak zeresana du.

Eta guri dagokigunez, negoziazio kolektiboaren bitartez, enpresetan euskara planak martxan jarri behar ditugu, enpresetan kolektiboki euskaraz lan egiteko bermeak ezar daitezten. Ikasi behar dugu, soldata igoera eztabaidatzeaz gain, langileen eskubide zibil guztiak lehenesten, genero berdintasunarekin egin behar dugun bezala. Ildo horretan, momentu ezberdinetan izan ditzakegun aldeko testuinguruak behar bezala probestu behar ditugu; Euskaraldia da horietako bat.

Bukatzeko. Momentu interesgarri bat bizi dugu. Bidegurutze batean gaudela diogu hainbat esparrutatik, norabide egokia topatzea dagokigu. Gure sindikatutik gure prestasuna azaldu nahi dugu posible den esparruetan elkarlana sustatzeko eta, era berean, leialtasunez kritikak egiteko bestelako bultzadak ematea beharrezko ikusten dugunean. Era berean, gure kontraesan guztiekin, gure onenak emateko prest gaude Euskal Herri justuago bat eraikitze bidean euskaldunok euskaraz bizitzeko eskubidea bermatua izan dezagun, euskaraz lan egiteko eskubidetik hasita.


LAN-MUNDUAN, KLASE ARRAKALARIK GABE, EUSKARA SUSTATZEKO ERRONKAK

Sabin Zubiri Rey
CC. OO. Euskadi

CC. OO. Euskadi sindikatutik, hainbat sentsibilitate ideologikotako adituekin batera, euskal hizkuntza politikaren inguruko hausnarketa eta proposamen prozesu zabala sustatu dugu. Hilabeteetako lanaren emaitza Eraiki bildumaren argitalpen berri bat izan da, gure webgunean eskuragarri dagoena: “Klase arrakalarik gabeko herrialde eleaniztun baten alde: CC. OO. Euskadiren proposamenak euskararen, bizikidetzaren eta euskal gizartearen kohesioaren aldeko hizkuntza politika baterako”.

Lan horrek hizkuntza politikaren hainbat alderdi landu ditu, baina Euskaltzaindiaren *Arlo sozioekonomikoa euskararen biziberritzean XXIV*. Jagon Jardunaldirako ekarpen gisa, bi funtsezko gako planteatu genituen: langileen artean ezagutza erraztea eta enpresetan euskara erabiltzeko berme inklusiboak ezartzea.

I. irudia Hizkuntza-gaitasuna. Euskadi 2016



Iturria: Inkesta soziolinguistikoa, 2016. Eusko Jaurlaritza Geuk egina.


Euskararen ezagutza langileen artean zabaltzeko erronka egungo errealitate soziolinguistikoa aitortzetik abiatzen da. Euskarari laguntzeko politikak diseinatzeko abiapuntu saihetsezina da, eta, are gehiago, bizikidetzan eleaniztunaren egungo muga asko azaltzen ditu.

2016ko inkesta soziolinguistikoaren datu ofizialen arabera, 16 urtetik gorako Euskadiko biztanleen herenak euskaraz hitz egiteko gaitasuna duela dio. Eta heren horretatik % 44k dio elebiduna dela, baina gaztelaniaz errazago moldatzen dela. Beraz, euskal herritar helduen % 19k uste du euskaraz hitz egiteko gaitasuna duela, gaztelaniaz duen antzeko edo handiagoko erraztasunarekin.

Biztanleria orokorra eta langabetuak konparatuz, euskararen ezagutza lan arloan eragin handia duen faktorea dela ikus daiteke. Helduen % 47k ez daki euskaraz, baina langabezia dauden pertsonen kasuan % 74a da kopurua, beraz, desproporzio handia dago.

2. irudia

Langabeen eta biztanleria orokorraren ehunekoak, adinaren eta euskara-mailaren arabera, Euskadin



Iturria: Lanbide 2018 – Inkesta soziolinguistikoa, 2016. Eusko Jaurlaritza Geuk egina.

Datu horiek ikasketa-mailen eta lanbide-adarren arabera ere aztertu ditugu, eta ondorioa argia da. Euskaraz ez dakiten pertsonak laneko desberdintasun egoeran daude (langabezia askoz handiagoa), eta egoera hori larriagoa da hezkuntza desabantaila eta arazo sozioekonomiko handienak dituzten gizarte sektoreetan.

Euskararen ezagutzan klase arrakala badagoela planteatzen dugu. Arazo hau ezagutzea eta aitortzea funtsezkoa da elkarbizitza eleaniztunaren aldeko eta, beraz, euskararen aldeko hizkuntza politika kohesionatzailearekin asmatzeko.

Hau horrela izanda, aldaketak egin behar dira helduei euskararen ikaskuntza errazteko, gaur egun jende askoren aukerak oztapatzen dituzten bi hesi kentzeko: dirua eta denbora.

Euskaltegietako matrikula kostuei dagokienez, aspalditik ari gara horien doakotasunari buruz eztabaidatzen, ezaugarri ezberdinak dituzten gobernu eta lege proiektuak abian direla. Gure ikuspuntutik, doako maila CI arte (EGA zena) izan beharko

litzateke, milaka lanpostutan eskatzen den maila delako, bai sektore publikoan, bai pribatuan. Eta eredu operatiboa Hizkuntza Eskola Ofizialena izan liteke, matrikula baxuarekin (80 euro/ikastaro). Eta klaseen aprobetxamenduaren ondoren, diruaren itzulketa egingo litzateke.

Baina matrikula ordaintzea agian ez da euskara ikasi nahi dutenen arazo nagusia, ikasteko beharrezkoa den denbora baizik. Izan ere, HABEren curriculum ofizialaren arabera, 2.200 ordu behar dira CI maila lortzeko. Lau urte baino gehiago izango lirateke, egunero bi orduz ikasiz.

Horregatik proposatzen dugu ikasteko liberazio partzial edo osoko Euskeralan programa, sektore pribatura zuzenduta (sektore publikoan dagoen bezala), eta Eusko Jaurlaritzak finantzatuta.

Euskararen ezagutza zabaltzeko erronkarekin batera, hau askoz eskuragarriago bihurtuz, beste funtsezko elementu bat planteatzen dugu: enpresetan arreta euskaraz emateko bermeak bultzatzea, euskararen ezagutza bermatuko duten lanpostu batzuk ezarriz.

Orain arte hainbat eredu eta esperientzia egon dira. Alde batetik, sektore pribatuan, Kontsumitzaileen Estatutuko hizkuntza eskubideak, tamaina jakin bateko enpresetan arautuak.

Bestalde, sektore publikoan, badaude administrazio batzuk, hain zuzen Estatu zentrallekoak, Euskadin gaztelania hizkuntza komun gisa dutela funtzionatu dutenak, eta, beraz, ez dute ia hizkuntza eskakizunik zehaztu. Bestaldetik, beste erakunde batzuetan lanpostu guztietan eskatzen da euskara, zuzeneko postuetan eta kontrata publikoei atxikitako postuetan ere.

Egoera orekatuagoan daude beste administrazio batzuk, non, errealitate soziolinguistikoren arabera, hizkuntz eskakizunak lanpostuen proportzio jakin batean zehazten den. Ildo horretatik, hizkuntzaren ikuspegia zabaltzearen aldekoak gara, eta, ondorioz, hizkuntza bakoitzaren zerbitzuen eskaria neurtzearen aldekoak. Eta neurketa horietatik abiatuta, euskararen ezagutza ziurtatu beharko luketen lanpostuen kopurua ezartzearen alde gaude.

Baina planteamendu hau enpresetan zabaltzeko, beharrezko den hizkuntza eskakizunen sistemaren arazo batzuk berrikusi behar direla uste dugu. Izan ere, aukeraturako hizkuntzan arreta ematea zorte kontua ez izateko, funtsezko mekanismoa baita, urteetan zehar nabarmen geratu dira aldatu beharko liratekeen zenbait kontu.

Gure ustez, hizkuntza eskakizunen sisteman, bermatu nahi ditugun hizkuntza eskubideekin batera, aniztasun soziolinguistikoa errespetatu behar da, eta aniztasun horretan erdaldunak, “belarriprest” izenekoak eta euskaldun agrafu funtzionalak ere badaude.

Erdaldunen inklusiorako, euskara baldintza den lanpostuak eta, baldintza ez den beste lanpostu batzuk egon behar dute, antolatzen erraza den kontua, elkarbizitzarako borondatea badago.

Euskaldun agrafu funtzionalei dagokienez, deigarria da gaur egungo ziurtagiri sistemak ez onartzea edozein hizkuntza komunitatetan errealitate bat dena: ahoz komunikatzeko gai diren baina idatziz zailtasun handiak dituzten pertsonak badaudela. Gure hizkuntza eskakizunen sistemak gaitasun guztiak nahitaez aldi berean egiaztatzea eskatzen duen heinean, pertsona asko albo batera uzten ditu, euskaraz arreta ahoz emateko gai direnak.

Antzeko zerbait gertatzen da “belarriprest” diren pertsonekin. Duela gutxi, Euskaraldiari esker, hitz egiteko zailtasunak izanik ere, euskara ulertzeko eta elkarriizketa bat jarraitzeko gai direnen ekarpena aldarrikatzea ospatu dugu. Baina horrek aitortza ofiziala izan beharko luke hizkuntza eskakizunen sisteman. Erreferentzia gisa TOEFL (*Test of English as a Foreign Language*) eredu erabil daiteke, hizkuntza gaitasun bakoitza era berezitan egiaztatzea ahalbidetzen duen sistema.

Gure ustez, helduentzako euskara ikaskuntzan eta enpresentzako hizkuntza eskakizunen sisteman erreforma horiek bultzatzeak bizikidetza eleaniztuna lortzen lagunduko luke, euskararen sustapenean oinarrituta, eta euskal gizartearen kohesio soziala babestuko luke. Hala izan dadila.

INDUSTRIAREN EUSKAL PLATAFORMA, EUSKAL ENPRESEN LEHIAKORTASUNAREN EUSKARRI

Jasone Aretxabaleta
SPRI Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia

“Euskal enpresen lehiakortasuna babestea, bultzatzea eta sustatzea, bide horretatik aberastasuna sortuz Euskadin eta herritarren ongizate maila hobetuz, giza garapen iraunkorra indartuta Eusko Jaurlaritzako Ekonomi Sustapenerako Politikaren arloan”. Hori dio SPRIren misioak. Ikuspegian berriz honako esaldi hau irakur dezakegu: “Erreferente izatea euskal enpresen sustapen ekonomikoa eta lehiakortasuna bultzatzeko jardueretan”.

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen izaera anitza da eta aniztasun horretan, euskarak badu bere tokia. Badira lan- eta zerbitzu-hizkuntza euskara izatea erabaki duten enpresak eta erabaki honek ondorio askotarikoak izan ditu enpresen kudeaketari dagokionean, besteak beste produktuak eta zerbitzuak euskaraz ematen dituzten hornitzaileak aurkitzeko zailtasuna, enpresaren lehiakortasunean eragina izan dezakeena.

Horrenbestez, erreferente izateko ikuspegia eta enpresen lehiakortasunaren sustatzaile izateko misioa oinarri hartuta, SPRIk enpresei laguntzeko eta euren beharrei erantzuna ematen ahalegintzeko erabakia hartu du.

2018. urte hasieran ezagutu genuen bertatik bertara egoera hau enpresa batzuen eskutik. Lehen urratsa bidelagunak aurkitzea izan zen: alde batetik, erakunde publikoetan, Energiaren Euskal Erakundea eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bat egin zuten gurekin. Bestetik, enpresa-esparruan, Jaurlaritzaren Euslan proiektuan egondako enpresengana jo genuen, hau da, euskararen erabilpen aurreratua duten enpresetara, arestian deskribatutako arazo hori jasaten dutenetara hain zuzen.

Honela jaio zen INDEUS Industriaren Euskal Plataforma: Euskal Autonomia Erkidegoko industria arloan euskararen presentzia areagotuz, euskal enpresen lehiakortasunaren euskarri izatea du helburu.

2018ko martxoaren 25ean egin genuen lehen bilera: Hizkuntza Politikarako sailburuorde Miren Dobaran, SPRIren zuzendari nagusi Alex Arriola eta Energiaren Euskal Erakundearen zuzendari nagusi Iñigo Ansola eta Cikautxo, Copreci, Danobat, Eika, Elay, Goizper, Maier, Orkli eta Ulma Construcción enpresetako ordezkariak. Lehen topaketa horretatik eratorri zen ekimena abiarazteko egituraketa eta funtzionamendua.

Gaur egun 25 dira Indeusen parte hartzen duten enpresa, elkarte eta zentro teknologikoak: Ampo, Biele Group, BRTA, CAF, Ceit, Cikautxo, Copreci, Danobat, Ega

Master, Ega Solutions, Eika, Elay, Energia Klusterra, Esle Elkartea, Gaia Klusterra, Goizper, Ikerlan, Irizar, Maier, Orkli, Orona, Petronor, Tecnalia, Ulma Construcción eta Vicomtech. Eta sei Indeus bultzatzen duten erakunde publikoak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek ekimenarekin bat egin baitute.

Indeus ekimenak hiru lantalde ditu eta lantalde bakoitzak bere helburuak:

- **Inguru digitala.** Lantalde honek hartzen duen esparrua oso zabala bada ere, arlo batzuk zehaztu dira, lantalde honetan jorratzeko: enpresei zuzendutako laguntza programetan euskara baloratzea, prestakuntza jardunak, hiztegi propioak eta glosarioak, zibersegurtasuna, software librea, kudeaketa sistemak eta gune digitala.
- **Euskarazko produktuak.** Hizkuntzaren kanpo eta barruko paisaia enpresetan, enpresek erabiltzen dituzten erremintak identifikatu (euskeraz dauden ala ez aztertu), erreminta horiek egiten dituzten enpresak identifikatu, diru-laguntza programak garatu. Euskara industrian txertatzeko erakundeek egin dezaketen lana eta eman dezaketen laguntza aztertu eta zehaztea ere lantalde honen zeregina da.
Behin lantalde hauek sortuta, ekimenaren izaerari buruzko gogoeta egin genuen: Indeus, euskararen erabilera apalagoa duten enpresetara zabalduz gero, ekimenaren eragin esparruak beste dimentsio bat hartuko lukeela erabaki eta laugarren lantaldea sortu zen.
- **Atariko lantaldea.** Euskara gutxi erabiltzen duten enpresentzako gunea da laugarren lantalde hau, euskara erabiltzeko dituzten zaitasunak identifikatzeko eta eskura izan ditzaketen laguntzen berri emateko; ekimeneko gainerrako lantaldeetako enpresen jardun egokiak ezagutzeko aukera izateko.

Lantalde bakoitzak modu autonomoan jorratzen ditu gaiak, baina guztien arteko harremana eta ezagutza bermatzen dituen tresnak ditugu eskura, adibidez, lantalde guztiak batzen dituen Batzar Orokorra. Honekin batera lantaldeen eta erakunde-enpresen arteko komunikazioa errazteko, Indeus ekimenaren web gune bat sortu dugu. <https://indeus.spri.eus/eu>, ekimenari buruzko oinarritzko informazioa emateaz gain, Indeuseko partaideen artean informazioa partekatzeko espazioa.

INDEUS Industriaren Euskal Plataformaren funtzioa eta betebeharra, adibide baten bidez hobeto azalduko dudalakoan nago. Ekimena sortzeko lehen urratsak ematen ari ginala, enpresek helarazi zizkiguten kezka/arazoen artean, 4.0 industriaren inguruan sortutako hitz berrien erabilpena agertu zen: batzuetan ingelesezko berbak, beste batzuetan norbere itzulpen propioa... ez zegoen itzulpen bateratu eta onartua non kontsultatu. Honenbestez, hiztegi bat egiteko erabakia hartu zuen SPRIk eta luze joko zuenez, bitartean glosario bat egin eta web gunean argitaratu genuen, enpresek eskura izan zezaten.

Industria Berriaren Hiztegia dagoeneko errealitate bat da: <https://www.spri.eus/hiztegia/>.

Indeus ulertzeko beste adibide bat, laguntza-programetan euskara baloratzearena da. Enpresekin egindako gogoetan zehar, euskarak enpresari balio erantsia ematen diola ondorioztatu genuen; horrenbestez SPRIk kudeatzen dituen laguntza programetan euskararen kalitatearen ziurtagiria baloratzen da; une honetan zazpi

laguntza programa dira euskararen ziurtagiria kontuan hartzen dutenak proiektuen ebaluazio prozesuan.

Honela laburbilduko dugu Industriaren Euskal Plataformaren betebeharra: enpresen beharrak identifikatu eta erantzuna ematen saiatu. Erantzun batzuk azkar-rrago etorriko dira, beste batzuk nekezago, baina hor gaude, elkarrekin eta elkarlanean.

INDEUS Industriaren Euskal Plataformak motorrak martxan jarri ditu eta bere bidea egiten hasia da, zuhurki, zalapartarik gabe, euskarak eta industriak eskutik elkarri oratuta ibilbide luzea eta oparoa egin dezaten.

BIZKAIKO ABOKATUEN ELKARGOEA EUSKARA SUSTATZEN

Aitzol Asla

Abokatua eta Bizkaiko Abokatuen Elkargoko batzarkidea

Jagon jardunaldi hauetan parte hartzeko gonbidapena jaso genuenean, benetan gogotsu eta ilusioz hasi ginen prestaketan. Abokatuen Elkargoak urte askotan zehar euskararen aldeko lana egin duelako, eta egiten diharduelako.

Gizartearen eta gure sektorearen egitura soziala eta soziolinguistikoa ez da izan euskararekin konpromiso handia izan duen kolektibo bat tradizioz, baina horren gaitetik, Elkargoa bere konpromisoa mantentzen saiatu da, batez ere, Euskara Batzordeko kideek boluntario bezala egindako lan izugarriagatik.

Euskara eta Justizia Administrazioa ez dira elkar oso ondo konpontzen, hori argi dago. Erabilera oso urria da, eta horrek ere zerikusia dauka egoera horretan. Dena den, etorkizunari begira, konpromisoak eta lanak jarraitzen du.

Hausnarketa hau urte askotan egin dugu. Zein da arazoa? Justizia administrazioan euskara erabiltzen ez delako ez da beharrezkoa epaile euskaldunak derrigorrez egotea zenbait epaitegitan? Ala epaile euskaldunak ez daudelako ez da erabiltzen...?

Hau alde batera utzita ere, gauza asko egin daitezke euskararen biziberritzean elkargo profesionalen aldetik. Kritikoak izanda, orain arte egin da zerbait, baina gehiago egin dezakegu; dena den... ez gara geldi egon eta ez gara egongo.

Aurrerago azalduko denez, Estatutu berriak dauzkagu Abokatuen Elkargoan, eta bertan, euskarari buruz ere, konpromisoak jasotzen ditugu. Nahita jarri dira. Geuk ere behartu behar dugu geure burua euskararen biziberritze horretan, eta hori da gure helburua.

Artikulu txiki honetan, Bilboko Merkataritza Ganbaran, 2019ko azaroan burututako hitzaldian esandakoaren ildotik, bi ikuspuntutatik abiatuko naiz:

- Euskara eta Abokatuen Elkargoa
- Euskara eta abokatutza, Elkargotik at

I. Euskara eta Abokatuen Elkargoa

I.I. Euskara batzordea

Ezinbestekoa da, euskara eta Abokatuen Elkargoari buruz hitz egiten badugu, Euskara batzordea izatea lehen aipatutako ekimena. Batzorde hau, orain “Abokatu

Euskaldunak” izena hartu duena, 1986an sortu zen, abokatu euskaldun talde batek, euskararen egoerarekin arduratuta, Elkargoan eta epaitegietan euskara suspertzeko asmoarekin.

Honela dio Abokatuen Elkargoko web orrialdeak:

“Euskarak epaitegietan, Bazkun honetan eta oro har mundu juridikoan behar duen presentzia izan dezan dihardugu, hizkuntza eskubidearen onarpena nahikotzat jo ez eta horren egikaritzea helburu”.

Urte hauetan guztietan zehar, asko izan dira bertatik pasatu diren abokatuak. Egia da urte hauetan guztietan une desberdinak bizi izan direla; hobeagoak, latza-goak, parte hartze gehiagokoak, gutxiagokoak, etab. Hori bai, Elkargoko Gobernu batzordeak, orokorrean, beti babestu izan ditu batzordeak egindako proposamenak, eta egin, benetan, gauza asko egin dira.

Bere lana laburbiltzea ezinezkoa da, baina aipatuko ditugu zenbait. Dena den, kontuan izan, bere lanak lehen aipatutako ikuspuntu biak dituela ardatz: Elkargoa eta euskararen erabilera epaitegietan.

Adibidez, afari kolokioak, zeinetan euskararekin zerikusia izan duen pertsonaia garrantzitsu asko egon den. Azkenengo urteetan, Abokatu Euskaldunen Eguna ere ospatzen da, jardunaldi eta beste eratako ekimenekin. Garrantzitsua izan zen, baita, Hizkuntza Gutxituen Europako Gutuna eta horren 9. artikulua betearazterakoan Espainiako Estatuak izan zuen aplikatzeari egindako txostena (Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak gonbidatuta). Euskararen erabilera epaitegietan bultzatzeko egindako kanpainak, adibidez, “Epaitegietan euskara hutsez, euskaldunon eskubidea. Nahitanahiez” kanpaina. Bertan, epaitegietan euskal zirkuituak ezartzea ezinbestekoa zela azpimarratzen zen.

Justizia Administrazioarekin batera egindako lana ere azpimarragarria da. Adibidez, “Auzia Euskaraz” proiektuan, Eusko Jaurlaritzarekin batera hainbat hitzaldi eta ekimenetan parte hartu izan da.

Honi guztiari buruzko informazio gehiago Elkargoko orrialdean daukazue.¹

I.2. Praktika Juridikorako Eskola

Ziurrenik, ez bakarrik euskara mailan, garrantzi handien daukan erakundea Elkargoko Praktika Juridikorako Eskola da. Abokatuen formakuntza bermatzeko sortua, eta urteekin, indarberritua.

Dena den, orain, Praktika Juridikorako Eskolak, euskara suspertzeko gure lan honetan daukan garrantzia azpimarratu nahi dut.

Eskolak helburu bi ditu oinarrian. Abokatu izango direnen prestakuntza (gratua bukatu ostean), eta abokatuen etengabeko formakuntza. Lehen uneko formakuntza horretan, Eskolak beti bermatu izan du, eta oraindik egiten du, nahi duten ikasleek ikastaro horiek euskaraz egitea. Honek, irakasle euskaldun asko trebatzea ere ekarri du.

¹ <http://www.icasv-bilbao.com/comisiones.aspx?comision=3>.

Dakizuen bezala, orain dela urte batzuk arte, hasierako formakuntza hori ez zen derrigorrezkoa, baina hala eta guztiz, asko ziren ulertzen zutenak abokatu izateko ez zela nahikoa lizentzia amaitzea. Eta hori euskaraz egin nahi izan ezker, beti bermatu dugu. Eta benetan, ez da erraza izan. Izan ere, urte batzuetan oso ikasle gutxi izanda ere, erabakia beti zen zerbitzua mantentzea. Gobernu batzordeak beti izan du oso argi, eta beti onartu ditu aho batez horrelako erabakiak.

Orain, hasierako formakuntza hori derrigorrezkoa da unibertsitateko gradua bukatu ostean. Gainera, gero azterketa bat gainditu behar da. Derrigorrezko master hori euskaraz egiteko aukera eskaintzen du Abokatuen Elkargoak, Deustuko Unibertsitatearekin batera. Euskal Herri osoan bakarrak gara. Euskal Herriko Unibertsitateak ere, gure laguntzarekin, master hori euskaraz eskaintzen du, baina, tamalez, azken urte honetan ez da euskarazko talderik sortu, ikasle gutxi inskribatu direlako. Datu hau ere esanguratsua da.

Honek, beste gauza askoz gain, euskaraz abokatutzan jarduteko guztiz prestatuta dauden abokatu asko izatea dakar. Orain, hor erabileran ikustea falta zaigu.

I.3. Beste zenbait ekimen

Laburtzarren, beste ekimen edo egoera batzuen aipamena egingo dugu.

Elkargoko langileen kontratazioan, euskara maila ere garrantzitsua da. Horrela, jendearekiko arreta eta abokatuen arreta ere euskaraz egitea bermatzen da.

Euskara plan xumeak ere egin dira, erabilera aztertzeke eta gerorako lana antolatzeke.

Aipatu dugu, maila instituzionalean ere, jakina, erakunde publikoekin elkarlana etengabekoa izaten dela arlo guztietan. Halaber euskararekin zerikusia daukaten arazo eta ekimenetan.

Aipatzekoa ere, iragan urtean onartutako Elkargoaren Estatutu berrietan, euskarari emandako presentzia eta garrantzia. Horrek, etorkizunerako erronka berria ekarriko du, paperean jarritakoa benetan aurrera ateratzeko.

Elkargoaren oinarritzko alderdiak aztergai dituen Estatutuen I. tituluan, zeharkako izaera duen eta beste gai guztietan ere agertzen den gai bat sartu da: gaztelaniaren eta euskararen koofizialtasuna Elkargoaren jarduera osoan, bi hizkuntzak, interesdunen aukeran, komunikaziorako eta lanerako benetako hizkuntzak izan daitezten bete-betean:

VIII. kapituluan, hizkuntza ofizialari buruz ari dela, zehazki, 15. artikuluan, hau dio:

Elkargoko hizkuntza ofizialak.

1. Euskara eta Gaztelania dira Bizkaiko Abokatuen Elkargo Obohetsuaren bi hizkuntza ofizialak, eta biei onartzen zaie lan hizkuntza izaera.

2. Justizia administrazioan euskararen erabilpenaren normalizazioa sustatu eta bultzatuko du Elkargoak.

Ikus dezakegu, beraz, eta artikuluan zehar aipatu denez, ez bakarrik barrura begira, baizik eta kanpora begira ere, behar hori jaso dugula gure estatutuetan, eta hori izan behar da etorkizunean egin beharreko lanaren ildo nagusia.

2. Euskara eta abokatutza, Elkargotik at

2.1. Ofiziozko txanda eta atxilotuei laguntzeko zerbitzua

Ofiziozko txandaz eta atxilotuen laguntza zerbitzuari buruz bakarrik jardungo dugu, izan ere, Elkargotik at egindako beste ekimenak aurreko puntuan aipatu baititugu.

Elkargoa, abokatuen interesak babesteaz gain, zerbitzu publiko bat ere bada zenbait jardueretan. Horien artean, zalantzarik gabe, garrantzitsuen, Ofiziozko Txanda eta atxilotuei laguntzeko zerbitzua da.

Estatu osoan, urtean 365 egunez eta 24 orduz, atxilotuei laguntzeko txanda martxan dago, eta hori Abokatuen Elkargoek antolatzen dute, administrazioaren laguntza ekonomikoarekin. Hau da, une oro dago abokatu bat prest, atxilotu batek behar baldin badu.

Oso garrantzitsua da, eta nire ustetan ez hain ezaguna, denok jakitea zerbitzu hori euskaraz eskaini eta bermatzen duela Bizkaiko Abokatuen Elkargoak.

Garrantzitsua, izan ere, zerbitzua tamalez oso gutxi erabiltzen delako. Honek hausnarketa sakonagoa eskatzen du, eta ez da hau foro egokia, baina egoera soziolinguistikoarekin bat ez datozen datuak dira txanda honetan ikusten ditugunak, eta horrek sakonki arduratzen gaitu. Gure estatutu berrien ildotik jarraituz, etorkizuneko erroka handi bat daukagu hemen.

Ofiziozko txandan, atxilotuaz gain, beste edonork abokatu bat behar duenean, zerbitzua euskaraz ematea bermatzen da. Aukera hau gehiago erabiltzen bada ere, kopuruak arduratzekoak dira.

Bukatzeko: lan asko dago egiteko, eta sarritan fruituak ez dira ikusten. Horrek etsipena ekar dezake, baina beti dago norbait bultzatzeko gogoarekin. Elkargoek jende askorekin daukate harremana, eta zerbitzu publiko ere diren heinean, euskararen erabilera normalizatzeko erakunde garrantzitsu eta eraginkorrak izan behar dute.

BIZKAIKO PSIKOLOGOEN ELKARGO OFIZIALAREN “EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PLANA”

Iker Atxa

Bizkaiko Psikologoien Elkargoa hobetzeko proiektuaren arduraduna

Fernando Olabarrieta

UPV/EHUko irakaslea eta UEUko kidea

Sarrera

Joan den 2018ko abenduaren 18an, Bizkaiko Psikologoien Elkargo Ofizialak zuzendaritza taldea eraberritzeko hauteskundeak deitu zituen. Azken 30 urteetan lanean aritu den talde erdalduna erretiraturik zegoenez, eta hautagaitza berri bakarra aurkeztu zenez, bozkatze beharrizanik gabe hautatu zen talde berria, Begoña Rueda dekanorekin gidaritzapean. Hor hasi zen Bizkaiko psikologia euskalduntzeko erronka.

Hauteskunde kanpainen argitaratutako programari jarraiki, eta agindutakoak bete nahian, berehala hasi ginen horretan lanean. Proposatutako hainbat aldaketaren artean, “Euskararen erabilera sustatzeko plana” garatu genuen, ilusioz eta adorez. Pixka bat geroago, nahiz eta ibilbidea ordurako oraindik laburra izan, aurkezpen xume baten bitartez, planaren nondik norakoak Euskaltzaindiak 2019ko azaroaren 14 eta 15ean antolatutako *Arlo sozioekonomikoa euskararen biziberritzean XXIV*. Jagon jardunaldian aurkezteko aukera izan genuen modu orokorrean, eta baita psikologoien aurrean ere, zehaztasun handiagoz, ondoren azalduko den moduan. Horretaz gain, Udako Euskal Unibertsitateak Bizkaiko Psikologoien Elkargoarekin batera antolaturiko *Psikologo Euskaldunen III. Topaketan* ere ezagutarazi genuen gure plana. Horren guztiaren berri ematea da artikulu honen xedea.

Psikologoien Elkargo Ofizialean euskararen erabilera sustatzeko lantaldea

Psikologoien Elkargo Ofizialean euskararen erabilera sustatzeko beharra ikusi ondoren, betiere talde berriaren ildo estrategiko eta premiazko konpromisoetariko bat zela azpimarratuz, jardueraren nondik norakoak zehazteko lantalde bat osatzea erabaki zen, honako hauek osatzen dutelarik: Begoña Rueda (Bizkaiko Psikologoien Elkargoko dekanoa), Iker Atxa (Elkargoa hobetzeko proiektua, Bizkaiko Psikologoien Elkargoa), Josu Arrospide (Bizkaiko Psikologoien Elkargoaren Gobernu Batzordeko aholkularia), Ines Hernanz (Bizkaiko Psikologoien Elkargoaren administraria) eta Fernando Olabarrieta (Udako Euskal Unibertsitateko eta UPV/EHUko irakaslea).

Euskarazko baliabideen sustapena: helburuak

Zuzendaritza batzorde berriaren egitasmoetariko bat, zalantzarik gabe, psikologo profesionalen artean euskararen erabilera sustatzea da. Hori dela eta, lehentasuna eman genion asmo hori gauzatzeko plana eratzeari, planean ondorengo helburu hauek ezarriz:

- Batetik, psikologoek prestakuntza eta jardueran euskararen erabilera bultzatzeko zein sustatzeko ekintzak burutzea.
- Eta bestetik, Bizkaiko Psikologoek Elkargo Ofizialaren kideen artean euskaraz lan egiten dutenei baliabideak helarazi eta neurri eta jarduerak zuzentzea.

Jardueraren ildoak

Helburu hauek bete ahal izateko hainbat ekimen, ideia berri eta egiteke daude. Aurreikusitako ostean, egingarritzat jo zirenak onartu ziren hurrengo hilabeteetan. Laburbilduta eta atalka ordenatuta, honako jarduerak proposatu ziren:

- a) **Euskararen sustapena elkargokideei arreta emateko zerbitzuan.** Bai Elkargoaren eguneroko lanean eta baita kideei ematen zaien arreta zerbitzuan hainbat neurri martxan jartzen ari dira euskara sustatzeko:
 - Elkargokideekin, administrazioarekin eta herri-erakundeekin egindako komunikazioan testuak ele bietan idatzi eta igorri (txosten ereduak, gutunak, jakinarazpenak, etab.).
 - Elkargo barruko dokumentu eta protokoloak euskaratu.
 - Elkargokideak euskalduntzeko prozesuak sustatu: euskalduntze ikastaroak, “Berbalagun” tankerako ekimenak, etab.
 - Euskara teknikoari buruzko tailerrak antolatu, eduki psikologikodun testuak lantzeko batez ere.
 - Online baliabideak sustatu: hiztegiak, zalantzei buruzko foroa, etab.
- b) **Baliabide eta zerbitzuak.** Elkargoaren zerbitzu-zorroaren diseinuan sartu beharreko hainbat lanabes eta tresna prestatzen ari gara. Euren artean:
 - Euskarazko materialen baliabide bankua:
 - Irakurketa, ikerkuntza eta esku-hartze psikologikoa.
 - Euskaraz ebaluatzeko eta esku hartzeko baliabide eta tresnen mailagurako sistema.
 - Psikologiari buruzko euskarazko webguneek eskainitako Baliabideen Bilketa (liburutegi digitala).
 - Psikologo gisa euskaraz lan egiteko eta esku hartzeko Baliabide Mapa bat.
 - Beharrezan azterketa egin (elkargokideei galdetuz) psikologiak esku hartzen duen eremuetan: hezkuntzaren psikologian, ume, gazte eta helduen psikologia klinikoan eta gizarte zerbitzuetan.

- Profesionalen arteko topaketa: urtean behingo jardunaldia.
 - UEUrekin elkarlanerako hitzarmena sinatu.
 - Elkargokideei laguntzeko edo proiektuak garatzeko baliabide publikoak eta dirulaguntzak identifikatu eta eskuratu (adierazitako jarduera hauek egituratzeko, kasurako).
- c) **Ezagutza helaraztea.** Beste erakunde askotan egiten den bezala, bai enpresa-munduan zein hezkuntza- edo osasun-esparruetan, psikologiaren arloan pilatzen ari garen ezagutza zabaldu, hau da, kide zein publiko orokorrari psikologia arloan garatutako ezagutza euskaraz ere ezagutaraztea. Hori lortzeko honako hauei ekiten ari zaie:
- Ikerketak edota azterketak euskaraz sustatzea. Betebehar honek eskatzen du tresnak itzultzea eta egokitzea, euren baliozkotasuna lortzea eta gainerako betekizun metodologiko guztiak betetzen dituztela ziurtatzea.
 - Ikerketa hauen edo beste iturri batzuetatik sortuko liratekeen emaitzak euskaraz argitaratzea.
 - Modu berezian, ikerkuntzan duten garrantziagatik, doktorego tesiak euskaraz aurkeztu eta argitaratzea funtsezko ildotzat joko da.
- d) **Sareko lana sustatzea.** Gaur egungo Mendebaldeko gizarteak eta bertan gertatzen diren elkarrekintzek eskatzen dutenari erantzunez, sare-lana sustatzea eta indartzea ezinbestekotzat ikusten da Psikologoien Elkargo Ofizialean, bai modu formal zein informalean, hezkuntzan zein klinikan edota psikologiaren beste esparru profesionalean, enpresa-munduan zein beste edozein erakundeen arteko harremanetan. Hori dela eta, honako egitekoak proposatzen ditugu:
- Sareko lana eratzeko eta sustatzeko lagundu dezaketen herri-erakundeak edo talde profesionalak identifikatzea.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Psikologoien Elkargo Ofizialen artean koordinatzea, abian jarritako neurriak ikusteko eta jarduerak partekatzeko, ahaleginak biltzeko, etab.
 - Unibertsitate eta ezagutza zentroek (UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, UEU eta UNED) eskaintzen dituzten euskarazko baliabideak ezagutzea eta bateratzea.
 - Berritzeguneekin, Osakidetzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin koordinazioa mantentzea eta sinergiak sortzea. Honekin batera, arlo zehatzei (hezkuntza, ume eta gazteen klinika, gizarte arloko zerbitzuak) eta beharrian bereziak dituzten edo zaurgarritasun egoeran dauden kolektiboek (esku hartzeko materialak umeekin, nerabeekin, helduekin, desgaituekin, emakumeekin, etab.) zuzendutako euskarazko materialen inguruan beharrian espezifikoak identifikatzea.

Beste elkargoekin euskararekiko ekimen berritzaileak

Ildo nagusitzat hartzen da psikologiako zein beste edozein zientzia arlotako Elkargoekin koordinatzea —osasun eta gizarte zientzien arlokoak bereziki— eta jarduera amankomunak abian jartzea. Helburu horrekin, BasquePRO (Bilbao Metropoli-30) erakundearekin Elkargo guztiei zuzendutako proiektuaren sustatzaile eta parte hartzaile gara. “Elkargoak Euskaraz” izeneko ekimenean, profesionaletan euskara sustatzeko dauden dirulaguntzen bitartez, euskararekiko inpaktua biderkatuz profesio guztietan euskara hedatzen ari gara. BasquePRO Elkargoen proiektuarekin ekainaren hasi ginen, Elkargoek eskura dituzten oinarriko laguntzak aztertzeko eta guztion zerbitzuak euskaraz eskaintzea ahalbidetzeko asmoz. Proiektu horretan ondorengo ekimenak identifikatu ziren, gure Elkargoan alde aurretik onarturiko eta gorago aipaturiko ekimenekin bat datozenak: oinarriko diagnostikoa eta helburuen proposamena adostea, itzulpen eta zuzenketa zerbitzuak eskuratzeko, baliabideak sortzea eta eratzeko (hiztegiak, zalantzak ebazteko erak, bestelako materialak...), euskaraz ere gaitzeko online edo aurrez aurreko ikastaroak, arreta protokoloak eta beste hainbat idazki zehazturiko hizkuntza irizpideren inguruan idaztea, dokumentu ereduak proposatzea (gutunak, mezu elektronikoak, txostenak...), foroak, webguneak eta bestelako baliabide birtualak euskaraz eskaintzea, etab.

Horretarako, euskararen normalizaziorako gaur egun Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituzten baliabideak erabiliz, Elkargoek eskaera bateratua egiteko aukera eta horrek izan dezakeen eragina lantzen ari gara, langile kopuruaz gain, beste hainbat irizpide ere kontuan hartuko direlarik (sortu dezaketean inpaktu biderkatzailea).

Orain arte egindako urratsak

Elkargoaren zuzendaritza taldea oso berria den arren, eta aipatutako ekintza guztiak betetzeko epe luzea beharko dugula jakinda, burutzen ari dira jada euskararen sustapenari beharrezko bultzada emateko goian adostutako hainbat ekitaldi. Jatorri guztiz erdalduneko elkargo bat izanda, ez dira gutxi gauzatu diren jarduerak. Honako hauek azkenengoak izanik:

- Psikologoek Elkargo Ofiziala euskararen normaltasunari dagokionez zelan hobetu daitekeen itaunduz, galdetegiak bidali zaizkie 2.500 elkargokideei.
- Batzordea eta euskarazko lantalde berria ezagutarazteko mezuak igorri dira, euskarari buruzko lantaldean elkargokideak gehitzeko animatuz.
- Euskarari buruzko batzar teknikoak egin dira.
- Errotulazioa eta ikus-entzunezko guztiak euskaratu egin dira.
- Irudi korporatiboaren euskarri guztiak ele bitan jarri dira.
- Iragarki eta deialdi guztiak ele bitan argitaratu dira.
- Aldizkaria euskaratu da: azala, aurkibidea, jardunaldien informazioa, ikastaroak, albistek, publizitatea, etab. Ele bitan eskaini dira, ale bakoitzean IO artikulutik I gutxienez euskaraz argitaratu da.

- Gure bulegoetan eta psikologiako zerbitzu profesioaletan euskararen erabilerazabaltzen laguntzeko, hilean behin prestakuntza edo formazio pilula bat bidaltzen hasi gara apiriletik aurrera gure 2.500 elkargokideei, aholku eta baliabideak ere bidaliz.
- Udako Euskal Unibertsitatearekin galdetegi berezi bat bidali zitzaizen elkar-gokideei eta, horren harira, *Psikologo Euskaldunen III. Topaketa* antolatzen lagundu genuen. Ekimen honek euskararen sustapenerako izan dezakeen garrantziaz jabetuta, atal berezia eskainiko zaio:

Psikologo Euskaldunen III. Topaketa

Udako Euskal Unibertsitateak aspalditxo antolatu zituen lehenengo eta bigarren topaketak, hain zuzen ere psikologo euskaldunen beharrianak detektatzeko eta berauei erantzuteko asmoz. Ekimen honek ez zuen denboran jarraipenik ezta antolakuntzan sendotasunik izan eta, ondorioz, hirugarren topaketa bat egiteko premia argi ikusi zen. Testuinguru horrek, gorago aipatutako Elkargoaren ibilbide berriarekin batera, erakunde bien arteko elkar ezagutza eta elkar lanerako bidea markatu du. Gauzak horrela, UEUren antolakuntzari eta Bizkaiko Psikologoaren Elkargoaren laguntzari esker, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako profesionalak batzen zituen *Psikologo Euskaldunen III. Topaketa* antolatu zen, 2019ko azaroaren 16an, larunbata, UEUK Eibarren duen Markesgoa izeneko egoitzan. Antolakuntza aldetik, egingdako deialdian mahaigaineratu diren egitasmoen arrazoiak jarraian azaltzen den gisara jaso ziren:

“Asko dira psikologiaren eremuan lanean diharduten profesional euskaldunak. Besteak beste, hezkuntzan, arlo klinikoan, zerbitzu sozialetan eta, ikerkuntzan zein irakaskuntzan, unibertsitatean. Hainbat erronkari egin behar izaten diete aurre profesional horiek. Besteak beste, euskaraz prestatutako dokumentu eta tresna ezari eta euskararekin zerikusia duten hutsune eta oztopoei. Esperientziez gainera, gabezia, hutsune eta oztopo horiek partekatu eta guztion artean horiei erantzuteko sarea osatzea izango lirateke topaketa antolatzera bultzatu gaituzten arrazoi nagusiak”.

Sarrera testu honekin batera, hauek izan ziren Topaketaren helburuak, Elkargoaren euskara sustatzeko planaren oso antzekoak direnak, hain zuzen: batetik, psikologian lanean ari diren profesional euskaldunak elkartzea, haien beharrak, ekarpenak eta beste bana ditzaten; bestetik, egun gure jendartean interes handia duten zenbait gai euskaraz jorratzea; eta azkenik, psikologo euskaldunen “sarea” antolatzea.

Erabili zen metodologia kongresuetan erabili ohi denaren antzekoa izan zen. Harrera eta ongi-etorri ekitaldi xume baten ondoren, sarrera hitzaldia izan zen eta, horren ostean, euskal jendartean egun interes handia pizten duten zenbait gai euskaraz jorratzeko aukera izan genuen, hogeina minutuko 10 hitzaldi laburrekin.

Bestalde, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako psikologo euskaldunen sarea antolatzeko lehen bilera egin zen eguerdian, eta etorkizunera begira planteatzen diren proposamen eta erronkak aztertzea helburu izan zuen hitzaldiarekin itxiera eman zitzaion. Hori guzti hori, nori zuzenduta? Psikologia arloan formazio prozesuan

daudenei zein profesionali zuzenduta, hauek lanean izan ditzaketen zailtasunei erantzuteko saiakera izan baitzen iazko topaketa hau.

Azken balorazio gisa, Topaketaren amaierako Luixa Reizabal UEUko Psikologia sailburuaren hitzak gogoraraziko ditugu, adierazgarriak baitira oso: “Parte-hartzaileen aurpegiak ikusita, pozik atera zirela esango nuke. Gainera, antolatzaileei entzun diet oso balorazio positiboa egin dutela bertaratutakoek eta IV. Topaketa noiz egingo irrikitan gelditu direla gehienak”.

I. Irudia

Psikologo Euskaldunen III. Topaketaren afixa

EIBARREN AZAROAREN 16AN

Asko dira psikologiaren eremuan lanean diharduten profesional euskaldunak. Besteak beste, herikuntzan, arlo klinikoan, zerbitzu sozialetan eta ikerkuntzan zein irakaskuntzan umbertartuta. Hainbat eronkari egin behar izaten diete sarea profesional horiek. Besteak beste, euskaraz prestatutako dokumentu eta tresnarik ezari eta euskararenkin zerikusia duten hitzurre eta ortopoi. Esperimentuz gainera, gabeia, hitzurre eta ortopoi horiek partekatuz eta gutxion artean horiei erantzuteko sarea osatzea izango lirateke topaketa antolatzaia bultzatu gaituzten arrazoi nagusiak.

AZAROAK 16, LARUNBATA

9:15-9:30: Harrera eta ingiri esortia.
UEU eta Bizkaiko Psikologo Elkargo Ofiziala.

9:30-10:00: Sareak hitzaldia: Euskararen erabilera psikologiaren lanean.
Xabier Izuel Kalatzategi, UPV-EHUko irakaslea.

10:00-10:20: Euskararen erabilera herikidetzalean.
Luixa Reizabal Amatebarrena eta Ainize Sarrionandia Peña, UPV-EHUko irakasleak.

10:20-10:40: Familia, eskola eta komunitatearen arteko baterako finkatzea. Kooerdatzea.
Alaitz Etxebariz Aranzita, Psikologoa eta ikertzailea.

10:40-11:00: Bigarren presentazioa eta musikal proiektu adinako gurasoen osasun mentala.
Enako Santamenea Mendiz eta Itziar Garcia Fernandez, UPV-EHUko irakasleak.

11:00-11:30: Altxedura. Kafea.

11:30-11:50: Ebaluazio tresnak euskararekin egokitzeko.
Jaione Otearola Rodriguez, Druentako Umkartutaketa.

11:50-12:10: Familia irratia.
Enako Mendiburu Itza, Familia Terapeuta.

12:10-12:30: Portara nahasteko neregularitatearen seme-alaben gurasoengarako alantia.
Daniel Marañon Balbuena, Osasunlaria.

12:30-14:00: Psikologo euskaldunen sarearen sorrerako bilera.

14:00-16:00: Beldaketa.

16:00-16:20: Psikologo euskaldunak herikidetzalean.
Jon Aguirre Zabala, EHUko irakaslea.

16:20-16:40: Giza arte zerbitzuetako psikologiak. Ziri Etxebariz Ortuzondo, Laguntza.

16:40-17:00: Psikologia kiberikoa muskaraz.
Marta Jimenez Camilleri.

17:00-17:30: Amaierako erabileraren proposamenak eta eronkia.
Bizkaiko Psikologo Elkargo Ofiziala.

Izen ematea irekita
www.ueu.eus




KUDEAKETA AURRERATUA ETA HIZKUNTZEN KUDEAKETA

Galder Lasuen
Euskalit

I. Euskalit

Eusko Jaurlaritzak industria sendotzeko zuen arduratik sortu zen Euskalit 90eko hamarkadan. Horrenbestez, 1992ko abenduaren 15ean, 18 euskal erakunde batu egin ziren eta Euskalit sortu zuten, kudeaketaren hobekuntza eta berrikuntza bultzatzeko asmoz.

Hau da gaur egun duen eginkizuna: fundazio gisa elkartutako erakunde-taldea gara, Eusko Jaurlaritzak bide emanda, erakundeetan kudeaketa aurreratua sustatzeko eta, horrela, Euskadiren lehiakortasunari eta garapen iraunkorrari laguntzeko. Hau guztia, pertsona konprometitu, profesional eta motibatuek osatzen duten lantaldearekin.

Eta hauek dira momentu honetan Euskaliteko patronatua osatzen duten erakundeak:

I. Irudia Patronatuko kideak



Euskalit modu azkarrean ezagutzeko, hona hemen azken urteko zenbait datu:

- 18 pertsona gara Euskaliten, eta 820 erakunde dira Euskaliten laguntzaile.
- 2 milioi euroko aurrekontua.
- 100 ekitaldi publiko eta 5.700 pertsona kudeaketa aurreratua, kudeaketa tresnak eta erakundeen jardunbide egokiak zabaltzeko eta elkarrekin trukatzeko.
- Sektore guztietako 1.800 erakunde eta 4.500 pertsona prestakuntza programetan eta kudeaketa tresnak ezartzeko programa eta tailerretan.
- 90 erakunde aurreratu 5 lantaldetan praktika onak partekatzeke eta elkarrekin ikasteko.
- Euskal erakunde publikoek hainbat sektoretan kudeaketa profesionalizatu eta berritzeko martxan jarri dituzten programetan laguntzen dugu: industria, osasuna, merkataritza, hezkuntza, gizarte-ekintza...
- 400 erakunderen egoeraren diagnostikoa egiten lagundu dugu, kudeaketa elementuetan dituzten indarguneak eta zer hobetuak identifikatzeko eta lehenesteko.
- 2.500 pertsona daude ebaluazio-klubetan, erakundeei hobetzen laguntzeko, eta praktika onak ezagutu eta partekatzeko.

Euskalit euskal administrazioaren aliatua da, hainbat sektoretan kudeaketa aurreratua bultzatu eta errealitate bihurtzeko, prestakuntza programa, erakundeen jarraipen eta laguntza zerbitzu eta ebaluazio-prozesuetan duen eskarmentuagatik.

Horrela, Euskalitek 2006tik Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari laguntza eman dio, Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren diseinuan, prestakuntzan eta ebaluazio-prozesuaren koordinazioan.

2. Kudeaketa aurreratua

Erakunde guztiek dute sortzeko arrazoi bat, xede bat, eginkizun bat, eta baita etorkizunean izan nahi duten inguruko ideia bat ere (ikuspegia). Eta hori lortzeko “gauzak” egiten ditu (zerbitzu edota produktuak eskaini, bezeroak lortu eta fidelizatu, pertsonak kontratatu, prestatu, garatu eta zaindu...). Eta kudeatzea horiek egiteko modua da. Hortaz, kudeaketaren helburua da erakundeak duen eginkizun hori ahalik eta modu eraginkorrean egitea, helburuak betez eta baliabideak modu egokienean erabiliz.

Edozein erakundek bere egiteko moduak ditu, bere kudeaketa sistema dauka (bizia dena), propioa, urteetan garatutakoa. Batzuk sistematikoagoak izango dira, beste batzuk aldiz “informalagoak”, gutxi zehaztutakoak, protokolo eta prozedura gutxiarekin...

Denok dugu kudeaketa sistema bat gure erakundeetan, baina, daukagun kudeaketa sistema, funtzionatzeko modu hori, sistemarik onena al da? Eraginkorrena, arinena al da? Emaizta hobeak lortzeko balio al digu? Bezeroek gure zerbitzu edo produktuak baloratzen dituzte? Langileek pozik egiten dute lan? Etengabe hobetzen ditugu egiteko moduak? Urtero errepikatzen diren akatsak eta arazoak al ditugu?

Komunikazio eta koordinazio arazoak ditugu? Aurrekoen inguruko hausnarketa egingen al dugu?

Galdera hauen inguruan hausnarketa egin, ikasi eta martxan jartzeko, **kudeaketa ereduak** daude:

- Erakunde bat gidatzeko, kudeatzeko ideiak jasotzen ditu eta praktika onak proposatzen dituzte.
- Ez dira arauak, ez dute betebeharririk ezartzen.
- Malguak dira, erakunde bakoitzak erabakiko du zer landu, zer ez eta zeri eman lehentasuna.
- Erakunde batean egin daitezkeenak ordenatzeko modu bat eskaintzen dute.
- Kudeaketaren egoera autoebaluatzeko eta kanpotik ebaluatzeko tresna baliagarria dira.

Eredu asko daude munduan, eta, gure inguruan, erakundeen lehiakortasuna hobetzeko erreferentziatzeko ereduak **Kudeaketa Aurreratuaren Eredua (KAE)** dugu, 2014an sortua eta 2018an eguneratua, Euskalit Fundazioak koordinatutako erakunde askotariko adituen parte hartzearekin.

Eredu honen helburua erakundeei beren kudeaketa hobetzen laguntzea da, edozein dela ere bere sektorea, tamaina eta garapen-maila. Horrela, erakundea kudeatzeko (antolatzeko, garatzeko, egituratzeko, ulertzeko) modu bat proposatzen du, filosofia bat, eta honen helburua da ahalik eta emaitza onenak lortzea interes-talde guztientzat, modu iraunkor eta orekatuan.

2. Irudia

Kudeaketa aurreratuaren elementuen irudia



Eredu honen 6 elementu eta 23 azpi-elementuetan hainbat kudeaketa-praktika azaltzen dira, erakunde aurreratuek eta erreferentzia direnek erabiltzen dituztenak. Gogoeta egin dezakegu horien gainean, eta ikusi ea gure erakunde alderdi horiek zenbateraino lantzen ditugun modu planifikatu eta sistematiko batez, eta egiten ez badugu, ea guretzako garrantzitsua eta beharrezkoa litzatekeen hausnartzea.

Hortaz, erakunde batek kudeaketa aurreratuaren filosofia barneratuta baldin badauka, eta elementu desberdinak garatzeko tresnak martxan jarri baditu, edozein gai modu sistematikoan eta eraginkorrean garatzeko egoera hobean izango da, beste erakunde batzuekin alderatuta.

3. Erreferentzia Marko Estandarra (EME)

Erreferentzia Marko Estandarra (EME) Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak garatutako laguntza-koadro bat da, edozein erakunderen (publiko zein pribatu, handi ala txiki, sektore guztietakoak) ohiko jardun-eremuak irudikatzen dituena, hizkuntza non eta nola erabili erakutsiz. Euskarari zuzenduta dagoen arren, gainerako hizkuntzetarako ere erabili dezakegu.

Erreferentzia Marko Estandarrak ere aukera eman die erakunde askori beraien planak ordenatu eta kudeaketa sisteman integratzearen garrantziaz jabetzeko. Eta gainera, kudeaketa aurreratuarekin guztiz lerrokatuta dago.

Marko honek era mailakatu, argi eta errazean jaso eta ordenatzen ditu erakunde batean dauden elementuak (euskarri fisikoak, idatzizkoak) eta harremanak (idatzizko zein ahozkoak, herritar, bezero, langile, hornitzaile, aliatu eta abarrekin). Marko honen hezurdura nagusia hau da:

—Ardatza: zerbitzu-hizkuntza

1. Erakundearen irudia
2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harremanak

—Ardatza: lan-hizkuntza

3. Barne-komunikazioa eta lan-tresnak
4. Pertsonen kudeaketa
5. Kanpo-harremanak
6. Kudeaketa-sistema

Marko honek proposatzen duena garrantzitsua da, helburu nagusia ez delako hizkuntzen kudeaketarako sistema garatzea, baizik eta kudeaketa-sistema orokorrean hizkuntzen kudeaketa modu integralean garatzea, hizkuntza politika modu eraginkorrean bete ahal izateko. Horregatik 6. elementu honetan 'integrazio' hitza askotan azaltzen da.

Lehenengo 5 elementuak aztertuz gero (irudia, bezeroak...) gure erakundeak daukan egoeraren berri izango dugu (noiz, norekin eta zenbateraino egiten dugun hizkuntza batean), eta gure erakundeak duen hizkuntza politika eta zehaztutako helburuak zenbateraino bete ditugun ebaluatzeko balioko digu.

6. elementuak, berriz, helburu horiek lortzeko palanka, tresna, irizpide, ardura, lidergo, pertsona eta abarren eraginkortasunari buruzko informazioa emango digu. Alegia, gure erakundeetan daukagun egoeraren zergatia ulertzeko balioko digu, bai ongi egindakoak zein hobetzekoak (hots, X zerbitzua ez dugu euskaraz eskaintzen gaitasunik ez dugulako, edo irizpiderik zehaztu ez delako, edo ez delako zehaztutako irizpidea betetzen, ez dagoelako neurketa eta jarraipena egiteko mekanismorik...).

Hortaz, erakundeentzat oso gomendagarria da EMErekin erakundearen auto-diagnostikoa egitea (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren webgunean dago markoa), beharrezkoa den denbora eskainiz eta erakunde horretako pertsona guztiak inplikaturaz, erakundearen ikuspegi osoa izateko, eta indarguneak eta zer hobetuak modu egokian identifikatzeko.

Argazki hau, beste informazio batekin ere osatu daiteke: erakundeko pertsonen duten hizkuntza-gaitasuna, hizkuntzen inguruan gure interes-taldeek dituzten iritzi eta beharrak, langile edo inplikaturako pertsonen ikusten dituzten zailtasunak...

Baina EME erabiltzean ere, izan dezakegun arriskua da euskararen kudeaketa gure erakundeak duen kudeaketa sistematik aparte egitea, ohiko tresna, talde, jardueretan integratu gabe, modu paraleloan eta ez eraginkorrean, alegia. Kalitatearekin, ingurumenarekin, prebentzioarekin, eta hizkuntzarekin ere, oso garrantzitsua da sistema guztien integrazioa lortzea, sistema bakarra izan dezagun.

4. Kudeaketa aurreratua eta hizkuntzen kudeaketa. Integrazioarako gida

3. Irudia

“Hizkuntzen kudeaketa eta kudeaketa aurreratua” tailerra



Hizkuntzen kudeaketa, kudeaketa aurreratuan. Integrazioarako gida



2018. urtean, “Hizkuntzen kudeaketa eta kudeaketa aurreratua” tailerra burutu zen, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren diru laguntzarekin, euskara teknikariek kudeaketa aurreratuaren tresnetan duten gaitasuna hobetzeko eta, era berean, hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistemaren barruan nola integratu daitekeen lantzeko.

Aurreko tailerrari jarraipena emateko, Hizkuntza Politikarako Sailburuorde-tzak “Kudeaketa Aurreratua eta hizkuntzen kudeaketa. Integrazioarako Gida” garatuko du, kudeaketa aurreratuaren ikuspegitik, euskara eta gainerako hizkuntzen kudeaketarako (erabilera areagotzeko, hizkuntza politika garatzeko) garrantzitsuak diren alderdiak gure erakundearen kudeaketa sisteman integratzen laguntzeko.

Horretarako, lau pauso jarraitzea proposatuko da gida honetan:

1. pausoa: Informazioa jaso

Edozein erabaki hartzeko informazioa behar dugu. Horregatik, lehenengo pausoa euskara eta gainerako hizkuntzen beharra zein den identifikatu, eta ondoren, gure erakundearen dugun egoeraren gaineko informazioa eta datuak jaso beharko ditugu.

2. pausoa: Epe luzeko ikuspegia zehaztu

Daukagun informazioarekin, euskararekiko eta gainerako hizkuntzekiko gure erakundeak lortu nahi duen ikuspegia zehaztu beharko dugu, eta hori lortzeko jarraituko den hizkuntza-politika ere.

3. pausoa: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa sisteman integratzeko hausnarketa egin

Pauso honetan, hizkuntzen kudeaketa gure kudeaketa sisteman nola txertatzen den aztertuko dugu. Horretarako, kudeaketa elementuetan (Estrategia, Bezeroak, Pertsonak, Gizartea, Berrikuntza, Emaitzak) gure erakundearen hizkuntzak nola kudeatzen ditugun, eta kudeaketa hau sistema orokorrean nola integratzen den hausnartzeko galderak planteatzen dira.

4. pausoa: Kudeaketa sisteman integratu

Hausnarketan ikusitakoarekin ekintza plana diseinatu eta burutu beharko dugu, identifikatutako eta lehenetsitako hobekuntza arloekin, hauei aurre egiteko ekintzekin, beharrezko baliabideekin, arduradunekin, epemugekin, komunikazio plan aurreikusiarekin eta bilakaera erakusten dituzten neurketa tresnekin (adierazleak, helburuak...).

5. Ideia garrantzitsuenak

Erakunde eta enpresetan euskararen erabilera areagotu nahi dugunontzat:

- Erakunde bat kudeatzea ez da erraza, eta erakunde asko eguneroko lanak irensten ditu. Oso zaila zaie burua altxatu eta epe ertain edo luzera begiratzeko. Mezu ugari iristen zaizkie, egunero, hainbat lekutatik, gai askoren garrantziaz hitz egiteko: euskararen erabilera, berdintasuna, berrikuntza, datu pertsonalen babesa, ezagutzaren kudeaketa, ingurumena zaintzea, gizarte erantzukizuna, nazioartekotzea eta abar. Baina erakunde askok oso argi dute zeintzuk diren beren lehentasunak: bezeroa eta saltzea (edo bere produktu eta zerbitzuak eskaintzea).
- Erakunde askorentzat interes-talde guztiak ez dute garrantzi bera. Aurreko puntuarekin lotuta dago, eta hau kontuan izan behar dugu erakundeengana behar bezala iristeko. Erakunde horretan euskararen kudeaketak bezero, zerbitzu eta lehiakortasunean eragina badu, lehentasunezkoa izango da.

Pertsonen inplikazio, motibazio eta asebetetzea lortzeko faktorea bada, erakundeak ere garrantzia emango dio. Gizartea, aliatuak eta hornitzaileak ere interes-taldeak dira, baina garrantzitsuak izan arren, askorentzat ez dira lehentasunezkoak, eta beraz, hauekin bakarrik lotzen badugu euskararen kudeaketa, gerta daiteke erakundeak lehentasunezkoztat ez jotzea.

- Hortaz, erakunde bakoitzari, dagokion mezuarekin heldu beharko diogu. Euskararen erabilera areagotzeko, oso argi ikusi behar du erakunde horrek zein onura ekarriko dizkion euskara behar bezala kudeatzeak. Eta zeintzuk diren arriskuak kudeaketa hori modu egoki, jasangarri eta sistematikoan egiten ez bada. Horretarako, erakundearen izaera juridikoa, sektorea, jarduera, kultura, bezero-motak, lege-esparrua, langile eta gainerako interes-taldeen iritzi, nahi eta beharrak kontuan hartu beharko dira, erakunde horretan hizkuntzen kudeaketaren garrantzia zein den ikusteko.
- Kudeaketa aurreratua euskara eta gainerako hizkuntzetarako lagungarri. Kudeaketa sistema erakundearen motorra da, eta erakundearen egungo egoeran eta etorkizunean eragin zuzena dauka. Hori horrela, kudeaketa sistema aurreratua duten erakundeek aukera gehiago dute garrantzitsutzat jotzen dituzten elementuak garatu eta hauetan emaitza onak lortzeko, elementu eta politika desberdinak (hizkuntzak, ingurumena, genero-berdintasuna, kalitatea...) integratu egiten dituztelako, eta ez dituztelako modu isolatuan edota paraleloan kudeatzen. Kudeaketa sistema aurreratu batek hizkuntzekin lotutako alderdiak modu eraginkorrago batean garatuko ditu.
- Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa sisteman integratzea, arrakastarako klabea:
 - Emaitza onak eta iraunkorrak lortzeko; sistematikoki modu naturalean egiteko.
 - Efizientziarako, sistema paraleloak ekiditeko.
 - Planteamendua sendoagoa izateko, ez egoteko pertsonen menpe.
 - Gauza konplexuek ikuspegi orokorra behar dutelako, eta modu planifikatuan eta sistematikoan kudeatu behar direlako (helburu, adierazle, neurketa, jarraipen eta egokitzapenak eginez).

Erakunde eta enpresentzat:

- Hasteko, gogoeta serio eta lasaia egin behar dugu gure erakundearen hizkuntzek duten garrantziari buruz, inguruneke informazioa jasoz, interes-taldeen iritziak aztertuz... Estrategia hausnartu eta zehaztuko dugu.
- Erakundearentzat alderdi garrantzitsua dela erabakitakoan, euskara eta gainerako hizkuntzen egungo egoerari buruzko diagnostikoa egin behar da, nola gauden ikusteko. EME oso tresna baliagarria da.
- Ondoren, erakundeak norantz joan nahi duen zehaztu eta argitu beharko dugu, nondik abiatzen garen ikusiz (aurretik egindako diagnostikoarekin). “Norantz” hori argia eta adostua izan behar da eta erakundearen esparru guztietara iritsi (zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza). Plan hori EMERen arabera egituratu daiteke. Eta erabaki horiek baliabideekin lotu: pertsonak, denbora, dirua...

- Garrantzitsua da “norantz” hori erakundearen hainbat mailatako irizpide, erabaki eta helburuetan zehaztea, eta erakundearen funtzionamendu naturalan sartzea. Erakundea alorka kudeatzen bada, arloka ezarri beharko dira ardurak, irizpideak eta helburuak. Prozesuetan oinarritzen bada, prozesuetan, etab.
- Pertsonak: Pertsonen kudeaketarako prozesu edo jardueretan, hizkuntza politika garatzeko irizpideak integratu behar dira: hautaketan, gaitasunen kudeaketan, garapen profesionalan, barne komunikazioan, sistemetan, asebetetzean, lidergoan...
- Gizartea: Erakundeak hizkuntza politikarekin lotutakoak modu planifikatu eta sistematikoan jakinarazi behar ditu, barrurantz eta kanporantz (bezeroak, erakunde hornitzaileak, aliantzak...), hizkuntzen alorrean zertara konprometitzen garen eta nola egiten dugun aurrera. Erakundeak hizkuntzen erabileran proaktiboa izan behar du eta ingurunean egiten diren ekintzetan parte hartzen du.
- Berrikuntza: Hizkuntzen kudeaketan aurrera egiteko, erronka eta arazoei aurre egiteko, eta betiko egoerari buelta emateko, ideia eta ekarpen berritzaileak beharko dira, beste esparru batzuetan egiten direnak ikusi, eta sortutako “hazi” horiek modu sistematikoan kudeatu.
- Emaitzak: Hizkuntza-politika aldian-aldian berrikusi behar da, adierazleen bitartez helburuen betetze-maila berraztertuz, ekintza eta irizpideen eragin-kortasuna ebaluatzeko.
- Ezinbestekoa da argi izatea hizkuntzen kudeaketa ez dela “proiektu” bat, epe luzerako dela, “beti” kudeatu beharko dugun zerbait; beraz, ekintzak, helburuak eta baliabideak egokitu beharko dira.

EKONOMISTEN EUSKAL ELKARGOAREN EUSKARA KOMUNITATEA

Asier Vallejo
Ekonomisten Euskal Elkargoko kidea

Ekonomisten Euskal Elkargoa ekonomisten erakunde profesionala da, Euskal Autonomia Erkidegoan ekonomisten lanbidea antolatu, ordezkatu, defendatu eta sustatzeaz arduratzen dena.

Ekonomia eta Enpresa fakultateetako unibertsitate-titulazio ofizialak dituzten profesional elkargokideek osatzen dute ekonomista lanbidea; oro har, honakoak dituztenek: Enpresa Administrazio eta Zuzendaritza, Ekonomia, Finantza, Marketing, Zerga-Sistema eta bestelako arlo batzuetako gradu, lizentzia eta diplomak.

Gaur egun Elkargoa Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 4.500 ekonomistek osatzen dute gutxi gorabehera. Horietatik gehienak enpresa pribatuetan lanean dabiltzan ekonomistak dira.

Elkargoak garatutako lankidetzaren eredu hau topaleku bilakatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko profesionalentzat eta, funtsean, profesional edo elkargokideentzako parte-hartze eta konpromisoan oinarrituta dago. Horrela, besteak beste, garapen pertsonal eta profesionalerako zerbitzu espezializatuak eskaintzen dira (prestatuntza, laneratzeko laguntza, informazio profesionala, etab.) eta, aldi berean, erreferente izaten saiatzen da, euskal gizarte osoari ekonomia arloan ekarpen, interpretazio eta ikuspegia eskainiz.

Esparru profesionalean, euskararen erabileraren inguruan, ekonomisten lanbidea eta orokorrean lanbide gehienak oraindik oso erdaldunak dira.

Nahiz eta gaur egungo egoera hori izan, Elkargoak, ekonomista euskaldunen arteko topagunea izanik eta ekonomia mailan Euskal Autonomia Erkidegoan erreferentea izanik, lan-munduan lanbide hau euskalduntzeko eta ekonomia alorrean euskara bultzatzeko konpromisoa dauka.

Horregatik, euskal gizartearekiko daukan erantzukizunagatik eta lanbidea oso erdalduna dela ikusirik, Ekonomisten Euskal Elkargoak 2018. urtean Euskara Komunitatea sortu zuen, euskara lan-munduan eta Elkargoan bertan bultzatzeko asmoz.

Honako hauek dira Elkargoko Euskara Komunitatearen helburu nagusiak:

- I. Ekonomia arloko euskararen normalizazioan lagundu, ekonomia eta enpresa arloan euskara zainduz, bultzatuz eta garatuz, euskararekiko sentiberatasunari bide emanez, lan-mundua euskalduntzeko.

2. Ekonomia arloan eta lan merkatuan lana euskaraz burutu nahi dutenentzako topagunea izatea, laguntza osagarri, bultzatzaile eta jarduera gune gisa.
3. Elkargoan euskara bizirik eta aktibo mantendu.

Euskara Komunitatearen helburuak finkaturik zeudela, elkargokideek euskararen erabileraren inguruan zeukaten iritzia lortzeari ekin zitzaion. Horretarako, Elkargoak daukan tresna bat erabili zen: Ekonometroa, hain zuzen ere.

Ekonometroa testuinguru ekonomikoaren eta haren balizko bilakaeraren gainean Ekonomisten Euskal Elkargoko kideek izan dezaketen pertzepzioa jasotzen duen adierazle sozioekonomikoa da. Urtean bi aldiz argitaratzen da, sei hilabetero (ekainean eta abenduan).

2018ko abenduan argitaratu zen Ekonometroan euskarak enpresa- eta lan-munduan daukan presentziaren inguruko atal bat egon zen. Inkesta honetan 551 elkargokidek parte hartu zuten (elkargokideen % 12,2k).

Inkesta honen emaitza aipagarrienak ondorengo hauek izan ziren:

- Inkestan parte hartu zuten ekonomisten gehiengoak uste zuten, euskarari egoztitako balio ekonomikoa mugatua izan arren, eta enpresetan planteatzeak kostuak eta eragozpenak sortzen dituen arren, sustatu egin behar dela eta politika publikoen bidez babestu behar dela, merkatua ez baita berez erregulatuko. Gainera, euskararen sustapena enpresen gizarte erantzukizunaren barnean dagoela uste zuten.
- Lurralde Historikoaren arabera emaitzetan alde handiak egon ziren.
- Egoera profesionalaren arabera, langile publikoak ziren euskara sustatzearen aldeko jarrera argiena zutenak, bai sektore publikotik, baita enpresetatik ere; eta haiek ziren euskararen erabilera gehien baloratzen zutenak, zerbitzuaren berezko osagai moduan.
- Hala ere, norbere kontura dabiltzan langile aktiboak ziren euskara baldintza moduan planteatzeak sortzen dituen eragozpen eta kostu gehigarriak gehien sumatzen zituztenak eta euskararen balio ekonomikoa mugatua dela uste zutenak, neurri handiagoan, Euskal Herrian soilik erabiltzen delako.
- Adinaren arabera, 60 urtetik gorakoen artean antzematen zen euskara babestu eta sustatzearen jarrera ez hain aldekoa, bai sektore publikotik, baita enpresetatik ere; eta haiek ziren enpresetan euskararen erabilera zerbitzuaren berezko parte moduan gutxien baloratzen zutenak.
- Aldiz, gazteenak ziren euskara sustatu eta babesteko jarrera argiena zutenak eta neurri txikienean uste zutenak euskarak balio ekonomiko mugatua zeukala Euskal Herrian soilik hitz egiten delako.
- Hortaz, esan daiteke alderantzizko harreman bat dagoela adinaren eta euskararekiko babesaren artean: zenbat eta gazteago, orduan eta babes handiagoa.

2018. urtearen amaieran egindako Ekonometroaren inkesta honetaz gain, 2019. urtean euskararen erabileraren inguruan elkargokideen iritzia hobeto ezagutzeko beste saiakera bat egin da Euskara Komunitatetik bultzatuta. Horrela, 2019ko martxoan elkargokideei euskarari buruzko galdetegi berezi bat bidali zitzaion. Galdetegi honi 108 elkargokidek erantzun zioten (% 2,4k, hain zuzen ere).

Hona hemen galdetegi honen emaitza esanguratsuenak:

- % 75ek euskara asko ulertzen zuen.
- % 66k euskaraz hitz egiten zekien.
- % 52k euskaraz asko hitz egiten zuen.
- Hedabideek euskaraz hitz egiten duen ekonomista baten beharra dutenean, 20 elkargokide prest egongo lirateke agerraldian parte hartzeko (galdetegiari erantzun ziotenen % 18,5, hain zuzen ere).
- Haien erakundeetan % 54k ez zuen ziurtagiririk (Bikain, Bai Euskarari, etab.).
- % 52k zerbitzu profesionalak euskaraz eskaintzen zituen.
- % 83 Elkargoak euskara bultzatzearen ideiarekin ados zegoen.
- % 62k komunikazioak euskaraz jaso nahi zituen.
- % 40 Elkargoak euskaraz antolatutako prestakuntza ekintzetan eta jardunaldietan parte hartzeko prest agertu zen (beste % 40, aldiz, gaiaren arabera baino ez).

Euskarak enpresa- eta lan-munduan daukan eta eduki beharko lukeen presentziaren inguruan elkargokideek daukaten iritzia ezagutu ondoren, 2019. urtean zehar Elkargoaren Euskara Komunitatetik euskararen erabilera indartzeko asmoz zenbait ekintza bultzatu dira. Hala nola:

- Posta elektronikoz bidaltzen den berripaperean, ekonomiari buruz euskaraz idatzitako berriak sartu.
- Euskaraldiaren lehenengo edizioan parte hartu.
- Euskara planei buruzko hitzaldia antolatu.
- Korrikan parte hartu.
- Arriaga antzokian urtero egiten den klasikoen irakurketa jarraituan parte hartu.
- Bikain ebaluazioan ebaluatzaile bezala parte hartu.
- Urteko kontuetako Memoria laburtu eta ez-laburtuaren euskarazko itzulpenak egin.
- Wikipedia tailerrak antolatu euskarazko edukiak sortu eta sarera igotzeko asmoz.
- Ekonomialari Euskaldunen I. Biltzarraren antolakuntzan parte hartu: Udako Euskal Unibertsitatearekin lankidetzan, azaroaren 14ean Euskaltzaindiaren Donostiako Ordezkaritzan antolatu zen. Biltzar hau bi urterik behin antolatu nahi da, eta II. Biltzarra 2021ean Bilbon antolatzeko asmoa dago.
- Ekonomistak trebatzeko terminologia ikastaroa antolatu: azaroaren 26an Donostian eta azaroaren 28an Bilbon izango dira.

Ekonomisten Euskal Elkargoaren Euskara Komunitatearen ekinbidez burutu-tako ekintza hauen guztien balorazioa, orokorrean, ona da. Hala ere, elkargokideen parte-hartzea kuantitatiboki urria da, nahiz eta kualitatiboki oparoa izan. Hortaz, etorkizunera begira, erronka nagusietariko bat, ekintza hauetan, ekonomista gehiagok parte har dezaten motibazioa sustatzea da.

Ekonomisten Euskal Elkargoaren esparru zuzenetik haratago joanda, eta euskarak enpresa- eta lan-munduan bere presentzia indartzeko erronkez ari garelara, gogoeta batzuk mahaigaineratu daitezke:

- Alde batetik, eskariaren gaineko erronkak daude: kontsumitzaileek beren burua ahaldundu behar dute, euskarazko zerbitzua eskatu, eta hala behar bada, ordaindu edota erabili (bai mundu analogikoan, bai digitalean). Horretarako, funtsezkoa da euskaldunek beren burua ikusgarri egitea.
- Bestetik, eskaintzaren gaineko erronkak daude: enpresek eta administrazioek eman beharreko pausoak izango lirateke, eskariari erantzuteko eta hizkuntza ekologia errespetatzeko. Nolabait esateko, erabat murgildurik gauden mundu global honetan tokian tokikoarekin, bertako erroekin lotuko gaituen zerbitzuak. Horretarako, abantaila fiskalak eta laguntzak lehenetsi beharko lirateke, kartelak, web orria, arreta, etab. euskaraz eskaintzen dutenentzat, lagungarri moduan.
- Arlo sozioekonomikoan, ikasitakoaren arabera, euskararen normalizazioak eta estandarizazioak aldi berean joan behar dute. Hau da, erabilera egongo bada, espezializazioko hizkeran (ekonomian, adibidez) terminologia estandarizatu behar da, eta estandarizatu erabilerak emango dio. Horretan datza, beste hizkuntza batzuekin gertatzen den bezala, oraindik ere euskarak enpresa- eta lan-munduan daukan beste erronka nagusietariko bat: gaur egun euskaraz ikasketak eskaintzen dituzten unibertsitateetako ikasleek hizkuntza espezializatu elkar ulertzeko arazoak dituzte, kontzeptuak modu diferentean ikasten baitituzte.

Azkenik, lerro hauek era baikorrean amaitzeko asmoz, azken urteotan esparru sozioekonomikoan euskararen erabilerak gora egin duelako pertzepzioa dago. Zenbait datuk hori diote. Adibidez: errenta aitortpena euskaraz egiten duten Gipuzkoako herritarren kopurua bikoiztu egin da azken hamarkadan (2008. urtekoa % 7,7k egin zuen eta 2017. urtekoa % 16,4k).

Hau guztia bermatzeko ekimen batzuk egin dira azken urteotan erakunde publikoen eta gizarte eragileen ekimenez. Horien artean, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren eskutik 2013. urtean onartu zen lan mundua euskalduntzeko adierazpena azpimarratu daiteke. Dokumentu horretan agertzen diren lan-ildoak eta proposamenak erabat baliagarriak izan daitezke etorkizunerako lana finkatzeko garaian.

Euskarak enpresa- eta lan-munduan daukan presentzia indartzeko, esparru sozioekonomikoa osatzen dugun hainbat eragilek lan asko daukagu egiteko. Alor honetan, Ekonomisten Euskal Elkargoaren Euskara Komunitateak bere konpromisoa berretsi nahi du, eta, etorkizunera begira, beste lanbide-elkargo batzuekin lankidetzan jardun eta ekintza eraginkorren bitartez euskararen biziberritzean aurrerapausoak lortzeko borondate irmoa adierazi nahi du.

EUSKARA ETA LAN-MUNDURATZEA

Eñaut Zubeldia eta Maria Leonor Jalon
Lanbideko Kabinete Teknikoko teknikariak

I. Sarrera

Ezer baino lehen, Lanbideren izenean eskerrak eman nahi genizkioke Euskaltzaingardi jardunaldi hauetan parte hartzera gonbidatzeagatik.

Txosten honetan, izenburuak dioden moduan, euskara eta lan-munduratzearen inguruan dagoen erlazioa aztertu dugu, Lanbidek dituen datuak kontuan hartuta. Hori azaltzeko, lan hau hiru ataletan banatu da. Lehenengo zatian, Lanbiden erregistratuta dauden pertsonen euskara ezagutzak aztertuko ditugu, aldagai ezberdinen arabera. Bigarren atalean, Euskal Herriko Unibertsitatean euskaraz ikasten duten ikasleen eboluzioa ikusiko dugu, eta ondoren euskarak lan-munduratzean zein eragin dituen. Azkenik, laburpen edo analisi gisa, emandako datuen ondorioak plazaratuko ditugu.

2. Euskararen ezagutza Lanbiden (lan-eskatzaileak)

Hasi baino lehen, kontuan hartu behar da atal honetan agertzen diren datuak Lanbiden lan-eskatzaile gisa erregistratutako pertsonenak direla (2019ko ekaina). Gainera, pertsona horiek bi taldetan sailka ditzakegu beraien lan egoeraren arabera: *langabezia daudenak* eta *lanean daudenak*. Azken hauek, Lanbiden apuntatuta daude lan hobeagoa topatzeko, Lanbideren zerbitzuak jasotzeko (ikastaroak) eta abar. Jarraian, goian aipatutako pertsona horien euskara ezagutzak aztertuko ditugu aldagai ezberdinen arabera.

2.1. Lan egoeraren arabera

Beheko taulan, Lanbiden erregistratutako lan-eskatzaileen euskara ezagutzak azaltzen dira, beraien lan egoeraren arabera sailkatuta, hau da, *landunak* eta *langabeak*. Horretaz gain, lau multzotan banatu da euskararen ezagutza: ez daki, oinarrizkoa (A), erdikoa (B) eta goi mailakoa (C).

Datuak aztertzen baditugu, segituan ikusten dugu landunen euskara-ezagutza langabeena baina dezente hobea dela. Gainera, euskara ezagutza maila guztietan

betetzen da hori. Adibidez, landunetan goi-mailako euskara ezagutza dute % 18,9k; aldiz, langabeen artean tasa hori % 10,4koa da, askoz txikiagoa. Gainontzeko euskara ezagutza mailatan ere gauza bera gertatzen da, langabeek gutxiago dakitela.


Bestalde, euskara dakitenak soilik hartzen baditugu, esan dezakegu gehiago direla lanean daudenak langabeak baino. Aldiz, euskaraz ez dakitenen artean alderantzizkoa gertatzen da, gehiago dira langabezia daudenak lanean daudenak baino. Beraz, esan daiteke euskara jakiteak orokorrean lanean egoteko aukera handitzen duela EAE¹n.

2.2. Adinaren eta lan egoeraren arabera

I. Irudia

Euskararen ezagutza eta lan egoera

Euskaraz ondo edo oso ondo moldatzen direnen
% adina eta lan egoeraren arabera



Iturria: Lanbide

Hemen euskaraz ondo edo oso ondo moldatzen direnen ehunekoak aztertu dugu, adinaren eta lan egoeraren arabera.


Bi ondorio nagusi atera ditzakegu grafiko honetatik: batetik, langabeen euskara maila lana dutenena baino okerragoa dela adin-tarte guztietan; eta bestetik, zenbat eta gazteagoa izan, euskararen ezagutza handiagoa dela.

2.3. Ikasketen eta adinaren arabera

2. Irudia

Euskararen ezagutza ikasketa mailaren eta adinaren arabera

Euskaraz ondo edo oso ondo moldatzen direnen
% ikasketen eta adinaren arabera



Iturria: Lanbide

¹ Euskal Autonomia Erkidegoa.

Puntu honetan kalkulatu dugu euskaraz ondo edo oso ondo moldatzen direnen ehunekoa, ikasketa eta adinaren arabera. Hemen ere bi ondorio nagusi atera ditugu: batetik, euskararen ezagutza handiagoa da formakuntzak gora egin ahala; eta, bestetik, zenbat eta zaharragoa izan, euskararen maila baxuagoa da.


2.4. Jatorrizko sektorearen arabera

Atal honetan aztertu dugu euskaraz ondo edo oso ondo moldatzen direnen ehunekoa zein den jatorrizko sektorearen arabera. Beheko taulan ikus daitekeenez, industrian eta zerbitzuetan dago euskara ezagutza handiena; aldiz, eraikuntzan eta lehen sektorean ezagutza txikiena. Kontuan hartu behar dugu betiere Lanbiden erregistratutako pertsonen ari garela; hau ez da Euskal Autonomia Erkidegoko erradiografia bat.

3. Irudia

Euskararen ezagutza jatorrizko sektorearen eta lan egoeraren arabera

Euskaraz ondo edo oso ondo moldatzen direnen % jatorrizko sektorea eta lan egoeraren arabera




Iturria: Lanbide

Bestalde, orain arteko patroiarri jarraituz, hemen ere ikusten da, sektore guztietan, langabeen euskara maila lana dutenena baino eskasagoa dela.

2.5. Lurralde historikoaren arabera

4. Irudia

Euskararen ezagutza Lanbiden, lurralde historikoaren arabera



Iturria: Lanbide – Kabinete Teknikoa


Hemen Lanbiden erregistratutako guztien euskara ezagutza aztertu dugu lurralde historikoaren arabera. Ondoko grafikoan agertzen diren datuek garbi adierazten dute gipuzkoarrak direla euskara gehien dakitenak. Beste muturrean ditugu arabarrak, non % 75,7k ez dakien euskararik batere. Bizkaia tartean dago, baina datu nahiko txarrekin.

2.6. Jatorriaren eta adinaren arabera

5. Irudia

Euskararen ezagutza jatorriaren eta adinaren arabera

Euskaraz ondo edo oso ondo moldatzen direnen
% jatorriaren eta adinaren arabera



Iturria: Lanbide – Kabinete Teknikoa

Puntu honetan, jatorriaren eta adinaren arabera sailkatu ditugu euskaraz ondo eta oso ondo moldatzen direnak. Grafikoan ikus dezakegunez, bertakoen eta atzerritarren euskara mailaren artean izugarritzko aldea dago. Adibidez, hogeita hamar urtez azpikoak hartzen baditugu, ikusten da bertakoen % 52,5 euskaraz ondo edo oso ondo moldatzen dela; aldiz, atzerritarren kasuan ehuneko hori soilik % 3,3koa da. Beste adin tartean ere antzeko zerbait gertatzen da: bertakoen eta atzerritarren artean desoreka handia dago euskararen ezagutzan.

2.7. Laneratze hobearen duten kolektiboak

2017an eginiko txosten batean, lan merkatuan sartzeko arrakasta handiena duten kolektiboak zein ziren aztertu zen. Horretarako, besteak beste, ondorengo aldagaiak hartu ziren kontuan: azken urtean zenbat egunez egon ziren lanean, enplegurako irteera-tasa zenbatekoa zen eta abar.

Honenbestez, hemeretzi kolektibotako *ranking* bat egin zen, eta gauza bitxi bat azaleratu zen: laneratze hoberena duten kolektiboen artean goi-mailako euskara ezagutza zutenak zeuden. Hau da, euskara maila altua dutenek lanean sartzeko probabilitate handia dutela esan nahi du horrek. Horrela, euskara maila ona zuen kolektibo hori sailkapen horretan hirugarren postuan kokatu zen, % 58,5eko enplegurako irteera-tasarekin. Datu hau oso esanguratsua iruditzen zaigu, izan ere, adierazten digu euskara jakitea lan-merkatuan sartzeko garaian oso baliagarria dela.

6. Irudia

Lan-merkatuan sartzeko arrakasta handiena duten kolektiboak

Kolektiboa	Enplegurako irteera-tasa	Langabe kopurua 2017ko abenduan	Azken urtean okupatua (batezbestekoa, egunak)
1 90 egun baino gutxiago langabezian	% 63,0	27.514	148,3
2 Langabezia-prestazio kontributiboa	% 59,9	20.852	138,5
3 Goi-mailako euskara ezagutza	% 58,5	12.043	124,0
...
19 LANBIDEko zerbitzuak jaso ditu	% 41,7	40.212	87,3

Iturria: Lanbide – Kabinete Teknikoa

2.8. Euskara eskaera Lanbideko lan-eskaintzetan

Lehen ataleko azken puntu honetan aztertu dugu, Lanbideko webgunean momentu honetan (2019ko azaroan) argitaratuta dauden Lanbideko lan-eskaintzetan, ea zein ehunekotan eskatzen edo baloratzen den euskara jakitea. Ikusi duguna izan da Lanbideko lan-eskaintzen % 20an eskatzen dela euskaraz jakitea edo baloratzen dela haren ezagutza.

Euskararen ikuspuntutik positiboa iruditzen zaigu lan-eskaintzetan euskararen ezagutza eskatzea eta baloratzea, nahiz eta ehunekoa ez izan nahi bezain handia.

3. Euskara eta unibertsitarioen lan-munduratzeari

3.1. Unibertsitate ikasketak euskaraz (%): guztira eta jakintza-arloka

Azken hogeitun urteetan UPV/EHUn euskaraz matrikulaturiko ikasle berrien ehunekoa bikoiztu baino gehiago egin da, 1997ko % 23,46tik 2017ko % 53,29ra pasatuz. Gainera, kontuan izan behar da, urtero EHU/UPVn matrikulatzen direnen % bat EAEz kanpoko ikasleak direla, 2017an adibidez % 11,3. Horrek esan nahi du kanpotik datozen ikasle horiek kontuan hartuko ez bagenu, euskaraz matrikulatutakoen tasa handiagoa izango litzatekeela.

Bestalde, aipatu nahi dugu Lanbideko urtero laneratzeari buruzko inkestak egiten dituela (emaitzak Lanbideko webgunean ikusgai). Horrela, ikasketak bukatzen dituzten 26.000 pertsona ingururi inkesta bat egiten zaie urtero EAEn, jakiteko ea beraien lan-munduratzeari nolako izan den. Inkesta unibertsitarioei (10.000), lanbide heziketakoei (10.000) eta enplegurako prestakuntzakoei (6.000) egiten zaie. Guk, lan hau egiterako orduan, soilik UPV/EHUn ikasitako unibertsitarioak hartu ditugu kontuan. Ikasketak amaitu eta hiru urtera egiten zaie inkesta, pentsatzen baitugu epe horren ondoren lan-merkatuan nolabaiteko sarbidea izan dutela. Datu horiek aztertuz, hainbat ezaugarri ikusi ditugu.

7. Irudia

Ikasketa unibertsitarioak euskaraz UPV/EHU

Jakintza-arloak	2006ko promozioa	2015eko promozioa	Aldea
Hezkuntza	% 72	% 84	12
Hizkuntzak	% 54	% 55	2
Esperimentalak	% 31	% 54	24
Arte eta Humanitateak	% 43	% 49	7
Gizarteko Zerbitzuak	% 40	% 47	8
Arkitektura eta Eraikuntza	% 14	% 42	28
Gizarte eta Portarako zientziak	% 45	% 40	-5
Osasuna	% 32	% 37	5
Kazetaritza	% 32	% 32	0
Ekonomia eta Enpresa	% 24	% 31	8
Ingeniaritza	% 22	% 30	8
Zuzenbidea	% 25	% 27	2

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Euskarari erreparatzen badiogu, ikusten dugu euskaraz ikasten dutenen kopurua gorantz doala jakintza-arlo² guztietan, batean izan ezik.

Jakintza-arloei banaka begiratzen badiegu, ikusten da batzuetan gehiengoak euskaraz ikasten duela, baina beste batzuetan euskal ikasleen ehunekoak ez dira hain onak. Dena den, datu positiboak da gehienetan 2006tik 2015era euskaraz ikasten dutenen tasa igo egin dela.

3.2. Langabezia-tasa, euskaraz edo gaztelaniaz ikasi


Atal honetan, ikasleak bi taldetan banatu ditugu: batetik, euskaraz ikasi dutenak; eta bestetik, gaztelaniaz ikasi dutenak. Ondoren, bi talde horien langabezia-tasa aztertu dugu, diferentziarik zegoen ikusteko, eta ondorio honetara iritsi gara: euskaraz ikasi dutenek eta gaztelaniaz ikasi dutenek, langabezia-tasa antzekoa izan dute azken hamar urteetan.

Jakintza-arloa aztertzen badugu, batzuetan euskaraz ikasten dutenek langabezia txikiagoa dute, beste batzuetan antzekoa, eta azkenik, gaztelaniaz ikasten dutentan langabezia txikiagoa dutenak ere badaude.

² Ikasketa mota guztiak 12 jakintza-arlotan sailkatu ditugu.

EHUn ikasten dutenen % 80k EAEn lan egiten dute, eta gainerako % 20k, aldiz, EAetik kanpo (bai Estatuan, bai munduan). Guk, ondorengo datuak ateratzeko, soilik EAEn lan egiten duten unibertsitarioak hartu ditugu kontuan, eta bi taldetan banatu euskararen ikuspuntutik: lanean egunero euskara erabiltzen dutenak, eta lanean egunero euskara erabiltzen ez dutenak³. Ondoren, bi kolektibo horiekin alderaketak egin ditugu, lan-munduari dagozkion arloetan.

3.3. Ikasketekin bat datorren lanpostuan lan egin: euskaraz egunero mintzatu edo ez



Iturria: Lanbide – Kabinete Teknikoa


Hemen aztertu duguna izan da unibertsitate ikasketekin bat datorren lanpostu batean⁴ lan egiten dutenen ehunekoa, lanean euskara egunero erabiltzen duten edo ez kontuan hartuta. Datuek informazio bitxia azaltzen dute: lanean egunero euskara erabiltzen dutenak gehiago dira ikasketekin bat datozen lanpostuetan.

³ Hauek izan daitezke: inoiz euskaraz hitz egiten ez dutenak, batzuetan egiten dutenak, edo nolabaiteko maiztasunarekin egiten dutenak ere bai. Ez ordea, egunero euskaraz hitz egiten dutenak.

⁴ Ikasketekin bat datorren lanpostua dela esango dugu, ondorengoa betetzen bada: batetik, ikasitakoarekin zerikusia izatea lanak; eta bestetik, ikasketa mailaren araberako lanpostua izatea (kategoria profesionala).

3.4. Soldata konparazioa: lanean egunero euskaraz mintzatu edo ez

9. Irudia Euskararen erabilera eta soldataren batezbestekoa



Iturria: Lanbide – Kabinete Teknikoa

Puntu honetan, soldata alderaketa egin dugu, lanean egunero euskaraz hitz egiten duten edo ez begiratuta.

Datuek erakusten digutenez, lanaldi osoan egunero euskaraz hitz egiten dutenek, batez beste, gehiago irabazten dute egunero euskaraz hitz egiten ez dutenek baino. Egoera hori, gainera, azken hamarkada osoan mantendu da. Horrela, 2018. urtean adibidez, egunero euskaraz hitz egiten zutenek 1.602 € kobratzen zuten batez beste eta, aldiz, besteek 1.524 €, % 5 inguru gutxiago. Lanaldi murriztuan ere antzeko zerbitu gertatzen da.

3.5. Lanean egunero euskaraz hitz egiten dutenak, probintziak

Hemen, lanean egunero euskaraz hitz egiten dutenak probintziak sailkatu ditugu, ikusteko ea zein lurralde historikotan hitz egiten den euskaraz gehien. Emaitzen arabera, ikusten da gipuzkoarrak direla egunero lanean euskaraz gehien hitz egiten dutenak, 2018an % 76 zirelarik. Gero, arabarrak daude % 42ko tasarekin eta ondoren bizkaitarrak % 40ko tasaz. EAEko batezbestekoa egiten badugu, % 52k hitz egiten du egunero euskaraz lanean.


Bestalde, azken IO urteetako eboluzioa ikusiz, esan behar da lanean egunero euskaraz hitz egiten duten unibertsitarioen ehunekoa gorantz doala, nahiz eta nahiko poliki. 2009an EAEn % 46k hitz egiten zuen euskaraz egunero eta 2018an % 52k. Aipatzekoa da baita ere, urte horietan guztietan, emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago egiten dutela euskaraz egunero.

3.6. Lanean egunero euskaraz hitz egiten dutenak, enpresa motaren arabera

Azken atal honetan, unibertsitarioak hartu eta zein enpresa motatan lan egiten duten⁵ aztertu dugu, eta ea egunero euskaraz hitz egiten duten edo ez. Beheko grafi-koak azaltzen digunez, kooperatibetan hitz egiten da gehien euskaraz: egunero % 74ko tasarekin; gero enpresa pribatuetan (% 49), ondoren publiko-pribatuetan (% 32) eta azken postuan daude enpresa pribatu multinazionalak (% 15).

10. Irudia

Unibertsitarioen euskararen erabilera lan egiten duten enpresa motaren arabera



Iturria: Lanbide – Kabinete Teknikoa.

4. Ondorioak

Bukatzeko, laburpen gisa, lan honen ondorio nagusiak bi ataletan banatu ditugu:

Euskararen ezagutza Lanbiden:

- Lanbiden erregistratutako % 63,7k ez daki euskaraz: langabeen % 71k eta landunen % 55ek.
- Euskaraz dakitenek langabezia-tasa txikiagoa dute.
- Gazteek eta formakuntza gehien dutenek euskara maila hobea dute.
- Atzerritarren euskara ezagutza oso txikia da orokorrean.

⁵ Datu hauek Lanbidek laneratzeari buruz urtero egiten dituen inkestetatik hartu ditugu, eta inkestak ikasketak amaitu eta hiru urtera egiten dira.

- Goi-mailako euskara ezagutza dutenak errazago sartzen dira lan-merkatuan.
- Lanbiden eskaintzen diren bost lanetatik batean euskara eskatzen/baloratzen da.

Euskara eta unibertsitarioen lan-munduratzea:

- Euskaraz ikasten duten unibertsitarioen ehuneko gorantz doa urtez urte, eta emakumezkoen tasa gizonetzkoena baino handiagoa da.
- Unibertsitarioetan, euskaraz nahiz gaztelaniaz ikasi, langabezia-tasa berdintsua da.
- Aldiz, lanean egunero euskara erabiltzen dutenek:
 - Ikasketekin bat datorren lanpostua lortzeko aukera handiagoa dute.
 - Batez beste, soldata handiagoa dute.
 - Batez beste, betetze-maila handiagoa dute bere lanpostuan (soldatan eta funtzioetan).
- Datuek erakusten digutenez, euskaraz ikasi eta lan egitea aukera ona da, kalitate hobeko lana lortzea ahalbidetzen baitu askotan.

EUSKARA ARLO SOZIOEKONOMIKOAN: ORAINTXE DUGU UNEA

Maddi Etxebarria
Elhuyar

Leire Solozabal
Artez

Mikel Urdangarin
Ahize-AEK

Elias Zumalde
Emun

Jarraian datorren artikulu hau Ahize-AEK, Artez, Elhuyar eta Emun aholkularitza-enpresek elkarlanean sortutakoa da. Euskaltzaindiak *Arlo sozioekonomikoa euskararen biziberritzean* izenburupean antolatutako XXIV. Jagon Jardunaldia izan da horretarako aitzakia eta akuilu.

Euskararen normalizazioak egin duen bideari eta momentuko egoerari erreparatuta, aurrera egiten jarraitzeko eta egindako inbertsioari etekina ateratzeko, ezinbestean, lan-munduan euskararen erabilera normalizatzeari ganoraz heltzeko garaia dugu. Euskara dagoen bidegurutzetik ateratzeko gako nagusienetako bat arlo sozioekonomikoa euskalduntzea da.

Gaur egun eremu sozioekonomikoan, eta zehatzago lan-munduan, erdarak dira nagusi. Euskal Herrian dauden entitateen % I baino gutxiago ari da euskara-plan edo ziurtagiri bat dutela lanean. Esan genezake egoerarik aurreratuenak Euskal Autonomia Erkidegoko eremu euskaldunduetan ditugula, eremu soziolinguistikoak eta indarreko hizkuntza-politiken eraginak baldintzatzen dutela nagusiki emaitza. Horrekin batera, eremu sozioekonomikoan euskarak duen presentziaren ezaugarri nabarmena da, beste sektore batzuekin alderatuz (hezkuntza edota administrazioa), egoera eskasagoan dagoela. Horren atzean hurrengo arrazoi nagusi hauek daude: pertsonak gaindituz, tokiak berak garrantzia duela; helduen eremua bete-betean hartzen duela; eta plaza publikoa izanik ere, eremu pribatua ere ukitzen duela. Bestela esanda, azken 60 urteotako normalizazio-estrategiek ia kontuan hartu ere ez dituzten erpinak direla lan-munduaren ezaugarri nagusiak, eta orain arte ez dela lan-mundu hori behar beste intentsitatez landu, bitartean beste ildo batzuk gailendu direlako, hots, pertsonak euskalduntzea, eremuak euskalduntzearen gainetik; ezagutzaren hedapena belaunaldi berrietan bereziki sustatzea, belaunaldi helduenean baino; eta eremu publikoan (hau da, administrazioa) urratsak egitea, eremu pribatuaren aurretik.

Urgentea bezain estrategikoa izan zen pertsonak euskalduntzeari heltzea transmisioa ia etenarazia zuen hizkuntzarentzat. Batzuentzat nahikoa egin da egin denarekin; beste batzuentzat, ordea, lehenago ekin behar genion fase berri bati. Batera zein bestera izan, azkenaldiko datu soziolinguistikoek euskararen normalizazioan geldialdia, makalaldia iragartzen dute eta jauzi kualitatibo baten beharra azaleratzen: orain arteko normalizazio-bideari segida emango badiogu, lan-munduan jauzi kualitatiboa

egin behar da, ezinbestean. Izan ere, lan-mundua ez da edozein sektore. Pertsona oro-ren bizitzan eragina duen eremua da, langile, kontsumitzaile zein herritar gisa. Saihestezina da harekin topo egitea, eta euskarak bertan espazioa ez irabazteak herritarren bizitzatik kanpo geratzea dakarkio euskarari berari, neurri handi batean.

Espazioak euskaldundu, pertsonak euskalduntzeko

Egindako bideak erakutsi digu pertsonak euskalduntzea ez dela nahikoa, espazioak ere euskaldundu egin behar direla. Areago: espazioetan euskalduntze-prozesuak abiatu ezean, pertsonak erdalduntzeko gune bilakatzen dira; hau da, eskolaren eta helduen euskalduntzearen bidez irabazi dena lan-munduak galaraz dezakeela. Baina kontrakoa ere erakutsi digu azken 20 urteotan enpresa eta erakundeetan egindako ibilbideak: espazioak euskalduntzea posible dela, eta horiek euskaldunduz pertsonak eta ingurua ere euskaldundu daitezkeela. Gainera, motibazio pragmatikoak pizten dituen eremua da, bai gaur egun lanean ari direnentzat, eta bai etorkizunari begira beren seme-alabentzat onena nahi dutenentzat ere. Eragin-gaitasun eta -indar horiek euskararen normalizazioaren mesedetan baliatzeari funtsezkoa deritzogu, euskarak jauzi kualitatiboan egin dezan. Jakin dakigu ez garela hutsetik abiatzen, artikulatu hau sinatzen dugun eragileok zeregin horretan dihardugu-eta. Baina, hain zuzen ere, horretan dihardugulako dakigu orain arte ez zaiola lan-munduari dagokion estrategikotasunik aitortu, eta sinetsita gaude oraintxe dela sasoa.

Hizkuntza-politikek eragina dute

Jakina denez, egoera soziolinguistikoko anitza dugu Euskal Herrian, eredu askotarikoa. Eremu geografiko batzuetan, zatiketa administratiboaren eraginak gaintutuz euskara hobeto mantendu da. Baina ukalezina da, zatiketa administratibo horretan aplikatutako hizkuntza-politikek ondorioak izan dituztela: euskarak aurrerago egin du aldeko hizkuntza-politikak izan dituen eremuetan. Horrela, belaunaldi berriak euskalduntzean egindako apustua edo apustu ezak, ondorio ikusgarriak izan ditu: EAEn, % 33,9 euskaldunak dira eta % 19,1 ia euskaldunak; Nafarroan, % 12,9 eta % 10,3, hurrenez hurren; eta Ipar Euskal Herrian, % 20,5 eta % 9,3. Azken 30 urteetako ezagutzaren bilakaerari erreparatuz gero, EAEn eta Nafarroan euskarak aurrera egin badu ere, Ipar Euskal Herrian kontrako norabidea hartu du, eta datu kezagarria da hori. Bestalde, D ereduko matrikulazioa kontuan izanez gero, 2017-2018 ikasturtean EAEn % 79,42koa izan zen, Nafarroan % 28,29koa eta Ipar Euskal Herrian % 7,2koa.

Datu horiek une-uneko argazkia erakusteaz gain, ikusiko dugunez, datozen urteetan izango den heldu euskaldunen proiektzioa egiteko aukera ere ematen digu. Bilakaerari erreparatuz gero, EAEn hazkundera etengabea izan da; Nafarroan, berriz, azken urteetan % 30eko langa ezin gaintuta dago. Horren atzean ezin ukatu, nagusi euskararen aurka hainbat urtetan ezarritako hizkuntza-politikak daudela (desprestigiatze-kanpainak, euskaraz ikasteko oztopoak edo eskaintzarik eza, kasu). Ipar Euskal Herrian, aldiz, ikasleen % 72,7k ez dute euskarazko ikasgai bakarra ere. Erabilerari dagokionez, EAEn % 15,4koa da, Nafarroan % 6,7koa eta Ipar Euskal Herrian % 5,3koa. Erabileraren bilakaera ez doa ezagutzaren bilakaerak eskaini

beharko lukeen erritmo berean. Eta esan genezake, horren arrazoia aipatu eremuak euskalduntzean estrategikotasunez eragin ez izanaren ondorioa dela.

Zehaztutako datu horiek, esan bezala, ezarritako hizkuntza-politikei erantzuten diete hein handi batean; eta agerian uzten dute, sustapen-politika aurreratuenak Euskal Autonomia Erkidegokoak izan direla. Berdin gertatzen da eremu sozioekonomikoa euskalduntzean ere. Eusko Jaurlaritza aitzindaria izan zen 1990eko hamarkadan zenbait enpresatan (adibidez, Elay eta CAF) proiektu pilotuak abiatuz. Bertako irakaspenekin, 2000ko hamarkadan abian jarri zituen: *Lanbitz* programa (euskara-planak garatzeko programa), *Bikain* ziurtagiria (erakundeetako euskararen ezagutza eta erabilera egiaztatzeko ziurtagiria) eta 123/2008 Kontsumitzaileen Dekretua. Dekretu horrekin bide interesgarria ireki zuen Jaurlaritzak, lehen aldiz arautu baitziren kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak.

Hasieratik, baina, hutsuneak antzeman zitzaizkion arauari, eta hutsune horiek areagotu egin ziren, 2011n hasierako erredakzioa murriztu zenean. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, egun indarrean dagoen Dekretuaren hutsune nabarmenenak lau direla adierazi zuen: araua ez betetzeagatiko zehapenik ez du jasotzen; ezagutza soziolinguistikoaren arabera ezartzen ditu betebeharrak (hiriburuetan eta % 33ko ezagutzatik gorako herrietan); soilik sektore batzuei eragiten die dekretuak; eta, azkenik, ez dago epe zehatzik araua betetzeko.

Bide horretan sakonduz, Eusko Jaurlaritzak Eremu Sozioekonomikoaren Euskararen Plan Estrategikoa landu zuen 2019an zehar. Prozesua eremu ezberdinetako eragileen parte-hartzearekin burutu da: Administrazioa, enpresen ordezkariak, lan-munduko zein enpresa-munduko eragileak, enpresak eurak eta euskalgintza. Prozesu horretatik jasotakoa aintzat hartuz definitu ditu datozen urteetako helburu estrategikoak: hizkuntza-paisaia euskalduntzea, euskara zerbitzu-hizkuntza bihurtzea, enpresetan lan egiten duten langileen euskara-gaitasuna hobetzea, euskaldunen aktibazioa sustatzea (langileen eta kontsumitzaileen euskararen aldeko jarrera indartzea) eta enpresetan euskararentzako arnagune gehiago sortzea.

Bestelakoa izan da, ordea, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan eremu horretan egindakoa. Ipar Euskal Herrian ezer gutxi egin da. Eta Nafarroako Gobernuak 2017ra arte ez du eremu honetan euskara sustatzeko ahaleginik egin, eta orduz geroztik enpresetan euskara-planak sustatzeko laguntzak dira eskaintzen direnak. Arkitectura juridikoan ez dute urratsik egin.

Uzta jasotzeko sasoia

Oraintxe dugu aipatutako helburu estrategikook lan-munduan eragiteko garaia, bereziki egoera aurreratuak dituzten eremuetan, aldeko hizkuntza-politikak 40 urtez garatu diren eremuetan, alegia. Eskailerak igotzeko koskak ezartzen joan dira: belaunaldi berriak euskaldundu, espazioak euskalduntzeko tresnak sortu, helduen euskalduntzea doakotasunerantz eraman. Lehen belaunaldi berriak —eta helduak— euskalduntzen egindako ahaleginek, orain helduak diren horiek euskaraz laneratzen izan behar dute segida. Gazteetatik (16-24 urte) % 71,4 elebidunak dira. Horrek esan nahi du, 10-15 urte barru, 20 urtetik beherako ia biztanleria guztia elebiduna izan daitekeela. Horretaz gain, adin-piramideari erreparatzen badiogu, unea oraintxe dela adierazteko arrazoiak biderkatu egiten dira.

2016ko Eustateko datuen arabera, langileen % 30 baino gehiago 50 urtetik gorakoak dira. Adina 45 urtera jaitsiz gero, berriz, % 45etik gora.

Hortik ondoriozta liteke, ondorengo 10-15 urteotan langileriaren zati handi batek erretiroa hartuko duela, eta, beraz, lanpostu horietako asko belaunaldi berriek eta etorri berriek, ziurrenik, bete beharko dituztela.

Baina zeregin horretan erakundeak ez daude bakarrik. Hizkuntza-aholkularitzok 20 urte baino gehiago daramagu lan-mundua euskalduntzeko ekarpenak egiten: 1997-2017 urte bitartean, gure laguntzaren bidez, 459 enpresek parte hartu zuten *Lanbitz* programan. Euskalgintzak eremu sozioekonomikoa estrategikotasunez jorratzeko tresnak ere sortuak ditu 2000ko hamarkadatik aitzina: Bai Euskarari ziurtagiria¹, Enpresarean² eta Lansarean³ dira horietako batzuk. Horietaz gain, lan-mundua euskalduntzeko proposamen-markoak ere mahai gainean jarriak daude. «Lan-mundua euskalduntzeko adierazpena»⁴ (2013) da horietako bat, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko bazkide garen hizkuntza-aholkularitzok (Ahize-AEK, Artez, Bai Euskarari Elkartea, Elhuyar, Emun eta I-berba) sortua. Eta marko orokorrago bat ere badugu, Europa mailan landutako Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa⁵, hain zuzen ere. «Protokoloaren Euskal Herriko garapena»⁶ (2018) deritzonaren bidez neurri zehatzak proposatu dira sektoreka, eta alor sozioekonomikoan jorratu beharrekoa lau ataletan jaso da: «Araubidea»; «Hizkuntza gutxituak kontsumo-harremanetan»; «Hizkuntza gutxituak lan-eremuan eta lan-merkatuan»; eta, azkenik, «Enpresen gizarte-erantzukizuna». Bide horretan aurrera egiteko, 2018an Euskaragileak⁷ programa abian jarri zen, euskararen egoera aurreratua duten enpresekin.

Lan-mundua euskalduntzeko oinarri garrantzitsua, beste eremuetan bezalaxe, herritarrak eurak dira. Hala, ezin dugu ahaztu herritarrak aktibatzen Euskaraldia⁸ programak egindako ekarpena. 2018ko lehen edizio arrakastatsua bide eman zuen hamaika egunez ohitura-aldaketetan eragina izateko. Eta 2020an egin berri den bigarren edizioak espazioei garrantzia aitortu eta horietan ere eragina izateko bide eman du «Ariguneak»⁹ izeneko guneen medioz. Horrek eremu sozioekonomikoan beste bultzada bat egiteko aukera eman digu.

Oraintxe da unea, bada, ziklo berri bat hastekoa. Abagunea sortu dugu eragile asko eta askoren urtetako lanari esker, eta orain, jauzia emateko garaia dugu.

Lehentasunak eta erronkak

Alorreko eragileok —hau da, euskararen alde urteetan gogor jardun dugun enpresa eta entitateek, aholkularitza-sektoreak, Administrazioak, euskalgintzako eragileek— argi daukagu, lan-munduan lur hartuz gero, lehentasunak eta erronkak zein

¹ <https://www.baieuskarari.eus/>.

² <https://www.enpresarean.eus/>.

³ <https://www.lansarean.eus/>.

⁴ <https://kontseilua.eus/app/uploads/2015/09/Lan-mundua-euskalduntzeko-adierazpena.pdf>.

⁵ <http://protokoloa.eus/>.

⁶ <http://protokoloa.eus/wp-content/uploads/2018/05/PROTOKOLOA-ONLINE.pdf>.

⁷ <https://baieuskarari.eus/eu/euskaragileak/euskaragileak>.

⁸ <https://euskaraldia.eus/>.

⁹ <https://euskaraldia.eus/ariguneak>.

diren; eta horiek ere nahiko modu bateratuan ikusten ditugula esan genezake: lantoki handiak erdigunean, bai Administrazioa bera, baita enpresa handiak ere; merkataritza-alorra, merkataritza-gune handiak eta txikizkako merkataritza; zerbitzuak ematen dituzten enpresa ertain-txikiak.

Ezinbestekoa izango da alor zehatzetan esku-hartzeak gero eta espezifikagoak diseinatzea eta garatzea; ikerketak eta azterlanak egitea: erabilerarekin lotutakoak, Euskaraldiaren moduko ariketarekin; diskurtsoaren ingurukoak, zerk eramaten gaituen atxikimendura aztertuta; helduen euskalduntzean paradigma-aldaketa, ikasleen profil eta behar ezberdinak kontuan izanda; eta hizkuntza-teknologiek ere aukera handia eman diezaguke. Itzulpen automatiko neuronalak erakusten duen kalitate onak lan-alorrean euskarazko ibilbideak modu masiboan garatzeko era ekar dezake (betiere, ezagutza alde batera utzi barik; zubi gisa beharrezko hizkuntza-ezagutza lortu artean, adibidez). Orobat, ahotsaren ezagutza eta sintesiak ere, gure inguruko makinek guk behar dugun hizkuntza ulertzea ekar dezake, esaterako, webguneetako eta jolasetako txatbotetan.

Alor sozioekonomikoan aurrera egiteko, era berean, agintari publikoek eta Administrazioak egin dezaketen sustapen-lanean ere oraindik bada zeregin ugari: batetik, besteentzat eredu izatea, trakzio-lana egitea eta legedia hizkuntza-eskubideak bermatuak izan daitezen egokitzea; eta, bestetik, baliabideak jartzea enpresen esku.

Testuinguru horretan, momentu aproposa da, beraz, arlo sozioekonomikoa indar handiagoz eta baliabide gehiagoz euskalduntzeko. Baina horretarako, esfortzuak batu eta ikuspegi ezberdinetatik zubiak eraikitzen joatea dagokigu, erronka partekatua izan behar duelako.

Gaur egun, asko dira arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko ditugun aukerak. Jarraian aholkularitza-sektoretik funtsezkotzat jo ditugunak aipatuko ditugu.

Akordio soziopolitikoak

Lan-mundua euskaldundu nahi badugu, ezinbestekoa dugu, euskalgintzatik haratago, eragile ezberdinek prozesuan parte hartzea, eta abian jarriko diren araudi, plan, programa eta baliabideek denon babesa izatea. Horretarako, adostasun zabala behar dugu, akordio soziopolitiko sendoa.

Akordio soziopolitiko horrek eremu sozioekonomikoko eragile guztiak aintzat hartu beharko lituzke, benetan indartsua eta eraginkorra izatea nahi badugu, behintzat. Horregatik, behar-beharrezkoa da, alderdi politiko gehienen adostasuna eta babesa izatea, legealdi-aldaketek akordioa baldintzatu ez dezaten eta indarrean jarrai dezan, gobernu- edo agintari-aldaketen ondorioz atzerapausorik egiteko arriskurik izan gabe.

Akordioa bermatzeko, Administrazioak euskara babestuko duten lege, araudi, pizgarri eta baliabideak eskaini behar ditu; baita lan-munduaren euskalduntze-prozesu horretan identifikatuta dauden hutsuneetan arreta berezia jarri ere. Baitezpada-koa da, esate baterako, hezkuntzatik lan-mundurako egiten den salto horretan baliabideak ipintzea. Langileek enpresetan euskaraz lan egiteko, lanbide-heziketa zein unibertsitatea ere euskaldundu behar ditugu.

Adostasun politikoarekin batera, lan-munduko eragile sozialen babesa ere ezinbestekoa da, eremu sozioekonomikoa euskaldundu behar horretan; azken finean,

horiexek dira eguneroko jardunean enpresa, entitate eta erakundeetan euskarari presentzia emango diotenak. Beraz, sindikatu, enpresa-elkarte ezberdinak, merkatari eta kontsumitzaileak hartu behar ditu kontuan, nahitaez, akordio soziopolitiko horrek.

Markoa eratzeko beharra (ikuspegi sistemikoa)

Ikuspegi sistemikoak hizkuntza dagokion testuinguruaren barruan ulertu behar dela esan nahi du. Sistema oro berez dinamikoa da, partaideok elkarrekin erlazionatuta gaude eta harremanak aldagarriak dira. Sistemak ordena eta berezko arau batzuen arabera egituratzen dira; horiek kontuan hartzen ditugun heinean, partaideon —eta, kasu honetan, hizkuntzen— ongizatea ere erraztuko da.

Arlo sozioekonomikoaren euskalduntze-prozesua eraginkorra izateko, hau da, lortutako babes instituzional eta soziala bermatzeko, nahitaezkoa da hizkuntzari ikuspegi sistemikoa ematea, enpresetan euskara txertatzeko marko bat izatea, hartan ere. Eta, jakina, marko horrek enpresen kudeaketa-eredu orokorrean integratuta egon beharko du.

Zeharlerrotasuna

Halaber, hizkuntzak garrantzia edo benetako balioa izan dezan, zeharlerrotasunez lantzea ezinbestekoa da. Hau da, euskarak jendartean, eta kasu honetan, arlo sozioekonomikoko esparru guztietan egon behar du txertatuta, zeharlerrotasunez, alderdi guztiei modu naturalean eraginez.

Euskararen normalizazioa iritsiko da, euskara hizkuntza-esparru guztietan aintzat hartzen denean. Lan-munduaz ari garenean, esaterako, euskara-planak enpresako sail zein lanpostu guztietan eragina izan behar duela esan nahi du zeharlerrotasun horrek.

Administrazioaz ari garenean, kasu, euskara landu eta txertatu sail guztietan egin behar dela esan nahi du zeharlerrotasunak.

Azken finean, hizkuntzaren ikuspegi transbertsala aldarrikatzeak, euskara eta euskal hiztunak kontuan hartzea esan nahi du, hots, eguneroko bizitzari, kulturari, gizarteari, hezkuntzari, politikari eta ekonomiari egiten dioten ekarpen bereizgarria aitortzea, eta beren ekarpenoi lekua egitea, dagokien balioa emanez.

Diskurtso berrien beharra

Gizarte konplexuan bizi gara. Barnera dezakeguna baino informazio gehiago dugu inguruan, burutu ditzakegunak baino jarduera gehiago ditugu agendan... Horrek nekezago egiten du besteen arreta erakartzea.

Euskararen biziberritze-prozesuan erabilitako diskurtsoa ia ez da aldatu azken urteotan. Gero eta babes handiagoa izan arren, mezua eta indarra eragile berdinetatik dator, euskalgintzaren mundutik, hain zuzen. Baina emaitza ezberdinak lortu nahi baditugu, eragin eremua zabaldu nahi badugu, nekez lortuko dugu mezularia eta diskurtso berdina mantentzen baditugu.

Lan-munduko eragile ezberdinak euskarara erakartzeko, diskurtso berriak eraiki beharko ditugu. Ikuspegi zabalago batetik atondu beharko ditugu diskurtsook:

hizketakidea nolakoa, diskurtsoa halakoa. Hau da, norengana jo behar dugun kontuan izanda, horren arabera diskurtso-estrategiak egokitu behar.

Enpresariekin jorratu behar den diskurtsoaz ari bagara, adibidez, zentzuzkoa dirudi administrazio ezberdinetako euskara sailekin batera, garapen ekonomikoa helburu duten sailek ere lidergoa hartzea, diskurtsoa enpresa-mundura egokitzeko.

Enpresariak euskara aintzat hartzeko mekanismoak martxan jarrita, euskararen sustapena konbentzituta egingo dute, ulertzen badute euskarak, hurbiltasun-irudia ematearekin batera, kohesioa, identifikazioa eta motibazioa dakartzala, lan-harremanak hobetzen eta langileak gogobetetzen laguntzen duela. Eta batez ere, horren ondorioz, enpresaren produktibitatea eta lehiakortasuna handitzeko ere balio dezakeela. Euskara lehiakortasunarekin lotzea izan daiteke, bada, gakoa.

Enpresariei zuzendutako diskurtso horretan, berritzailea suerta daiteke, halaber, erantzukizun sozialarekin lotuta dagoen 'herritar enpresa' kontzeptua jorratzea. Etekin ekonomikoez gain, enpresek ekar ditzaketen onura sozialak ere baloratzeko joera gero eta handiagoa da. Enpresak ez dira erakunde isolatuak, bertako jendartearen beraren parte dira; hala, *herritar ona* izan behar du, bai alderdi sozialean, bai produktiboan, baita ekologikoan ere.

'Hizkuntza-ekologia' eta 'hizkuntza-berdintasuna' dira diskurtso berri horrek jorra ditzakeen beste kontzeptu batzuk. Hizkuntza-ekologiak hizkuntzen arteko eta horien eta euren inguruneen arteko harremana lantzen du. Hizkuntza guztiekiko berdintasun-ikuspegia du, hizkuntza guztiei balio bera aitortuz.

Bestalde, langile, sindikatu eta kontsumitzaileen kasuan, diskurtsoak beste bat izan behar du. Haien interes eta beharrezanetara bideratuta egon behar du, eta dituzten betebeharrak eta eskubideetan oinarria hartu.

Enpresak euskarara erakartzeko diskurtso berria sortzen

Inkestek diotenez, gaur egun, gizartearen gehiengoa euskara sustatzearen alde dago¹⁰, baina errealitateak erakutsi digu, enpresa askok apenas hartzen dituztela neurriak. Batzuek irabaziak maximizatu nahi dituztelako eta hizkuntza-aniztasuna kostuen zerrendan kokatzen dutelako; beste batzuek, berriz, aurretik datorren inertiari eusten diotelako, eta, gehienek, gaiaren inguruan hausnarketarik egin ez dutelako. Beraz, horixe da landu dezakegun alderdietako bat: enpresei gaiari buruz hausnartzen laguntzea; zergatik kudeatu behar duten enpresek hori eta kudeaketa horrek nolako onura ekarriko die enpresei?

Simon Sinek¹¹ berrikuntza-aholkulariak lidergoaren arloan egindako ekarpenak gurera ekarrita, enpresak euskarara erakartzeko aldagai garrantzitsuena ez da zer eta nola egiten ditugun gauzak euskararen erabilera sustatzeko, baizik eta zergatik egiten ditugun eta zergatik izan dakiekeen erakargarria enpresoi ere hizkuntza-berdintasuna lantzea.

¹⁰ VI. Inkesta Soziolinguistikokoaren arabera, 2016n euskararen eremu osoko 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 55,8 euskararen erabilera sustatzearen alde zegoen, % 28,2 ez alde eta ez aurka, eta % 16 aurka.

¹¹ https://www.ted.com/talks/simon_sinek_how_great_leaders_inspire_action?language=es.

Enpresek hizkuntzak zergatik kudeatu behar dituzten azaltzeko, interesgariak izan daitezke Josep Maria Canyellesek *Empresa i llengua* liburuan aipatu dituen ideietako batzuk¹². Liburu horretan, enpresei kudeaketa-estilo bat proposatu nahi die, gizartearen konplexutasuna enpresaren kudeaketan integratzeko. Aholkulari katalan horren ustez, hala saiatzin diren enpresek irabazi hirukoitza lor dezakete: enpresaren emaitzez gain, interes-taldeen babesa eta gizartearen balorazio ona lortzen dutelako.

Beraz, ideia horiek geurera ekarrita, komenigarria deritzogu, hiru eremu horietan irabaz dezaketena enpresei ikusarazteari. Horretarako, hiru galderaren gaineko hausnarketa egitera sustatuko genuke: a) Hizkuntza enpresaren produktu edo zerbitzuaren parte al da? b) Hizkuntza-berdintasunak garrantzia al du enpresaren inguruan dauden interes-taldeentzat? c) Hizkuntza aldagai garrantzitsua al da lurraldearen iraunkortasuna bermatzeko?

a) Hizkuntza enpresaren produktu edo zerbitzuaren parte al da?

Lehenengo galderari dagokionez, hizkuntza produktu edo zerbitzuaren muinari lotuta dagoenean erraza da onura ekonomikoa antzematea, eskaintzen den horren kalitateari eragiten baitio zuzenean; edo merkatura hobeto iristeko aukera ekar dezakeelako, edota prezioa igotzeko eta atxikimendu-fidelizazioak lortzen laguntzeko aldagaia izan daitekeelako.

Hizkuntzek karga sinboliko handia dute, eta ez soilik hiztunentzat. Produktua edo zerbitzua lurraldeari lotzeko modua da hizkuntzaren erabilera, eta oso onuragarria izan ere enpresentzat, kanpotik datozen produktuak bertakotu egiten dituelako eta kanpoko merkatuetan, erakargarria den historia eta baloreekin lotzeko aukera eskaintzen dutelako. Ikuspegi horrek oso ondo funtzionatzen du elikagaien sektorean, esate baterako.

Softwarea eta informaziorako teknologien arloan, produktuen lokalizaziorako egiten ari diren ahaleginak nabarmenak izan dira. Zaintza-arloan edo pertsonekin zuzenean lan egiten dutenen kasuan, esate baterako, hizkuntza-kudeaketak zerbitzuaren kalitatean duen eragina begi-bistakoa da; are gehiago zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaz arduratzen direnen enpresen kasuaz ari garenean.

Tokian tokiko hizkuntza erabiltzeak begirunea eta egoera ezberdinetara egokitzeko gaitasuna ere adierazten du. Malgutasun hori erakusten ez duten enpresek bezeroei zalantzak pitz diezazkiekete Karmelo Aiestari inoiz entzun diogun bezala: fida al gaitzke Euskararen Legea betetzeko ahaleginik egiten ez duenarekin? Gainerako arloetan, zintzo jokatu al du bezeroekin? Bat gatoz berarekin: erantzuna ezezkoa dela uste dugu.

Bide batez, galdera horien inguruan esandakoak baliatuko ditugu, kontsumitzaileen iritziak bidea egitea zein garrantzitsua den gogorarazteko; eta horretarako komunitatea aktibatu eta antolatu egin behar da.

Baina bezeroen asebetetzeari baino ez erreparatzea, ikuspegi mugatuegia da enpresentzat: badute irabazteko bigarren bide bat.

¹² https://newsletter.collaboratio.net/mm/File/ca/Empresa_i_llengua.pdf.

b) Hizkuntza-berdintasunak garrantzia du enpresen interes-taldeentzat?

Enpresa baten inguruan interes-talde asko dago: langileak, hornitzaileak, bazki-deak, sindikatuak, administrazioak... Horiek guztiak ere enpresaren jardueraren eragina jasan dezaketen edota enpresan eragiteko indarra eta legitimitatea izan dezaketen pertsonak eta erakundeak dira. Garrantzitsua da horiek alde izatea. Langileen kasuari erreparatuko diogu bereziki, giltzarriak direlako.

Enpresak pertsona-taldeak dira. Bertan lan egiten duten pertsonak osatzen dituzte, euren pentsamenduz eta ekintzez osatuak daude. Langileak dira enpresen barruan izaten diren prozesuei buruz gehien dakitenak (hornitzaile eta bezeroekin egoten direnak...). Eta zein da langile guztiak egunero egiten duten oinarrizko jarduerarik garrantzitsuenak? Beren artean hitz egitea: ezagutza partekatze, planifikatze, sail eta atal desberdinak koordinatze... Langileak elkarri lotu eta erakundeari batasuna ematen dioten *kola-tantak* dira elkarrizketok. Enpresa batzen dutena. Beraz, izandako —edo izan gabeko— elkarrizketek bidera dezakete enpresa baten bila-kaera, horrexegatik da arduraren handikoa elkarrizketa horien kalitatea ere, prozesuak, produktuak eta zerbitzuak doitu eta hobetzea.

Enpresa batzuek hizkuntza bakarraren politika ezartzen dute; hala, tokian tokiko errealitateari bizkarra ematen diote. Beste kasu batzuetan, aldiz, hizkuntzek sortzen duten konexio emozionala baliatzen dute, langileen atxikimendua indartzeko xedez. Horren adibide dugu, GKN multinazionalak Zumaian duen egoitzako langile batek *Baleike* aldizkarian adierazitakoa: «Zure hizkuntza ez den batean egiten baduzu lan, lan hori egingo duzu eta kitto. Zure hizkuntzan bada, zureagoa dela eta zeure parte dela sentituko duzu»¹³. Azken finean, guztiok nahiago dugu begirunez tratatzen gaituen enpresa batean lan egin. Atxikimendu horrek eragina du lan-giroan, bezeroekiko harremanetan, ekoizpenean... Alegia, enpresen emaitzetan du eragina.

c) Hizkuntza aldagai garrantzitsua da lurraldearen iraunkortasuna bermatzeko?

Hirugarren galdera honekin lurraldearen iraunkortasuna jorratuko dugu, edozein enpresak lurraldeari onura badakarkio, gizarteak ere, ordainean, hobeto baloratuko duelako enpresa hori.

Enpresek gogoan izan behar dute, inguruan duten komunitatearen baliabideak behar dituztela funtzionatzeko: lehengaiez eta lursailez gain, azpiegiturak (portuak, errepideak, Internet, argindarra, zaborteak...), ikastetxeak langileak formatzeko, eta osasun-zerbitzuak horiek artatzeko; finantzaketa-bideak eta dirulaguntzak, makinak erosi, berrikuntzak landu eta ikertzeko; administrazioak eta epaitegiak, babes juridikoa bermatu eta gatazkak konpontzeko... Horiek guztiak ez balira, enpresa gehienak ez lirake sortu ere egingo, eta sortuz gero, ez lukete iraungo.

Horrenbestez, enpresek ere komunitatearen iraupenari egin behar diote ekarpena eta irabazitakoaren zati bat itzuli, besteak beste, dagozkien zergak ordainduta, pertsonen lan-baldintza duinak eta osasuntsuak eskainita, baliabide naturalak babes-tuta eta berriztatuta; horrela, ondorengoek ere horietaz gozatzeko duten eskubidea bermatuko da, baita bezero eta langileen hizkuntza-eskubideak errespetatu ere. Izan

¹³ https://baleike.tok-md.com/pdf/Baleike_26I_web.pdf.

ere, enpresek ere, herritar helduok bezala, betebeharrak dituzte komunitatearekin, eta, ildo horri jarraikirik, enpresaren iraupena ere ziurtatuko dute, zeharka bada ere.

Hizkuntzak komunitateen kohesioaren eta bakearen aldeko aldagai garrantzitsuak dira, eta enpresek esparru horretan duten eragina handia dela ulertu behar dute: anitz ohitura finkatzen laguntzen dute, herritar askok hainbat ordu eta hainbat urte ematen baitute bertan lanean. Beren jarduerak hizkuntza-kudeaketarekin loturarik ez duela uste dute enpresa askok, baina ezer ez egitea ere hizkuntza-politika dela konprenitu behar dute, ezer egin gabeak ondorioak dakartzalako beti.

Bide horretan, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendako helburuak tresna baliagarriak izan daitezke, betiere xede horiei hizkuntza- eta kultura-aniztasunarekiko konpromisoa gehitzen badiogu, Euskal Herriko Unibertsitateak egin duen bezala¹⁴.

Elkarlana da bidea

Testuinguru honetan, eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko aukera eta baldintzarik egokien aurrean gaudela eztabaida ezina da: gizatearen eta eragile sozialen aldeotasun eta atxikimendu zabalari lotuta, etorkizuneko enpresa-eredu berria eta enpresari-elkarteak bultzatzen ari diren enpresa molde berri horrek euskarari bere tokia emateko espazio aproposa eskaintzen ditu, bai diskurtsoan, baita praktikan ere. Garai batean, euskal gizarteak ahalegin izugarriak egin zituen hezkuntza-arloa euskalduntzeko; lan-mundua euskalduntzea ere posible da, eta horrexetan sinetsita egon behar dugu denok.

Eta lan-mundua eraginkortasunez euskalduntzeko, elkarlana ezinbestekoa izango dugu; zentzu horretan, indarrak batzeko momentua iritsi da, eta alor sozioekonomikoa euskaldundu behar hori, bigarren lerrotik lehenera ekartzekoa. Eragile ezberdinen arteko osotasuna sinkronizatuz eta koordinatuz, bakoitzak bere esparrutik abiatu behar du eta nork bere konpromisoak hartu behar ditu, betiere erronka partekaturantz, bidea elkarrekin egitea dagokigula ahaztu gabe.

Ekin diezaigun, bada, lan-mundua batera euskalduntzeko bideari.

¹⁴ <https://www.chu.eus/eu/web/iraunkortasuna/ehuagenda-2030>.

ONDORIOAK

Lan-munduak, oro har alor sozioekonomikoak gaur egun zer garrantzia duen hizkuntza baten bizindarrean badakigu, susmatzen dugu bederen. Ildo horretan, baieztapen horretarik abiatu, XXIV. Jagon Jardunaldi honetan parte hartu duten soziolinguistek, ekonomistek, hizkuntza-politika eramatean duten botere publikoek, gero eta gehiago euskara baliatzen duten enpresa eta erakundeek, sindikatuek anitz erakutsi digute.

Alor sozioekonomikoak euskararen biziberritze prozesuan dituen funtzioak erakutsi dizkigute, esperientzia batzuen arrakasta eta zailtasunak ere aurkeztu dizkigute, etorkizuneko erronkak zein diren azaldu digute. Oro har parte-hartzaile denek oraingo euskararen biziberritze mugimenduan inplikazio-maila handia azaldu dute eta beren lanari buruzko hausnarketa sakona egin.

Hona laburbilduz atera ditugun ondorio nagusi batzuk.

Hizkuntza-politiken analisi ekonomikoak hizkuntza-bizindarraren eta kapital ekonomikoaren arteko harremana erakusten du. Planteamendu ekonomikoak hizkuntzaren bizindarra lau kapital ezberdintan neurtzen du: kapital demografikoan, kapital politikoan, kapital kulturean eta kapital ekonomikoan (enpresen kontrola eta jabetza, laneko hizkuntza, merkataritzako harremanen hizkuntza, marketinaren hizkuntza, erosteko ahalmena).

Euskararen kasuan, biziberritze prozesuan lan munduaren estrategikotasuna agertzen da gero eta gehiago. Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian euskara eragin txiki-kiko hizkuntzat jo izan da ekonomian ere eta euskararen alde egiten ziren gastuak hustzat hartuak izan ziren. Baina, alor sozioekonomikoa esparru berri eta konplexua baldin bada ere, tokiko eragileekin eta beste euskal lurraldeetako erakunde publikoekin elkarlana indartuz alor garrantzitsu horretan euskara bizkortu egin daiteke. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) ahalegin handi-handia egin da belaunaldi berriak euskalduntzeko, baina hor ere politika horren etekina eskuratzeko eremu sozioekonomikoa estrategikoa dugu. Ikasketak bukatu ondoan, gero eta euskaldunagoak diren belaunaldiak lan-munduan sartzen dira. Lurraldeka elkarrekin adostu planifikazioa enpleguaren, jardura ekonomiko nagusien eta errealitate soziolinguistikoen arabera asmatzen ari da EAEn. Baina Euskal Herri osoa kontuan hartu beharko du, euskararen kapital ekonomikoa euskararen lurralde denetan gauzatzen baita.

Instituzioek eredugarri izan behar dute eta hiztun komunitatearekin batera sektore pribatuan eragin behar dute, hizkuntzarekin motibazio pragmatikoak nagusitzen baitira azken sektore horretan. Euskararen biziberritze prozesua hizkuntza aniztasunaren kudeaketaren baitan kokatu behar da. Arlo sozioekonomikoan ere aktoreek euskara erabiltzeko premia jabetu behar dute. Era orokorragoan, gizartean, gaur egungo dinamika sozialak baliatuz, hizkuntza berdintasunaren aldarrikapena oinarrizko eskubideetan sarrarazi behar da.

Dena den, lan-munduaren eta ekonomiaren euskalduntzea funtsezkoa da euskararen biziberritze prozesuan, erdigunekoa, lehentasunezkoa. Baina ez da nahikoa euskara gutxiagotasunaren egoeratik ateratzeko, euskara funtzio eta eremu publiko zein pribatu denetan erabilia izan dadin nahi baldin badugu, norbanakoaren zein hizkuntza-komunitatearen mailan.

Jardunaldian zerbitzu- edo industria-enpresa zenbaitetan jaso diren esperientzia arrakastatsu batzuk aurkeztu dizkigute: Aspace Bizkaian, CAFen, Laboral Kutxan, Oreka ITn eta Fagor Taldean.

Horietan euskararen aldeko lana ber mementoan ez da hasi, esperimentazioak eta ibilbideak ezberdinak izan dira, emaitzak ere bai bistan da; baina denek Euskara plan (estrategiko) bat, Euskara batzorde bat, batzuetan euskara koordinatzaile edota euskara teknikari berezi bat bazituzten eta badituzte, egituraren tamainaren eta izaeraren arabera. Langile denek euskararen aldeko lan horren berri badute eta inplikatua dira neurri batean edo bestean, terminologia/glosario berezia eta langileen euskalduntze/alfabetatzea lantzen dira, aitzinamenduak eta zailtasunak ebaluatzen dira, euskararen kalitatearen ziurtagariak ematen dira, kanpoko aholkularitza baliatzen da, euskara lehiakortasunarekin lotzen da...

Balio baikorrak azpimarratu dira esperientzia denetan: engaiamendua, inplikazioa, motibazioa, partaidetza, elkarlana, transmisioa, kohesioa, onarpena, onura ekonomikoa eta soziala, euskararen balioa, euskaldun kontzientzia...

Jardunaldian euskarak arlo sozioekonomikoan dituen erronkak aztertu dituzte lau sindikatuk. Gizarte-eragile garrantzitsuak dira sindikatuak eta beren txostenetan, ñabardura handia izanik ere batzuetan, gogoeta sendo eta komun batzuk agertu dituzte: alor sozioekonomikoan hizkuntza politika planifikatu bereziak, elkarlana, inplikazioa, negoziazioa, hizkuntzen elkarbizitza eta parekotasuna, hizkuntza-eskubideak aitortzearen eta bermatzearen beharrezkotasuna. Botere publikoen eta administrazioen inplikazio osoa nahitaezkoa da, adibidez Eusko Jaurlaritzaren engaiamendua (Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana: 2020-2023), enpresa pribatu zein publikoetan, baina era ezberdinez. Lan-munduan euskalduntze prozesua norbanakoaren esku ez da utzi behar.

Azpiparra dezagun sindikatu batek euskara eta jarrera politikoak ez dituela lotu nahi, lotura horrek jarrera politiko hori ez dutenak urrunduko dituelakoan. Beste batek lan munduaren euskalduntzea eta prozesu independentista uztartu ditu.

Lanbide-elkargoen (elkarte profesionalak) eta enpresen txostenetan, euskara hedatzeko erronkak, arazoak eta zailtasunak orain arte ikusi ditugun bezalakoak dira. Bistan da, enpresa batzuek besteek baino gutiago erabiltzen dute euskara, ahozko edo idatzizko euskarrietan, erabilera-testuinguru ezberdinetan, barneko eta kanpoko harremanetan. Halere, hor ere, konstanteak agertzen ditugu: euskararen erabilera sustatzeko planak (diagnostikoa, helburuak eta estrategia), euskara batzordeak,

euskararen (hizkuntzen) kudeaketa integratzea kudeaketa-sisteman, emaitzen auto-eta kanpoko ebaluaketa (ziurtagiriak barne), praktika onak eta arrakastatsuak agerian ematea eta arlo profesional osoan partekatzea, sektore honetan dokumentu ereduak proposatzea, oinarrizko diagnostikoa eta helburuak adostea, baliabideak sortzea eta banatzea, batzar teknikoak, formazio-ikastaroak eta foroak antolatzea ezagutza hedatzeko, eta abar.

Baina hizkuntza-aholkularitza enpresek diagnosi latz hau egin dute: “Euskal Herrian dauden entitateen % I baino gutxiago ari da euskara plan edo ziurtagiri batekin lanean”. Gehiago dira Euskal Autonomia Erkidegoan, bistan da; zatiketa administratiboak eta horietan aplikatu diren hizkuntza politikek eragin handia dute euskararen biziberritzean. Honako hau ere gehitu dute: “Izan ere, lan-mundua ez da sektore bat gehiago. Pertsona ororen bizitzan eragiten duen eremua da, langile, kontsumitzaile zein herritar gisa. (...) euskarak bertan espazioa ez irabazteak esan nahi du herritarren bizitzatik kanpo geratzea neurri handi batean”.

Hots, gizarte euskaldunaren eraikuntzan, irakaskuntzarekin egin zuten bezala euskararen aldeko politikek alor sozioekonomikoa lehentasunetan kokatu behar dute, lehentasuna eman behar zaio, sektore publikoan zein pribatuan. Eta XXIV. Jagon Jardunaldi honek erakutsi digun bezala, ez gara zerotik abiatu. “Euskara dagoen bidegurutzetik ateratzeko gako nagusienetako bat da arlo sozioekonomikoa euskalduntzea. (...) eskolaren eta helduen euskalduntzearen bidez irabazi dena lan-munduak galarazi dezakeela” (Elhuyar, Artez, Ahize-AEK, Emun).

Sagrario Aleman
Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko burua

Jean-Baptiste Coyos
Euskaltzaindiko Jagon sailburua

EUSKALTZAINDIAREN
XXV. JAGON JARDUNALDIA

*ENTITATE PRIBATUAK: NOLA EMAN
ZERBITZUA EUSKARAZ HERRITAR
ELEANIZTUNEI?*

ELEBIDE: HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO ZERBITZUA. HAMABOST URTEKO IBILBIDEA

Joseba Lozano
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria (HPS)
Elebideren arduraduna
j-lozano@euskadi.eus

Gauza jakina da Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritarrok hainbat hizkuntza eskubide aitortuak dauzkagula Autonomia Estatutuari eta Euskararen Legeari esker, besteak beste, Administrazioarekiko harremanetarako euskara edo gaztelania hautatzeko eskubidea. Kontsumitzaile gisa ere baditugu eskubideak, neurri handi batean, eremu pribatuan gauzatzen direnak eta Kontsumitzailearen Legean edo Kontsumitzaileen Hizkuntza Eskubideen Dekretuan jasota daudenak.

Eskubide horiek euskal herritar guzti-guztiei aitortzen zaizkie, inolako bereizketarik egin gabe, eta berdinak dira EAeko toki guztietan. Ikusten denez, eskubideak herritarrentzat dira betiere; eta eskubide horiek bermatzeko obligazioak, administrazioentzat, hala jasota baitago gure legerian. Beste era batera esanda: EAEn kokaturiko aginte publiko guztiak behartuta daude herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzera eta zinez errespetatzen direla ziurtatzera.

Legeriak bi hizkuntzari aitortzen die ofizialtasuna gure Erkidegoan: euskarari eta gaztelaniari; nolana ere, gauza bat da hizkuntzen arteko berdintasun formalak, eta beste bat, oso bestelakoa gainera, berdintasun soziala. Hau da, legezko berdintasun formalak talka egiten du, behin baino gehiagotan, errealitatearekin; eta errealitatean euskara gaztelania baino ahulago dago gure gizartean eta, ondorioz, han eta hemen egunero-egunero urratzen dira euskal hiztunen hizkuntza eskubideak.

Horretaz oharturik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Elebide sortu zuen 2006ko urrian eta, bi urte beranduago, izaera ofiziala eman zion I50/2008 Dekretua argitara emanda; Elebide, beraz, tresna instituzionala da, eta haren bitartez, Administrazioa, ostrukarena egin beharrean, ispiluaren aurrean jartzen da egunero, jendaurrean, eta herritarrei argi eta garbi esaten die Gobernuak hor dagoela guzti-guztien hizkuntza eskubideak une oro defendatzeko, eta baten batek uste badu eskubide horiek urratuak izan direla, babesa eta irtenbidea emateko.

Sorreratik bertatik, hiru izan dira Elebideren eginkizun nagusiak: hizkuntza eskubideak sustatu eta bermatzea; prozedura bat ezartzea, berme hori eraginkorra izan dadin; eta konponbideak ezartzeko ardura duten administrazioekin eta erakundeekin lankidetzan jardutea, aipatutako eskubideak bete daitezten. Ikusten denez, euskal herritarrak eta beren hizkuntza eskubideak izan dira, eta badira, Elebideren

muina eta izateko arrazoia, eta horretan aritu da buru-belarri azken hamabost urte hauetan. Azter dezagun gertuagotik Elebideren jarduna.


Intzidentziak, guztira

Elebidek 4.637 intzidentzia erregistratu ditu sortu zenetik hona, eta intzidentzia horietatik den-denak onartu dira, % 5,14 izan ezik. Bi izan dira arrazoi nagusiak intzidentzia apur horiek bazter uzteko: batetik, intzidentziaren nondik eta norakoak sakon ikertu ondoren, Elebidek ondorioztatu du ez dagoela oinarri juridikorik intzidentzia izapidetzeko; eta, bestetik, intzidentzia Elebideren eskumenetik kanpo geratu da hainbat kasutan.

Bestalde, aipatzekoa da Elebidera jo duten herritarren % 95,20k euskara erabili dutela gure zerbitzuarekin harremanetan jartzeko; eta % 4,8k, gaztelania. Argi dago arrazoia. Euskal Autonomia Erkidegoan euskal hiztunak izan ohi dira hizkuntza eskubideen urraketak pairatzen dituztenak eta Elebidera konponbide bila jotzen dutenak.


I. Irudia Intzidentzien tipologia

Izapidetutako intzidentzien tipologia



2. Irudia Kexen tipologia

Izapidetutako kexen tipologia




Goiko taulan ikusten da nola banatu diren guk “intzidentzia” deitzen ditugun horiek. Gehien-gehienak, normala denez, kexak izan dira (% 83,4), horixe baita gure Zerbitzura jotzeko arrazoi nagusia; hala ere, kontsultak, eskaerak, gomendioak eta iradokizunak ez dira falta izan urte hauetan guztietan.

Intzidentzia gehienak kexak izan direnez, horietan zentratuko gara hemendik aurrera. Urte hauetako kexa guztiak hiru multzo nagusitan sailkatu dira:

- *Idatzizko barremanetan* izaten direnak (% 38,54). Kasu gehienetan, erakundeek edo enpresek herritarrekiko harremanetan gaztelania bakarrik erabili dutela salatzen.
- *Ahozko barremanetan* gertatzen diren urraketak (% 22,72). Horietan herritarrek nagusiki adierazi dute euskaraz artatuak izateko eskubidea urratu egin zaiela.
- *Hizkuntza-paisaian antzeman daitezkeenak* (% 22,86). Kexa horiek bideetan eta jendaurrean gaztelaniaz soilik jarritako kartelei, eta kale zein laneko seinaleei egite diete erreferentzia gehien bat.


3. Irudia Urraketaren hizkuntza

Izapidetutako kexen urraketa zein hizkuntzatan gertatu den



4. Irudia Kexak, esparruka

Izapidetutako kexak esparruaren arabera



Hemen ere, sorpresarik ez. Izapidetutako ia kexa guztietan (% 98) euskal hiztunek nozitu dute eskubide urraketa; eta % 2etan, erdaldunek.

Gure hizkuntza-legeriak agintzen duenez, Euskadin ez genuke inolako diskriminaziorik izan beharko hizkuntza kontuengatik; baina bistakoa da gaur eta hemen euskal hiztuna dela aukeratutako hizkuntzan bizitzeko oraindik zailtasunak dituena.


Kexen % 84,52 esparru publikoan gertatutako eskubide urraketak dira, eta % 15,47 esparru pribatuari dagozkio. Kopuru hori ikusita, pentsa liteke Sektore Pribatuko erakundeek indar handiagoz bermatzen dituztela herritarren hizkuntza eskubideak Sektore Publikokoek baino; nolana ere, gure errealitatea ezagutzen duen edonork badaki, oro har, hori ez dela horrela. Sektore Publikoa prestatuago dago zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan emateko, eta, gainera, prestatuago da zeregin horretan.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren datuen arabera, Administrazioa idatziz jotzen duten herritarren % 30ek euskaraz edo ele bitan egiten du; eta kopuru hori are handiagoa da komunikazioa aurrez aurre gauzatzen denean edo telefono bidezkoa denean. Kontuan hartzen badugu 16 urtetik gorako euskaldunak % 34 direla gure Erkidegoan (eta horiek direla Administrazioarekin harremana izan ohi dutenak), ondorioztatu daiteke euskaldunek administrazioetara euskaraz jo ohi dutela, badakitelako gure administrazioak, oro har, beren hizkuntza-eskubideak betetzeko gai direla eta ahaleginak egingo dituztela eskubide horiek benetan eta zintzotasunez errespetatzeko.

Horrenbestez, esan daiteke herritarrek Sektore Publikoaren aurkako salaketa gehiago jartzen dutela, esparru horretan hizkuntza eskubideak baliatzeko kontzientzia eta sentsibilizazio handiagoa dutelako.

5. Irudia Kexen banaketa esparru publikoan

Kexak esparru publikoan 2014tik aurrera



Datu horiek 2014. urtetik aurrera jaso ditugu, baina aurreko urteetako kexak ere antzera banatzen zirela esan liteke. Laukiaren arabera, esparru publikoaren aurkako kexa guztietatik erdia baino gehiago % 58,78 Administrazio Orokorri dagokio;


% 22,50 toki administrazioari; % 9,51 Estatuko administrazioari; eta % 6,28 foru administrazioari.

Administrazio Orokorren aurkako kexen kopurua ulertzeko, bi konturi erreparatu behar zaie: alde batetik, Administrazio horretako erakunde askok eskaintzen dituzten zerbitzuen zeharkakotasunari; azken batean, Ertzaintza, Hezkuntza, Lanbide eta horrelakoen ekimenak leku eta esparru guztietara zabaltzen dira. Eta bestetik, zeharkako erakunde askoren izaera komunikatiboa aipatu beharra dago; kontuan izan behar da erakunde horiek urtero-urtero, milioika komunikazio zuzen izaten dituztela herritarrekin, ahoz zein idatziz, bulegoetan eta kaleetan. Zalantzarik gabe, etengabeko harreman estu horiek areagotu egiten dute hizkuntza eskubideak urratzeko arriskua.

Eraginkortasuna, helburu

6. Irudia Izapidetutako kexen emaitzak

Izapidetutako kexen emaitzak



Elebidek eraginkorra nahi du izan, eta sortzen diren arazoak konponbidean jarri nahi ditu. Goiko taulan jasotako datuak ikusita, helburua lortzen ari garela esan daiteke, izan ere aurkeztutako intzidentzien % 65,98 konpondu egin dira. Hau da, intzidentzia jaso, dagokion erakunde edo enpresarekin harremanetan jartzen gara, gertatukoaren berri ematen diegu, eta arazoa, edo konpondu egiten dute, edo konpontzeko konpromisoa adierazten digute.

Gainera, eta hau pozgarria da, herritarrari barkamena eskatzeaz gain, eskerrak ere ematen dizkigute, urraketa jakin bat konpontzeko aukera eman diegulako eta begiak ireki dizkiegulako bihar-etzi beren erakundeetan herritarren hizkuntza eskakizunak ziurtatzeko abian jar ditzaketen ekimenei dagokienez. Kontua ez da salaketa jakin bat konpontzea, salaketa gehiago ekiditeko bideak zabaltzea baizik.

Lankidetzaren bidetik

Gure lana eraginkorragoa izan dadin, orain dela zenbait urte lankidetzaren hitzarmen bat sinatu genuen Arartekoarekin, eta hura gauzatzeko, protokolo bat ere jarri

dugu abian. Hitzarmena berritzeko asmoa dago, eta, haren bitartez, lankidetzan jardun nahi dugu Arartekoarekin herritarrak babestu eta defendatzeko, euren hizkuntza eskubideak urratuak izan direla salatzen diguten bakoitzean. Hitzarmena izenpetu genuenetik, bi erakundeok hizkuntza eskubideen urraketengatik jasotzen ditugun kexa eta erreklamazioen berri ematen diogu elkarri, eta intzidentzia horien jarraipen bateratua egiten dugu, betiere bakoitzaren eskumenak aintzat hartuta.

Era berean, duela bi urte harremanetan hasi ginen Hizkuntza Eskubideen Behatokiarekin, eta harreman horiek sendotzen eta estutzen jarraitzea da gure asmoa. Gureak bezalako erakundeen arteko elkarkidetzak, informazio trukaketak, eta ekimen bateratuak eraginkortasuna ematen diote gure ahaleginari, herritarren hizkuntza eskubideen defentsan.

Geroari begira

Hamabost urte daramatzagu lanean, baina errealitateari begiratze hutsarekin badakigu asko geratzen zaigula oraindik egiteko, hizkuntza eskubideak osorik, beti eta eragozpenik gabe errespetatu daitezen, hala esparru publikoan nola pribatuan.

Jarraitu beharra dago tresnak eta bideak ezartzen hizkuntza ahulenaren alde, ez hizkuntza indartsuenari kalte egiteko, baizik eta hizkuntza biek izan ditzaten aukera berak. Ez dezagun ahaztu gaztelaniaren etorkizuna bermatuta dagoela, eta euskararena, ordea, bermakizun.

Euskal herritarrak beren hizkuntza eskubideen jakitun dira, jabetuta daude horietaz gero eta neurri handiagoan, eta mugitu egiten dira eskubide horiek defendatzeko. Hori ona da euskararentzat, aukera bikaina ematen digutelako gaitzak sendatu eta urratuak konpontzeko.

Gobernuko kide garen aldetik, gure eginbeharra da neurriak hartzea hobekuntzak lortzeko, lortutakoari begira gozo-gozo geratu beharrean. Aurrera egin behar dugu, beraz, normaltasunez eta naturaltasunez, presarik gabe baina gelditu barik, gure helburua lortu arte: euskararen eta gaztelaniaren arteko benetako berdintasuna eta bizikidetzeta.

EAEKO KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILAILEEN HIZKUNTZA ESKUBIDEEI BURUZKO UZTAILAREN IEKO 123/2008 DEKRETUA ETA BILAKAERA

Miren Edurne Pérez de San Román Ruiz de Munain
Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Politika Sailburuordetzako
Hizkuntza planifikazio zuzendaria)

Josune Zabala Alberdi
Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Politika Sailburuordetzako
Hizkuntza ikerketa eta koordinazio zuzendaria)

1979ko Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak, haren ondotiko 1982ko Euskararen erabilera normalizatzeko legeak eta 2003ko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuek ezarritako zoru juridiko haren lehen urratsak egin zirenetik berrogei urte pasatxo besterik ez dira igaro. Azken lau hamarkadetan euskararen normalizazio prozesuak bide luzea egin du esparru askotan.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileok euskara erabiltzeko aukerak handitzeko egin den bide juridiko nahiz administratiboa zein izan den aurkeztuko dugu artikulua honetan.

Baldintza juridikoak, alde batetik. Baldintza horiek betetzeko laguntza tresnak, bestetik (dirulaguntzak, lan tresnak, ziurtagiriak...). Herritarren sentsibilizazioa eta portaerak, hirugarrenik. Hiru hankaren gainean egin da bidea eta erdietsi dira lorpenak euskararen normalizazio prozesuan.

Ikei enpresak 2014an kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideen betetze maila aztertu zuenetik, badakigu urratsak bereziki egin ahal izan direla eremu oso euskaldunetan. Testuinguru soziolinguistikoak eragin handia izan du honetan, baina eremu oztopatzaileetan ere egin dira urrats esanguratsuak. Enpresa tipologiak ere asko baldintzatu du gai honen betetze maila.

Aldagai horiek eta gehiago zein izan diren zehaztuko dugu artikulua honetan eta 2020tik aurrera, Hizkuntza Politika Sailburuordetzak eremu honetarako jarriak dituen erronken aurkezpena ere egingo dugu.

Sarrera

Aurten, 2020an, hamabi urte bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak arautzen dituen Dekretua onartu zela. Ordutik gaur arte egin den ibilbide juridikoaren eta dekretua gauzarazteko eman diren baliabideen irakurketa bat egingo dugu artikulua honetan. Hain zuzen ere, Dekretuak hamabi urte hauetan izandako bilakaeraren berri ematen saiatuko gara.

I. Dekretuaren sorrera eta oinarri juridikoak

123/2008 Dekretuaren oinarri juridiko nagusiak hiru izan dira, eta dekretuaren nondik norakoak azaldu aurretik, abiapuntuzko legeak aipatzeari ekingo diogu; horrelaxe datoz hurrenez hurren:

1. **Abenduaren 18ko 3/1979 LEGE ORGANIKOA, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.**

Euskal Autonomia Erkidegoko 1979ko Autonomia Estatutuak dio bermatu egin behar dela euskararen erabilera (bi hizkuntza ofizialena) euskal gizartean, eta herri-aginteei ezartzen die horretarako beharrezko diren neurriak hartzeko obligazioa.

2. **10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.**

Euskararen Legeak, berriz, dio gizarte-bizitzan, oro har, baita merkataritza arloan ere, euskararen erabilera ahoz eta idatziz bultzatzeko neurri egokiak hartu beharko dituztela herri aginteei, eta era guztietako merkataritza-entitateetako errotulazio eta paisaian euskararen erabilera bultzatuko dutela.

3. **6/2003 Legea, abenduaren 22koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena.**

Lege horren VII. kapitulu osoa hizkuntza-eskubideei buruzkoa da. Horren arabera, Euskadiko herritarrek eskubidea dute zerbitzu eta produktuei buruzko informazioa bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eta Euskadiko lurraldean ari diren enpresa eta saltokiekin nahi duten hizkuntza ofizialean jarduteko. Eskubide horien zehaztapena eta eskubide horiek baliatzeko arauak dekretu baten bidez emango direla ezartzen du lege horrek, eta gainera, modu progresiboan, pixkanaka alegia, bermatu behar direla hizkuntza-eskubide horiek dekretu baten bidez.

Oinarri juridiko honen ondotik etorri zen 2008ko Dekretua, eta azter dezagun zein izaera nahiz berrikuntza ekarri zituen.

2. “123/2008 Dekretua, uztailaren Iekoa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa”, izaera

6/2003 Legeak agindu bezala, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren eta Kultura Sailaren artean landu zuten Dekretua, hau da, esku-mena zuten bi sailen arteko elkarlanean; 2008ko uztailaren Iean onartu zen. Aurre-rapauso handia izan zen, kontsumitzaile eta erabiltzaileei hizkuntza-eskubideak aitortu ez ezik, entitate batzuei bermatzeko obligazioa ezartzen zielako, betiere, era progresiboan eta malguan.

Giza harremani lotutakoen artean, kontsumo arlokoek pisu handia hartu zuten dekretu honetan, eta dekretuak lagunduko zuen ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzen.

Hizkuntza-eskubide horiek herritarrei aitortzen zitzaizkien, baina bermatzera zein entitate egongo ziren behartuta zehaztu behar zen, era progresiboan egingo zelako, ez egun batetik bestera eta edonola.

Horretarako, kontuan izan ziren enpresa eta saltokien tipologia eta kokaguneko errealitate soziolinguistikoa, eta, aldi berean, epe ezberdinak ematen zitzaizkien beharrezkoak ziren egokitzapenak egiteko. Adibidez, enpresa eta establezimendu txikiak dekretuaren eraginetik kanpo geratu ziren, eta estrategikotzat jo ziren kontsumo harremana herritar askorekin zuten enpresa eta establezimenduak. Egokitzapenak egiteko, urtebete eta 4 urtera arteko epea ematen zitzaien eraginpekoiei.

Beste edozein arlotan bezalaxe, emaitzak lortzeko ezinbestekoa da Administra-zioak eta enpresek neurriak hartzea, nor bereak. Dekretu honen gauzatzeari dago-kionez, Administra-zioari neurriak hartu eta baliabideak jartzea zegokion eta, enpresei, aldiz, euskararen erabilera normalizatzeko ekintzak inplementatzea.

Neurri horien guztien nondik norakoetan sakondu aurretik, geldialdi bat egingo dugu dekretuaren eragin esparrua zein den ikusteko.

2.1. Dekretuaren eragin esparrua

2.1.1. 123/2008 Dekretuak ezarritako eskakizunak

123/2008 Dekretuaren II. kapituluak idatzizko komunikazioei dagozkien hiz-kuntza-betebeharrak zehaztu ditu. Horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko jendeari begirako establezimenduek eta produktuak saldu edo zerbitzuak ematen dituztenek euskaraz eta gaztelaniaz eman behar dituzte honako hauek: seinaleztapen guztiak; errotuluak eta kartelak; inprimakiak eta katalogoak; kontratuak eta baldin-tza orokorren agiriak; komunikazioak eta jakinarazpenak; aurrekontuak eta abar. Gainera, kalitatezko euskara erabili behar da horietan guztietan.

Nolanahi ere, sektore bakoitzari berariaz ezartzen dizkio gutxieneko batzuk.

Dekretuaren III. kapituluak, berriz, ahozko informazioa eta bezeroarentzako arreta ditu hizpide. Kapitulua horretan garatutakoaren arabera, ahozko informazioa eta publikoari zuzeneko arreta eskaintzerakoan gutxieneko hauek ezartzen ditu euskaraz eta gaztelaniaz: megafonia bidezko informazioa; ahozko informazioa eta ahol-kularitza euskaraz eta gaztelaniaz emateko gai izan beharko dute enpresa eta establezimenduek; eta ahozko informazioa bitarteko telefoniko eta elektronikoen bidez (Internet bidez, esate baterako) ematen den informazioa.

2.1.2. Dekretuaren eraginpekoak diren entitate-motak

123/2008 Dekretuaren I. kapituluko 2. artikuluko zehaztutakoaren arabera, ondorengo hauek dira dekretuan jasotako arauak bete behar dituzten entitateak:

1. Erakunde publikoak, zerbitzua edo produktuak zuzenbide pribatuko arau-bidearen arabera ematen dituztenean.
2. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, legez unibertsalak, interes oroko-rrekoak edo antzeko beste kategoria batekoak diren zerbitzuak egiten dituz-ten erakunde edo pertsona juridikoak, esate baterako:

- a) Komunikazio-sareak ustiatzen dituzten komunikazio-operadoreak, zerbitzu unibertsala ematen dutenak, eta jendearentzako telefono-zerbitzuak ematen dituztenak.
 - b) Bidaiarien trenbideko edo errepideko garraio publiko erregularreko zerbitzuak ematen dituzten enpresak.
 - c) Bidaiarien aireko garraio zerbitzu erregularrak ematen dituzten enpresak, eta aireportuetan errepide asistentzia zerbitzuak ematen dituztenak.
 - d) Energia elektrikoaren zerbitzua ematen duten banaketa-enpresak.
 - e) Gas naturala merkaturatzen duten enpresak.
3. EAEn kokatuta dauden eta jendeari begirako produktuak saltzeko edo zerbitzuak emateko establezimenduak, baldin eta honako baldintza hauetakoren bat betetzen badute:
- a) 250 langiletik gora dituzten enpresetakoak diren establezimenduak izatea, betiere urtean 50 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumena badute, edo haien urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa bada, edo aurreko baldintza horiek betetzen dituen beste enpresaren batek haien kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 edo gehiagoko partaidetza baldin badu.
 - b) Jendeari salmentak egiteko gunearen azalera 400 metrotik gorakoa duten establezimenduak izatea, elebidunen proportzioa % 33 baino handiagoa duten udalerrietan edo Bilbon, Gasteizen edo Donostian kokatuta badaude.
 - c) Bezeroarentzako arreta ematen duten plantillako langileak 15 baino gehiago dituzten establezimenduak izatea.
 - d) EAEn jendeari begirako establezimendua duten kreditu-erakundeak, eta EAEn etxebizitzak saldu edo alokatzen dituzten profesional, enpresa edo eraikuntza-obren sustatzaileak.

2.1.3. Dekretuaren eragin-esparrua 2008ko errealitatean

2008ko errealitatea kontuan izanda, EAEko 5.198 eta EAetik kanpoko (baina zerbitzua edo produktua EAEn eskaintzen zuten) 410 enpresari zegokien. Establezimenduak, berriz, 9094 ziren. Enpresa esatean Identifikazio Fiskaleko Zenbaki (IFZ) bati gagozkio. Establezimendu bat edo bat baino gehiago eduki ditzake enpresa bakoitzak, baina IFZ bakarra.

Dekretuak ezarritakoak ez betetzeagatik ez da zigorrik, ez zehapenik jarri orain arte. Eusko Jaurlaritzak eraginkorragoa deritzo sentsibilizazioaren eta sustapenaren bideari.

Eusko Jaurlaritzari dagokio euskararen normalizaziorako neurriak hartu eta horretarako bitartekoak jartzea. Ezinbestekoak dira emaitza positiboak lortuko badira.

Neurri horietako bat izan zen I23/2008 Dekretua, baina ez zen bakarra izan, geroago aipatuko ditugun Bikain ziurtagiria eta Elebide zerbitzua ere 2008aren inguruan sortu baitzituen Eusko Jaurlaritzak.

3. Neurriak betetzea errazteko egindako bidea

2008ko Dekretua betetzeko bide bat egin da azken hamarkada pasatxoan. Dekretupeko erakunde edota enpresei euren bete-beharren berri ematea izan da egiteko bat. Herritar edo kontsumitzaileei ere jakinaraztea egokitu da; euren hizkuntza eskubideen berri ematea, hain zuzen. Komunikazio kanpainak dira horren argibide garbi bat. Dekretuak agindutakoa betetzen laguntzeko aukera erraztaileak ere izan dira: dirulaguntza deialdiak edo hizkuntzak kudeatzeko tresnak eskaintzea, beste askoren artean.

Dekretuaren eraginpean dauden erakunde edo enpresen betetze-maila neurtzea ere izan da beste egiteko garrantzitsu bat. Neurketak beti ematen du aurrerako erabakiak hartzeko gakoaren informazioa.

Urte hauetan guztietan Dekretua betetzeko neurriak zein izan diren eta zein lorpen maila eskuratu dugun ikusiko dugu tarte honetan, betiere ahaztu gabe Dekretua argitaratu aurretik ere Lanhitz programa markoaren barruan egindako bidea: lan-kidetzat-hitzarmenak eta sentiberatze-kanpainak, esate baterako.

3.1. Dekretua argitaratu orduko neurriak eta bitartekoak

Dekretua argitaratu eta hilabete batzuetara, 2009an, Dekretua atera zuten Eusko Jaurlaritzako bi sailen artean dirulaguntza deialdi bat argitaratu zuten, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko Dekretuaren eraginpeko enpresa eta establezimendu horiek hizkuntza betebeharrak egokitzen laguntzeko.

Deialdi hartan 600.000 euroko diru-zuzkidura zegoen eta 25 entitatek jaso zuten dirulaguntza; eskatu zuten guztiek, hain zuzen ere. Bakoitzak gehienez ere 45.000 euro jaso zitzakeen. Bereziki finantza-entitateak eta azalera handiko saltokiak hurbildu ziren lehenengo deialdi hartara, baina baita merkataritza-establezimendu kolektiboak eta higiezin agentziaren bat ere. Esleitutako diru-kopurua: 556.952,69 euro.

Enpresa hauetako batzuek ere hartu zituzten neurriak, bezeroei legez bermatu beharreko hizkuntza eskubide horiek bermatzeko, eta euskararen erabilera normalizatzeko planari ekin zioten. Hainbatek Lanhitz dirulaguntza deialdira zenbait urtean plana aurkeztu izan dute eta, gutxi badira ere, batzuek Bikain ziurtagiria ere eskuratu dute (finantza-entitate eta merkataritza-enpresaren batek, esaterako). Horrek argi uzten du hainbat entitatek bezeroen hizkuntza-eskubideak bermatzeko hartutako konpromisoa.

3.2. Dekretuaren betetze-maila

2008ko Dekretuak gehienez ere lau urteko epea ematen zien eraginpeko sektore batzuetako enpresei betebeharrak egokitzeko. Egokitzapenentarako epe hori amaitu ondoren, Eusko Jaurlaritzak betetze-mailaren neurketa egin zuen, Ikei enpresaren bidez. 2014an burutu zen neurketa.

Kontsumitzaileekiko eta erabiltzaileekiko harremanetan, jendeari begirako enpresa, erakunde eta establezimenduen hizkuntza betebeharrak zein neurritan

betetzen ziren neurtzea eta emaitzak indizeen arabera adieraztea zen egindako ikerketaren helburua.

Ondorengo aspektuak aztertu nahi izan ziren:

- Momentu hartako egoera (euskararen erabilera).
- Aurrera egin ahal izateko zailtasun edo arazo nagusiak.
- Egindako aurrerapausoak.
- Hizkuntza eskubideen bermean eragina izan dezaketen jardueren berezitasunak.
- Bezeroarekin harremanak dituzten enpresa, establezimendu eta erakundeek euskaraz eskaintzeko azaldutako jarrera.

Sektore pribatuaren analisiari dagokionez, informazio-iturri nagusia Dekretuaren eraginpeko establezimendu eta enpresen lagin adierazgarri bati egindako inkesta izan zen. Sektoreka egin zen neurketa: komunikazioa eta energia; bidaiariaren garraioa; merkataritza; finantza-erakundeak; eta etxebizitza.

Neurketaren ondorio nagusiek berretsi zuten, hizkuntza-gaitasunari dagokionez, oso heterogeneoa den errealitate geografikoa geneukala. Kokapen geografikoak baldintzatu egiten zuela eskaera. Sektoreak ere baldintzatzen zuela, eta ondorioz, sektore bererako presio maila ezberdinak sortzen zirela udalerrri bakoitzeko tipologiaren arabera.

Eta, aldi berean, hizkuntza-eremu berean, euskararen ezagutzarekin lotutako langileen gaitasuna handiagoa zela finantza-erakundeetan aztertutako gainerako sektoreetan baino. Komunikazio sektoreko enpresetan, berriz, oso baxua zen ezagutza-maila.

Dena den, oro har, bezeroari arreta euskaraz emateko gaitasuna zutela zioten enpresa edo establezimenduen ehunekoa oso handia izan zen sektore guztietan, nahiz eta askotan onartu zuten hori egiteko arazoak zituztela.

Euskarari emandako garrantzia eta bezeroei kontsumo-harremanak euskaraz eskaintzarekin lotutako abantailak ere aldatu egiten ziren jarduera motaren eta enpresaren profilararen arabera. Izan ere, lehia komertziala neurri handiagoan jasan dezaketen enpresen artean, euskararen aldeko "sentsibilizazioa" handiagoa da.

Garai hartako betetze-indizeek oraintxe aztertutako guztia laburtu dute, eta honako ondorio hauek nabarmen ditzakegu:

- 2008ko Dekretuak eskatutako baldintzen inguruko betetze-maila orokorra txikia izan da, % 22koa.
- Emaitzetan hizkuntza-eremuak eragina duela egiazta daiteke. Eragin bikoitza du, gainera: alde batetik, hizkuntza-eremuak gizartean ezarritako elebitasun maila finkatzen du eta, hori dela eta, arreta horren "eskaera" euskaraz nola egin den zehazten du. Bestalde, enpresetako langileek hura kokatuta dagoen eremuko hizkuntza profila izaten dute gehienetan.
- Betetze-maila handiena dutenak finantza-erakundeak dira, % 50. Gainontzekoetan, berriz, txikiagoa da: garraio-sektorekoetan % 25, komunikazio-enpresetan % 16, energia-enpresetan % 7, merkataritzan % 6 eta etxebizitzan % 2.

- Idatzizko komunikazioko alderdiak okerren betetzen dituztenak higiezin agentziak dira, eta ahozkoan, merkataritzakoak.
- Gipuzkoan, elebidunak % 80tik gora diren tokietan dute betetze-maila handiena eta elebidun proportzio apalena dutenetan, ordea, txikiena.

Ikerketak erakutsi zuen hizkuntza-eskubideak betetzea eta betearaztea oraindik gainditu beharreko erronka izaten jarraitzen zuela.

Kontsumitzaileen artean zerbitzua gaztelaniaz eskatzeko joera nabarmen handiagoa zen produktu edo zerbitzu konplexuak edo balio ekonomiko altukoak diren produktu edo zerbitzuak erosterakoan. Gaztelaniarako joera hau etxebizitzako, aseguru-tako edota finantza sektoreko produktu edo zerbitzuak eskuratzean antzematen zen bereziki.

Euskarak beste hizkuntzekin lehia jarraitzen zuen. Ikerketan parte hartutako pertsonen ustez, zenbait sektoretan antzematen zen (ostalaritza, turismoa, kulturarekin zerikusia duten zerbitzuak...) euskara bigarren maila batera pasatzen zela, enpresa eta establezimenduek dituzten bezeroen profilak eraginda.

Ikerketa honek izandako beste emaitza bat ere azpimarragarria iruditzen zaigu: 2014ko neurketa hartako datuen arabera, enpresa eta establezimenduen % 47k adierazi zuen I23/2008 Dekretua ezagutzen zuela eta, gainontzekoek, ez zutela dekretuaren berririk. Nolanahi ere, sektorearen arabera ezagutza maila desberdina antzeman zen: merkataritza guneek, errepide bidezko garraioak eta finantza erakundeek ezagutzen zuten gehien (% 60tik gora), eta komunikazio enpresek eta higiezin agentziek gutxien (% 30 inguru).

3.3. Betetze-mailaren neurketaren ondorengo neurriak eta bitartekoak

Ikerketaren emaitzak aztertu ondoren, neurri eta bitarteko gehiago behar zirela ikusita, berriro atera zen dirulaguntza deialdia, hainbat hitzarmen sinatu ziren eta bestelako baliabideak eskaini zaizkie dekretuaren eraginpekoiei.

Jar dezagun begirada hurrengo neurri eta bitartekoetan:

a) Dirulaguntza deialdia (2015-I6), hitzarmenak eta bestelakoak

Bigarren deialdi honetarako 500.000 euro bazeuden ere, 125.000 baino ez ziren esleitu, izandako 6 eskatzaileen artean. Deialdiak 25.000 euroko muga ezarri zuen eskatzaileko eta eskaera aurkeztutako entitate guztiek jaso zuen dirulaguntza.

Dekretuaren eraginpeko batzuek ere badute euskara-plana abian (autobus-konpainiak, banketxeak, merkataritza guneak...) eta haietako batzuek Lanhitzen dirulaguntza jasotzen dute urtero.

Bestelako bitartekoak ere jarri izan dira dekretuaren eraginpekoen esku, adibidez, itzulpen-zerbitzua. Gaur egun itzultzaile neuronalak ere eskura dute (Itzuli eta Itzuli + izeneko tresna-barra), nahiko kalitate handiko itzulpenak lortzen dituen tresna, nahiz eta kontuan izan behar den bere horretan erabili baino hobe dela norbaitek gainbegiratzea (egokitasuna bermatzeko, batik bat).

Horrez gain, lankidetzaz hitzarmenak ere sinatu dira, adibidez, finantza-entitate eta merkataritzarekin, Dekretuak ezarritako betebeharrak betetzeko konpromisoa adierazten dutenekin.

b) Sentsibilizazio- eta sustapen-kanpainak, aktibaziora begirakoak

Sentsibilizazio- eta sustapen-kanpainak ere jarri izan dira abian. Horren adibide, 2015ean, eskubideak eta betebeharrak jakinarazteko kanpaina.

Horrelako jarduerak funtzio bikoitza izan ohi dute: kontsumitzaile eta erabiltzaileei jakinaraztea hizkuntza-eskubideak dituztela eta hainbat erakunde-mota eskubidea bermatzera behartuta daudela eta, aldi berean, hainbat erakunderi jakinarazi edo gogoraraztea legez behartuta daudela hizkuntza eskubide horiek bermatzera, hau da, kalitatezko zerbitzua ematera, hizkuntza ofizialetako edozein erabilia ere.

Kalitatezko zerbitzua eskaintzeak zer esan nahi du? Kontsumitzaileak edo erabiltzaileak euskaraz eskatuz gero, gaztelaniaz eskatuta bezain azkar eta ondo erantzungo zaiola bezeroari. Esate baterako, euskaraz artatua izateko ezin dugu behartu bezeroa beste establezimendu batera joatera edo beste ordutegi batean etortzera.

Kanpaina horretako jarduera aipagarriena da “Eskubideak bermatuz, zerbitzua hobetu” izeneko liburuxka. 2015eko ekainean prestatu zen, eta zabalkunde handia izan zuen. Dekretuaren eraginpekoak ziren hainbat enpresak eta euren bezeroek jaso zuten liburuxka.

Aktibaziorako egindakoen artean Euskaraldia ekimena da ezagunena. 2018an egin zen lehen edizioa, eta orduan, norbanakoengan jarri zen fokua; eta bigarren edizioan, 2020koan, gainera, entitateei ere eman zaien protagonismoa, ariguneekin, zerbitzua euskaraz ematea bermatzen duten guneak identifikatuta eta bermatuta enpresa edo erakunde horietan.

3.4. Elebide zerbitzua (hizkuntza eskubideen inguruko kexak, iradokizunak eta kontsultak bideratzeko zerbitzua)

2006an jarri zen abian Elebide zerbitzua, eta haren premiaz ohartuta, bi urte geroago, uztailaren 29ko 150/2008 Dekretuak Elebide zerbitzuari organo izaera eman zion. Harrezkero, Hizkuntza Politika Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren ardurapean tinko dihardu Elebidek, herritarren hizkuntza eskubideen babesean.

Elebiden elkarlana bultzatu da Arartekoarekin eta Hizkuntza-Eskubideen Behatokiarekin, herritarren eskubideen defentsan eragina izango duelakoan.

Elebidek egindako lanetik Hizkuntza eskubideak urratu direla aitortu duten herritarren intzidentziak jaso eta kudeatu dira, besteak beste. 2007tik 2019ra batez beste 250eko intzidentzia kopurua izan da, urtez urte gorabeherekin; 2015ean izan zen intzidentzia tasa altuena (789). Urte hartatik aurrera, berriz, intzidentzia tasa beherantz doa. 2019an izan da azken urteetako intzidentzia maila txikiena (194).

Elebidera bidalitako intzidentzia gehienek esparru publikoarekin dute zerikusia, baina badira esparru pribaturiko dagozkionak ere. Esate baterako, 2019an jasotako 168etatik 22 zegozkion esparru pribatuari. Intzidentzia horiek kexak izaten dira nagusiki eta neurri txikiagoan iradokizunak eta kontsultak.

Elebidek jaso ohi dituen kexen arrazoi nagusiak hauek izan ohi dira:

- Megafoniatik emandako abisuak gaztelaniaz soilik ematea.
- Sare sozialetan informazioa euskaraz ez igortzea.
- Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei zuzendutako komunikazioak gaztelaniaz soilik egotea.
- Euskarazko dokumentuak akatsak izatea.
- Euskarazko arretarik ez ematea, aurrez aurre edota telefono bidez.

Elebidek aurretik aipatutako Legearen eta Dekretuaren eraginpean ez dauden establezimenduen aurkako kexak ere jaso ohi ditu. Kasu horietan kexa jarri duen herritarri jakinarazten zaio establezimendu hori ez dagoela behartuta kontsumitzaileak euskaraz artatzera; hala ere, kasu batzuetan ostalaritza-establezimenduari kexaren berri ematen zaio, euskaraz jardutera behartuta egon ez arren, nahi izanez gero, iradokizun gisa kontuan har dezan.

3.5. Neurri berriak

2008ko Dekretuaz gain, Eusko Jaurlaritzak jarraitu izan du bestelako neurriak hartzen kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatu daitezen. Horren adibide dira hurrengo bi dekretuak ere.

a) I62/2017 Dekretua: Bikain ziurtagiria

Hasieran aipatu bezala, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko Dekretua 2008koa da, eta urte horretakoak dira, halaber, Elebide zerbitzua eta Bikain ziurtagiria ere. Hainbat urte geroago, ordea, Bikain ziurtagiriak arautzen dituen dekretua berritu egin zen, hainbat arrazoi tarteko, eta horietariko bat herritarren hizkuntza eskubideei zegokien. Izan ere, Elebide zerbitzuan jasotzen ziren kexen artean, batzuk Bikaindun entitateei zegozkien, herritarren, kontsumitzaileen edo erabiltzaileen hizkuntza eskubideak urratzeagatik.

Horrexegatik, I62/2017 Bikain Dekretu berriaren arabera, edozein entitate publikok edo pribatuk legeak ezartzen dizkion hizkuntza-betebeharrak bermatu behar ditu, Bikain ziurtagiria lortuko badu. Beraz, bermatu ezean, ez dauka ziurtagiria lortzerik.

Zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza bereizi dira Bikain ziurtagirian, berariaz, erakundeek euren autodiagnostikoa egiteko momentuan jasota gera dadin zerbitzu-hizkuntzan bete beharrekoak bermatzen dituzten ala ez.

Horren ondorioz, hainbat izan dira, ebaluazioa egin arren, ziurtagiria lortu ez duten erakunde publiko zein pribatuak. Eta, harrigarria bada ere, badaude oraindik dekretuaren eraginpekoak direla ez dakiten enpresak.

Dakigunez, Legea ez ezagutzeak ez du esan nahi legea betetzetik salbuetsita dagoenik. Beraz, oraindik badago sentsibilizazio-lana egin beharra, hizkuntza-eskubideak bermatuak izango direlako bakar-bakarrik bermatu behar dituztenek bermatzen baldin badituzte.

b) 179/2019 Dekretua, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa (Etel Dekretua)

Azkenik, dekretu berria dugu ETEL, eta bere bidez ere kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko ahalegina egiten da. Hain zuzen ere, 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa da azken ahalegina.

Dekretuak aipatzen dituen 2. eta 35. artikuluetan zehaztutakoaren arabera, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzea lortu nahi da.

Adibide batekin argiago ikusiko dugu: gaur egungo pandemiak eraginda, ostalaritza muga eta murrizketa handiak jasaten ari da, eta langileen eta bezeroen segurtasuna bermatzeko, terrazetan eman behar dute zerbitzua. Terraza horiek dira jabari publikoaren erabilera pribatiboaren adibidea. Udalek arautzen dituzte, ordenatzen bidez (“Jabari publikoan terrazak, mahaiak eta horien instalazio osagarriak jartzeko araudi tekniko eta juridikoa jasotzen duen Ordenantza”), eta 179/2019 Dekretuak dioenez, udalek klausula egokiak txertatu behar dituzte, esparru horietako kontsumitzaileei eta erabiltzaileei idatziz ematen zaizkien informazioa eta segurtasun-abisuak euskaraz ere ematen zaizkiela bermatzeko.

Honetara arte, gure mintzagaia izan den Dekretuaren bilakaera. 2008ko Dekretuak hamarkada pasatxo batean izan duen bilakaera erritmo bizian joan da. Dekretu berriak, dirulaguntza berriak, kanpaina edo programak, hitzarmenak... gaiari lotutako ikerketa soziologikoak. Dekretuak ezarritakoa bermatzeko beharrezko neurriek ekarri gaituzte gaur egungo egoera berrira. Hizkuntza eskubideak bermatzeko urratsak testuinguru soziolinguistikoak eta erakunde motak baldintzatuta egin dira. Neurriek lagundu dute aurrera pausoak ematen. Eta azken helburuari erantzuteko ahaleginean jarraitzea dagokigu, oraindik ere, ez baikara iritsi herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko baldintza eta aukerak lortzera. Aurrera begira ere neurri berriak jartzea, azterketak egitea eta baliaideak eskaintzea beharrezkoa izango da.

4. Ondorioak eta aurrera begirakoak

1979ko Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak, haren ondotiko 1982ko Euskararen erabilera normalizatzeko legeak eta 2003ko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuek ezarritako zoru juridiko haren lehen urratsak egin zirenetik berrogei urte pasatxo besterik ez dira igaro. Azken lau hamarkadetan euskararen normalizazio prozesuak bide luzea egin du esparru askotan.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileok euskara erabiltzeko aukerak handitzeko egin den bide juridiko nahiz administratiboa zein izan den aurkeztu dugu artikulua honetan. Ikusi dugu egindako urratsen bilakaera eta jarritako ahalegina handia izanagatik ere, asko daukagula oraindik aurrera egiteko.

Zoru juridikoa, erakunde edota enpresen kudeaketa berriak eta herritar edo erabiltzaileen jarrera proaktiboa izan dira bide honen giltzarri nagusiak. Hiru hankaren gainean ibiliz egin da eremu honetan ere aurrera.

Araubideetan zehaztapenak egitea, administratiboki laguntza tresnak eskaini nahiz zabaltzea, eta herritar edo erabiltzaileentzat sentsibilizazio kanpainetan inbertitzea izan da bilakaera honen egiteko nagusia. Eredu honetan ardura duten erakunde nahiz herritarrak sentsibilizatuz lanean ekitea izan da oinarria, eskubideen bete-tze-maila eremu edo erakunde bakoitzaren aukera askotarikoen baldintzak errespetatuz, betiere.

Eragiteko modu honek ondorioak izan ditu; aurrera egin da euskararen normalizazio prozesuan egin diren askotariko urratsei eskerrak. Edozer dela ere, oraindik, asko dago eremu honetan eragin eta lantzeko. Nola herritarren sentsibilizazioan, hala erakunde edo enpresen jardunean. Izan testuinguru oso euskaldunetan, izan testuinguru erdaldunagoetan. Guztietan.

Ikeik Eusko Jaurlaritzarentzat gauzatutako ikerketak (2014) eman digu baieztapen hau egiteko hamaika arrazoi. Dekretua sortu zenetik egin den aurrerapena handia izanagatik ere, hurrengo hamarkadetarako ere badugu zertan eragin eta zer baldintza ezarri.

Eusko Jaurlaritzak landu duen *Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana 2020-2023* dokumentuan argi dago eremu honek baduela garrantzia eta gure mintzagai izan den Dekretuaren betetze-maila handitzea lehentasunezkoa dela.

Planean aurreikusita zegoen 2020an hizkuntza-eskubideen betetze-maila neur-tzea, baina COVID-19 pandemiak eragindako egoerak neurketa hori atzeratzera behartu gaitu. Bereziki da larria ostalaritza edo garraio-enpresen egoera une honetan. Jarduera erabat gelditu behar izan dute zerbitzu-enpresa askok eta zer neurtu ere ez dago kasu batzuetan. Nolanahi ere, egoerak bere onera eginez gero, 2023a baino lehen neurtzeko asmoa badago.

Aitortzen sistema berrikusi eta zabaltzea ere aurreikusita dago. Bikain ziurtagiritik harago, urte hauetan ahalegina egin duten erakunde edo enpresei nolabaiteko aitortza egiteko aukera jasotzeko aukerak zein diren aztertzea izango da etorkizuneko erronka bat, zehapenen bidea baino eraginkorragoa eta lan-praktiketarako moti-bagarriagoa izan daitekeela uste baita.

Kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunen aktibazio ekintzak martxan jartzen ari da Hizkuntza Politika Sailburuordetza, EAEko beste administrazio publiko batzuekin batera, euskaraz eskatzea eta euskaraz eskaintzea sustatzeko. 2020ko Gabonetan egin da lehen aldiz kanpaina hau, proba pilotu modura. Hurrengo urte-rako, toki-erakunde guztien parte-hartzea aurreikusten da, horrela eraginkorragoa izango delakoan. Euskaraldia ere egiteko modu hauen laguntzaile zuzena izango da.

EAEko euskararen ezagutza-datuei erreparatuta, gero eta gehiago dira ikasketak euskaraz egiten dituzten gazte nahiz helduak. Baldintza horrek lagunduko digu etorkizunean Dekretu honen peko enpresek zerbitzua euskaraz emateko aukera gehiago izan dezaten. Hezkuntza sistema egiten ari den ahaleginak, beraz, ondorio zuzena izango du eremu honetan ere.

Hala ere, merkataritzara edo ostalaritzara heltzen diren langileen artean asko dira, gaur egun, etorkinak edota euskaraz ez dakitenak. Lantoki hauetako lanaldiak oso aldakorak izan ohi dira (ez dira lan iraunkorrek izaten; mugikortasun handia dago), eta euskararen ezagutzari lotutako prestakuntza-plan iraunkorrek egitea ere zaila gertatzen da. Aipatu ditugun ezaugarri horiek, beste askoren artean, dakarte euskaraz zerbitzua emateko aukerak ikaragarri murriztea. Honi guztiari aurre egin

behar zaio eta gutxieneko ulermen-maila lor dezaten baliabide egokiak sortu eta eskura jarri behar zaizkie langile horiei ere; euskara ikasiz gizarte-integrazioarako aukerak ere irekitzeko bidea egin daiteke horrela.

“Belarriprest” figura sustatzea edo oinarrizko ulermena lortu eta euskaraz eskatzen duenari zerbitzu egokia eman ahal izateko trebakuntza-pilulak eskaintzea, ulermenean oinarritzen den komunikazio harremanen aldeko apustua egitea... eremu honetako erronka nagusi bat izango litzateke.

Ingurune digitalean ere euskaraz eskatu eta eskaintzea. Aurrez aurreko harremanak gainditzen dituen ingurune gero eta erabiliago honetan badira erronka berriak euskararen erabilerarentzat ere: EUS domeinua sustatzea; ingurune digitaleko harreman komertzialetan ere euskarak dagokion lekua izatea; hizkuntza teknologien bitartez euskara edozein esparrutan erabiltzeko tresnak sortu eta zabaltzea; herritar erabiltzaileak eremu honetan ere euskara erabiltzera sentsibilizatzea; beste askoren artean.

Eremu honetan erronka handi eta zehatzak izango ditugu etorkizunean. Oraindik ere bide luzea eginkizun badago ere, arian-arian lortuko dugu.

Bibliografia

- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Azaroaren 24ko 10/I982 oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena Arauzkotzezkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 1982ko abenduaren 16a, 160. alea.
- . Abenduaren 22ko 6/2003 Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2003ko abenduaren 30a, 254. alea.
- . 123/2008 Dekretua, uztailearen 1ekoa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2008ko uztailearen 16a, 135. alea.
- . Agindua, 2009ko apirilaren 21ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena eta Kultura sailburuarena, 123/2008 Dekretuaren aplikazio eremuko entitateek aipatu dekretuak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatze aldera ezartzen dituen hizkuntza betebeharrak egokitzeko, dirulaguntzak emateko modua arautzen duena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2009ko maiatzaren 8a, 85. alea.
- . Agindua, 2015eko azaroaren 11koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, 2015-2016 epealdian EAEko saltoki handietan errotulazio aldakorra euskarara itzultzeko eta langileak euskaraz trebatzeko, dirulaguntzak emateko modua arautzen duena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2015eko azaroaren 13a, 217. alea.
- . 162/2017 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautzen duena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2017ko ekainaren 5a, 105. alea.
- . 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2019ko azaroaren 22a, 223. alea.

- EUSKO JAURLARITZA, HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUORDETZA (2014): Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko 123/2008 Dekretuaren betetze-mailaren azterketa. Ikeik egina: Donostia, 2014.
- (2019): Elebide, 2019ko jarduera-txostena. Vitoria-Gasteiz, 2020.
- (2020): Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana 2020-2023. Vitoria-Gasteiz, 2020.
- (2020, barne txostena): Merkataritza, ostalaritza eta turismoari buruzko ikerketa. Siadecok egina: Vitoria-Gasteiz, 2020.

Esperientziak

KUTXABANK: NONDIK GATOZEN, NON GAUDEN ETA NORA GOAZEN

Ainhoa Arruabarrena Elorza
Kutxabankeko Gipuzkoa Sareko burua

Imanol Miner Aristizabal
Kutxabankeko Euskara Zerbitzuko teknikaria

Azken hamarkadetan, finantzagintzan euskararen biziberritzea egiten ari den aurrerabidea bestelako esparru ezagunagoetan egiten ari denaren eskutik doa, dela kulturgintzan, dela administrazio publikoan, politikagintzan, hedabideetan, kirolgintzan, eta hezkuntza esparruko maila guztietan, haur hezkuntzarekin hasi eta akademikoraino. Eremu hauetan guztietan, ekimen guztien abiapuntuan garaian garaiko eta lekuan lekuko pertsona anonimo askoren ahalegina dagoenez, gure aitortza eta esker ona adieraziz hasi nahi dugu aurkezpen hau.

Hain zuzen ere, haiei zor baitiegu, egunerokoan, gure diruen oinarrizko kudeaketa euskaraz egiteko aukera aspaldian zabaldu izana, bereziki Hego Euskal Herriko aurrezki-kutxa eta kreditu kooperatibetan, leihatilako eta bulegoetako aurrez aurreko elkarrizketetan lehenik, ondoren publizitate euskarrietan eta etxera bidalitako komunikazioetan, kutxazainetan geroago, eta berrikiago Internet bidezko banku zerbitzuetan.

Eusko Jaurlaritzak berak ere esana du eremu pribatuan euskarazko zerbitzua eta arreta gehien bermatzen duten erakundeak finantza-etxeak direla, eta finantza-etxeen artean bereziki aurrezki-kutxak nabarmentzen ditu, bestelakoekiko alde aitortuta.¹ Beraz, Kutxabank gaur-gaurkoz, Laboral Kutxa eta Bankoarekin batera, euskarazko zerbitzua garatuen duten finantza-etxeen artean kokatzen da.

Horiek horrela, eta egungo Kutxabanken euskarazko zerbitzua nondik datorren azaltzeko, hurrengo lau ataletan bereiziko dugu aurkezpena:

1. Nor garen
2. Nondik gatozen
3. Egungo errealitatea
4. Nora goazen

¹ Ikus, 2014ko udazkenean Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko 123/2008 Dekretuaren betetze-maila neurtzeko egindako ikerketaren emaitzak hemen, zehazkiago, 30.-32. eta 35. orrialdeak.

I. Nor gara

Kutxabank 2012an sortutako bankua da, Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurraldeetako aurrezki-kutxen bateratzetik, Arabako Vital, Bizkaiko BBK eta Gipuzkoan Kutxa bezala ezagunak ziren hiru erakundeen jarduera finantzarioen bateratzetik, zehatz esateko. Garai berekoa da aurrezki-kutxa bakoitza bere Gizarte Ekintzekin izen bereko banku-fundazio bihurtu izana, eta geroztik, Vital, BBK eta Kutxa banku-fundazioen esku dago Kutxabanken jabetza.

Kutxabank izaera sozialari eusten dion bankua da bere sorreratik, izan ere, hiru banku-fundazioen artean banatzen da Kutxabanken dibidenduen % 100, eta era berean, Gizarte Ekintzen bidez gizarteratzen dute herrialde bakoitzeko fundazioek aipatutako dibidenduen % 50.

Kutxabanken jabetza Euskal Herrian kokatzen den arren, bankuaren lan eremua Estatu mailakoa da. Kutxabank Taldea Kutxabankek eta Caja Sur-ek osatzen dute, eta guztira, 5.319 lankide ari gara lanean bertan, hauetatik Hego Euskal Herrian 2.700 pasatxo: bulego sarean, ia 2.200 lankidek egiten dute lan, eta Zerbitzu Zentraletan berriz lankideen % 20 inguruk.

2. Nondik gatozen

Kutxabankek oraindik hamarkada bete ez duen arren, bere jabe diren banku-fundazioek aurrezki-kutxetan dute jatorria, eta hauek, Euskaltzaindiak bezala, mende luzeko ibilbidea dute. Aurrezki-kutxen abiapuntua aurkitzeko, XIX. mendera jo behar dugu, hain zuzen ere lehen aurrezki-kutxak sortu zireneko unera, *Munizipalak* lehenik, hiriburuetakoa udaletxeen babesean, eta *Probintzialak* ondoren, Foru Aldundien babesean.

1850ean sortu zen lehen, Gasteizko Aurrezki-kutxa Munizipala eta Bahitetxea (*Caja de Ahorros Municipal y Monte de Piedad de Vitoria*), eta haren irudira sortuko ziren 1875ean Iruñekoa, 1879an Donostiakoa eta 1907an Bilbokoa. Probintzialak berriz, 1896koa da Gipuzkoakoa, 1918koa Arabakoa, eta 1921ekoak dira Bizkaikoa eta Nafarroakoa.²

Hastapeneko urte haietan, pentsatzekoa da euskararen presentzia puntuala izango zela orduko aurrezki-kutxetan, baina Euskal Pizkundea bezala ezagutzen den garaiarekin bat egiten duenez, ordukoak dira lehen ahaleginak, Agustin Anabitarte Irazu Gipuzkoako Aurrezki-kutxa Probintzialeko lankide eta euskaltzain urgazlearen lehen liburua, esate baterako, Bilboko Aurrezki-kutxa Munizipalak 1922an antolatutako lehiaketa batean saritua eta 1923an argitaratua, *Neska-mutilleri dirua aurreratzen erakusteko* izenekoa, izenburuak berak argitzen duen moduan, haurrei dirua aurrezten erakusteko egina. Eta litekeena da Bigarren Errepublikaren ingurumarian ere hainbat urrats egin izana, ditugun ebidentziak urriak diren arren. Izan ere, 1936ko kolpe militarrek, gerrak, eta haien eskutik abiatutako hizkuntza jazarpenak bi hamarkadetakoa etena eragingo zuen, aurretik egindako saiakeren gutxiespen eta ezabaketa ahalginekin batera.

Ditugun erreferentzien arabera, 1960ko hamarkadan berrabiatu ziren aurrezki-kutxetan euskararen biziberritzean azken hamarkadetakoa etenik gabeko

² Ikus, Auñamendi Entziklopedian *Aurrezki-kutxa Baskonian* idazlana.

ibilbidearen lehen hastapenak. Orduz geroztik, euskararen presentzia indartuz joan da, eta garapen horretan hamarkada bakoitzean azpimarragarriak diren gako batzuk ekarriko ditugu gogora jarraian:

60ko hamarkadan, euskararen erabileraren aldeko lehen aldarrikapenak hasi ziren, finantza negoziarako mesedegarri dela ohartuta, lehenengoz, euskaraz zekiten langile elebidunak kontratatzen, eta euskara ikasteko dirulaguntzak ematen hasi ziren.

70eko hamarkadan barrena, aurreko hamarkadako neurriak garatu ziren, euskalduntzea bultzatzeko euskara eskolak antolatu ziren, eta lehen barnetegiak ere bai. Baina horrezaz gain, finantza jarduerarekin lotutako lehen hiztegiak argitaratu ziren, eta horrekin batera, estrategia lantzeari ere ekin zioten, Euskal Herriko Aurrezki-Kutxetako Elebitasun Batzordeen Koordinakundearen eskutik, hizkuntza plangintzarako lehen diseinu lana izango zen *Euskara Bitartekari Finantzarioetan* txostenaren lanketarekin.

80ko hamarkadaren bueltan, langile ugari ari zen elebiduntzen-euskalduntzen, ikasmaterialak ugaritu ziren, hiztegi hobekoak eta osotuagoak egin ziren, eta kontratuetan, iragarkietan, telematikoki egiten ziren aurrerabideetan euskarari bidea zabaldu zitzaion, eta halaber Gizarte Ekintzako jardueretan ere. Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako zortzi aurrezki-kutxetarako hitzarmen kolektibo bakarra negoziatu eta adostu zuten erakundeek eta sindikatuek. Lan-hitzarmenak aurrezki-kutxetan elebitasun zerbitzuak sortzeko erabakia jaso zuen, eta neurri horrek lurralde bakoitzak bere neurriko Euskara Zerbitzuak eta Planak abiatzea eragin zuen. Hamarkadaren amaierarako, premia berrien eraginez euskaraz jakitea jada nahikoa ez zenez, *Laneko Euskara* ikastaroak sortzen hasi ziren, eguneroko lanerako beharrezkoa zen euskara teknikoak ikasteko ikastaro teknikoak, alegia. Unibertsitateetan ere ikasketak euskaraz ematen hasiak zirenez, aurrezki-kutxetako kontratu, iragarki eta komunikazioetako testuak hartu, eta ekonomia eta finantza ikasketetako ikasleekin lantzen zituzten, lehen ikasle belaunaldi elebidunak sortzeko helburuarekin.

1990. urtean, herrialde bakoitzeko kutxa probintzial eta munizipalak elkartu ziren sorrera emanda Araban Vital, Bizkaian BBK, eta Gipuzkoan Kutxa izeneko aurrezki-kutxei. Ahalegin guztia negozioa sendotzera bideratu izanaren ondorioz, hizkuntzen kudeaketak gorabehera ugari izan zituen hamarkada horretan. Orduko Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan lehen Hizkuntza Plangintza ahaleginek ere ez zuten asmatu modu jarraituan eta iraunkorrean adostasunari eusten politikarien, aurrezki-kutxetako arduradunen eta langile ordezkarien artean.

Milurteko berria abiatzerako, herrialde bakoitzean errealitate desberdinak zeuden indarrean:

Arabak, euskararen presentzia zaintzea eta sustapen lana landu ziren. Hizkuntza plangintza garaturik ezean, euskara ikasteko laguntzak bideratu ziren, eta itzulpen-gintza erabili zen, neurri handi batean, euskararen erabilera bermatzeko.

Bizkaian, Hizkuntza Plangintza, inplementazioa, jarraipenean egindako sistematizazio lana izan zen azpimarragarriena, erakundetze maila esanguratsua eskuratzeraino. Euskararen Arautegian erakunde osorako oinarritzko lan-lerroak finkatuta, eta kontratazio irizpideetan euskararen ezagutzaren garrantzia jasota, bulego sarea

eremuka antolatu, eta 50 bulego zehaztutan egin zen hizkuntza kudeaketa modu proaktiboan, gainerakoetan intentsitate maila apalduta (Soziolinguistika Klusterra, 2012).

Gipuzkoan, 90ko hamarkadatik 2000. urtera bitartean, lankide euskaltzaleen ahaleginak gorabehera, eta administrazioarekin lankidetzan abiatu arren, jarraipenik gabeko jarduna egin zen. Hala ere, 2000. urtean hasita eta Kutxabank sortu arte, erabaki azpimarragarri bat hartu zen: jendaurreko lanpostuetarako lankide berrien hauta-prozesuetan, ordura arte puntuagarria zen euskararen ezagutza nahitaezko baldintza izaten hasi zen aurrerantzean, lankide elebidunak hobetsiko zituzten beraz, hurrengo urteetako kontratazio berrietan. Ingurumari horretan, hizkuntza kudeaketan garapenaldi oparoena gertatu da 2004-2011 urteen artean (Irizar, 2007 eta 2009).

Nafarroan, nahiz eta politikan eta aurrezki-kutxaren buruan euskararen biziberritzea galgatzea helburu zuten agintariak egon, eta nahiz eta hizkuntza-kudeaketa herrialdeko hiru hizkuntza-eremu administratiboetan banatu behar izan, kudeaketa (*management*) ezagutzek eskaintzen dituzten bideetatik lortu zen euskararen eta gainerako hizkuntzen kudeaketa egitea: komunikazioetan bezeroaren hizkuntza hobetsia zaindu zen, hizkuntza paisaian euskararen presentzia bermatu, euskara ikasteko laguntzak eman, eta bestelako gabeziak itzulpengintzaren laguntzarekin estali ziren. Garai hartan, hizkuntza-kudeaketa kalitate prozesuetan eta Gizarte Erantzukizunaren ingurumarian txertatzeko aurrerabidea egin zen Nafarroan.³

3. Egungo errealitatea

Orokorrean eta gure gizartearen ikuspuntutik, zerbitzu-enpresa handia gara, honek dauzkan abantailekin eta zailtasunekin; bi norabidetako eragina dugu gainera, alegia, jendartean eragin zuzena dugu, eta, modu berean, gizarteak gudan ere zuzenean eragiten du. Hau da, Hego Euskal Herri osoan presentzia dugun arren, batetik, Kutxabanken sorreran parte hartu zuen aurrezki-kutxa bakoitzak bere iragan propioa duenez, eta bestetik, lurralde bakoitzean egoera soziolinguistikoa desberdina denez, hiru kulturen harmonizazio lanetan murgilduta jarraitzen dugula esan dezakegu.

a) Ezagutza datuak

2020ko datuen arabera, Hego Euskal Herrian guztira 2715 lankide ari gara lanean, eta ia lautik hiru lankide elebidunak gara, % 70,53 alegia.

Herrialdeka aztertuz gero, zerbitzu zentraleko nahiz bulego sareko lankideei dagokienez, Arabako lankideen % 40 da elebiduna, Bizkaian % 66 eta Gipuzkoan % 94. Nafarroako bulego sarean berriz, lankideen % 28 da elebiduna. Horiek horrela, bi datu azpimarratu nahi genituzke:

— Lau herrialdeetan, gure lankide elebidunen ehuneko tokian tokiko elebidun ehunekoaren gainetik kokatzen da.

³ Ikus, *Argia* astekariak Nafarroako Kutxako Xabier Erizeri eta Lorea Leoni 2010/04/18ko alean egindako elkarrizketa.

- Gipuzkoan lankide elebidunen ehuneko handia 2000. urtetik egindako kontratazio berrietan aplikatutako politikaren ondorioa da, zalantzarik gabe.

Kutxabanken, gaur gaurkoz, kontratazio berrien % 80 da, batez beste, elebiduna.

Lan esparruaren arabera begiraturaz gero, bulego sarean elebidun gehiago dago zerbitzu zentraletan baino, eta bulego sarearen baitan, gure Banka Pertsonalak du elebidun ehunekorik handiena, % 80ra iristen delarik. Ehunekorik txikiena berriz zerbitzu zentraletan dugu, lankideen % 65ekin. Bulegoen eta zerbitzu zentralen arteko aldea kanpo bezeroarekiko hartu-emanak baldintzatzen du, kalitatezko zerbitzua bermatu beharrak hizkuntza eta hizkera zaindu beharra eragiten baitu.

b) Erabilera datuak

Erabilerrari dagokionez, azterketa zehatzik ez dugun arren, badakigu bulegoetan ezagutza altua izan arren erabilera apalagoa dela, eta zerbitzu zentraletan areago, gaztelaniaz jarduteko ohitura errotuago dagoela kanpo -eta barne- bezeroaren presio ezagatik. Ondorioz, gurean eleaniztun sartutako belaunaldi berriak elebaker bihurtzeko arriskua sumatzen dugu.

Aurtengo Euskaraldian, esate baterako, 139 egoitzetan abiatu ditugu ariguneak, eta lehen edizioko kopurua gairidituta, 800 lankidek baino gehiagok eman dugu izena norbanako gisa ekimenean parte hartzeko.

Bezeroen artean berriz, 80.000 bezero inguru dira Kutxabankekiko harremanetarako hizkuntza gisa euskara aukeratua dutenak, eta Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan defektuzko aukera elebiduna den arren, lanean dihardugu etengabe hobekuntzak egiten, gure komunikazioak bezeroak hobetsitako hizkuntzan iritsi daitezzen.

Euskararen ezagutza- eta erabilera-datuetan ikus dezakezuen bezala, ezagutza handi xamarra dugun arren, erronka sendoak dauzkagu oraindik erabilera bultzatzeari dagokionez: lanpostura euskaraz konektatzen direnen kopurua apala da oraindik, eta, ondorioz, ez dira asko Intraneteko albisteak euskaraz irakurri eta teleprozesua euskaraz baliatzen dutenak, esate baterako. Trebakuntzan ere, laneko ikastaro orokorrak euskaraz eskaini arren, erabiltzaile kopuruak apala izaten jarraitzen du, dauzkagun elebidun kopuruekin alderatuz gero, etab.

c) AMIA

Horiek horrela, jarraian, gure indarguneak, ahulguneak, mehatxuak eta aukerak zeintzuk diren jasoko dugu:

Indarguneak

- Lankide elebidun kopurua handiari esker euskararen erabileran gora egiteko aukera.
- Urteetako esperientziak euskararen biziberritze lanetan eleaniztasuna kudeatzeko abantaila ematen digu.

Ahulguneak

- Euskararen erakundetze maila apala da Kutxabanken, hau da, hizkuntzak gainerako aldagaiekin batera kudeatzeko erresistentziak ditugu, bankuaren sorreratik, negozioa lehenesten ari garenez.
- Euskararen eskaera kopurua erlaxatu egin da azken urteotan, bai kanpo bezeroen, bai sektoreko beste erakundeen eta baita ere instituzio publikoen aldetik. Eta gauza bera barne eskaerari dagokionez, dela lankide norbanakoengandik, dela sindikatuengandik. Egia da, aurreko urteetan egindako lanei eta hobekuntzei esker, dagoeneko, gure zerbitzu eskaintzaren gehiengoa euskaraz eskaintzen dugula, eta beharbada horrek ere eragingo du eskaera kopurua apaldu izana, baina, hala ere, oraindik hobetzeko asko dugula aitortzea dagokigu.

Mehatxuak

- Bankuaren sorreratik krisi ingurumarian ari gara mugitzen: 2008ko ekonomia-finantza krisia, interes tipoen jaitsiera jarraitua, aurtengo osasun krisiak eragin dituen gorabeherak eta eragingo dituen ondorioak ere, urrunago joan gabe; eta epe ertainera begira, gauzak aldatuko diren edota hobera egingo duten aurreikuspen zantzurik ez da antzematen, gainera.
- Atzera egiten jarraitzeko arriskua, hizkuntzen gaia modu proaktiboan kudeatzen aritzetik modu erreaktiboagoan kudeatzekoa, alegia.
- Erresistentziak gehiago areagotzekoa, ahulgune eta mehatxuetan jasotakoek eragiten duten dinamismo ezaren ondorioz.
- Elezuriketara mugatzea, ingelesez *glottowashing* litzatekeenera, hau da, Kutxabanken hizkuntza kudeaketa murriztea erakundearen irudia zuritzera, justifikatzera, edo makillatzera. Bestelako gaietan ezagunagoak dira, esate baterako, genero gaietan *purplewashing*, LGTBI gaietan *pinkwashing*, eta ingurumenekoetan *greenwashing* bezala ezagunak diren fenomenoak.

Aukerak

- Egindakoa finkatzeko aukera, izan ere, asko egin da, baina ez da ezagutzen, ez zaio baliorik ematen, eta are gutxiago dago barneratuta. Emandako aurre-rapausoak geureratu behar ditugu, gurean integratu, txertatu.
- Hizkuntzen kudeaketari begira, kultura berri bat sortzeko aukera aurreikusiten dugu, abiapuntu berri bat jartzekoa, indar gehiagorekin aurrera egiten jarraitzeko.
- Lidergo partekatutik jarduteko aukera dugu, Laboral Kutxa eta Bankoarekin batera, besteei bidea zabaltzeko eta tira egiteko; erronka polita izan daiteke, gainera.
- Norabide berean doazen beste eragile publiko, pribatu, sozial eta akademi-koekin konplizitatea bilatzeko aukera.

4. Nora goazen

Lau erronka dira une honetan mahai gainean dauzkagunak:

- a) Elebitasuna kudeatzetik eleaniztasuna kudeatzera: aurreko hamarkadan euskararen eta gaztelaniaren arteko harremana kudeatzetik, hainbat hizkuntzarekin osatutako sistema kudeatzera igaro ginen, eta norabide horretan aurrera egiten jarraitzea dagokigu.
- b) Euskararen ezagutza kudeatzetik, erabilera ere kudeatzera: euskararen ezagutzan azken urteetan egin den igoera erabileran ere isla dadin, neurriak hartu beharrean gaude berandu baino lehen, euskararen erabilerak lagunduko baitugu bermatzen, berezko kultura batetik, bezeroei zor diegun zerbitzu kalitatea epe luzera begira.
- c) Konpromisoa, lankidetzeta eta konplizitatea: erakunde publikoekin, pribatuekin eta akademikoekin, euskararen biziberritzea elkar hartuta egin baitugu orain arte, eta aurrerantzean ere, horrela izango dela aurreikusten baitugu.
- d) Euskararen kalitate ziurtagiria: 2008an Kutxak eta 2010ean BBK-k Bikain ziurtagiria lortu zuten, eta Kutxabanken oraindik lortzeko daukagu, eta haren bila joatea aurreikusia dugu.

Eginkizun horietan aurreikusten dugu, beraz, Kutxabaneko hizkuntza-kudeaketa datozen urteetan. Eta hamarkadaz hamarkada, ekin eta jarrai, mendeurrena ospatu berri duen Euskaltzaindia bidelagun nahi genuke, Jagon sailarekin XXI. mendeari dagozkion erronketan, euskararen ezagutzatik erabileraren normalizaziorako bidea egin diezagun. Hala biz.

Bibliografia

- ANABITARTE IRAZU, Agustin (1923). *Neska-mutileri dirua aurreratzen erakusteko*. Donostia: Eneko Deuna'ren Irarkola.
- EGIA, Gotzon (2006). "Agustin Anabitarte Irazu (1891-1981)", in *Bidegileak bilduma* 46 zk. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, <http://www.euskara.euskadi.net/appcont/sustapena/datos/46%20ANABITARTE.pdf>.
- HAINBATEN ARTEAN (1978). *Banka Hiztegia. Diccionario de Terminologia Bancaria*. Donostia: Donostiako Aurrezki-kutxa Municipal, Gipuzkoako Aurrezki-kutxa Probintziala, Gipuzkoako Industria Bankua eta Lankide Aurrezkiak.
- (1981). "Euskara Bitartekari Finantzarioetan" txostena. Euskal Herriko Aurrezki-Kutxetako Elebitasun Batzordeen Koordinakundea.
- IRIZAR INTXAUSTI, Mikel (2007). "Hizkuntzak Enpresaren Kultura. Diskurtso berri baten lehen notak", in *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 65: 73-82. Andoain. Soziolinguistika Klusterra, <http://www.soziolinguistika.eus/node/3708>.
- (2009). "Hizkuntzak Enpresan, Legetik Haratago", in *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 70: 105-114. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, <http://www.soziolinguistika.eus/node/4528>.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2012). "Euskararen Normalizazioko Kasu Aurreratuak, BBK", in *Euskararen Normalizazioko Kasu Aurreratuak bilduma*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, http://www.soziolinguistika.eus/files/maketa-bbk_behinbetikoa_kontrazala.pdf.
- UZEI (1983). *Aurrezki-Kutxak. Hiztegia*. Gasteiz: Servicio de Publicaciones de la Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras.

GOIENER, ARGINDAR HERRIKOI ETA EUSKALDUNA SORTZEKO TRESNA

Asier Arsuaga
Goiener Taldeko Euskara batzordeko ordezkaria

Goiener Taldeari buruz hitz egiteko, ezinbestekoa dugu argindarraren sorkuntzaren eta azpiegituraren bilakaerari aipamen egitea. Lehen zentral hidroelektrikoak XIX. mende amaieran hasi ziren eraikitzen, eta Espainiako Gerra Zibilaren aurretik herri gehienek zituzten bere zentral eta sareak. Dena den, beste hainbat sektoretan gertatu den bezala, pixkanaka enpresa elektriko handiak azpiegitura hauen jabe egin ziren, eta sorkuntza gaitasun handiagoa zuten zentral termiko zein nuklearrengatik ordezkatu zituzten.

Goiener proiektua bera 2012an hasi zen itxura hartzen herritar talde baten esku-tik. Sustatzaileek aurrez bazituzten antzeko hainbat saiakera bizkar gainean, eta baziren ordurako Goienerren eredu bereko hainbat esperientzia: hala nola, Espainiako Estatuan, zentral hidroelektriko txikien jabetza mantentzen jakin zuten Valentziako Erkidegoko kooperatibak; Europan, jatorri berriztagarriko energia kooperatiba herri-tarrak; eta Katalunian 2010 urte inguruan sortu berri zen antzeko herritarren koope-ratiba bat. Bertan, gainera, baziren Euskal Herriko zenbait ekintzaile-boluntario.

Goiener eratu zuen talde sortzaile haren helburua zen herritar-kontsumitzailea ahalduntzea: elektrika handien sisteman erabakitzeko eskubiderik ez zuen kontsumi-tzaile huts izatetik bere argindarra kudeatuko zuen enpresaren jabekide bihurtzea eta argindarra sortzeko teknologia kutsatzaile zein arriskutsuak ez finantzatzeko aukera izatea (gas eta ikatz bidezko zentralak edota nuklearrak). Eta, hori guztia, lan eremu gisa Hego Euskal Herria izanik.

Legeak baimentzen bazuen ere, garai hartan ez zen erraza argiaren fakturan jatorri berriztagarriko energia soilik ordaintzeko aukera izatea. Gainera, kontsumituko zuten energiaren sorkuntzan ere esku hartu nahi zuten, jatorri berriztagarriko proiektuak sor-tuz. Hala, bazkideek beraiek sortutako energia kontsumitzea lortu nahi zen.

Dena den, Espainiako Estatuan Raxoi eta Soria ministroek bultzatutako “Eguz-kiari Zerga” iritsi zen errege dekretu bidez. Teknologia berriztagarri bidezko sorkun-tza proiektu berriak abian jartzeko egonkortasun falta gailendu zen, eta proiektuaren bideragarritasuna zalantza bete zitzaigun. Horregatik, alternatiba eraikitzeko sor-kuntza proiektuak albo batera utzi eta bidea merkaturatzaile elektrikoa sortzea zela argi geratu zitzaigun. Jatorri berriztagarriko argindarra erosi eta bazkideen artean saltzea izango zen egitekoa, momentuz.

Merkaturatzaile bat zerotik sortzea ez zen txantxetako balentria, eta ekin genion gogoz. Argindarra fakturatzan hasi bezain laster etorri ziren beharrak, eta boluntario lana baino dedikazio handiagoa eskatzen zuenez, lehenengo bazkide-langileak kontratatu genituen. Halaber, etxeko argindar kontratu arruntetatik lehen enpresei zerbitzua ematera ere pasa ginen, eta hortik udaletan lehen lizitazioak irabaztera... Kooperatiba hazten zihoan langile eta boluntarioen elkarlanarekin. Azken hauen lana babesteko (ematen zituzten hitzaldiak, azokak, gobernantzan parte hartzea...) Goier Elkartearen ere sortu zen.

Argindarraren fakturaren edo berriztagarrien inguruan albisteren bat zegoenean komunikabideak gurean hasi ziren galdezka, iritzi eske. Sektorean Euskal Herri mailako erreferenteetako bat bilakatzen hasi ginen.

Bitartean, sorkuntza proiektuen bideragarritasuna aztertzen jarraitu genuen, eta azkenik 2018an iritsi ziren kooperatibatik bertatik argindarra sortzeko aukerak. Inbertsio potoloa eskatzen zuten, baina bazkideen artean bagenuen oinarri sendo bat. Hauen ekarpenekin erosi ahal izan ziren Fagollagako zentral hidroelektrikoa, finantzatu ahal izan zen Ipar Euskal Herrian kide diren I-enerren zenbait instalazio fotovoltaiko, eta Oñatiko Ur Jauzietan % 10eko parte hartzea geureganatu genuen.

Berriki, kooperatiba ere badiren 5 ikastoletan autokontsumo fotovoltaikoko instalazioak muntatu eta martxan jarri ditugu: ikastolek teilatuak utzi dizkigute eta bertatik autokontsumituko dute argindarra, eta Goierer hasi da soberakinak kudeatzen.

Proiektu guztiak egiteko 1.200.000 euro bildu dira *crowdfunding*aren bitartez, auzolanean. Goierer Taldean sorkuntza bultzatzeko apropos sortutako Nafarkoop Energia kooperatibatik kudeatu dira aipatutako proiektu guztiak.

Laburtzeko, Goierer Taldeak hiru oinarri ditu: Goierer argindar merkaturatzaile kooperatiba, Nafarkoop sorkuntza kooperatiba eta Goierer Elkartearen, parte-hartze eta boluntariotza sustatzeko tresna.

Eta euskarari dagokionez, zer?

Boluntario eta langileen artean garatutako Plan Estrategikoan, Goierer Taldearen misioa honela laburbildu genuen: «hurbilak izatea, konfiantza sortzea, aniztasuna onartzea, garden jokatzeko, parte-hartzea sustatzea, eta kontuan izatea pertsonen premiak eta arreta».

Pertsonen premiak eta arreta erdigunean jartzen ditugun unetik, nahitaezkoa da hizkuntza eskubideak bermatuak izatea, hala nola euskaraz aritzeko aukera ematea bai bazkide zein langileei.

Euskara zerbitzu-hizkuntza gisa, apustua baino, guretzat irizpide “Eko-Logikoa” da. Alegia, gure inguru hurbilarekiko begirunea. Goierer bazkideena da, bazkideak dira Goierer. Egunerokoan eskaintzen dugun zerbitzuari dagokionez, hurbiltasuna eta konfiantza ditugu balorerik kuttunenak. “Gertu gaude, gertukoak gara” da gehien errepikatzen dugun gure leloetako bat, eta gertutik aritzeko ezinbestekoa zaigu euskaraz aritzea.

Horretarako euskara menperatzea ezinbestekoa da bazkideekiko harreman estua eskatzen duten Goiererrek lanpostu-profiletan.

Telefonoz edo aurrez aurreko harremanetan, lehen hitza beti euskaraz egin ohi dugu, gero beti izango da aldatzeko aukera. Izan ere, tamalez, herritar asko gaztelaniaz

artatua izatera ohitua dago, energia edo telefonoa bezalako oinarrizko zerbitzuak kudeatzeko garaian. Askok balio erantsizat dute tramite guztiak euskaraz egin ahal izatea —hasi eta bukatu arte—. Goienerretera aldatzeko arrazoietako bat da.

Erabiltzaile batzuentzako, gainera, euskara hautatzea erronka ere bada. Adibidez: faktura elektrikoa gaztelaniaz ulertzen zaila suerta dakioke bazkideari, eta euskaraz jasotzean, oraindik ere zailagoa bihur daiteke (lexikoa dela, hitz teknikoak...). Bazkide batzuen aukera izaten da, behin ikasten hasita, euskaraz ikastea, eta euskararen aldeko hautua egin eta gero, oso gutxi dira gaztelaniara bueltan aldatzeko eskaria egiten dutenak.

Energia berriztagarria euskalduntzen

Goiener abian jarri zenetik, bertako proiektu herritarra denez, euskaraz egin izan dugu, baina baita gaztelaniaz ere, tartean euskaraz ulertzen ez zuten kideak ere bagenituelako. Kasu hauetan jakina da zein izaten den tendentzia: gaztelania gailentzen zaio euskarari.

Hala ere, gauza bat argi genuen guztiek hasieratik: bertakoentzat egindako bertako proiektu bat izanda, derrigorrezkoa zela fakturak eta azalpenak euskaraz ematea. Horrek eskatzen zuen merkatu berezi honetarako sortu beharreko softwarean ere arreta jartzea, eta beste hizkuntzetara itzulua izateko prestatua egotea.

Artean, merkatu elektriko edota argindar fakturari buruzko hitzaldiak ez ziren ohikoak, are gutxiago euskaraz. Horrek ere eskatzen zuen aparteko ahalegin bat egitea terminologia euskaratzen.

Hitzaldiak eman behar ziren herria edo auzoa euskalduna bazen, posible zen heinean saiatzen ginen hizlaria euskalduna izan zedin. Gune erdaldunagoei dagokienez, pixkanaka euskara sartzan joan ginen; nahiz eta entzuleen artean ulertzen ez zutenak egon, beti defendatu dugu norberak hautatutako hizkuntzan aritzeko eskubidea izatea.

Gaur egun batzar, aurkezpen, hitzaldi eta jarduera publiko guztietan ahalegina egiten dugu testuinguru diglosikoan euskaren presentzia bermatzeko:

- Hizlaria bakarra bada, euskara eta gaztelania tartekatzen ditu.
- Hizlari bat baino gehiago direnean, euskara eta gaztelaniazko aurkezpenak tartekatzen dira.
- Hitzaldiaren ahozko edukia nagusiki bi hizkuntzetako batean eman behar bada, laguntzarako euskarrietan (aurkezpenak, diapositibak...) beste hizkuntza erabiltzen da.
- Galde-erantzunen tartean norbera eroso sentitzen den hizkuntza erabiltzera animatzen dugu.
- Baliabideak izanez gero, aldibereko itzulpen zerbitzua eskaini izan dugu, boluntarioek emandako xuxurlarien zerbitzu bidez batzuetan, eta zenbait ekitaldietan era profesionalago batean interpretazio zerbitzua kontratatuz.

Hizkuntza plana eta zenbait ondorio

Hizkuntza Plana martxan jartzeko aurreko saiakera baten ondoren, azkenean 2020 honetan ekin diogu seriotasunez gaiari. Goiener Taldea hazten ari zen, eta

bakoitzak “erosoen sentitzen zen hizkuntzan aritzeaz” haratago joan beharra genuela erabaki genuen, hizkuntza eskubideen inguruan erabakiak hartuz.

Hizkuntza Planak ekarri du datuen bilketa eta azterketa. Jarraian aurkezten ditugu azterketa horretatik ateratako zenbait ondorio gure erakundearen hizkuntza argazki bat egiten dutenak.

a) Bazkideek euskara ziurtatua

Bazkideek beraiekin komunikatzeko aukeratzen duten hizkuntzari begiratzen badiogu, % 53k euskara lehenesten du. Bulegoetan eman den arreta presentzialetan berriz % 51 euskaraz izan da.

Aipatu dugun bezala, bazkideei begira euskara hautua ziurtatua izan dugu hasieratik, arreta, fakturazio zein komunikazio mailan. Beharbada horrek ekarri du barnera begira erlaxatzea, eta boluntario eta langile mailako elkarlanerako hizkuntza gutxiago zaintzea, batik bat idatzizkoan edo proiektuak garatzeko garaian, ez horrenbeste langileen arteko tratuan.

Hemendik aurrera alor horretan euskararen erabilera indartu nahi dugu. Ez soilik bertako proiektua osatzen dugulako, baita hizkuntza eskubide gisa ulertzen dugulako, eta ziur garelako etorkizunera begira inbertsio bat dela: langileak ahaldunduz zerbitzu hobea eskaini ahalko dugu alor guztietan.

b) Boluntarioak eta itzulpenak

Goierer barruko lan egiteko modua ez da ohikoa, langileen betiko lan jardunaz gain badugu funtzionatzeko beste era bat. Proiektu kolektiboa osatzen dugunez, boluntario zein langileek elkarlanean egiten dugu lan, izaera oso ezberdineko esparruak lantzen dituzten hainbat lantalderen bidez.

Talde horietako bat da itzulpen taldea, 18 boluntario eta 6 langilez osatutakoa. Talde honetako kideek bermatzen dute edukiak bi hizkuntzetan eskuragarri izatea. 2020. urtean, iraila bitartean, Goierer Taldean gutxienez 65 dokumentu (60.000 hitz inguru) itzuli dira, eta horietatik % 10 baino ez da kanpoko zerbitzuen bidez itzuli. Gainerakoa, etxeko itzulpen taldearen lana izan da.

Datu hauen azterketatik bi irakurketa egiten ditugu:

- Ona: Langile eta boluntarioek sentitzen dute testu horiek euskaraz egoteko beharra, eta horrek adierazten du konpromisoa eta ahalegina.
- Bigarrena, eta ez horren ona: dokumentu kopuru hori euskaratu beharra izan badugu, gaztelaniarekiko dependentzia handi(egi)a dugulako izan da. Eduki asko sortzen dugu gaztelaniaz.

Egoera honetan, eta kontuan izanik Goienarren proiektuak biderkatzen ari direla, erronka handia dugu aurrean. Horregatik, hizkuntza plana izatea euskarri garrantzitsua izango da guretzat, bereziki hizkuntza irizpideen eta politiken definitzioari dagokionez.

c) Lan-eskaintzak eta langileak

Azken lan-eskaintzak aztertuz, konturatu gara curriculumak aurkezteko eska-riak euskaraz bete dituztela soilik eskatzaileen % 26k. Hala ere, lan-eskaintzako pro-filak begiraturaz gero, % 80k dio euskara menperatzen duela. Euskara jakitea hobesten den lanpostu batera aurkeztutako curriculumen gehiengo handia gaztelaniaz izatea oso esanguratsua da. Lan munduan gaztelania gailentzen dela erakusten digu, gure hizkuntza hautuak baldintzatuz. Euskara balio erantsi bat izan beharrean, zenbait gauzatarako oztopo gisa ikusten dugula diosku horrek, eta ulertuak ez izateko beldu-rraren aurrean gaztelaniara jotzen dugula lehenik, are gehiago lan-eskaintza bat dagoenean tartean.

Hizkuntza Planeko helburuak ezartzeko asmoarekin egindako diagnostikoan euskararen ezagutza ere neurtu genuen. Langileei dagokienez, gehienek menperatzen dute euskara, idatziz, irakurriz, entzunez zein ahoz. Datu errealak ezagutzeak balio izan digu barne erabileraren neurketari beste aldagai bat gehitzeko. Izan ere, modu esplizituan izan ez den arren, nolabaiteko akordioa izan da hasieratik langile bakoit-zaren hizkuntza hautua errespetatzea. Dena den, lanerako dinamika eramaten gaitu askotan. Bi faktore nagusik eragiten diote joera honi: batetik, euskara ulertzeko zailtasunak dituzten lankideak baditugulako gure artean; beste alde batetik, bereziki gai teknikoak diren horietan langileek jasotako formazioak gaztelaniaz izateak era-gin zuzena du, langileak euskaldunak izanik ere. Eta, azkenik, hizkuntza ohitura per-sonalak ere badira tartean, euskara jarioan ere eragiten dutenak.

Erronka franko ditugu, beraz, aurrean. Hizkuntza plana egin izanak, gainera, ispilua jarri digu parean, eta gure oinarriak praktikara eramateko ditugun zailtasunak azaleratu dizkigu. Dena den, Goienerren uste dugu kooperatibaren izaera kolektiboak eta bazkideen arteko elkarlanak erronka hauei aurre egiten lagunduko digutela. Horren froga da hizkuntza ohiturak aldatzeko lanketan langile zein boluntarioek erakusten duten prestutasuna. Ez soilik hizkuntza planaren lanketa egin denetik, lehendik ere hainbat langile beren kasa ari baitzen euskaltegietan.

Pauso sendoak ematen segitzea da gure helburua, ilusioz eta indarrez. Bertakoa eta bertakoentzat den proiektua euskaraz eraikitzen jarraituko dugu, eta ez soilik kanpora begira. Bazkide, boluntario eta langileon egunerokotasunean hizkuntza eskubideak bermatuta izatea da gure helburua, kontu txiki zein handietan hautu per-sonal eta kolektiboak errespetatuz.

SALTOKI HANDIETAN EUSKARAZ: EL CORTE INGLÉSEN ERRONKA

Iratxe Zuazola
Euskara Zerbitzuko arduraduna

Madriren, 40ko hamarkadan jaio zen konpainia da El Corte Inglés. Gaur egun hiru saltoki ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, hirurak ere oso desberdinak tamainari, sortutako garaia eta inguru soziolinguistikoari erreparatuta alderatzen badiugu. Handiena eta urte gehien dituen Bilbokoa da, 1969. urtean sortua; ertaina, Gasteizkoa, 1995ean ireki zen; eta txikiena eta gazteena, berriz, Eibarren dago eta 2009. urtean ireki zituen ateak. Guztira 1.500 langile propio inguru daude EAEn, eta horiez gain, hainbat marka zein firmatako langileak ere badaude.

Hasieratik egon da euskararen presentzia El Corte Inglések EAEn dituen saltokietan; lehen urteetan, oso modu xumean bazen ere, errotulazioa edota zenbait inprimaki euskaraz ere irakur zitezkeen.

2008ko uztailean, Eusko Jaurlaritzak 123/2008 Dekretua argitaratu zuen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza-eskubideei buruzkoa, non EAeko kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko urratsak egiten baitziren, ahozko zein idatzizko harremanetan. El Corte Inglés dekretu horrek ezarritakoaren eraginpean geratzen zen bete-betean, eta inolako zalantzarik egin gabe, Erakundeak argi ikusi zuen euskararen aldeko apustua handitzeko unea iritsia zela. Gauzak horrela, 2009an egoeraren diagnosis eta Euskara Planaren aurkezpena egin zen Bilboko Ulibarri Euskaltegiaren eskutik.

Sakonki aztertu zen orduko egoera errotulazioan, harreman idatzian, ahozko harremanetan eta enpresaren barneko zein kanpoko harremanetan, eta hortik abiatuta Euskara Planaren diseinua egin zen. Egitekoak ugari ziren, eta erronkak, handiak; beraz, helburuak zehaztu ziren epe labur zein ertainera, baita horiek gauzatzeko ekintzak ere. Abian jarri orduko, Euskara Plana El Corte Inglésen Helburu Estrategikoetako bat zen, bezeroa ez ezik bertako langileak ere aintzat hartzen zituen, betiere kontsumitzaileen eskubideak eta euskararen normalizazioa ardatz.

2009. urtearen bukaeran, Eibarko saltokia ireki zen. Bertan, euskararen presentzia sorreratik izan zen % 50ekoa, errotulazioan bereziki; eta horrek eragin handia izan zuen EAeko gainerako saltokietan, Eibarkoa hartu baitzen eredu ikuspegi kuantitatibotik ez ezik, hizkuntzaren ikuspegitik ere. Terminologiari eta estiloari dagokionez, irizpide zehatzak, landuak eta bateratuak ezartzeko bideari ekin genion, ziur baikeunden erabat beharrezkoak zirela orduan eta bereziki etorkizunari begira.

Ildo horretatik, errotulazioa eguneratzen joan ginen poliki-poliki gure saltokietan; bereziki sailtan berritze-lanak edota berrantolaketak egiten zirenean abagunea baliatu egiten genuen irizpide horiek guztiak kontuan hartuta.

2016. urtean Eusko Jaurlaritzak lankidetzak hitzarmena sinatzeko proposamena luzatu zien esparru sozioekonomikoko eragile nagusiei Euskararen Normalizazioaren bidean aurre egiteko, finantza eta merkataritza arloetakoak tarteko zirela, besteak beste. Entitate sinatzaileek bezeroekiko harremanetan hizkuntza-eskubideak bermatzen ahalegintzeko konpromisoa hartzen zuten hitzarmen horren bidez, bai ahozko bai idatzizko harremanetan.

Gure erakundeak baiezkua eman eta sinatu egin zuen akordioa. Horren bultzadaz, eta konpromiso maila handitzen jarraitzeko helburuari eutsiz, Euskara Zerbitzua ezarri zuen El Corte Inglések erakunde barruan txertatuta. Euskara Plana Helburu Estrategikoetatik eguneroko ekintzetan eta prozesuetan uztartuta egotera pasatu zen. Horrenbestez, esan daiteke zeharkako izaera duela.

Eguneroko lana

Premiak, beharrak eta lehenetsiak identifikatzea da gure lan prozesuaren atal nagusietako bat, hortik abiatuta helburuak definitu ondoren, horiek erdiesteko estrategia diseinatu egiten dugu. Era askotako ekintzak dira beharrezkoak arlo guztietako helburuei erantzuna eman ahal izateko, betiere euskararen presentzia eta horren kalitatea bermatuta egon daitezten.

Esan beharra dago gure erakundearen egitura zentrala konplexua dela. Euskara Zerbitzutik egindako proposamenak zuzendaritza taldean aztertzen dira, eta, onespena lortutakoan, laguntzaileak edota aliatuak bilatzen ditugu enpresa barruan, horiekin batera baliabideak bilatu eta proposatutako hobekuntzak gauzatzeko bidean ipintzeko. Edonola ere, proposamenak eta egitekoak noranzko bietan egiten dira, alegia, zuzendaritzatik ere heltzen dira, elkarlana baita ezaugarri nagusietako bat.

Eguneroko lanak kudeaketan ez ezik, itzulpenetan ere oinarritzen dira, kontuan hartuta merkataritza arloko enpresa garena eta testu eta mezuen iraupena orokorrean denboran mugatua dela; oso egiteko dinamikoa da, egokitzapen eta eguneratze maila altua eskatzeaz gain, sail eta atal askoren inplikazioa ere ezinbesteko egiten duena, hala nola koordinazio maila altua.

Bezeroarekiko harremana izaki ardatzetako bat, gorago aipatu dugun bezala, hizkuntza-paisaian eta errotulazioan arreta berezia ipintzen da, hauek bai, iraupen luzeakoa baitira. Euskararen presentzia, beraz, bermatuta dagoela baieztatu dezakegu, errotulazioa osorik baitago euskaraz zein gaztelaniaz.

Saltokietara sartu orduko, gure bezeroek megafoniatik mezuak entzuten dituzte era askotako informazioarekin: ordutegiak, zerbitzuak, ekitaldi bereziak, eskaintzak... Horiek guztiak ere hizkuntza bietan entzuteko ahalegina egiten da, honek eskatzen dituen baliabideekin. Testu guztien itzulpena ez ezik, protokolo oso bat inplementatzen da prozesu honetarako, eta megafoniako mezuak grabatzeko esatari euskaldunak bilatzen dira zerbitzu zentraltan (Madril), horiek sistema orokorrean sartu eta EAEko egoitzek euren programazioan txertatzeko euskarazko bertsioak.

Bezeroarekiko komunikazioaren atal nagusienetako bat kanpaina zein sustapen berezietan buruzko informazioa daramaten euskarriak dira: fatxadetako olanak,

kartelak, etiketak, saltokiak girotzeko bestelako euskarriak, etab. Euskarazko bertsioa hasiera batean izaera orokorra zuten kanpainetan eta neurri handiko karteletan baino egiten ez bazen ere, poliki-poliki bestelako kanpaina zein formatuetara ere zabaltzen joan gara. Protokoloak ondo zehaztuta izatea eta aurreikuspena dira arlo honetan aurrera egin ahal izateko oinarri nagusiak, kontuan hartuta iraupen laburrekoak direla eta antolaketaren aldetik ahalegin handia eskatzen dutela.

Horien artean, aipamen berezia merezi dute beherapen kanpainek, euskarri eta baliabideen aldetik konplexuenak direlako. Bezeroei ematen zaizkien plastikozko poltsetan diseinu berezia daukagu EAEko dendetarako, euskaraz eta gaztelaniaz. Denda barruan ipintzen diren karteletarako formatu eta euskarri bereziak erabiltzen dira beherapen kanpainetan, eta horiek izateko protokoloa ere bereziki diseinatu da zerbitzu zentralean harreman zuzenean.

Publizitateari dagokionez ere, euskal eta euskarazko hedabideetan egiten da, hala nola kanpoko bideak baliatuz: metroa, tranbia, autobusak... Hauetan guztietan ere, euskararen presentzia % 50ean bermatzen saiatzen gara.

Ahalegin handienetako bat izan da publizitate idatzian eta bereziki katalogoetan lehenengo pausoak ematea lortzea. Arlo hau abian jartzea zailtasunez eta oztopoz beterik egonda, ikusgarritasun handia duen Supermerkatuko katalogoa aukeratu genuen, bi asterik behin argitaratzen dena (maiztasun handikoa, beraz). Euskal Autonomia Erkidegoan banatzen diren aleetan euskara txertatzea erabaki eta tirada berezi horretarako (bertsio elebiduna) protokoloa ezarri zen Madrileko zerbitzuekin, bai enpresa barrukoekin, bai zerbitzua ematen duen inprimategiarekin ere (oinarrizko testuen lagina sortu zen haiekin elkarlanean, lanak errazte eta arintze aldera). Hasieran, euskararen presentzia ehuneko txiki batean bermatu zitekeen, baina gaur egun gero eta testu gehiago ikus daiteke euskaraz.

Halaber, jateixe zein kafetegietako kartak, menuak, mahai-zapiak eta beste hainbat euskarri idatzi ere hizkuntza bietan daude eskuragarri; batzuetan bertsio elebidunekin, eta kartaren kasuan, berriz, ale berezietan argitaratzen dira euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak.

Arlo idatzian, azkenik, bezeroari zuzendutako bestelako mezu idatzietan ere euskara eta gaztelania maila berean erabiltzeko konpromisoa dugu. Txanda hartzeko seinaleak, itzaroteko guneak, jakinarazpenak, eta, nola ez, ezin aipatu gabe utzi, pandemiaren ondorioz hartu behar izan diren neurri gehigarrien edota murrizketa eta protokoloen berri ematen duten kartel eta oharretan.

Eremu digitalera pasatuta, pausoak ematen ditugu, baina konplexutasun handiko erronka da hau. El Corte Ingléseko webgune korporatiboak, erakundeari buruzko informazioa eta gainerakoak hartzen dituenak alegia, euskarazko bertsioa darama bere osotasunean, zerbitzu zentraletatik hala sortuta. Bestalde, salmenta eta bezeroari begirako webgunea ere badugu. Bertan tokian tokiko saltokiei buruzko informazioa daraman atalera sartuta, hizkuntza aukeratzeko gunean, euskararen aukera ere txertatuta dago (bezeroentzako informazio erabilgarriarekin, hala nola saltoki bakoitzeko antolamendua, zerbitzuak, ekitaldiak eta beste).

Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuetan eta Telefono bidezko arretan ere protokoloak ditugu ezarrita euskarazko arreta bermatuta egon dadin, bezeroak hala nahi izanez gero. Txanda eta ordutegi guztietan euskarazko arreta eman dezakeen norbait egotea dago aurreikusita.

Bezeroak ez ezik, gure langileak ere badira hartzaile guretzat. Euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza ere izatea dago gure helburuen artean. Euskara lan-tresna baliagarria da langileentzat zerbitzu-enpresa garen aldetik, eta eskura ipintzen diegu euskaraz trebatzeko aukera. Horrela, langileentzako trebakuntza taldeak ditugu gure saltokietan. Lantokian eta lanorduetan bertan jaso ditzakete euskara eskolak, hala nahi badute, betiere euren lan-esparrura bideratuta daudenak; esan bezala, lan egiteko tresnak ematea baita erakundearen helburua. Talde hauetatik kanpo euskara ikasi nahi duten langileentzat ere erraztasun ekonomikoak ematen ditu enpresak.

Bukatzeko, El Corte Inglések bere atxikimendua eman du euskararen sustapenaren eta normalizazioaren alde gizarteak zein erakunde publiko eta pribatuak abian jarritako hainbat eta hainbat ekintzatan: Korrika, Euskararen Txantxangorria, Euskaraldia... Azken hau da berriki burututakoa, eta, hemen, azpimarratu nahiko genuke, gure Erakundeak duen langile kopuru handia kontuan hartuta, egindako aparteko ahalegina: dela atxikimenduak bilatzen, dela antolaketa lanetan, dela ariguneak (barnekoak zein kanpokoak) pizteko adostasun bileretan, etab.

Etorkizuneko erronkak

Urteetako lanaren ondoren, ez dira gutxi etorkizunari begira dauzkagun erronkak; izan ere, zenbat eta gehiago aurreratu gure normalizazio-bidean, gero eta arlo gehiago ikusten ditugu jorratzeko, gure ikuspegia zabaltzen joan ahala. Gorago esan bezala, merkataritza arloko enpresa izaki, bezeroa eta bezeroen arreta da gure helburu nagusia, eta, ondorioz, zerbitzu-hizkuntzaren arloa da gure lan eta egitekoen ardatz nagusia.

Edonola ere, ezin dugu alde batera utzi laneko hizkuntzaren arloa, hemen baitugu gure erronka handienetako bat. Esan bezala, neurri xumean bada ere, enpresako langilea helburu duten ekintzak egiten ditugu duela urte batzuetatik. Haien hizkuntza premiak aintzat hartuta, euskarazko trebakuntza emateaz gain, bestelako lan-tresna batzuk erabiltzea dugu helburu gure baliabideei ahalik eta aprobetxamendu handiena ateratzeko. Horren ildotik, euskaraz egiteko gaitasuna duten pertsonen identifikazioa egiten dugu EAeko hiru saltokietan nolabaiteko maiztasunez, baina gure egoitzetako langile kopurua handia izaki, eta, plantillan gertatzen den aldaketa kopurua ere maila berekoa izaki (alta, baja edo lekualdaketen ondorioz), zaila izaten da horien jarraipen zehatza egitea. Hori dela eta, aurrerapausoak ematen jarraitzen dugu erregistro zehatz, eguneratu eta dinamikoa izateko aukera emango digun sistema bat inplementatzeko.

Tresna erabilgarria da hori; lanpostu estrategikoak hornitzeko ez ezik, euskal hiztunen arteko elkarreraginak indartzeko, eta, nolabait, ohitura berriak sustatzean, aurrera egiteko ere bai. Ez hori bakarrik, Euskaraldia bezalako ekimenei erantzun hobe eta bateratuagoa emateko ere baliagarria delakoan gaude.

Bezeroarekiko harreman idatzia da gure erronken artean handiena; alegia, bezeroak Erakundearekin duen harremana zein hizkuntzatan izatea nahi duen erregistratzea. Azken hau ezinbestekotzat jotzen dugu bere hizkuntza-eskubideak bermatu ahal izateko. Arlo honetan, lehendabiziko pausoak eman ditugu, eta lanean jarraitzen dugu zailtasun handiko helburua den arren.

Arlo digitalari dagokionez ere aurrera egiteko helburuarekin, salmentarako webgunean euskararen presentzia inplementatzeko gune berriak identifikatzen ari gara. Zailtasun handikoa da arlo hau, kontuan hartuta webgunea erakunde osorako dela. Aipatu beharra dago hemengo edukia etengabe berritzen ari dela eta une honetara arte euskaraz dauzkagun atalak mantendu ahal izateko eguneratze lanak egin behar izaten ditugula sarritan.

Espero genuena eta lortu duguna

Aurreko puntuetan azaldutakoarekin bat etorritz, gauza asko egin ditugu, baina ondo dakigu egiteko dexente ere badugula. Inolako zalantzarik gabe, El Corte Inglés euskararen normalizazioaren arloan duen lehentasuna betiere gehitzea da, euskara gehiago, ikusgarriago eta ohikoago izatea, alegia, gure saltokiak kokatuta dauden inguruko gizartearen egoera soziolinguistikoaren isla izatea.

Aktiboak eta proaktiboak izan nahi dugu euskararen normalizazioan, eta horretarako dauzkagun gaitasunez gain, berriak bilatzen ere badihardugu. Euskara bistaritzea lortu dugu gure erakundearen, ohiko bihurtu da eta bezeroa zein gizartea ohitzen doaz. Ondorioz, nahi duguna da, lehenengo begiradatik, bezeroak euskara hortxe dagoela ikustea eta entzutea, eta horrez gain, barneratzea El Corte Inglésen ere euskarak baduela bere tokia.

Gorago aipatu dugun moduan, euskara ikasteko edota euskararen trebatzeko ahalgina egiten ari diren langileak ditugu, eta horiei euskara erabiltzeko bideak errazteak oso balorazio positiboa izan du, bezeroarekiko harremana sendotzeko aukera eman dielako, besteak beste.

Bezeroaren hizkuntza-eskubideak errespetatu eta bermatu nahi ditugu idatziz zein ahoz, eta, erabiltzaile zein bezeroen balorazioa, oro har, positiboa izan den arren, haiek egindako ekarpen eta iradokizunak kontuan hartu ditugu, horiek baitira hobetzen jarraitzeko tresnarik erabilgarrienak. Gure egunerokotasunaren oinarrietako bat salmenta-prozesua eta zerbitzu-eskaintza da, eta harreman horretan erabiltzen den hizkuntza pertsonalizatzeko aukera ematen zaionean bezeroari, erakundearen eta bezeroaren arteko loturak indartu egiten dira, eta hori egiaztatu ahal dugun errealitatea da.

Halaber, gizartearen aitorpenaz gain, erakundeena ere jaso dugu. Hainbat foro, topaketa, mahai-inguru eta antzekoetan egoteko deia egin digute euskararen inguruan interesa duten bestelako erakunde eta enprekin batera esperientziak, iritziak, erronkak, zailtasunak eta egunerokoak partekatze ez ezik, azterketa egiteko ere. Ekimen horiek oso baliagarriak dira, beti lagungarri elkarreraginak sortzeko eta kezakak eta esperientziak partekatze. Hitz batean esanda, onenean eta txarrean bakarrik ez gaudela sentitzea.

Ikasi ere gauza asko ikasi ditugu, besteak beste euskara ezaugarri bereizlea dela, eta balio erantsia ematen diola edozein erakundek eskaintzen duen zerbitzuari; izan ere, tokian tokiko hizkuntza aintzat hartzeak balioa eransten du eta inguruko gizartera hurbildu egiten du, berarekin konektatzen du. Entitateak gizarteko beste atal, eragile eta erakunde batzuekin daude harremanetan, eta ehun sozial horretan integratu behar dute, jarduera arrakastatsua izango bada.

EUSKALTEL: EUSKARAREKIKO DUGUN KONPROMISOAK ENPRESA GISA IDENTIFIKATZEN GAITU

Eva Castro

Euskalteko Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren arduraduna

“Eskerririk asko Euskadirentzat komunikazio-operadore bat sortzea pentsatu zutenei, beren laguntzarekin asmo hori hezurmamitu zuten bazkideei, egunero amets hori gauzatzen duen lantaldeari... eta euskal herritar guztiei. Haiiek dira gure izatearen arrazoia”. Horixe dago idatzita Euskaltelen egoitzako sarreran dagoen harrizko monolitoan.

Asmo-adierazpen horrek gidatu du operadorearen 25 urteko ibilbidea: telekomunikazioak Euskaditik eta Euskadirako. Euskal gizartearekin batera hazi da Euskaltel, eta bere zerbitzu eta produktu teknologikoak eskaini dizkio gizarteari, unean-unean zituen telekomunikazio-beharrei erantzuteko. 1995eko uztailearen 3an eratu zen ofizialki eta, gaur egun ere, espiritu hori da konpainia gidatzen jarraitzen duen ibilbide-orria.

Euskal gizartearekin duen 25 urteotako konpromisoa eta erantzukizun sozialaren erakusgarri dira operadoreak urte hauetan hainbat arlotan egindako lankidetzak, babesletzak eta emandako laguntzak. Horri esker, herriari, pertsonari, elkartei, eta gizarte-, kultura- eta enpresa-erlako kolektiboari lotutako marka bat eraiki du, betiere euskara izanik bere bezeroekin komunikatzeko bidea. Lorpen handia da hemengo enpresa batek halako lidergo-maila eskuratu izana, are gehiago ekonomiako sektorerik lehiakorrenetako batean, eta nazioarteko operadore handienetakoak aurkari dituela.

Euskara: identitate-marka

Euskaltel sortu zen egunetik, bere politika korporatiboak funtsezko bi oinarri izan ditu: zerbitzuaren kalitate gorenaren aldeko apustua, batetik, eta errotzearen eta bezeroarekiko konpromisoaren aldeko kultura sustatzea, bestetik. Eta horrek guztiak izendatzaile komun bat du: euskara.

Konpainiaren sorreratik bertatik Euskaltelek enpresa barruan nahiz kanpoan euskara bultzatzeko konpromisoa hartu du, enpresak berak euskara identitate-marka gisa ulertzen baitu. Euskaltelek euskararen erabilera ez du betebehartzat jo, enpresa gisa identifikatzen duen konpromisotzat baizik. Horren erakusle da jaio eta lau urte beranduago, 1999an, enpresa barruan Euskararen Hizkuntza Kalitatearen Saila eratu zela, helburu bakarrekin: bezeroen aurrean, euskaldunen hizkuntza-beharrak

asetzeko arreta eskaintzea, sektorean geure burua bereiziz euskal operadore lider gisa, eta gizartearekiko konpromisoa betez.

Urte horietan, Euskararen Hizkuntza Kalitatearen Sailak ohartarazi zuen —enpresa barruan euskararen erabilera normalizatzeko bidean— telekomunikazioen sektorean hutsune nabaria zegoela euskarazko terminoei zegokienez. Adibidez, egun gure inguruan hain ohikoak ditugun “tarifa finko”, “mugikor”, “deskodetzaille” eta beste hainbat terminoren erabilera ez zen hain arrunta garai hartan. Horregatik, Euskaltelek zerabilen hizkuntza-ereduaren kalitatea zaintzeko eta bermatzeko, konpainiak euskarazko terminologia bildu eta normalizatzeari ekin zion; ondorioz, sektoreko termino-banku oso bat bildu zuen eta telekomunikazio-hiztegia eratu zuen.

Euskararen Hizkuntzaren Kalitatea bermatzeko sailak beste arazo batekin egin zuen topo: telefono mugikorren fabrikatzaileek ez zituzten terminalen eskuliburuak euskarara itzultzen. Horrela, bada, telekomunikazio-sektorean euskara normalizatzeko bidean, Euskaltel eskuliburuak itzultzen hasi zen, eta horretan dihardu oraindik ere. Izan ere, telefono mugikorren erabiltzailearen eskuliburu euskaratzen duen operadore bakarra da, eta 500 modelo baino gehiagorena euskaratu du.

I. Irudia Eskuliburua



Euskara enpresaren jardunean txertatzea

Aurrekari horiekin, eta jakinik euskarazko zerbitzu egokia bermatzeko langile euskaldunak izatea ezinbestekoa dela eta, era berean, euskararekiko konpromisoak barrutik hasi behar duela, Euskaltelek euskara sustatzeko proiektu oso bati heldu zion 2002an, eta Euskaltelen Euskara Plana abiarazi zuen.

Euskara enpresaren jardunean txertatzeaz aparte, euskararen arloan barne-harremanak eta kanpo-harremanak uztartzea du helburu Euskaltelen Euskara Planak. Batetik, Euskalteleko langileen artean barne-erabilera indartzeko, eta, bestetik, kanpo-harremanetan nahiz bezeroekiko harremanetan solaskideen hizkuntza-aukera bermatzeko.

Helburu horiek lortzeko, langileen artean hainbat ekimen egin dira: euskararen erabilera normalizatzeko prestakuntza-programa, talde-dinamikak, bazkidetza-kanpainak, lehiaketak... Horiek guztiak oso esperientzia aberasgarria eskaintzen diete Euskaltel osatzen duten pertsoneri. Eta, gaur egun, apustu horri esker, langileen % 50 inguru euskalduna da, hau da, Euskalteleko 350 langileen ia erdiak euskarazko gaitasun osoa du. Helburua, beraz, argia da eta betetzen ari da: langileei erraztasunak

ematea euskara ikas dezaten, enpresan euskara erabil dezaten, bai barne-harremanean, bai bezeroekin.

Hala, 200 langile atxiki zaizkio Euskara Planari azken hamarkadan, eta euskara ikasi edo hobetu egin ahal izan dute, enpresak eskaintzen dizkien ikastaro, material eta ekimenei esker. Planak aukera ematen die ez bakarrik maila akademikoan euskara ikasteko, baizik eta, batez ere, egunero praktikan jartzeko, eta hori funtsezkoa da hizkuntza barneratzeko eta naturaltasunez erabiltzeko.

Azken finean, langileentzako Euskara Planari esker, Euskaltelek lan-ingurune euskalduna sustatzea lortu du urtean zehar antolatzen diren hainbat ekimenen bitartez, hala nola Berbalagun, ikusle- eta irakurle-klubak, bertso-tailerrak, euskararen erabilera eta gramatika lantzeko pilulak eta abar.

2. Irudia

Andoni Egañarekin batera langileentzako antolatutako bertso-tailerra



Zerbitzu % 100ean elebiduna

Euskalteleko langileen euskalduntzeak euskararekiko konpromisoa zabaltzen lagundu du. Konpromiso horren ondorioz, besteak beste, Euskaltelek bezeroari zerbitzu % 100 elebiduna ematen dio, euskara lehen aukera gisa lehenesten duena.

Hizkuntza-aukera bermatuta dago (EAEko hizkuntza ofizialetako zeinetan erantzutea nahi duten aukeratu dezakete bezeroek), eta horren adibide dira publizitate- eta marketin-kanpainak, Bezeroaren Gunera sartzeko euskarriak, telefono bidezko arreta-zerbitzuak eta dendetan euskaraz elkar ulertu ahal izatea. Baita sare sozialen bitartez bezeroei ematen zaien arretan eta kudeaketan ere, non konpainiak berak sortzen dituen argitalpenen % 40 euskaraz egiteko konpromisoa duen.

Telekomunikazio-operadoreak euskara hutsezko edukien aukera zabala ere bermatzen du, euskarazko kanal guztiak barne hartzen dituen eskaintzarekin. Euskaltel-entzat garrantzitsua denez bertakoari lekua egitea, EAEko tokiko telebista guztien

edukiak eskaintzen ditu, baita bakoitzaren eskualdetik kanpora ere; adibidez: ETBI, ETB3, Hamaika TB, Oizmendi TB, Goierri TB, 28 Kanala, Erlo TB eta Goiena TB.

3. Irudia

Euskaltelen euskararekiko sentiberatasuna adierazten duen kamiseta



Euskaltel, Euskaraldiarekin bat

Euskaltelek Euskaraldiarekin kolaboratzen du 2018an hasi zenetik. Euskal operadorearentzat, ekimen hori beste bide bat da Euskara Planaren bidez euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko egiten duen lanari jarraipena emateko, bai barnean, bai kanpoan.

Langileek ere beren esparru pribatura eraman dute konpromiso hori, eta parte hartzen dute Euskaraldian nahiz euskararen aldeko bestelako ekimenetan: egin diren Euskaraldiaren bi edizioetan, ehun bat langilek hartu dute parte.

Aurten, gainera, Euskaltelek Euskaraldiaren bigarren edizioa digitalizatzen lagundu du, mugikorretarako aplikazio berria garatzen lagundu baitu. Aplikazio horretan, parte-hartzaileek askotariko eduki digitalak eskuratu ditzakete, ekitaldian beren gain hartutako rolerako banaka prestatzeko. Horrez gain, Euskaraldiak iraun zuen hamabost egunetan, parte-hartzaileek motibazioa mantentzeko gomendioak eta eguneroko erronkak izan zituzten eskura aplikazioan.

Horrez gain, Euskaltelek aurten ere langileen parte-hartzea bultzatu du. Hain zuzen ere, helburu horrekin, eta ariketa taldeka egiteko bigarren edizio honetako proposamenari erantzuteko, Euskaltelek arigune batzuk identifikatu ditu, non konpainiako arlo guztietako langileek modu kolektiboan parte hartu duten, eguneroko lan-harremanetan “ahobizi” edo “belarriprest” rolean jardunez. Aldi berean, beste langile batzuek —Euskaltelen saltokietan arreta ematen duten pertsonak barne— banaka hartu dute parte, “Ahobizi” edo “Belarriprest” identifikazio-txapa erabiliz.

Euskaltel, gainera, egungo egoerara egokitu da, une honetan telelana egiten ari diren langile guztiek parte hartu ahal izan dezaten enpresaren lankidetzatresnen bitartez, eta barne-komunikaziorako kanalaren bidez jakinaraziko diren jardueraproposamenak eginez.

4. Irudia

Euskaratelek gogotsu parte hartu zuen Euskaraldian



ONDORIOAK

Euskararen biziberritze prozesuan, XXIV. Jagon Jardunaldian 2019an alor sozioekonomikoak gaur egun zer garrantzia duen azpimarratu izan zen (ikus Jagon 22 liburu honen lehen zatia). Prozesu horretan administrazioetan, enpresa pribatu zein publikoetan erronkak, zailtasunak edo esperientzia arrakastatsuak aztertu ziren. 2020ko XXV. Jagon Jardunaldi hau aurrekoaren luzapena bat dugu, gaur egungo Euskal Herriko errealitate eleaniztunean entitate pribatuek herritarrei, kontsumitzaileei, bezeroei edo erabiltzaileei zerbitzua euskaraz nola ematen dien aztertu baitu, estrategiak, zailtasunak, ahuleziak eta aurrerapenak eta lorpenak ere agerian emanez.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) hizkuntza-legeriaren esparrua badago: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (1979), Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea (1982), Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua (2003) eta azken honen ondorioa 2008ko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko Dekretua. Hizkuntza-eskubideak aitortzen eta bermatzen ditu legeria-esparru horrek, teoriarik bederen.

Halere, akta hauetan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren (HPS) Elebide zerbitzuak hauxe dio: “Gure hizkuntza-legeriak agintzen duenez, Euskadin ez genuke inolako diskriminaziorik izan beharko hizkuntza kontuengatik; baina bistakoa da gaur eta hemen euskal hiztuna dela aukeratutako hizkuntzan bizitzeko oraindik zailtasunak dituen”. HPSren helburu orokorra, bada, hauxe da: “euskararen eta gaztelaniaren arteko benetako berdintasuna eta bizikidetzatza” lortzea.

Horretarako, 2008ko Dekretua baliatuz, honen eraginpeko diren entitateei hizkuntza-eskubideak bermatzeko betebeharrak ezarri zaie, “era progresiboan eta malguan”, enpresa, establezimendu edo saltegien tipologia (adibidez euskararen ezagutza langileen artean) eta tokian tokiko errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuz. 2014an Dekretuaren betetze-maila handiena finantza-erakundeetan zen (% 50) edo Gipuzkoan elebidunak % 80tik gora ziren guneeetan. Txikiena, ordea, higiezin agentzietan zen (% 2). Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak (Lanhitz), eskubideak eta betebeharrak ezagutarazteko kanpainak eragina badute, itzultzaile automatikoa eskuragarria da, lankidetzatza-hitzarmenak izenpetzen dira, Elebide zerbitzuak hizkuntza-eskubideen inguruko kexak, iradokizunak eta kontsultak bideratzen ditu, Bikain ziurtagiria ematen da eta ziurtagiri hau eskuratu duten entitate

publikoek edo pribatuek legeak ezarri dizkien hizkuntza-betebeharrak bermatu behar dituzte.

Baina, ikusten den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dauden hizkuntza-legeriak, tresna eta laguntza ezberdin horiek beren mugak erakusten dituzte; indartzeko eta hobetzeko dira, nahiz denbora gutian urrats anitz egin den.

Entitate pribatuen esperientzien ekarpena oso interesgarria izan da.

Kutxabankek finantza entitate aurreratu baten ibilbidea erakutsi digu. Enpresan Hego Euskal Herrian 2.715 lankideetarik % 70,53 euskaldunak dira; Nafarroan % 28, Araban % 40, Bizkaian % 66 eta Gipuzkoan % 94, beraz gizartean bertan baino gehiago. Langileen artean, bulego-sarean dago elebidunen ehuneko handiena eta zerbitzu zentraletan ttipiena. Jendaurreko lanpostuetarako, lankide berrien euskararen ezagutza nahitaezkoa da. Hauxe da baldintza biziki lagungarria euskararen ezagutza enpresan hedatzeko, bezeroen eskubideak bermatzeko. Eta orain kontratazio berrien % 80 elebidunak dira. Bistan da, hemen ere, ezagutzaren eta erabileraren arteko desoreka dago. Baina Kutxabankek dituen erronkak eta egiteko diren hurrengo urratsak argi ditu.

Goienar argindar merkaturatzailea ez da batere mota berdineko enpresa, berria da (2012) eta langile gutikoa, Hego Euskal Herri osoan ari dena eta leku guztietan politika bera daramana. Baina hor ere, hizkuntza-eskubideak bermatzeko nahian, bazkideei zein langileei euskaraz aritzeko aukera eman nahi diete. Enpresa horrek ere hizkuntza plana badu. Telefonoz edo aurrez aurreko harremanetan lehen hitza beti euskaraz egiten dute. Baina langileek formazio profesionala gaztelaniaz ukaiteak bi hizkuntzen arteko desorekan eragina du, langileak euskaldunak baldin badira ere. Halaber zailtasunak eta erronkak zehaztu dituzte eta aintzina urrats berriak egiten segitzea dute helburu.

Euskaltel telekomunikazio-operadoreak zerbitzuaren kalitate gorena du xede, eta euskara bere identitate-marka du. Euskararen Hizkuntza Kalitatearen Saila sortu ondoan (1999), euskarazko terminologia sakonki landu du, telekomunikazioen termino-bankua eta hiztegia osatuz, 500 bat mugikorren erabiltzaile-eskuliburua euskaratuz, etab. Beste enpresek bezala, Euskara Plana ere badu. 350 langileen erdiek euskara ongi menperatzen dute. Bezeroei zerbitzu % 100ean elebiduna eskaintzen die, euskara lehen aukeran emanez. Baina argia da oraino anitz egiteko duela.

Azken enpresak, El Corte Inglés konpainiak, hainbat saltoki du Espainiako estatuan barna, tartean Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan. EAEn hiru ditu I.500 langile ingururekin. Eusko Jaurlaritzaren 2008ko Dekretuak konpainiaren euskararen aldeko politika bultzatu zuen EAEn. 2009an Euskara Plana aurkeztu zuen El Corte Inglés eta 2016an Eusko Jaurlaritzak proposatu zuen lankidetzaren hitzarmena izenpetu zuen Euskara Zerbitzua sortuz. Halere, Iratxe Zuazolak akta hauetan dioen bezala: “Ez dira gutxi etorkizunari begira dauzkagun erronkak; izan ere, zenbat eta gehiago aurreratu gure normalakuntza-bidean, gero eta arlo gehiago ikusten ditugu jorratzeko”. Era berean, aipamen horrek laburbiltzen du euskararen aldeko ekimenetan engaiatu diren enpresa aitzinatuenen egoera. Anitz egin da, baina badago egiteko gehiago hizkuntzen arteko berdintasunean, produktua edo zerbitzua beti eta osoki euskaraz eskaintzeko.

Oro har, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren helburua alor sozioekonomikoan, euskaraz ere kalitatezko zerbitzua eskaintzea eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea da. Ber ildoan, beren esperientziak aurkeztu dituzten enpresak

desafio honetan engaiatu dira eta botere publikoekin batera lan egiten dute, euskarren aldeko lanaren kalitatea segurtatuz edo hobetuz, bezeroen edo erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatuz.

Dena den, aurrera begira, azterketa, baliabide eta neurri berriak bekarrezkoak dira politika honen mugak gainditzeko. Euskal Herriko panorama osoa emateko, Nafarroan eta are gehiago Ipar Euskal Herrian egiten diren hizkuntza-politikak ahu-lagoak direla azpimarratu behar da, nahiz botere publikoen mailan, nahiz enpresa eta erakunde pribatuetan.

Sagrario Aleman

Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko burua

Jean-Baptiste Coyos

Euskaltzaindiko Jagon sailburua

